

Honore Balzac

Goriot Zaharra

euskaratzailea: Pedro Diez de Ulzurrun

AITZIN-SOLASA

Honoré de Balzac frantses idazlea Toursen jaio zen 1799.ean eta Parisen zendu 1850.ean. Familiari jarraiki hamalau urterekin Pariserat joan zen, non abokatu batekin eta notario batekin aritu baitzen lanean, aitzak notario izan zedila nahi zuelakotz. Hogei urte zituela familiarekin ados jarririk, bi urteko epea hartu zuen bere idazle bokazioaren frogatzeko. Hastapenean ez zuen arrakastarik erdietsi. Alabaina, 1822an Berny-ko anderearekin harremanetan jarririk, honek aristokraziaren mundua ezagutarazi zion eta diru laguntza eskaini. Zenbait lan eta aferatan arizan eta amodio ugari ukan ondoan, literaturari lotu zen buru-belarri. 1829an haren izenez sinatu lehen obrak eman zituzten argitara, zeinek izen handia eman baitzioten: *La physiologie du mariage* entseiuak eta *Le Dernier Chouan* eleberria. Eleberriak etengabe idazten zituen: *La peau de chagrin* (1831), *Le curé de Tours* (1832), *Eugenie Grandet* (1833).

Le Père Goriot eleberrian berrikuntza bat sartu zuen gerora fama eta arrakasta handia ekarriko ziona, hau da, eleberri bateko pertsonaiak bertze eleberrietan ere behin eta berriz agerraraztekoa; horrela jokatzuz gizarte eta mundu bat osorik sortu zituen.

Denetara laurogeita hamabortz eleberri idatzi zituen, *La Comédie Humaine* titulupean bilduak. Horrez gainera, hogeita hamar ipuin (*Les Contes drolatiques*) eta bortz teatrolan izkiriatu zituen. Azpimarratzekoak dira berebat haren gutunak, bereziki Eveline Hanskarekin, 1850ean bere emazte bihurtuko zuenarekin, izan zuen gutun truke luze bezain interesgarria, «Lur» euskal entziklopediak dioen legez.

Derragun, hortaz, Balzac egungo eguneko eleberriaren aitzindari dela eta XIX. mende osoan izan zela nagusi. Lehen saioa da, era berean, literaturak egina gaur eguneko bizitzaren heinean jartzekoa. Zentzu honetan haren pertsonaiak, haren deskribapenak, kontatzen duena, garaiaren isla dira. Balzacen mundua gizakiari eta gizarte modernoari erasaten dioten

paradoxa eta kontraerrian irudi argia da, antzinako egiturak krak eginik zeuden garai batean.

Le Père Goriot itzuliz, erran behar dugu euskaraz *Goriot zaharra* eman dugula ustez-eta hauxe dela *Père* frantses hitzaren erranahia hobekienik adierazten duen euskal ordaina, hots, gizonezko heldu eta hein apaleko bat edo eta etorkortasunez begiratzen dioguna.

Gauzak horrela, *Goriot Zaharra* da, dudarik gabe, Balzacen irakurri beharreko lehen obra Felicien Marceau frantses akademikoaren aburuz: Ez daitezela hargatik kezka Balzac bertze nonbaitetik irakurtzen hasi direnak; Balzacekin beti egiten dugu topo. *Le Père Goriot*ekin, hasi bezain laster, Balzacen unibertsoaren bihotzaren erdian gertatuko gara, buruz buru eginik haren pertsonaia funtsezko eta nagusiekin, haren hitzgaiekin, haren arregura eta begiko fitsekin, haren ibilgoarekin. *Goriot* eleberria guztiz desberdina dugu *Eugénie Grandet*ekin konparaturik; hau eleberri hertsia da, itogarria eta abantzu dena etxe bakar baten barruan agitzen dena. *Goriot* aldiz irekia da, bidegurutze antzekoa, non orotarik bertze bide batzuk zabaltzen baitira.

Bide hauta, beraz, Balzacen lan eta munduan sartzeko. Bertzalde, hastapenetik beretik, argiro ageri zaigu hemen zer moldez erabiliko duen Balzacek lehen aipatu dugun pertsonaien itzule-ra hori. Izanez ere, Balzacek kokatu dituen ingurumarietan, jendarte berean, sasoi berean, ezinbertzekoa da haiekin berriz topo egitea. Balzacen xedea erakusten digu horrek, ez dena irakurtzaileari eleberri-sail huts bat ematea, baina lehenik eta behin bere mundu-ikuskerara ematea, alegia mundu horren sortzea, edo eta birsortzea.

Pertsonaietatik gaietararat iraganez geroz, bidegurutze bera, bilduma bera aurkituko dugu. Botere, gizarte, diru, gora-heldu nahia, *La Comédie Humaine*ko ardatz nagusi berberekin eginen dugu topo.

Azpimarratu beharrekoak ditugu, errealitate beraren bi aurpegi izaki, Vauquer anderearen pentsio hitsa eta Beauséanteko anderearen saloi ederra, *Le Père Goriot*eko pertsonaia nagusiek beren grina gaiztoak, beren amodio, gorroto, miseria eta handitasunak erakutsiko dizkiguten bi jokaleku nagusiak.

Goriot Zaharra eleberrian Pariseko, eta beraz mundu guztiko on-gaitzak ageri zaizkigu inolako estalgarririk gabe, mundua bera bere gordinean errejimen zaharraren eta kapitalismo berriaren arteko demaren erdian: *Le père Goriot* edo aita-tasuna grina gisa adierazia; Eugène de Rastignac edo mutil gazte hiri handirat heldu berriaren handinahia; Vautrin edo gizartearekiko etsaigo ageria eta haren etengabe zirikatu eta astindu beharra, uzkaile eta iraultzeraino iritsi gabe, hargatik; alabak (Delphine de Nucingen eta Anastasie de Restaud) edo hutsalkeria eta ezkon-bizitzaren miseriak eta adulterio etengabeak. Hauek eta bertze hamaika (Beauséanteko bizkondesa, Victorine Taillefer, andere Vauquer, Poiret, andere Couture, andereño Michonneau eta) dira Gorioten zorigaitzak kontaktzen dizkigun eleberri kontaera aldetik eder, baina kontagaiaz denaz bezainbatean latz honetan, egungo gure munduaren beraren adierazgarri, topatuko ditugun pertsonaia nagusiak.

Aitzin-solas hau bukatu aitzin, bi hitz esker oneko liburu honen itzultzen lagundu nautenei. Ezagutza berezi bat Jose Antonio Sarasola lanki-

deari nik egin itzulpenari egindako zuzenketa
baliosengatik.

GEOFFROY SAINT-HILAIRE HANDI ETA ARGIARI
Haren lanen eta jeinuaren
mirespenezko lekukotasunez

I **PENTSIO BURGES BAT**

Andere Vauquer, sortzez de Conflans, andere zahar bat da, azkeneko berrogei urtean pentsio burges bat daukana Parisen Sainte-Geneviève berria karrikan, auzo latinoaren eta Saint-Marceau faubourg-aren artean. Pentsio horrek, Maison-Vauquer izenarekin ezagutuak, orobat hartzen ditu gizonezkoak nola emakumeak, gazteak nola zaharrak, gaizki-erranak hargatik sekula ez dielarik etxe errespetagarri honetako ohiturei erasan. Baina halaber azkeneko hogeita hamar urtean ere ez zen han neska gazterik ikusi, eta mutil gazteren bat hemen bizi izan dadin, familiak oso biziari urria behar dio eman. Hala ere, 1819an, drama hau hasten den garaian, neskatik

la gaixo bat bizi zen pentsio honetan. Zein ere baita drama hitzak bildu duen aipu txarra literatura mingarriko denbora hauetan hain molde neurrigabe eta makurrean ugaritu izanaren ondorioz, beharrezkoa da hemen erabiltzea: ez istorio hau dramatikoa delakotz hitzaren egiazko erranahian; baizik eta obra bururaturik, menturaz negar batzuk isuri izanen direlakotz *intra muros* eta *extra*. Konprenituko ote dute Parisetik landarat? Zalantza haizu da. Tokiko oharpen eta koloreez josi ikuskizun honen berezitasunak Montmartre-ko muinoen eta Montrouge-ko gainen artean baizik ez daitezke hautemanak izan, beti ere erortzear diren txintxor eta lohiez belztu errekekiko ibar aipatu horretan; ibar bat sufrikario egiazkoez, alegantzia askotan faltsuez, betea, eta hain izigarri inarrosia, non zerbait zinez neurritz kanpoko behar baita apur bat iraunen duen sentrazioren bat bertan sorrarazteko. Bizkitartean han-hemenka kausitzen dira bizio eta bertute pilatuek handi eta itzaltsu bihurtzen dituzten oinazeak: horien ikustearekin, bekaizgoak, interesak, baratzen dira eta urrikaltzen; baina hartaz hartzen duten bihotz-mugida

zaust irentsi fruitu gozoa bezalakoa da. Zibiliza-
zioaren orgak, Jaggernat-eko idoloarena irudia
denak, bertzeak baino puskatzen zailagoko eta
gurpila trabatzen dion bihotz batek apenas gibe-
larazirik, berehala hausten du bihotz-mugida
hori eta aitzinerat doa bere bide loriosean. Hala
eginen duzue zuek, liburu hau esku zuri batez
hartzen duzuen horiek, besaulki guri batean
jesartzen zareten horiek, diozuela zeuen baitan:
Badaiteke honek dibertituko nauen. Goriot zaha-
rrenaren zorigaitz sekretuak irakurri ondoan, gogo-
tik afalduko duzue zuen soraiozeria autorearen
bizkar ematen duzuela, gehiegikeria leporatzen
dionzuela, poesia egozten diozuela. Ai! Jakin eza-
zue: drama hau ez da ez alegia, ez eleberri. *All is
true*, hain da egiazkoa, non haren osagarriak
bakoitzak beregan ezagun baititzake; bere biho-
tzean, agian.

Pentsio burgestzat baliatzen den etxea ande-
re Vauquerena da. Sainte-Geneviève berria
karrikaren behealdean kokaturik dago, lurra l'Ar-
balèt-eko karrikarat jaisten den tokian; hain
aldapa piko eta gogorrean jaisten ere non zal-
diak gutitan igan edo jaisten baitira handik. Zir-

kunstantzia hori lagungarri da Val-de-Grâce-ko eta Panthéon-eko kupulen artean hertsatu karrikotan nagusi den isiltasunarentzat; han, printza horiak jaurtikiz eta dena goibelduz, beren kupulek egozten dituzten errainu goibelez eguratsa aldarazten duten bi monumentu horien artean. Hemen, lauzatuak lehor daude, errekek ez ur ez lohi ageri dira, belarra hormetan barna hazten da. Gizonik axolagabeena ere tristatzen da ibiltari guztiak bezala, kotxe baten soinua aparteko gertakari bilakatzen da, etxeak hitsak dira, harresiek presondegiaren urrina dute. Galdurikako paristar batek ez lezake han bertzerik ikus pentsio burgesak zein instituzioak, miseria zein asperra, zaharrak hilzorian, lan egitera behartu gazte alegerak baino. Ez du Parisek bertze auzorik, ez ikaragarriagorik, ez, derradan, ezezagunagorik. Sainte-Geneviève berria karrika brontzeko marko bat bezalakoa da oroz gain, kondaira honi doakion bakarra, zeinarentzat ez baikenezake geure gogoia sobera presta hura zernahi kolore Auriez, zernahi ideia larriz jantzirik ere; hala nola, mailarik maila, eguargia gordetzen den eta gidariaren kantua apaltzen, ibiltaria

Karakunbetarat jaisten den bitartean. Konparazioaren egia! Nork erabakiko ote du zer den ikusten izigarriagoa: bihotz eihartuak ala buru-hezur hustuak?

Pentsioaren fatxadak jardin tiki baterat ematen du etxeak angelu zuzena egiten duelarik Sainte-Geneviève berria karrikarekin, non bere sakontasunean ebakia ikusten duzuen. Fatxada horretan barna, etxearen eta jardin tikiaren artean, erreten itxurako galtzada bat nagusitzen da, oinbete zabal, zeinaren aitzinean hareazko ibiltoki bat baitago hegietan mokobelarrak, ereinotz-arrosak eta granada-ondoak dituen toska urdin eta zurizko lorontzi handietan landatuak. Ibiltoki horrek isil-ate bat du sarreratzat, gainean hitzok izkiriatuak dituen: MAISON-VAUQUER, eta azpian; «BI SEXUENTZAKO PENTSIO BURGESA ETA BERTZE». Egunez, atesare batek, txin txarri oihulari eta guzti, arku bat uzten du ikustera lauzatu tikiaren buruan, karrikaren parez-pareko horman, auzoko artista batek marmol berdea bailitzan pintaturik. Alegiazko arku horren pean, Amodioaren harrizko irudi bat altxatzen da. Estaltzen duen berniz zartakatu

ikusiz, sinbolozaleek menturaz Pariseko amodio-aren mito bat edirenen lukete han, bere gaitzak handik urrats batzuetarat sendatzen dituenak. Zimendarriaren pean, hizpuru erdi-ezabatu batek apaingarri hau ezarri zuteneko denbora oroitarazten du, Voltaireren alderat erakusten duen gartsutasunagatik, 1777an hura Pariserat itzuli zenean:

*«Nor ere baitzara, honatx zeure maisua:
Bada, izan zen, edo behar du izan.»*

Ilunabarrean, ate trinko batek hartzen du atesarearen lekua. Jardin tikia, fatxada luze bezain zabal dena, karrikako hormak eta alboko etxearen artekoak hertsatua kausitzen da; ondoko etxe horretan huntzezko mantu bat zintzilikatzen da, etxea osotara estaltzen duena eta ibiltarien behakoa erakartzen duena Parisen bitxi gertatzen den efektu batengatik. Horma horiek guztiak landare-sare eta mahats-aihenek jantziak dira, zeinen zitu erkin eta hautsez beteak andere Vauqueren une oroko izien sorburu eta bere apopiloekin darabiltzan solasaldien hizpide

izaten baitira. Harresi bakoitzean barna ibiltoki mehar bat iragaten da, ezki-gerizpe baterat daramana. Andere Vauquerek, ezkondu aitzin de Conflans izan zen arren eta apopiloen ohar gramatikalak gorabehera, hitz hori hisiz gaizki ahoskatzen du beti. Alboko ibiltoki bien artean orburu-sail bat dago, hegietan fruitu-arbola ardatz gisara inausiak dituen, eta lekabelarrez, letxugaz edo eta perrezilez hertsia. Ezkien gerizpean mahai biribil bat ezarria da berdez pintatua eta kadiraz inguratua. Udamineko egunetan, kale edateko bezain aberatsak diren apopiloak honat etortzen dira edari horren dastatzera arrautzen txitatzeko gisako beroaz. Fatxada, hirur solairuko eta gainaldean mantsardak dituen, harri-koskoez eraikia da eta Pariseko etxe gutiz-gehienei karantza doilorra ematen dien hori koloreaz entokatua. Solairu bakoitzeko bortz leihoek beira tikiak dituzte eta leihosareez hornituak dira. Leihosare horiek, bakoitza bere gisara moldatua, lerro guztiak anabasa ederrean erakusten dituzte. Etxearen behealdeak bi leiho ditu, behebarnean apaingarri gisa burdin saredunez hornituak. Eraikinaren gibelean hogeit hamar inguru-

ko korta bat dago, txerriak, oiloak eta untxiak armonia onean bizi direna, eta hondarrean egur ebakitzeko estalpe bat duena. Estalpe horren eta sukaldeko leihoaren artean hoztegia dago esekirik, eta haren azpirat harraskako ut zikinak isurtzen dira. Gorte horrek ate mehar bat du Sainte-Geneviève berria karrikarat ematen duena, eta kuzinersak handik botatzen ditu etxe-ko zaborrak sastegia ut ugarirekin garbituz kiratsaren zigorraren pean.

Berez pentsio burgesaren ustiatzeko baliatua, beheko solairuak badu lehenbizi gela bat, karrikarat ematen duten bi leihoek argitua eta beirazko atea duena. Saloi horrek jangela baterat darama zeina eskailera baten hutsarteak banantzen baitu sukaldetik, zurezko eta lauzazko maila pintatu eta torratuekiko eskailera baten hutsarteak, hain zuzen. Nekez aurkituko da saloi hori, bere besaulki eta kadirak arrasto aldiz ilun aldiz distiranteko ehunez estaliak dituena, baino ikuskizun tristeagorik. Erdian mahai biribil bat kausitzen da Sainte-Anne marmolezko gaina duena, apaingarritzat urre-hari erdi-ezabatuekiko portzelana zuriko azpila duena, egun nonahi

aurkitzen diren horietakoa. Gela horrek, franko oholtza kaskarra duenak, horma barrenak oho-leztatuak dauzka gerri pareraino-edo. Hortik gorakoa papera da eta hantxe erakusten dira *Telemaque*-ko gertakizun nagusiak, pertsonaia klasiko guztiak koloretan ageri direla. Leiho sare-dunen arteko zatiak Kalypsok Ulysseren semeari emanikako oturuntzaren irudia eskaintzen die apopiloiei. Berrogei urte badira pintura horrek apopilo gazteen arraileriak pizten dituela, zeinek beren mailakoak baino goragokoak izan uste baitute miseriak eskaintzen dien jatekoaz trufatzen direlarik. Harrizko tximiniak, beti garbirik dagoen supazterra sua parada handietan baizik pizten ez den seinale dela, lore artifizial eta zimelduez bete ontzi bi, kriseilu banatan sartuak, ditu apaingarri gusturik txarreneko marmol urdinxkaz eginiko erloju baten ondoan. Lehenbiziko gela horri urrin bat ezin-erranezkoa eta *pentsio-urrina* deitu behar genukeena dario. Zokoaren, lizunaren, zahartuaren urrina da; hotz ematen du, hezea da sudurrarentzat, jantzien barnerat sartzen da; jendeak jan duen gelaren gustua du; sehigoaren, janaritegiaren, lander-etxearen

kiratsa da. Adieraz liteke, beharbada, baldin eta prozeduraren bat asma baledi apopilo bakoitzaren, gazte ala zaharraren, atmosfera kataral eta *sui-generis* horiek botatzen dituzten elementu higuingarrien neurtzeko. Bada, izigarrikeria mengel horiek gorabehera, ondoan dagoen jangelari konparatuz geroz, saloi hori apaingela bat bezain dotore eta usain-gozoduna irudituko litzaizueke. Jangela hori, osoki zureztatua, egun antzik eman ezin zaion kolore batez egon zen behiala pintaturik. Orain azpi bat osatzen du zeinetan koipeak, irudi harrigarriak marraztuz, bere azalak inprimatu baititu. Paretetako arasa zoldazuen gainean denetarik ageri da: pitxer koskatuak, histuak, metalezko ertzak dituztenak, porzelana arruntezko plater pilak, ertz urdindunak, Tournai-n eginak. Zoko batean lauki zenbatuekiko kaxa bat kokaturik dago apopilo bakoitzaren dafailen, koipez zein arnoz zikinduen, gordetze-ko. Altzari apurtezin horietakoak aurkitzen dira, orotatik haizatuak izanagatik hemen emanak direnak zibilizazioaren hondakinak *Incurables*-etan bezala. Barometro bat ikusiko duzue, euria ari duelarik jalgitzen den kaputxin eta guzti; jate-

ko gogoak kentzen duten grabatu ahalkegarriak, denak zur bernizatuzko marko urre-haridunetan; kareizko erloju bat kobrezko inkrustazioekin; berdez pintatu sutontzi bat; Argand-eko kriseiluak non hautsak olioak baitu lagun; mahai luze bat hulezko estalki bat hain zikina duena non kanpoko apopilo trufariren batek bere izena izkiriak bailezake eria lumatzat erabiliz; kadirak andeatuak; lastai tiki urrikalgarriak, osoki desgiteke etengabe lisatzen den espartzuaz eginak; ondoan zango-berotzeko miserableak, matxarroa hautsia eta zura errea dutenak. Adierazi nahi izanez geroz altzari horiek zeinen diren zaharrak, pitzatuak, ustelduak, dardaratsuak, pipiak joak, mainguak, okerrak, herbailak, hilurranak, esplikazio bat behar genuke eman kondaira honen interesa gehiegi luzatu eta jende presatuek barkatuko ez luketena. Lauzatu gorria igurzketak eta garbiketarak eginikako sakanez jositik dago. Hots, poesiari gabeko miseria da hemen jauna eta jabea; miseria xuhurra, bildua, higatua. Oraindik lokatzik ez badu, baditu putzuak; zulorik eta pildarik ez badu, ustelak janen du.

Gela hori goizeko zazpiak alderat ageri da bere distira osoaz, andere Vauqueren katua, etxekanderearen aitzinean sarturik, arasen gainean jauzi egin, plateraz estali katiluetako esnea usnatu, eta goiz oroko bere *murruskada* entzunarazten duenean. Alarguntsa berehala agertzen da, buruan tulezko boneta darabilela zeinaren azpian ileorde-motots gaizki ezarri bat zintzilikatzen baita; pantufla aloz zatardunak herrestan dator. Aurpegi higatu eta potzoloa, erdian papagaitxoaren mokoaren irudiko sudurra jalgitzen zaiona; esku tiki lodiak, elizako arratoiaren antzeko itxura biribila, atorra hantua eta igerian dabilena, armonian dira zorigaitza darion, espekulazioa zelatan dagoen eta andere Vauquerek bere hartako kirats beroa higuinik gabe arnasten duen sala horrekin. Udazkeneko lehen izotzaren irudiko aurpegi freskoak, betondo zimurtuek, zeinen adierazpena dantzarisen irriño behartutik lukurrariaren beltzuri garratzerat iragaten baita, hots, haren itxura guztiak esplikatzeko duen pentsioa, pentsioak hura inplikatzeko duen bezala. Espetxea ez dabil kartzela-maizterrik gabe, zuek ez zenukete bata bertzea gabe irudikatuko.

Andere tiki honen loditasun apatza bizitza honen emaitza da, nola tifusa ospitale baten isurien ondorioa. Haren artilezko gonazpikoak, soineko zahar batez eginiko gonaren azpitik jalgi eta forrua ehun zirpilduaren zuloetatik ihesi doakionak, laburbiltzen du saloia, jangela, jardin tikia, gaztigatzen sukaldea eta barrundatzen apopiloak. Hura han dela, ikuskizun hori betea da. Berrogeita hamar bat urte dituela, andere Vauquerek *zorigaitzak jasan dituzten emakume guztien eitea du*. Begia lausoa du, eraman-ekarri baten itxura errugabea, garestiago kobratzeko haserretzen badakien, baina bertzalde bere zoriaren eztitzeko edozer egiteko prest denarena; baita Georges zein Pichegruren saltzeko ere, Georges zein Pichegru oraindik entregatu gabe baldin baleude. Hala ere, *emakume ona da barnean diote apopiloek*, haren auhen eta eztulak entzutean berak bezala ondasunik gabea delakoan. Nor izan zen Vauquer jauna? Sekula ez zen bere senar zenaz mintzatzen. Nola galdu zituen ondasunak? «Ezbeharretan», erantzuten zuen. Senarra gaizki jokatu omen zen harekin, eta ez omen zion deus utzi ezpada negar egiteko

begiak, bizitzeko etxe hau eta ezein nahigaberekin ez urrikaltzeko eskubidea, zeren, erraten zuen, paira ahal daitekeen guztia pairaturik baitzegoen. Etxekandeararen urrats labur-bizkoren entzutearekin Sylvie Iodia, kuzinera, lehiaz hasten zen barne-apopiloiei gosariak zerbitzatzzen.

Kanpoko apopiloak, eskuarki, afaritako baizik ez ziren abonatzen, eta horrek hilabeteko hogeita hamar libera egiten zuen. Kondaira hau hasten den garaian, barnekoak zazpi ziren. Lehen solairuan etxeko apartamenturik hoberenak zeuden. Andere Vauquer arruntenean bizi zen, eta bertzea andere Couturerena zen, Frantziako Errepublikako Komisario-Manatzaile baten alarguntsarena. Victorine Taillefer zeritzon neskatila gazte bat, alabatzako zeukana, bizi zen harekin. Bi dama horien bisisaria mila eta zortziehun liberakoa zen. Bigarreneko bi apartamentuetan, batean Poiret zeritzon agure zahar bat zegoen, eta bertzean berrogeita bat urteko gizon bat, ileorde beltza zerabilen, papiloteak tindatzen zituen, merkatari izana zela zioen, eta Vautrin jauna zeritzona. Hirugarren solairua laur ganba-

rak osatzen zuten; haietatik bi alokaturik zeuden: bat andereño Michonneau izeneko neskazar bati, eta bertzea fideoen, Italiako pasten eta almidoiaren lantegi-jabe ohi bati, Goriot zaharra deitzen zutenari. Bertze ganbara biak pasaiko txorientzakoak ziren: Goriot zaharrak eta andereño Michonneauk bezala, jateko eta ostatu edukitzeko hilabetean berrogeita bortz libera baizik eman ezin zuten zorigaitzoko ikasleentzakoak; baina andere Vauquerek, halakoak biziki gustukoak ez izaki, hoberik aurkitzen ez zuenean baizik ez zituen hartzen: ogi gehiegi laten omen zuten. Aldi honetan, bi ganbara horietako batean Angoulême inguruko mutil bat bizi zen. Gazte horrek, Pariserat legeen ikastera etorriak, behartasunik handienetan zeukan bere familia handia berari urte oro mila eta berrehun libera igorri ahal izateko. Eugène de Rastignac, hala baitzuen izena, zorigaitzak lanerat ohitu gazte horietako bat zen, zeinek haur-denboratik konprenitzen baitituzte gurasoek haiengan ezartzen dituzten esperantzak eta etorkizun eder batentzat prestatzen baitira ordutik beretik kalkulatz beren ikasketekin noraino hel daitezkeen, eta, ikasketa

beroriek aldeaz aitzinetik gizartearen geroko mugimenduari egokituz, gizarte horren lauskitzen lehenak izateko. Haren oharbide bitxiak eta Pariseko saloietan erakusten jakin zuen antzea gabe, kontakizun hau ez zatekeen halako kolore egiazkoez apainduko, zeinak dudarik gabe zorizanen baitizkio bai haren izaera zoliari eta bai egoera lazgarri batek, jasaten zuenak sorrarazi zutenek bezainbateko axolaz gordeak, ezkutatzuten zituen misterioen argitu nahiri.

Hirugarren solairu horren gainean baziren arropa zabaltzeko sabai bat eta bi mantsarda, hantxe lo egiten baitzuten Christophe zeritzon mutil batek eta Sylvie lodiak, kuzinersak. Zazpi barne-apopiloez gain, andere Vauquerek bazituen, urte on, urte txar, Zuzenbide zein Medikuntzako zortzi ikasle, eta auzoan bizi ziren bizpahirur bezero, denak afaritara bakarrik abonatuak. Jangelan hamazortzi lagun biltzen ziren afaltzeko eta hogeiren bat sat zitezkeen; goizean zazpi apopiloak soilik egoten ziren, eta denak elkaturik ikusi eta familia bat irudi zuten gosaritakoan. Denak pantufletan jaisten ziren eta marmarika jarduten hala kanpokoan itxuraz eta janzkeraz

nola lehengo gaueko gertakariez, hurkotasuna-
ren konfiantzarekin hitz egiten zutela. Zazpi apo-
pilo horiek izan ez zituen haurrak ziren andere
Vauquerentzat, eta artak eta ardurak astrono-
moaren zehaztasunaz neurtzen zizkien, bakoit-
zaren bizisariaren arabera. Kontsiderazio bera
zerabilten halabeharrak elkaturikako izaki
horiek ere. Bigarreneko alokatuek hirurogeita
hamabi libera baizik ez zuten ordaintzen hilabe-
teko. Prezio merke horrek, Saint-Marcel faubour-
gean, La Bourbe-ren eta La Salpêtrière-ren
artean baizik ezin aurki daitekeenak, eta sal-
buespen bakartzat andere Couture zuenak, apo-
pilo horiek zorigaitz ageri samarren zamapean
zeudela salatzen du. Horregatik, nolako ikuski-
zun etsipengarria erakusten zuen etxearen bar-
nealdeak, halakoxe ikuskizuna agertzen zuten
bezeroen jantziek, erabat zarpaildurik baitzeu-
den. Gizonezkoek kolore hauteman-ezineko
xenilak zerabiltzaten, auzo dotoreetan karrika-
kantoietarat botatzen dituztenak bezalako zapa-
tak, arropa zuri higatua, arima bertzerik ez zuten
jantziak. Emakumeek soineko zaharkituak zera-
matzaten, tindatuak, tindagabetuak; dentella

zahar adabakituak, usantzaren distira zuten eskularruak; lepaxerra gorriak eta xal urratuak. Jantziak halakoak baldin baziren, kasik denek ere erakusten zituzten gorputz irmoki landuak, bizitzaren ekaitzei gogor eginikako gorpuzkerak, aurpegi hotzak, gogorak, ezabatuak txanpon baliogalduen antzera. Aho zimelduak hortz goseez armaturik zeuden. Apopilo horiek drama burutuak zein amaitzeke zirenak susmarazten zituzten; teatroetako argietarat, oihal pintatuen artean, jokaturikako dramak barik, drama bizi eta mutuak, bihotza suharki hunkitzen duten drama taigabeak, drama etengabeak berak.

Michonneau neskazaharrak bere begi unatuen gainean tafetan berdezko begi-malda zikin bat zerabilen, letoin-hariaz inguratua, Pietateko aingerua bera ere iziaraziko zukeena. Haren xal lits mehe eta negartsudunak eskeleto bat estaltzen bide zuen, oro ertz eta koska baitzen altxatzen zuen gorputza. Zer azido-suertek jan ote zizkion izaki honi bere emakume eiteak? Polita eta ongi egina izana behar zuen. Bizioak, bihozminak, zikoizkeriak ote? Sobera maite izan ote zuen? Lupeme ala lili soil izan ote genuen?

Ordaintzen ari ote zen orain gaztaro ahalkegabe eta plazerek trumilka erasanikako baten garai-
tiak ibiltariak uxatzen zituen zahartzaro batekin?
Behako zuriak hotz ematen zuen; aurpegi zimur-
tuak mehatxu egiten. Negua hurbildu ahala
sasian kantuz ari den txitxarraren ahots ozena
zuen. Erraten zuen ezen gizon zahar baten, mas-
kuriko katarro batek joaren eta dirurik ez zeuka-
lakoan seme-alabek zapuztuaren, zaintzen aritu
zela. Agure horrek mila liberako bizi-errenta utzi
omen zion, oinordekoak aldian behin kentzera
entseatzen zitzaizkiona gezurrak eta azpikeriak
erabiliz. Grinen jokoak aurpegia birrindu zion
arren, ehunean artean ere halako zuritiesun eta
finezi aztarnak ageri zitzaizkion, gorputzak zen-
bait edertasun-hondar atxikitzen zituela pentsa-
razten zutenak.

Poiret jauna mekanika gisako zerbait genuen.
Landareen Jardineko ibiltoki batean barna itzal
gris bat irudi hura hedatzen ikustean, burua kas-
keta zahar menostu batez estalia, eskuan boli
horituzko giderreko bere makila nekez atxikirik,
bere xenilaren hegal histuen, galtzoi kasik hustu
batzuk eta galtzerdi urdinez jantzi zangoak,

gizon mozkontu batenak irudi dardaritzen zirenak, doi-doia gordetzen zituztenen, kulunkatzera utziz, bere maripolis zuri zikina eta mousselina trakets biribilkatuzko paparrekoa, bere indioilar lepoaren inguruan lotu gorbatarekin dongare, bat egiten zuena, erakutsiz, hamaika jendek galdetzen zuten beren baitan ea itzal txinatar hori Japheten semeen, Italiako Boulevarden alderrai dabilzanen, arraza ausartekoa zenetz. Zer lanek kizkurtu ote zuen horrela? zer grinak belztu ote zion aurpegi erreboiltsua, zeinak, karikatura gisara marrazturik, gezurrezkoa emanen baitzukeen? Izan zenak ote? baina badaiteke Justizia Ministerioko enplegatu izan ote zen herio-zigorren obratzaileek beren horniduren ordainkizunak igortzen dituzten bulegoan: parrizidentzako belo beltzak, saskietako zahia, aihotzendako soka eta abar. Badaiteke abere-hiltegi bateko atean kobratzaile izan ote zen, edo osasuneko inspektoreorde. Hots, irudi zuen gizon hori gure gizarte-errota handiaren astoetako bat izan zela, beren Bertrand-ak ere ezagutzen ez dituzten Sagu paristar horietako bat, ardatzen bat zeinaren inguruan itzulikatuak baitziren ezbehar edo

Iohikeria publikoak, hots, gizon horietako bat zeinengatik erraten baitugu, haien ikustean: *beharrezkoak dira, alta*. Paris ederrak ez-ikusi irudi egiten die sufrikario moral zein fisikoez zuraildu irudi horiei. Baina Paris egiazko itsasandi bat da. Jaurti ezazue zunda han barnerat, sekula ez duzue haren sakontasuna jakinen. Kurri ezazue, deskriba ezazue! Nahi bezainbateko arta ezartzen duzuelarik ere haren kurritzen, haren deskribatzen; itsaso horretako ikertzaileak nahi bezain ugariak eta interesatuak direlarik ere, beti aurkituko da toki bat ukigabea, antro ezezagun bat, loreak, perlak, munstroak, literaturan murgiltzen direnek aditu gabeko, ahantzirikako zerbait. Andere Vauqueren etxea izigarrikeria bitxi horietako bat da.

Bi irudik sortzen zuten kontrast harrigarri bat apopiloen eta bezeroen ostearekin. Nahiz Victorine Tailleferrek klorosiak joak diren neskatila gazteenaren irudiko halako zurtasun erikorra bazuen, eta bere ohiko tristeziak, bere uzkur-eiteaz, bere itxura dohakabe eta erkinaz bat egiten zuen taula horren azpia osatzen zuen sufri-mendu orokorrarekin, hala ere aurpegia ez zuen

zaharra, mugimenduak eta ahotsa bizkorrak zituen. Zorigaitz gazte horrek hostoak horiturikako zuhaixka bat irudi zuen, lursail desegoki batean berriki landatua bera. Haren begitarte zurigorriak, haren ile gorrailak, haren gerri argalegiak, egungo poetek Erdi Aroko estatua tikiei atzematen zieten edertasuna adierazten zuten. Haren begi gris belzkarek halako eztitasun, halako etsipen kristau bat adierazten zuten. Haren jantzi xumeek, merke itxurakoek, gazte eiteak salatzen zituzten. Polita zen justaposizioz. Zoriontsu, xarmangarria izanen zen: zoriontasuna emakumeen poesia da, janzkera apaingarri duten bezalaxe. Dantzaldi bateko bozkarioak azal zurigorria aurpegi zurbil horretan islatu balio; bizitza dotore baten eztitasunak masaila jadanik zulatuxe horiek bete, gorritu balizkio; maitasunak begi triste horiek biziberritu balizkio, Victorine neskarik ederrenekin lehia zitekeen. Emakumea bigarren aldikotz sortzen duen hura eskas zuen, zapiak eta amodiozko gutunak. Haren bizitzak liburu baten gaia hornituko zuen. Aitak uste zuen bazituela arrazoiak haren ez onesteko, ez zuen bere ondoan eduki nahi, urte-

ko seiehun libera baizik ez zizkion ematen, eta bere fortuna ezkutatua zuen berorren osorik semeari utzi ahal izateko. Victorineren amaren, aspaldi etxerat etsiturik joan zitzaionaren, ahai-de urrun, andere Couturek bere alaba bailitzan zaintzen zuen umezurtza. Zorigaitzez Errepublikako armadetako Komisario-Manatzailearen alarguntsak ez zuen munduan bertzerik, bere alargunsaria eta bere biziaria baino; neskabila gazte hori, ez eskarmenturik eta ez eskuarterik zuena, munduaren eskupean ezar zezakeen egun batean. Andere onak igande oro eramaten zuen Victorine mezatarat, hamabortz egunean behin konfesatzera, zer gerta ere hartarik neska erlijiozale bat egiteko. Arrazoi zuen. Erlijiozaletasunak etorkizun bat eskaintzen zion ume zapuztu honi, aita maite zuenari, urte oro aitarenerat amaren barkazioaren eramatera joaten zenari; baina, urte oro ere, aitaren etxeko atearekin, gupidarik gabe hertsirik aurkitzen zuenarekin, buruzburu egiten zuenari. Anaia, zuen ararteko bakarra, behin batez ere ez zitzaion laur urtean ikustera joan, eta ez zion inolako laguntzarik igortzen. Jainkoa erregutzen zuen aitari begiak

ireki ziezazkion; anaiaren bihotza samur zezan, eta salatu gabe haien alde egiten zuen otoitz. Andere Couturek eta andere Vauquerek ez zuten irainen hiztegian hitzik aski edireten jokabide anker horren kalifikatzeko. Milioidun hori mada-rikatzen zutelarik, Victorinek ele eztiak erraten zituen, basa-urzo zaurituak, zeinaren minezko heiagorak oraindik ere amodioa adierazten baitu, egiten duen kantuen irudikoak.

Eugène de Rastignacek aurpegi erabat hegoaldearra zuen, larrua zuri, ilea beltz, begiak urdin. Haren trakak, haren moldeek, haren ohiko jarrerak bere lehen hezkuntzan gustu oneko tradizioak baizik bildu ez dituen familia noble bateko semea salatzen zuten. Arropa zuhurki erabiltzen bazuen, egun arruntetan artean ere iragan urteko jantziak paratzen bazituen, hala ere baze-kien noizean behin gizon gazte dotoreen gisan etxetik jalgitzen. Xenila zahar bat, maripolis ttar bat, ikasleen gorbata ziztrin, histu, gaizki lotua, araberako galtzak eta bota zolaberrituak eramaten zituen gehienetan.

Bi pertsonaia horien eta bertze guztien artean, Vautrin, papiloteak tindatzen zituen

berrogei urteko gizona, bat zitekeen iraganbide gisa. Herriak hauxe erraten ohi du hura bezalako gizasemeak ikusirik: Horra gizon puska! Besagai-nak zabalak zituen, bulartsua soina, ageriak giharrak, eskuak lodi, sendo eta hatzezurretan ile-sorta trinko eta gorri bizi-bizi batzuek bortizki markatuak. Haren aurpegiak, zimur goiztiar batzuek arrailduak, haren molde malgu eta guriek gezurtatzen zituzten gogortasun-zeinuak eskaintzen zituen. Haren baxu-ahotsa, haren alegrantzia zakarrarekin bat zetorrena, ez zen bat ere gozagaitza. Gisakoa eta irribera genuen. Sarrailaren bat gaizki ibiliz geroz, laster batean zuen desmuntatua, antolatua, olioztatua, limatua, berriz osatua, zioela: «Hauxe duk enea., Dena ezagutzen zuen gainera, itsasontziak, itsasoak, Frantzia, estranjeria, aferak, gizonak, gertakariak, legeak, hotelak eta presondegiak. Norbait sobera kexu agertuz geroz, berehala eskainiko zizkion bere zerbitzuak. Behin baino gehiagotan prestatu izan zien dirurik Andere Vauqueri eta zenbait apopilori; baina haren zordunek nahiago izanen zuten hil dirua hari bihurtu gabe egon baino, izan ere, bere on itxura gorabehera,

hainbertzetaraino iziarazten zuen jendea bere behako sakon eta bipil-bipilaz. Nola jaurtikitzen zuen tu-zirrizta bat, hala gaztigatzen zuen odol-hotz izikaitz bat, kinka larri batetik jalgitzeko norbait hilarazi beharraren aitzinean gibelarazi behar ez zukeena. Juje zorrotz baten antzera, haren begia gauza guztien, kontzientzia guztien, sentimendu guztien barnerat joaten bide zen. Haren ohiturak ziren gosaldu ondoan jalgitzea, bazkaltzeko itzultzea, arratsalde guztian hor gaindi ibiltzea eta gauerdia alderat etxeratzea, andere Vauquerek emanikako basa-giltza batez lagundurik. Hark bakarrik gozatzen zuen abantaila horretaz. Baina alarguntsarekin ongien moldatzen zena ere bazen, zeina gerritik atxikiz amatto deitzen baitzuen, guti konprenitu gabeko lausengua bera! Andere gaixoari erraza irudituko zitzaion hori, baina Vautrin zen besoak behar bezain luze zituen bakarra zirkunferentzia handi haren inguratu ahal izateko. Haren izaeraren ezaugarri bat zen hilabete oro jeneroski hama-bortz libera ordaintzea otordu-ondokotzat hartzen zuen *gloriarentzat*. Pariseko bizitzaren zurrunbiloek harrapaturikako gazte haiek, edo

zuzenean ukitzen ez zituenaz soraio ageri ziren agure haiek, bezain azaleko ez ziren jendeak ez ziren kontentatuko Vautrinek eragiten zien inpresio zalantzazkoarekin. Inguruan zituenen aferak jakin edo asmatzen zituen, aldiz inork ez zitzakeela haren pentsamenduak eta egitekoak igar. Nahiz bere ontasun alegiazkoa, bere gisakotasun taigabea eta bere alegrantzia bertzeen eta bere arteko hesitzat eraikia zuen, maiz uzten zituen agertzera bere izaeraren osin izigarriak. Maiz, Juvenalen beteko ateraldi batek, eta zeinaren medioz irudi baitzuen atsegin zitzaiola legeei trufa egitea, goi-gizartearen zirikatzea, beroni sinetsaraztea ez zela bere buruarekin bat jokatzen, pentsarazi behar zukeen ezen bazuela bere baitan halako aihergoa gizartearen kontra, eta bazela bere bizitzaren zolan misterio bat artoski gordea.

Ez jakinean beharbada, baten indarrak edo bertzearen edertasunak erakarria, andereño Tailleferek berrogei urteko gizon horren eta ikasle gaztearen artean partekatzen zituen bere so ezkutuak, bere pentsamendu sekretuak; baina haietarik inork ez bide zuen amets egiten bera-

rekin, nahiz bazitekeen egun batetik bertzerat halabeharrak bere heina aldatuko zion eta anderegai aberats bat bilakatuko. Bertzalde jende horietarik inork ez zuen astirik galtzen beraietako batek aipatu zorigaitzak gezurrezkoak ala egiazkoak zirenetz egiaztatzen. Denek ere bazuten halako axolagabetasun mesfidantzaz nahasi bat elkarrekiko, batzuen eta bertzeen egoerek eragina bera. Bazekiten ez zirela gauza beren penen arintzeko, eta denek ere agortua zuten doluminen ontzia pena horien elkarri kontatuz. Senar-emazte zaharrek bezala, deus ez zuten jadanik elkarri errateko. Ez zen beraz haien artean bertzerik gelditzen, baizik eta bizitza mekaniko baten harremanak, oliorik gabeko zirriken jokoa. Denek ere behar zuten karrikan zuzen iragan itsu baten aitzinean, hunkitu gabe entzun ezbehar baten kontakizuna, eta heriotza batean miseri arazo baten konponbidea ikusi zeinak hotz uzten baitzituen agoniarik ikaragarriaren alderat. Andere Vauquer zen arima desolatu horietan zorientsuena, lander-etxe libro honetan jaun eta jabe bizi zena. Jardin tiki hori, isiltasunak eta hotzak, idorteak eta hezetasunak, este-

pa bat bezain eskerga egiten zutena, harentzat bakarrik zen zuhaitzi alegera bat. Etxe hori eta hits horrek, salmahaiko lizunaren urrina zuenak, harentzat bakarrik zuen atseginik. Bereak zituen kaiola horiek. Jatera ematen zien zigor betierekoetarat kondenatu galeriano horiei, larderia errespetatu bat baliaraziz haien gain. Non edirenen ote zuten izaki dohakabe horiek Parisen, berak ematen zien prezioan, janari sanorik, nahikorik, eta apartamentu bat zeina hala nahi izanez geroz, dotore edo eroso ezpada, bederen garbi eta osasuntsu bihur baitzezaketen? Injustizia nabarmen bat egin balu ere, biktimak kexatu gabe jasanen zuen.

Halako bilkura batek, tikian, gizarte osoaren osagarriak eskaini behar eta eskaintzen zituen. Hamabi mahai-lagunen artean, ikastetxeetan bezala, munduan bezala, kreatura bazterreratu dohakabe bat kausitzen zen, arraileria guztiak bereganat biltzen zituen petzero bat. Bigarren urtearen hastapenean Eugène de Rastignacenzat irudi hori bilakatu zen nabarmenena artean ere bertze bi urtez bizikide izatera bortxaturik zegoen guztien artean. Barregarri hori behialako

fideogilea zen, Goriot zaharra, zeinaren buru gainerat pintore batek, historialariak bezala, taularen argi guztia eroraraziko baitzuen. Zer halabeharreatatik jausiak ziren apopilorik zaharrena gain mesprezu erdi herrakor hori, jazargo urrikalmenduz nahasi hori, zorigaitzaren ez errespetatze hori? Berak ekarria ote zuen hori bizioak baino gutiago barkatzen diren irrigarrikeria edo bitxikeria horietako batzuegatik? Galde horiek hamaika gizarte-injustiziarik lotuak dira hurbiletik. Giza izaeraren baitan dago, agian, ororen jasanaraztea egiazko umiltasunez, ahuleziaz ala soraiokeriaz, oro pairatzen duenari. Ez ote dugu denek atsegin geure indarra norbaiten edo zerbaiten bizkar neurtzea? Izakirik ahulenak, haur xirtxilak ate guztiak jotzen ditu izotza denean, edo eta aztaparka igaiten bere izena monumentu lohigabe batean izkiriartzeko.

Goriot zaharra, hirurogeita bederatzi urteren ingurua zuen agurea, 1813an erretiratu zen andere Vauquerenerat, aferak utzi ondoan. Andere Couturek orain duen apartamentua hartu zuen lehenbizian, eta orduan mila eta berrehun liberako biziaria ematen zuen, bortz louis gehia-

go edo gutiago huskeria bat zitzaizkion gizonaren gisan. Andere Vauquerek apartamentu horretako hirur ganbarak berrizatuak zituen aitzineko ordainsari baten medioz zeinarekin errediza zarpail batzuk erosi omen baitzituen: kotoi horizko errezelak, egur bernizatuzko besaulkiak, Utrechteko belusez estaliak, kolaz eginikako zenbait pintura eta hiribarneko kaba- retek errefusaturikako paper pintatuak. Badaite- ke Goriot zaharrak, garai hartan begirunez Goriot jauna deitzen zutenak, iruzur egin zio- te- nean erakutsi zuen jenerostasun axolagabeak eman ote Zion aferetan deus ez zekien ergelaren fama. Goriot jantzi-sail handi batez horniturik etorri zen, merkataritzatik erretiratzean bere buruari deus ukatu nahi ez dion afera-gizonaren ostilamendu bikainaz, alafede. Andere Vauquer kontatzen hasi eta hamazazpi atorra holandar miretsiak zituen. Atorra horiek hainbatenez ere finagoak ziren non fideogileak paparrean bi izki- linba baitzeramatzan, biak ere kate tiki batez uztarturik eta gainean diamant lodi bana zeuka- tela. Usaian frak urdin bizi batez jantzirik, egun oro maripolis zuri bat ezartzen zuen, zeinaren

pean sabel piriforme eta konkorra kulunkatzen baitzitzaion, urrezko kate pisu bat zintzilikarioz hornitua punparazten zuena. Haren toxak, urrezkoa ere bazenak, medailoi bat gordetzen zuen irudiz zenbait abentura amorosen hobendun egiten zuten biloez betea. Ostalersak xanfarin bat izatea egotzi zionean, ilea leundu dioten burgesaren irriño alegera utzi zuen lerratzer bere ezpainenetan. *Armariuak* (hitz hau jende xehearen gisara ahoskatzen zuen) bere atuxetako zilarreria ugariaz bete zituen. Alarguntsaren begiek atseginez ñirñir egin zuten burruntzalien, haragisaltsetako koilaren, mahai-tresnen, ozpinontzien, saltsa-katiluen, azpil batzuen, zilarrezko gosarien, hots, pieza gehiago-gutiago eder zenbaiten, honenbertze marko pisatzen zuten eta bazterrera utzi nahi ez zituenen askatu eta lerrokatzer lagundu zuenean. Erregalia horiek bere etxeko bizitzaren handitasunak oroitarazten zizkioten. «Hau, erran zion andere Vauqueri azpil bat eta gopor tiki bat, zeinaren estalkiak bi urzapal elkarri mokoka agerrarazten baitzituen, maitekiro hartuz, ene andereak, gure urtekariaren egunean, egin zidan lehen presenta da.

Gaixo maittea, hain zen ona! honetakotz erabili zituen bere neskatila-denborako ekonomiak. Ikusten duzu, anderea? Nahiago nuke lurra neure azkazalez harramaskatu hau galdu baino. Jainkoari esker! bizi naizeino neure kafea gopor honetan hartu ahal izanen dut goiz oro. Ez naiteke kexa, badut labean ogia luzaroko.» Laburbilduz, andere Vauquerek, bere pika-begiekin, inskripzio batzuk ikusiak zituen Konduen Liburuan, zeinek, hala-hola baturik, zortzi-hamar bat mila libera inguruko errenta eman baitziezaioketen Goriot hauta horri. Egun hartatik landa, andere Vauquerek, sortzez de Conflans zenak, sasoi hartan berrogeita zortzi urte egiazko ukan baina soilik hogeita hemeretzi aitortzen zituenak, hainbat burutazio izan zituen. Goriotek begi-zokoa bihurtua, hantua, esekia zuen arren, begien aski maiz xukatzerara behartzen zuena bera, gisako eta taiuzkoa begitandu zitzaion. Bertzalde haren aztal haragitsuak, konkorrak, sudur luze lodiak bezala, zenbait kualitate moral ere iragartzen zituen, alarguntsak kontutan hartu eta gizagai-xoaren aurpegi masailguri eta lañoki zozoak baieztatzen zituenak. On-puska bat irmoki mol-

datua behar zuen, bere izpiritu guztia sentimendutan xahutzeko gauza. Haren ile urzakumehegoen gisara orraztuek, Eskola Politeknikoko ileapaintzaileak goiz oro hautseztatzen zizkionek, bortz pondu marrazten zizkioten kopeta apalaren gainean, eta ongi apaintzen zioten irudia. Dol bat zakarra izanik ere, hain zen dotore janzten, hain zuen bere tabakoa handikiro erretzen, troxa beti makubaz betea atzemanen duela segur den gizonaren halako nagusitasunez hurrupatzen, non Goriot jauna harenean bizitzen jarri zen egunean, andere Vauquer gauez barnea pil-pil oheratu baitzen, eperra zingar-zaflatan bezala, Vauqueren hil-oihalaren erantzi eta Goriot bihurtua berpizteko irrikaren suan. Esposatu, bere pentsioa saldu, besoa burgeseriaren lore fin horri eman, dama ospetsu bilakatu auzoan, han dirua bildu landerrentzat, partida ttikiak jokatu igandean Choisy-n, Soissy-n, Gentilly-n; bere gogara joan teatrorat, gelan, bere apopilotako batzuek uztailean ematen zizkioten autorearen sarreren begira egon gabe: Pariseko senar-emazte xumeen Eldorado guztiarekin egin zuen amets. Inori aitortu gabe zegoen bazeuzka-

la berrogei mila libera sosesetik soserat bilduak. Izan ere, fortunari dagokionaz, ezkongai adinontzat jotzen zuen bere burua. «Gizonaren dina naiz, bai, gainerakoari dagokiola!» erran zuen bere baitan ohean itzultzen zelarik, nonbait bere buruari egiaztatu nahiz Sylvie lodiak egun oro ohean moldeztatuak aurkitzen zituen xarmak.

Egun harez geroz, hirur hilabetez nonbait han, Vauquer alarguntsa Goriot jaunaren ilea-paintzaileaz baliatu zen, eta apaindura-gastu batzuk ere egin zituen, etxeari halako ohorea eman beharraren estakuruetan han ibiltzen ziren jende ohoragarriei zegokien eran. Buru-belarri hasi zen bere apopiloen tankera aldatu nahiz, handik goiti soil-soilik goi-mailako jendeak hartu behar zituela aldarrikatuz denen aitzinean. Arroztzen bat agertuz geroz, Goriot jaunak, Pariseko merkatari ospetsu eta agurgarrienetako batek, berari emanikako lehentasuna goraipatzen zion. Prospektuak banatzen zituen, goialdean hau irakur zitekeenak: MAISONVAUQUER. «Erraten zue-naz, auzo latinoko pentsio burges antzinako eta estimatuenetako bat omen zen. Ikuspegirik ede-rrenetako bat omen zuen Gobelinetako ibarra-

ren gainean (hirugarren solairutik ikusten zen), eta jardin *polit* bat, zeinaren hondarrean IBILTOKI bat ezkiendoz inguratua HEDATZEN BAITZEN.» Aire onaz eta barkatasunaz ere hitz egingen zuen. Prospektu horrek l'Ambermesnil-eko kondesa eraman zion, hogeita hamasei urteko emakumea, gudu-zelaietan hilikako jeneral baten alarguntsa gisa, hartze zuen bizisari baten kitapenaren eta pagamenduaren begira zegoe-na. Andere Vauquerek bere mahaia zaindu zuen, sua piztu abantzu sei hilabetez saloietan, eta hain zituen ongi atxiki bere prospektuetako agintzak, non *horrek dirua eraman baitzion*. Hainbertzenarekin, kondesak erraten zion andere Vauqueri, *adiskide maitea* deituz, Vaumerland-eko baronesa eta Picquiseau-ko konde eta koronel jaunaren alarguntsa ekarriko zizkiola, bere adiskideetako bi, Le Marais-en beren kontratua bukatzen ari zirenak Maison-Vauquer baino garestiagoko pentsio batean. Dama horiek gainera hagitx egoera onean omen leudeke Gerla Bulegoek beren lana bururatuko luketenean. «Alabaina, erraten zuen, bulegoek sekula ez dute beren lana bukatzen.» Afaldu ondoan bi

alarguntsak andere Vauqueren ganbararat igaiten ziren elkarrekin, eta han berriketa tiki batzuk egiten kassisa edan eta etxekandereak beretzat gordetzen zituen litxarreriak janez. L'Ambermes-nileko andereak sutsuki onetsi zituen ostalersak Gorioti buruz zituen xedeak, xede hautak eta, bertzalde, lehen egunetik igarri zituenak; izan ere, gizon bat ezin hobea iruditzen zitzaion!

— Ah! ene andere maitea, gizon bat ene begia bezain sanoa, erraten zion alarguntsak, gizon bat ezin hobeki kontserbatua, eta emakume bati oraindik atsegin handia ematen ahal diona.

Kondesak eskuzabalki zenbait ohar egin zizkion andere Vauqueri bere janzkeraz, bere nahikeriekin bat ez zetorrenaz. «Gerlarat joateko prestatu beharra duzu», erran zion. Hamaika kalkulatu egin ondoan, bi alarguntsak elkarrekin Palais-Royalera joan ziren, non, Galeries de Bois-etan, kapela lumadun bat eta bonet bat erosi baitzuten. Kondesak bere adiskidea *La Petite Jeanette* ren dendarat eramane zuen, non soineko bat eta xal bat erosi baitzuten. Munizio horiek erabili eta alarguntsa halako armez arma-

tu zenean, *Boeuf à la mode*ko ikurraren antz osoa hartu zuen. Hala ere hain zuen bere burua fagoraturik ediren, non kondesarekin zorretan zegoela pentsatu, eta, oso eman zalea izan ez arren, otoi hogeit liberako kapela baten onartze-ko eskatu zion. Egiaren errateko, Gorioten ikertu eta beraren alde mintzatzeko zerbitzua nahi Zion eskatu. L'Ambermesnileko anderea onez-onean lotu zen azpijoko horri, eta fideogile zaharra inguratu zuen harekin solasaldi baten ukaitea erdietsiz; baina bere kabuz eta buruz lilurarazteko desira partikularrak iradoki zizkion entseguen alderat herabe, limurgaitz ez errateagatik, atzeman eta gero, haren zakarkeriak mingosturik jalgi zen. —Ene aingerua, erran zion bere adiskide maiteari, deus ez duzu gizon horrengandik aterako! irrigarriro mesfidosa duzu, zeken bat da, asto bat, kaiku bat, atsekabea baizik ekarriko ez dizuna.

Halako gauzak izan ziren Goriot jaunaren eta l'Ambermesnileko anderearen artean non kondesak harekin topo egin ere ez baitzuen nahi izan. Biharamunean alde egin zuen sei hilabete-ko sanaren ordaintzea ahantzi eta bortz libera

balio zuketan pilda batzuk utziz. Andere Vauquer su-eta-gar haren bila ibili bazen ere, ezin erdietsi izan zuen Parisen inolako argitasunik l'Ambermesnileko kondesaren gainean. Maiz hitz egiten zuen gertakari negargarri horretaz, dolamenka bere gehiegizko konfiantzagatik, nahiz kateme bat baino mesfidosa goa zen; anitz jenderen irudikoa zen ordea, beren hurbilekoei fio ez eta lehenbiziko etortzen denari zabaltzen baitiote barnea. Egitate moral harrigarria, baina egiazkoa, zeinaren erroak erraz edireten baitira giza-kiaren bihotzean. Zenbait jendek ez dute behar-bada deus gehiago irabaztekorik haiekin bizi direnen artean; haiei beren arimaren hutsa erakutsi ondoan, merezi duten garrastasunez isilgordeka jujatzen dituztela iruditzen zaie; baina, eskas dituzten lausenguen ezin-menperatuzko premia nabaritzuz, edo ez dauzkaten dohainen jabe agertzeko irrikak janik, arrotz zaizkien oniritzia edo bihotza ustekabean harrapatzea espero dute, egun batean usteak ustel gertatzeko arriskuaz bada ere. Azkenean badira gizabakoak mertzenario sortuak beren adiskide edo hurkoei bat ere fagorerik egiten ez dietenak

haien eginbidea delakotz; ezezagunak zerbitzatu-
tuz, ordea, beren buruarekiko oniritzia elikatzen
dutelarik: maitasunen ingurua berengandik zen-
batenaz hurbilago duten, hainbatenaz gutiago
maite dute; zenbatenaz hedatzenago den, hain-
batenaz adeitsuago dira. Andere Vauquerek
bazuen, dudarik gabe, bi jite funtsean zeken, fal-
tsu, nardagarri horietarik zer bait.

— Ni hemen izan banintz, erraten zion
orduan Vautrinek, ez zitzaizun zorigaitz hori ger-
tatuko! atsegin handiz erantziko nion mozorroa
mari-gezurti horri. Ezagunak ditut haien bala-
kuak.

Izpiritu hertsi guztien antzera, andere Vau-
querek gertakarien ingurutik ez ilkitzeko ohitura
zuen, bai eta gertakari horien zergatien ez juja-
tzekoa ere. Atsegin zuen bere hutsen bertzeren
gain ematea. Galtzapen hori agitu zenean, fideo-
gile prestua jo zuen bere zorigaitzaren eragile-
tzat, eta epeltzen hasi zitzaion, erraten zuenaz,
harekiko zuen xoramena. Bere balaku eta itxura-
keriak alferrikakoak zirela etsi zuelarik, luze
gabe asmatu zuen horren arrazoia. Orduan ohar-
tu zen bere apopiloak bazituela jadanik, haren

erranaren arabera, bere mainak. Noizbait ere argi ikusi zuen bere esperantza hain gozoki ferekatuak oinarri kimerikoa zuela, eta deus ez lukeela sekula gizon horrengandik aterako, kondesaren, gaian aditua irudi zuenaren, hitz bipilari jarraiki. Ezinbertzez, urrunago joan zen aihergoan adiskidetasunean joana zena baino. Gorrotoa ez zuen amodioak ernea, bere esperantza tronpatuek ekarria baizik. Baldin eta gizakiaren bihotzak atsedean hartzen badu maitasunaren gailurretarat iganez, bakan gelditzen da gorrotozko sentimenduen malda pikoan. Baina Goriot jauna haren apopiloa zen, beraz alarguntsa behartua izan zen bere harrotasun zaurituaren leherketen zapaltzera, etsipen horrek eragin zizkion hasperenen ehorztera, eta bere mendekutirrien irenstera, abade nagusiak gaitzitu fraide baten antzera. Izpiritu zirtzilek etengabeko zirtzilkeriez, onez ala gaiztoez, satisfatzen dituzte beren sentimenduak. Alarguntsak bere biktimaren kontrako jazargo sorren asmatzen erabili zuen bere andere-gaiztakeria. Hastekotz, pensioan sarturikako soberakeriak eten zituen. «Fini kornitxoiak, fini antxoak: enbusteriak ditun

horiek!» erran zion Sylvieri, bere lehengo programarat itzuli zen goizean. Goriot jauna gizon jale-xuhurra zen, fortuna beren izerdiaz egina duten jendeek beharrezkoa duten xuhurtasuna degeneratu eta ohitura bilakatua zuena. Zopa, salda, barazkiak izanak ziren, beti ere behar zuten izan, haren jatekorik gustukoenak. Hagitz zaila izan zitzaion beraz andere Vauqueri bere apopiloaren sufriaraztea, deusetan ezin zaputz baitzitzakeen haren gustuak. Gizon erasan-ezin batekin topo egiteaz etsitua, haren gutiasten hasi zen, eta halatan Gorioti zion berra apopiloei ere kutsarazi zien, zeinek, jostagarritzat, mende-ku hartzera lagundu baitzuten. Lehen urtearen hondar alderat, alarguntsa halako mesfidantza heinetarat heldua zen, non bere baitan galde-tzen baitzuen zergatik afera-gizon hori, zazpi ezpada zortzi mila liberako errentaren jabe zena, berebiziko zilarreria eta neska mantendu bate-nak bezain harribitxi ederrak zituena, zegoen haren etxean, bere fortunaren eretzean horren ostatu-sari tikia ordaintzen ziola. Lehen urte horren parterik handienez, Goriotek kanpoan jan izan zuen, astean behin edo bitan usu; gero,

emeki-emeki, hirian hilabetean bitan baizik ez jatera iragan zen. Goriot jaunaren ihesaldi tikiak ongiegi akomeatzen ziren andere Vauqueren interesekin hau samur izan ez zedin apopiloak bere otorduak etxean egiteko erakusten zuen gero eta handiagoko zehaztasunaz. Aldaketa horiek hala fortuna emeki-emeki gutitzeari nola ostalersari atsekabe emateko tirriari izan ziren egotziak. Izpiritu lilliputiar horien ohiturarik higuingarrienetako bat da bertzeren baitan ere suposatzea norberak dituen zirtzilkeriak. Zorigaitzez, bigarren urtearen hondarrean, Goriot jaunak justifikatu zituen bera hizpide zuten erranmerranak, andere Vauqueri eskatu ziolarik bigarren solairurat pasatzeko, eta bere ostatu-sariaren bederatziehun liberatarat behehitzeko. Hain ekonomia zorrotza behar izan zuen non ez baitzuen negu osoan surik gehiago piztu bere gelan. Andere Vauquerek aitzinetik ordain ziezaien nahi izan zuen; Goriot jaunak, ordudanik Goriot zaharra deitu zuenak, onartu zuena. Denak entseatu ziren orduan gainbeheratze horren zergatien asmatzera. Ikerketaren zaila! Gezurrezko kondesak erran zuen bezala, Goriot

zaharra azpikari bat, isilkoi bat zen. Burua hutsik duren jendeen logikari jarraiki, errateko huskeriak bertzerik ez dutelakotz denak zuhurgabeak berak, beren aferez mintzatzen ez direnek afera dongeak behar dituzte izan. Beraz afera-gizon hain gailen hori filus bat bilakatu zen, xanfarin hori agure lizun bat izan zen. Noiz, Vautrinek, garai hartan Maison-Vauquererat bizitzera etorria zenak, zioenaz, Goriot zaharra zen gizon bat Bursarat joaten zena eta, finantzen mintzairaren erranmolde bipil bati jarraiki, erreka jo ondoan bere errentekin *jokatuz* bizi zena. Noiz arrats oro jokorat zortearen frogatzera eta hamar libera irabaztera joaten diren jokalaria tiki horietakoa. Noiz espioi bat goi-poliziari eratzikia bilakarazten zuten; baina Vautrinen iritziz ez zen behar bezain zakurra *hori izateko*. Goriot zaharra zen, halaber, dirua astetik asterat abantzatzen zuen lukurrari bat, loterian jokatzen zuen gizon bat. Bizioak, ahalkeak, ezintasunak sorrarazten dutenik misteriosena zioten egozten. Alabaina, haren jokamoldea edo haren bizioak nahi bezain ahalkegarriak izanik ere, sentiarazten zuen herra ez zen haren handik haizatzerainokoa; bere ostatu-

saria ordaintzen zuen. Baliagarria zen gainera, denek haren gain ematen zuten beren umore ona zein txarra arraileriak zein erasiak medio. Irizirik egiantzekoena, eta eskuharki onartua izan zena, andere Vauquerena izan zen. Hari sinestera, gizon hain ongi kontserbatu hori, sasoi betean zegoena eta zeinarekin artean ere anitz atsegin ukan baitzitekeen, gustu bitxiekiko lizunkoi bat zen. Honatx zer egitatetan finkatzen zituen bere kalumniak andere Vauquerek. Sei hilabetez haren bizkar bizitzen jakin zuen kondesa zorigaiztoko hark alde egin eta zenbait hilabeteren buruan, goiz batean, jaiki aitzin, zetazko gona baten farrasta eta Gorioten gelan, atea isilka irekia baitzuen, sartzen zen emakume gazte eta bizkor baten urrats sotila aditu zuen bere eskaileran. Sylvie lodia berehala etorri zen bere etxekandereari erratera ezen neska bat, zintzoa izateko politegia zena, *jainkosa baten antzera jantzia*, oinetan prunellazko brodequin lohituga-beak zituela, aingira bat irudi sartu zela karrikatik sukalderaino, eta Goriot jaunaren apartamentuaz galdetu ziola. Andere Vauquer eta kuzinertsa zelatan jarri ziren, eta bisitaldian, apur bat

iraun zuenean, samurki erranikako hitz batzuk atzeman zituzten. Goriot jaunak bere *dama* aterat lagundu zuelarik, Sylvie lodiak berehala bere otarra hartu, eta alegia azokarat zihoala egin zuen, amorosen ondotik joateko.

— Anderea, erran zion itzuli ondoan bere etxekandereari, Goriot jaunak izigarri aberatsa izan behar du alta, horien hola ibilarazteko. Pentsa ezazu bada l'Estrapade-ko kantoian karroza eder bat bazegoela, eta *hura* harat igan dela.

Bazkaltzeko denboran, andere Vauquer errezel baten hestera joan zen eguzkiak, bere errainu batez begietan jotzen zuenak, Gorioti enbarazurik egin ez ziezaion.

— Emakume ederrek maite zaituzte, Goriot jauna, eguzkia bila dabilkizu, erran Zion izan zuen bisitaz mintzo. Demontre! gustu ona duzu, oso emakume polita zen.

— Ene alaba zen, erran zuen halako harrotasun-suerte batez non apopiloek itxurak gordetzen dituen agure baten gangarkeria nahi izan baitzuten ikusi.

Bisita hori izan eta hilabete baten buruan, Goriot jaunak bertze bat izan zuen. Haren alaba,

lehenbiziko aldian goizeko jantzitan etorria zena, bazkariaren ondoan eta mundurat joateko gisan jantzirik etorri zen oraingoan! Apopiloek, saloian eleketan ari zirenek, ilehori polit, gerri liraineko eta airos bat ikusi zuten, eta inolaz ere dotoreegia Goriot zaharraren alaba izateko.

— Bigarrena! erran zuen Sylvie lodiak, alaba ez ezagutuz.

Zenbait egunen ondoan, bertze neska batek, handi eta ongi taiutu, beltzaran, ile beltz eta begi bizi-bizikoa zenak, Goriot jaunaz galdetu zuen.

— Hirugarrena! erran zuen Sylviek.

Bigarren neska hau ere, lehen aldian bere aita goizean ikustera etorria zena, zenbait egunen ondoan, arratsean, dantza-jantzitan eta kotxez etorri zen.

— Laugarrena! erran zuten andere Vauquerek eta Sylvie lodiak, ez baitzuten dama handi horrengan bere lehen bisitaldia egin zuen goizean xumeki jantzirikako neskaren ezein arrastorik aurkitu.

Goriotek artean ere mila eta berrehun libera-ko ostatu-saria ordaintzen zuen. Andere Vauqueri guztiz berezkoa iruditu zitzaion gizon aberats

batek lauzpabortz amorante edukitzea, eta hala-ber gizon hori biziki trebea ere atzeman zuen haiek bere alabak zituela errateko. Ez zitzaion bat ere gaitzitu emakume horiek Maison-Vauquenerat ekartzea. Alabaina, nola bisita horiek bere apopiloaren haren alderateko ezaxola adierazten baitzioten, zilegi iritzi zion, bigarren urtearen hastapenean, haren *agure andrakoi* deitzeari. Azkenean, apopiloa bederatziehun liberatarat erori zelarik, ausarkeria handirekin galdetu zion ea zer egiteko asmoa zuen haren etxearekin, dama horietako baten jaisten ikustean. Dama hori bere alaba zaharrena zuela erantzun zion Goriot zaharrak.

— Hogeita hamasei ote dituzu, bada? erran zuen garrazki andere Vauquerek.

— Bi baizik ez ditut, ihardetsi zuen apopiloak miseriaren manukortasun guztietarat makurtzen den gizon erreka-jo baten eztitasunaz.

Hirugarren urtearen hondar alderat, Goriot zaharrak are gehiago murriztu zituen bere gastuak, hirugarren solairurat iganik eta berrogeita bortz liberako hilabete-sariarekin jarriz. Tabakoa bazterrerat utzi, ile-apaintzailea bidali eta ez

zuen gehiago hautsik ezarri. Goriot zaharra lehen aldikotz hautsik eman gabe agertu zenean, ostalersari harrialdurazko oihu bat jaulki zitzaion haren buruko ileen, urdin zikin eta berdexkak zirenen, ikustearekin. Haren begitarteak, ezkutuko bihozminek emeki-emeki egunean baino egunean tristeagotua zutenak, mahaia inguratzen zuten guztietan atsekabetuena irudi zuen. Zalantza guztiak argitu ziren bat-batean. Goriot zaharra zen agure lizunkoi bat zeinaren begiak mediku baten abileziak baizik ez baitzitu-tuen begiratua haren gaitzek behar zituzten erremedioen eragin galgarritik. Ilean kolore nardagarriak haren gehiegikeriak zituen sorburu, bai eta berorien luzarazteko hartu izan zituen drogak ere. Gizagaixoaren estatu fisiko eta moralak arrazoi ematen zien burugabekeria horiei. Arropak higatu zitzaizkionean, Indianako kotoia, hamalaur sos bergako, erosi zuen bere mihiseria ederraren partez. Haren diamantak, urrezko troxa, katea, harribitxiak, bana-banaka aienatu ziren. Alde bat utzia zuen bere frak urdin bizia, bere jantzi apain bakarra, haren ordeztan ala neguan, ehun nabar dorpezko xenila

bat, ahuntz-ilezko maripolis bat eta artile-larruzko galtza gris bat janzteko. Arian-arian argalduz joan zen; aztalak erori zitzaizkion; aurpegia, zorientasun burges baten satisfazioak hantua, neurri gabe hustu; kopeta zimurtu; matrail-hezurrak bistarat jalgi. Sainte-Geneviève berria karrikan bizitzen jarri zeneko laugarren urtean, ez zuen gizon bera irudi. Berrogei ere ematen ez zuen hirurogeita bi urteko fideogile onak, burges gizen eta potoloak, zozoaren zozoz gurituak, bere itxura irrigarriaz ibiltariak alegeratzen zituenak, irriñoan halako gaztetasuna zerionak, hirurogeita hamar urteko agure zahar zozotu, kordokatsu eta zuraildua irudi zuen orain. Bere begi urdinak, hain biziak, histu eta uhertu egin zitzaizkion, zurbildurik zeuden, ez zitzaien jadanik negarrik isurtzen, eta beren begi gorritik odoluzko malkoak jausten bide zitzaizkien. Batzuk iziarazten zituen, urrikalarazten bertzeak. Medikuntzako ikasle gazte batzuek, behereko ezpainaren eroria zuela ohartu eta haren aurpegiaren angelua neurturik, kretinismoak joa deklaratu zuten, fitsik aterarazi gabe berari luzaz esetsi eta gero. Arrats batez, afanaren ondoan, andere

Vauquerek isekan-edo erran ziolarik: «Zer, ez zaizkizu ja alabak ikustera etortzen?» Haien aita zela zalantzan emanaz, Goriot zaharra ostalerrak ezten batez sastakatu balu bezala asaldatu zen.

— Noizean behin etortzen dira, erantzun zuen ahots hunkituaz.

— Ah! ah! noizean behin ikusten dituzu bada oraindik ere! oihukatu zuten ikasleek. Hori duk eta, zaharra!

Baina agureak ez zituen bere erantzunak erakartzen zizkion adar-jotzeak aditu. Erori eta pentsakor ageri zen berriz, hain zuzen ere azaletik behatzen ziotenek bere adimenduaren urriak sorrarazi halako zahar-sorgorduratzat hartzen zuten estatua bera. Ongi ezagutu balute, badaiteteke biziki axolatuak izanen ziren haren egoera fisiko eta moralak salatzen zuen arazoaz; zailagorik ordea! Nahiz aise jakin ahal izanen zen Goriot egiatan fideogile izana zenetz, eta zenbaterainokoa zeukan fortuna, harekiko jakin-mina ernea zuten zahar-jendeak inoiz ez ziren auzotik jalgitzen eta ostrak arrokan irudi bizi ziren pentsioan. Bertze pertsonaz denaz bezainbatean,

Pariseko bizitzaren zurrumbilo bereziak ahantzarazten zien, Sainte-Geneviève berria karrikatik jalgi bezain laster, petzerotzat zeukaten agure gaixoa. Izpiritu mehar horientzat, hala nola gazte antsiagabe horientzat, Goriot zaharraren miseria idorra eta erakusten zuen ergelkeria elkartzinezkoak ziren edozertariko gaitasun edo fortuna suertekin. Bere alabak deitzen zituen emakumeez denaz bezainbatean, denak bat zetozen andere Vauqueren irudiarekin, zeinak erraten baitzuen, oro suposatzeko ohiturak beren afalondoetan kalakan aritzen diren atsoei ematen dien logika garratzarekin: «Goriot zaharrak ikustera etorri zaizkion dama guztiek irudi zuten bezain alaba aberatsak ukanen balitu, ez legoke ene etxean, hirugarrenean, hilabeteko berrogeita bortz liberatan, eta ez litzateke pobre bat bezala jantziko.» Deusek ez zitzakeen ondorio horiek gezurta. Horregatik, 1819ko azaroaren hondar alderat, drama hau lehertu zen garaian, nork bere usteak, garbiak oso, bazituen agure gaixoari buruz. Sekula ez zuen ez alabarik eta ez emazterik ukan; plazeren sobera ibiltzeak burukorkoil bat bilakatua zuen, hots, *Kasketadunen*

artean sailkatu beharreko molusku antropomorfo bat, erraten zuen Museumeko enplegatu batek, jateko abonatueta batek. Poiret begizoli bat zen, *gentleman* bat Gorioten aldean. Poiretek bazekien solasean, argudiatzen, erantzuten, egia da hargatik ez zuela fisik erraten solas egin, argudiatu edo erantzuten zuenean, ezen, bertzeek zer erraten zuten, haren bertze molde batez errepikatzeko ohitura zuen; solasaldian laguntzen zuen baina, bizirik zegoen, sentibera irudi zuen; Goriot zaharra aldiz, Museumeko enplegatuak erraten zuenaz, beti ere Réamur eskalako zero gradutan egoten zen bitartean.

— Eugène de Rastignac etorria zen gogaldartea ezaguna behar dute izan goi-mailako gazteek, edo kinka larri batek une batez gaingaineneko gizonen kualitateak ematen dizkienek. Parisen egon zen lehen urtean, Fakultateko lehen ikasketek eskatzen duten lan urriak librotutzi zuen Paris materialaren atsegin agerian dartzeko. Ikasle batek ez du behin ere sobera astirik ukaiten nahi baldin badu teatro bakoitzeko errepertorioa ezagutu, labirinto paristarraren aterabideak aztertu, azturak jakin, mintzaira

ikasi eta hirinagusiaren plazer berezietarat usatu; bazter on eta txarrak miatu, ibilbide dibertigarriei jarraitu, museoetako aberastasu-nak inbentariatu. Ikasle bat berealdiko derizten ertzokeriengatik grinatzen da orduan. Badu bere gizon handia, Collège de France-ko erakasle bat, bere entzuleriaren heinean egoteko ordaindua. Gorbata harrotzen du eta Opéra-Comique-ko lehen solairuetako emakumearentzat arrandiatzen da. Hurrenez-hurreneko hastapen horietan, lañotasuna galtzen du, bere bizitzaren mugak handiagotzen, eta gizartea osatzen duten giza geruzen elkargaintzea endelegatzen hondarrean. Champs-Élysées-etako desfilean kotxeak miretsiz hasi bada, haien gutiziatzera helduko da sarri. Eugène ez jakinean egina zen ikasketa horiek, oporretarat joan zenean, Letretako eta Zuzenbideko batxiler gisa errezibitua izan ondolan. Iraungiak zituen ordukotz haurtzaroko ametsak, sorterrian zerabiltzan asmoak. Bere adimendu aldatuak, bere handinahi kitzikatuak, garbiki ikusarazi zioten, sortetxean, familiaren baitan. Aita, ama, bi anaiak, bi arrebak, eta izeba bat fortuna biziarietan zeukana, Rastignaceko

lurralde tikian bizi ziren. Hirur mila liberaren inguruko mozkinak ekartzen zituen etxalde hori osoki mahastigintza industrialean jarduteak ematen duen kordokaren menpean bizi zen, eta hala ere urte oro mila eta berrehun libera behar ziren handik atera berarentzat. Jeneroski gordezten zioten herstura etengabe horren ikusteak, bere alabak, haurtzaroan hain ederrak iruditzen zitzaizkionak, Pariseko emakumeei, ametsetako edertasun baten eredia gauzatu ziotenei, konparatu beharrak, bere esperantzak harengan ezarriak zituen familia ugari horren zalantzazko geroak, hango uzta urrien biltzeko denboran erakutsi zuen arta zuhurak, familiarentzat dolarearen mahats-hondarrez egiten zuten edariak, hots, hemen alferretan aipa genitzakeen zirkunstantzia andana batek, handinahia ehunhalakotu eta ohore-egarria eman zioten. Anima handiei gertatzen zaien bezala, inori deus zor izan ez eta dena bere merezimenduei esker nahi zuen erdietsi. Hegoaldetarra oso zen ordea izaeraz: bere erabakien obratzerakoan beraz, zer nolako zalantzek harrapatzen ohi dituzten gazteak hauek itsasoaren erdian daudenean, ez

dakitela ez norat beren indarrak zuzendu, ez zein angeluren pean puztu beren belak, halakoxe zalantzek behar zieketen erabaki horiei erasan. Baldin eta hastapenean lanari arma barik lotu nahi izan bazuen, harremanak egin beharrrak berehala lilluraturik, emakumeek gizartearen bizitzan zenbaterainoko eragina duten ohar-tu zen, eta mundurat abiatzea erabaki zuen bat-batean, geriza emanen zioten emakume batzuen konkistatzeko bertan: eskas izanen zituen bada emakumeak halako mutil gazte suhar eta izpiritual batek, izpiritua eta karra itxura sotil batek eta halako edertasun urduriak, zeinaren aitzinean emakumeak gogara erortzen diren, handiagotzen zizkietenak? Burutazio horiek landen erdian erasan zioten, behiala bere arrebeekin, zeinek hagitz bertzelakaturia ediren baitzuten, alegeraki egiten zituen eguratsetan barna. Haren izebak, Marcillac-eko andereak, lehengo denboretan gorteari aurkeztua izan zenak, aristokraziaren gailurrak ezagutu zituen han. Gazte handinahiak antz eman zien tupustean, izebak hain maiz kulunkatu izan zuen oroitzen, zenbait konkista sozialen elemen-

tuei, bederen Zuzenbide Eskolan erdietsi nahi zituenak bezain inportantak zirenei; artean ere berriz lot litezkeen ahaidego-lokarriez galdetu zion. Arbola genealogikoaren abarrak inarrosi ondoan, andere zaharrak iritzi zion ezen, iloba lagundu ahal izanen zuten ahaide aberats eta berekoi guztien artean, Beauséant-eko andere bizkondesa izan litekeela denetan oztoporik gutien ezarriko zuena. Emakume gazte honi gutun bat usantza zaharrera izkiriatu eta Eugèneri eman zion, ziotsala ezen, bizkondesarekin ongi heltzen baldin bazen, honek gainerako ahaideak aurkeztuko zizkiola. Pariserat heldu eta zenbait egunen buruan, Rastignacek Beauséanteko andereari igorri zion bere izebaren gutuna. Bizkondesak biharamuneko dantza-gonbit batekin erantzun zion.

Hau zen pentsio burgesaren egoera orokorra 1819ko azaroaren hondarrean. Zenbait egun geroago, Eugene Beauséanteko anderearen dantzaldirat joan ondoan, gaueko bi orenak irian etxeratu zen. Galdurikako denboraren berreskuratzeagatik, ikasle adoretua, dantzan ari zela, argitu arte lan egitea hitz emana zen bere

buruari. Lehen aldiz behar zuen gaua eman auzo isil horren erdian, ezen energia faltsu baten xarmaren mende jarria zen munduaren distirak ikusirik. Ez zen andere Vauquerenean afaldu. Hortaz, apopiloek pentsatu ahal izan zuten dantzalditik biharamun goizeko ordu tikiak arte baizik ez zela itzuliko, batzuetan Prado-ko festetatik edo Odeongo dantzaldietatik etxeratu izan zen bezala, zetazko galtzerdiak lohitu eta zapatak lokazturik. Ateari morroiloa ezarri aitzin, karrikarat so egiteko ireki zuen Christophek. Rastignac une hartan agertu eta hotsik atera gabe igan ahal izan zen bere ganbararat, ondotik, zarata handia ateraiatz, Christophe jarraiki zitzaiola. Eugène erantzi zen, pantufletan jarri, xenila ziztrin bat jantzi, bere zohikatz-sua piztu, eta berehala lotu zen lanari, halako moldez non Christophek bere zapata handien zalapartarekin ere estali baitzitu mutil gaztearen prestakizun isilak. Eugène une batzuez pentsakor egon zen bere Zuzenbide liburuetan murgildu baino lehen. Pariseko modaren erreginetako bat, gainera Saint-Germain faubourgeko etxerik atseginena omen zuena, eza gutu berria zen Beuaséanteko andere bizkonde-

sarengan. Bertzalde, eta bere izen eta fortuna-
gatik, mundu aristokratikoaren gailurretako bat
ere bazen. Marcillaceko bere izebari esker,
harrera on egin zioten ikasle behartsuari etxe
horretan, fagore horren norainokoa jakin gabe.
Urrezko saloi horietan onartua izateak goi-noble-
ziako tituluek adina balio zuen. Gizarte horretan,
denetan eksklusiboenean, agertzearekin, orotar
joateko eskubidea bereganatua zuen. Biltzar dis-
tirant horrek zoraturik, bizkondesarekin apenas
hitz banaka batzuk eginik, Eugène, gau-jai horre-
tan lehiatzen ziren jainkosa paristar ugarien
artetik, mutil gazte batek hasteko adoratu beha-
rrak dituen emakume horietako baten bereizteaz
kontentatua zen. Restaudeko Anastasie konde-
sak, handia eta taiuz egina zenak, Pariseko irudi-
rik politenetako bat omen zuen. Irudika itzazue
begi beltz handi batzuk, esku bat ezinago ede-
rra, oin bat ongi taiutua, sua mugimenduetan,
Ronquerolles-eko markesak odol garbiko zaldia
deitzen zuen emakume bat, alegia. Zain fin
horiek ez zioten bat ere abantailarik edekitzen;
gorpuzkera zuen betea eta biribila, hargatik
lodiegi zegoela ezin egotz zekiokeela. *Zaldi odol*

garbikoa, emakume kastakoa, erranairu horiek ordezten hasiak ziren zeruko aingeruak, irudi ossianikoak eta dandismoak bazterturikako antzinako mitologia amoros guztia. Rastignacenzat ordea, Restaudeko Anastasie anderea desiratu beharreko emakumea izan zen. Bitan inskribatu ahal izan zen haren haize-emailean izkiriatu zaldunen zerrendan, eta lehen kontradantzan mintzatu ahal izan zitzaion.

— Non ediren zintzaket bertze aldi batez, anderea? erran zion tupustean, emakumeek hain atsegin duten barneko su horrekin. —Bada, erran zuen andereak, Bois-en, Bouffons-etan, ene etxean, denetan.

Eta hegoaldetar menturazaleak lehenbailehen nahi izan zuen kondesa ezti horri lotu, mutil gazte bat kontradantza batean eta vals batean emakume bati lot dakioken bezainbat bederen. Beauséanteko anderearen lehengusua zela erranez, emakume honek, berak dama handitzat hartu zuenak, gonbidatua izan zen, eta harenean sartzea ukan zuen. Eskaini zion azken irriñoaren ikustean, bere bisita beharrezkoa zela pentsatu zuen Rastignacek. Zortea izan zuen bere ez-

jakintasunaz trufa egin ez zion gizon batekin topatu ez izanaz, akats larria baitzen hori garai-ko mutin ospetsuen artean: Moulincourt, Ronquerolles, Maxime de Trailles, de Marsay, Ajuda-Pinto, Vandenesse eta bertze, han baitzeuden beren hutsalakerien loriaren erdian eta emakumerik dotoreenekin nahastekatuak: Lady Brandon, Langeais-eko dukesa, Kergarouët-eko kondesa, Serisy-ko anderea, Carigliano-ko dukesa, Ferraud kondesa, Lanty-ko anderea, Aiglemont-eko markesa, Firmiani anderea, Listomère-ko markesa eta Espàrde-ko markesa, Maufrigneuse eta Grand-Lieueetako dukesa. Beraz eta bere zorioneko, ikasle iaioa Montriveau-ko markesarekin fortunatu zen. Gizon honek, Langeaiseko dukesaren amorantea eta haur bat bezain inozoa zen jeneral batek, Restaudeko kondesa Helder-eko karrikan bizi zela jakinarazi zion.

Gaztea izan, munduaren egarria eduki, emakume baten goseak egon, eta bi etxe zabaltzen ikus beretzat! zangoa Saint-Germain faubourgean Beauséanteko bizkondesarenean sar, belauna Chaussée-d'Antin-en Restaudeko kondesarenean eman! behako batez Pariseko

saloietan lerroan pulunpa, eta aski mutil eder-
tzat begira bere burua han laguntza eta aterpe
ediretekotz emakumezko baten bihotzean! aski
handinahi senti ostiko handi bat ematekotz azpi-
ko unama manuari zeinaren gainean behar baita
ibili eroriko ez den jauzkariaren segurtasunaz,
eta emakume xarmangarri batengan denduna-
garik hoberena ediren ukan! Pentsamendu
horiekin eta zohikatz-su baten ondoan, Kodearen
eta miseriaren artean, sublime goratzen zen
emakume horren aitzinean, nork ez zukeen
Eugènek bezala etorkizuna gogoeta batez ikertu,
nork ez zukeen etorkizun hori arrakastaz horni-
tu? haren pentsamendu alderraiak hain lehiatsu-
ki zituen geroko bere bozkarioak jaten non Res-
taudeko anderearen ondoan izan uste baitzuen
noiz eta ere done Josefen aiei baten irudiko hats-
beherapen batek gauaren isiltasuna urratu bai-
tzuen, mutil gaztearen bihotzean halako moldez
burrunbatu non hilurran baten karranka iruditu
baitzitzaien. Atea astiki ireki zuen, eta korrido-
rean izan zenean, argi-zirrinta bat nabaritu zuen
Goriot zaharraren atearen behealdetik jalgitzen.
Auzoa alditxarturik ote zegoen beldurrez, Eugè-

nek begia sarrailarat hurbildu zuen, ganbararat behatu, eta han ikusi zuen agurea nolabaiteko lan batzuei lotua; izan ere, lan horiek sobera susmagarriak iruditu zitzaizkion beraiek ongi aztertuz gizartea zerbitzatu behar zuela ez pentsatzeko. Goriot zaharra, inondik ere mahai irauli baten hagaren gainean azpil bat eta zilarrezko zopantzi irudiko zerbait lotuak zituenak, kable irudiko zerbait ari zen itzulikatzen tresna hain ederki zizelkatu horien inguruan; hain indar handiz zerratzen zituen, halaber, non itxura guztien arabera haietarik lingoteak ateratzeko bihurtikatzen baitzituen. —Ximista gorria! hau gizona! erran zuen Rastignacek bere baitan agurearen beso zainartaren ikustean zeina, soka horrez lagundurik, hotsik atera gabe zilar urreztatua oratzen ari baitzen, halako irin ore a balitzan. Baina izan ote liteke beraz oho in bat edo gordeztaile bat, bere tratu ezkutuen segurkiago egiteko, zozoarena, ezinduarena egin eta eskaleen gisan bizi zena? erran zuen Eugènek bere baitan lipar batez altxatzen zela. Ikasleak begia sarrailan ezarri zuen berriz. Goriot zaharrak, kablea zabaldurik, zilarrezko ore hartu, mahai gainean

paratu han bere estalkia hedatu ondoan, eta biribilkatu zuen barra-itxura emateko asmoarekin, lan hau erraztasun miragarriaz egin zuelarik. — Auguste Poloniako erregea bezain indartsua ote litzateke, bada? erran zuen Eugènek bere baitan barra biribila guti gorabehera moldaturik egon zenean. Goriot zaharrak gogoia ilun eta begitar-tea hits so egin zion bere lanari, negar batzuk isuri, fu eman zilar horren bihurtzeko argia eman zion kriseiluari, eta Eugènek hasperen bat eginez oheratzen entzun zuen. —Burutik egina duk, pentsatu zuen Ikasleak.

— Gaixo neskatxa! erran zuen ozenki Goriot zaharrak.

Hitz horiek entzunik, Rastignacek zuhurtziazko jujatu zuen gertakari horren isilean atxikitzea, eta bere auzoaren sobera arinki gaitzestea. Itzultzera zihoan noiz eta ere, tupustean, hots bat atzeman baitzuen adierazten zail samarra eta eskaileran gora zetozen gizon batzuek, ilarizko xapinak zeramatzatenek, aterara behar zuena. Eugènek belarria zorroztu, eta izan ere bi gizonen hatsaren aldizkako soinua ezagutu zuen. Aditu gabe ez atearen kirrinka eta ez gizonen

pausoak, bat-batean distira ilaun bat ikusi zuen bigarren solairuan, Vautrin jaunarenean.

— Hau duk misterio pila hau pentsio burges batentzat! erran zuen bere baitan. Malla batzuk jaitsi zituen, zelatan jarri, eta urrearen hotsak jo zion belarria. Argia iraungi zen berehala, bi hatsak aditu ahal izan ziren hartzara, atea kirrinkarik atera izan gabe. Gero, bi gizonak jaitsez joan ziren heinean, hotsa ilaunduz joan zen.

— Nor dabil hor? oihukatu zuen Andere Vauquerek bere ganbarako leihoa irekiz.

— Ni! Kanpotik heldu naiz, amatto Vauquer, erran zuen Vautrinek.

— Bai arraroa! Christophe morroiloa ezarria zian bada, erran zion Eugènek bere buruari bere ganbaran sartzean. Itzarririk egon beharra duk norberaren inguruan Parisen zer gertatzen den ongi jakitekotan. Gertakari xume horiek bere gogoetaldi handinahikiro amorosetik aldaraturik, lanari lotu zen. Gogoia Goriot zaharraren karietara etortzen zitzaizkion susmoek barreiatuak, gogoia are barreiatuagorik Restaudeko anderearen irudiaren kausaz, zeina gero eta gehiago etorkizun distirant baten mezulari gisa pausa-

tzen baitzitzaion aitzinean, hondarrean oherat joan eta zabal-zabal lo egin zuen. Gazte-jendeak lanari agintzen dizkioten hamar gauetarik, zazpi loari ematen dizkiote. Hogei urtetik gorakoa behar da izan beilatzeko. Biharamun goizean laino lodi bat jabetu zen Parisez, laino horiek hain ongi dute estaltzen eta lanbrotzen non jenderik zehatzenak ere tronpatzen baitira orduarekin. Hitzorduak galtzen dira. Denek zortziak direla uste dute eguerdiak jotzen duenean. Bedera-tziak eta erdiak ziren eta andere Vauquer ez zen artean ere bere ohetik mugitu. Christophe eta Sylvie lodia, berant haiek ere, patxadaz ari ziren beren kafea hartzen. Kafe hori, apopiloentzako esnearen gaineko aparrak prestatua, Sylviak luzaz irakinarazten zuen andere Vauquer ohar ez zedin legez kontra altxatu detxema horretaz.

— Sylvie, erran zuen Christophek bere lehen ogi xigortua bustiz, Vautrin jaunak, alabaina gizon ona denak, bertze bi pertsona ikusi ditu barda. Andereak horregatik galdetzen badizu, ez zaio fitsik erran behar.

— Zerbait eman dizu?

— Ehun sos eman zizkidan eskupekotzat hila-
bete guztiko; «hago isilik» errateko molde bat.

— Hura eta andere Couture salbu, ez baitira
hain eskuxuhurrak, bertze guztiek ezkeraz nahi
ligukete kendu urtatsean eskuinaz ematen digu-
tena, erran zuen Sylviek.

— Zer ematen dute, gainera! egin zuen Chris-
tophek, txanpon ziztrin bat eta ehun sosekoa.
Hor duzu Goriot zaharra, bi urte honetan berak
egiten dituela bere zapatak. Poiret zikoitz hori
ziraia batik moldatzen da, eta nahiago luke lehe-
nago hura edan bere zapatatzarrei eman baino.
Ikasle kakanarruak berriz, berrogei sos ematen
dizkit. Berrogei sosekin neure eskuilak ere ezin
ditut ordaindu, eta bere arropa zaharra saltzen
du gainera. Hau etxekondoa!

— Bah! egin zuen Sylviek kafe xurrut ttiki
batzuk edanez, gure lantokiak auzoko hobere-
nak dira, hala ere: hemen ongi bizi gara. Baina,
Vautrin xahar potzoloa dela eta ez dela, Chris-
tophe, zerbait erran dizute?

— Bai, duela egun batzuk gizon bat topatu
dut karrikan eta erran dit: —Ez ote da bada zue-
nean bizi gizon gizen bat papiloteak tindatzen

dituena? Nik erran dut: «Ez, jauna, ez ditu tindatzen. Hura bezalako gizon alegera batek ez du gauza horietako astirik.» Hori erran diot bada Vautrin jaunari, eta erantzun dit: «Ongi egin duk, mutikoa! Erantzun ezak beti hola! Deus ez duk itsusiagorik geure zaharminen ezagutzera uztea baino. Ezkontza asko zapuzten ahal dizkik horrek.»

— Tira! ni ere nahi izan naute bada azokan saretaratu bere atorraren janzten ikusia ote nuen erran niezaien. Ah zer nazka! To, erran zuen Sylviek bere solasa moztuz, dagoenekotz hamarrak laurden guti jotzen Val-de Grâce-n, eta inor ez mugitzen hemen.

Ah bah! denak jalgiak dira. Andere Couture eta bere neskatxa zortzietatik joan dira Jainkoaren jatera Saint-Etienne-rat. Goriot zaharra fardel batekin jalgi da. Ikaslea ez da bere eskolak bukatu arte itzuliko, hamarretan. Eskailera garbitzen ari nintzela ikusi ditut joaten; Goriot zaharrak kolpe bat eman dit zeramanarekin, burdina bezain gogorra baitzen. Zer ote dabil bada gizontto hori? Bertzeek ziba baten gisan darabilte, baina gizon ona da alabaina, eta haiek guz-

तिक baino gehiago balio duena. Ez du gauza handirik ematen; baina igortzen nauen etxeetako andereek badakite eskupeko ederren luzatzen, eta xoragarri apainduak egoten dira.

— Alabak deitzen dituenak, ezta? Dozena bat dira.

— Sekula ez naiz birenerat baizik joan, honat etorri diren berberenerat.

— Tira, anderea mugitzen hasia da; bere zalaparta aterako du: joan beharra naiz. Kasu egiozu esnari, Christophe, katuarengatik.

— Nolzaz, Sylvie, hamarrak laurden guti jadanik! muxar batek bezala lo egitera utzi nauzu! Sekula ez da halakorik gertatu.

— Lainoagatik izan da, ganibetaz ebakitzeko gisakoa baita.

— Baina gosaria?

— Bah! zure apopiloak heriosuhar altxa dira denak; goiz gorri-gorrian egin dute hanka denek.

— Mintza zaitetz ongi, Sylvie, segitu zuen andere Vauquerek: goizean goiz joan dira erraren da.

Ah! anderea, nahi duzun bezala erranen dut. Hamarretan gosaltzen ahal zara, dena den.

Mixoneta eta Porru ez dira mugitu ere egin. Etxean dauden bakarrak dira, eta lo zorro-zorro daude biak.

— Baina, Sylvie, biak elkarrekin ematen dituzu, zera balira bezala...

— Zer balira bezala? segitu zuen Sylviek irri zozo zakar bat lerratzen zitzaiola. Halakoari halako.

— Bitxia da, Sylvie: nola etxeratu da bada barda Vautrin jauna Christophek morroiloa ezarri ondoan?

— Alderantziz oso, anderea. Vautrin jauna aditu du, eta hari atearen irekitzera jaitsi da. Eta hara zer pentsatu duzun zuk...

— Emadazu ene atorra, zoaz fite bazkariaren drezatzera. Maneia itzazu zikiroaren hondarrak lursagar batzuekin, eta erants udare egosi batzuk, ardit bat aleko egiten dutenetakoak.

Istant batzuen buruan, andere Vauquer jaitsi zen justuki haren katuak atzaparkada batez gopor bat esne estaltzen zuen platera uzkaile eta lehiaz hurrupatzen ari zenean.

Mistigris, oihu egin zuen andereak. Katuak alde egin zuen, gero haren zangoen kontra

igurztera etorri zen. Bai, bai, egin izikorrarena, katutzar lazo horrek! erran zion. Sylvie! Sylvie!

— Ongi da! zer, anderea?

— Ikus ezazu, bada, katuak edan duena.

— Christophe mando horrek du hobena, estalkiaren ezartzeko erran baitiot. Non gertatu da? Egon zaitez lasai, anderea; Goriot zahararren kafea izanen da. Ura botako diot barnerat, ez da horretaz ohartuko. Deusi ez dio kasu egiten, ezta jaten duenari ere.

— Norat joan da, bada, tximino hori? erran zuen andere Vauquerek platerak bere tokian ezarriz.

— Inork ote daki bada? Bortzehun demonioen tratuak egiten ditu.

— Sobera lo egin dut, erran zuen andere Vauquerek.

— Baina horregatik dago anderea arrosa bat bezain fresko...

Une hartan txintxarriak hots egin zuen, eta Vautrin sartu zen saloian bere ahots zakarraz kantari:

Mundua dut luzaz kurritua.

Eta orotan naute ikusia...

— Oi! oi! egunon, andere Vauquer, erran zuen ostalera ikusirik, jendetasunez bere besotetan hartu zuena.

— Ea, buka ezazu behingoz.

— Errazu mutiria, segitu zuen gizonezkoak. Ea, errazu. Nahi duzua bada erran? Zaude, lagunduko zaitut mahai-tresnen paratzera. Ah! Gisakoa naiz, ezta?

*Ilebeltza eta ilehoria gorteia
Maita. desira...*

— Zerbait bitxia ikusi berria nauzu.

...menturara!

— Zer, erran zuen alarguntsak.

— Goriot zaharra Dauphine karrikan zen zortziak eta erdietan, mahai-tresnak eta galoiak erosten dituen urregilearenean. Dirutza eder baten truke saldu dio etxeko tresna zilarrezko bat, aski polliki bihurturik ofiziokoa ez izateko.

—Bah! egiatan?

— Bai. Banentorren etxe alderat, Erregeren Postagatik atzerrirantz doan adiskide bati agur erran ondoan; Goriot zaharra iguriki dut ikusteko, irri pixka bat egiteko asmotan. Auzo horretan gora hartu du bada, de Grès karrikarat, eta Gobseck deritzon lukurrari ezagutu batenean sartu da. Bilau lanjeros bat da tipo hori, dominoak egiteko gauza bere aitaren hezurrekin; judu bat, mairu bat, greko bat, buhame bat, ebasten lan handihandiak emanen lituzkeen gizon bat, Bankuan sartzan ditu bere ezkutuak.

— Zer egiten du bada han Goriot zahar horrek?

— Ez du deus egiten, erran zuen Vautrinek, desegiten baizik. Ergel bat da neska horiengatik errekarat joateko bezain zozoa...

— Hor dator! erran zuen Sylviek.

— Christophe, oihukatu zuen Goriot zaharrak, igan hadi enekin. Christophe Goriot zaharrari jarraitu eta berehala jaitsi zen berriz.

— Norat hoa hi? erran zion andere Vauquerek bere mutilari.

— Manu baten egitera Goriot jaunarentzat.

— Zer ote da hau? erran zuen Vautrinek Christopheren eskuetatik indarka gutun bat hartu eta hau irakurriz: *Restaudeko Anastasie andere kondesari*. Eta norat zoaz bada? segitu zuen gutuna Christopheri itzuliz.

— Helder-eko karrikat. Hau andere kondesari ez bertze inori emateko manua dut.

Zer dago bada hemen barnean? erran zuen Vautrinek gutuna argi kontran ezarriz; banku-bilete bat? ez. Gutunazala erdireki zuen. —Zor-agiri ordaindu bat, egin zuen oihu. Arraioa! bai adeitsua dela agure-xaharra! Hoa, birigarro xahar hori, erran zuen bere esku zabalaz panpako bat eman ez buruan Christopheri, zeina dadu bat bezala itzulikarazi baitzuen, eskupeko eder bat ukanen duk.

Mahaia prestaturik zegoen. Sylviek esnea irakiten zuen. Andere Vauquerek, Vautrinek lagundurik, ahapetik kantari segitzen baitzuen, sutontzia pizten:

*Mundua kurritua dut luzaz
Eta orotan naute ikusia...*

Dena prest izan zenean, andere Couture eta andereño Taillefer sartu ziren.

— Nondik zatoz bada hain goiz, ene andere ona? erran zion andere Vauquerek andere Coutureri.

— Saint-Étienne-du-Mont-en geure otoitzen erratetik, ez garea bada egun Taillefer jaunarenat joan beharrak? Gaixo enettoa, dardarka dabil hosto bat bezala, segitu zuen andere Couturek sutontziaren aitzinean jarri eta bere zapatak, ketan hasi zirenak, haren ahorat hurbiltzen zituela.

— Bero zaitetz bada, Victorine, erran zuen andere Vauquerek.

— Ongi dago, andereñoa, Jainko jaunaren otoiztea aitaren bihotza hunki dezan, erran zuen Vautrinek umezurtzari kadira bat aitzinatzen ziola. Baina hori ez duzu aski. Adiskide bat behar zenuke itsas-otso horri bere egitatearen berri emanen liokeena, salbaia horrek hirur milioi bai omen baitauzka, eta ez baitizu ezkon-saririk ematen. Neskabila pollit batek ezkonsaria behar du egungo egunean.

— Haur gaixoa, erran zuen andere Vauque-
rek. Ea, ene poxia, zure aita anker horrek ahal
duen guztia egiten du hortaz zorigaitza berega-
natzeko.

Hitz horien entzutearekin, Victorineren
begiak malkoz bete eta alarguntsa isilik gelditu
zen andere Couturek egin Zion zeinu bat ikusi
eta.

— Ikus ahal bageneza bederen, mintza ahal
benenkio, bere emaztearen azken gutuna eman,
segitu zuen Komisario-Manatzailearen alargun-
tsak. Sekula ez naiz hura postatik igortzera
ausartu; ezaguna du ene izkiriamoldea...

— *Ô emakume hobengabe, zorigaiztoko eta
jazarriak*, egin zuen oihu Vautrinek moztuz,
horra beraz zer kinkatan zaudeten? Ordea zen-
bait egun barne zuen aferez axolatuko naiz, eta
dena ongi joanen da.

— Oi! jauna, erran zuen Victorinek behako
bat aldi berean hezea eta erregarria jaurtikiz
Vautrini, horretaz hunkitu ez zenari, bideren bat
bazeneki ene aitarenganat heltzeko, errozu argi-
ki gehiago estimatzen ditudala haren maitasuna
eta ene amaren ohorea munduaren ondasun

guztiak baino. Apur bat ezti ahal bazeneza haren garraztasuna, Jainkoa otoiztuko nuke zure alde. Segur izan ene eskerrona ukanen duzula...

— *Mundua kurritua dut luzaz*, kantatu zuen Vautrinek ahots maltzur batez.

— Une hartan, Goriot, andereño Michonneau eta Poiret jaitsi ziren Sylvie zikiro-hondarren maneiatzeko egiten ari zen saltsa gorriaren urri-
nak erakarririk. Zazpi mahaikideak elkarri egu-
non eman ez mahairat jarri zirelarik, hamarrak jo-
zuten eta karrikan ikaslearen pausoa aditu zen.

— Ah! ederki, Eugène jauna, erran zuen Syl-
viek, egun denekin gosalduko zara.

Ikasleak apopiloei diosala egin, eta Goriot zaharraren ondoan jam zen.

— Abentura bitxi bat gertatu zait oxtion,
erran zuen zikirotik nasaiki hartuz eta andere
Vauquerek beti ere begiekin neurtzen zuen ogi-
puska bat hartuz.

— Abentura bat! erran zuen Poiretek.

— Eta? zergatik harrituko zinateke, agure zir-
tzil hori? erran zion Vautrinek Poireti. Jauna ongi
egina duzu holakoan ukaiteko.

Andereño Tailleferrek, herabe, behako bat luzatu zion ikasle gazteari.

— Konta iezaguzu zeure abentura, eskatu zuen andere Vauquerek.

— Atzo Beauséanteko andere bizkondesareneko dantzaldian nintzen. Emakume hori lehen-gusina dut eta etxe bat sekulakoa dauka, apartamentu zetaz jantziak eta. Festa bat apartekoa eman digula, alegia, non zer bat bezala dibertitu bainaiz, erre...

— Sinola bat bezala, erran zuen Vautrinek kolpetik etenez.

— Jauna, segitu zuen Eugènek bipilki, zer nahi duzu erran?

— *Sinola* diot, zeren erresinolak erregeak baino hagitzez ere gehiago dibertitzen baitira.

— Egia: nahiago nuke bada txori ttiki arranguragabe hori izan errege baino, zeren... egin zuen Poiret idemistak.

— Tira, segitu zuen ikasleak elea ebakitzen ziola, dantzaldiko emakume ederrenetako batekin, kondesa liluragarri batekin, sekula ikusi dudan kreaturarik eztienearekin, egin dut dantzari. Mertzika-loreez orrazturik zegoen, lore-sor-

tarik ederreña zuen saihetsean, urrinik gozoena ematen zuten lore naturalez eгина; baina, bah! ikusi egin beharko zenuten, ez daitekeena da dantzak biziturikako emakume baten agerraraztea. Kondesa dibino hori topatu dut bada egun goizean, bederatziak irian, oinez, de Grès karrikan. Oi! bihotza taupaka hasi zait, uste nuen...

— Honat zetorrela, erran zuen Vautrinek ikasleari behako sakon bat jaurtikiz. Gobseck xaharreneerat, lukurrariarenerat, zihoan inolaz ere. Inoiz Pariseko emakumeen bihotzak miatzen badituzu, lukurraria aurkituko duzu han amoran-tearen aitzinetik. Zure kondesa horrek Anastasie izena du, eta Helder-eko karrikan bizi da.

Izen horren aditzearekin, ikasleak irmoki behatu zion Vautrini. Goriot zaharrak brastakoan burua goratu zuen. Behako argi eta arranguratsu bat, apopiloak ustekabeen harrapatu zituena, jaurtiki zuen bi solaskiderenganat.

— Christophe berantegi helduko da, hura joana izanen da beraz harat, erran zuen minez Goriotek.

— Asmatu dut, erran zuen Vautrinek andere Vauqueren belarrirat makurtuz.

Goriotek oharkabetarik eta zer jaten zuen jakin gabe jaten zuen. Sekula ez zuen izan une hartan baino ergel eta beregaindu itxura handiagorik.

— Nor arraiok erran dizu haren izena? galde-tu zuen Eugènek Vautrin jaunari.

— Ah! ah! hortxe dago koska, ihardetsi zuen Vautrinek.

Goriot zaharrak bazekien! zergatik ez nuen nik ere jakinen?

— Goriot jauna, hots egin zuen ikasleak.

— Zer! erran zuen agure gaixoak. Beraz, eder-ederra zegoena atzo?

— Nor?

— Restaudeko anderea.

— Hara gure agure lizuna, erran zion andere Vauquerek Vautrini, nola pizten zaizkion begiak.

— Haren amorantea ote da beraz? erran zion ahapetik andereño Michonneauk ikasleari.

— Oi! bai, ikaragarri ederra zegoen, segitu zuen Eugènek, Goriot zaharrak irrikaz so egiten ziola. Beauséanteko anderea han izan ez balitz, ene kondesa dibinoa izanen zen dantzaldiko erregina, mutil gazteek harentzako begiak baizik

ez zituzten, ni zerrendan izen-emanikako hama-
bigarrena nintzen, kontradantza guztiak dantza-
tzen zituen. Bertze emakume guztiak amorra-
tzen zeuden. Atzo kreatura bat zorionekoa izan
bada, hura izan da inolaz ere. Arrazoi guztia
dugu erranez ez dela deus ederragorik fragata
belak zabalik, zaldia lauhazka eta emakumea
dantzan baino.

— Atzo gurpilaren gainean, dukesa batenean,
erran zuen Vautrinek; egun goizean mailadiaren
behealdean, lukurrari batenean: horra Pariseko
emakumeak. Senarrek ez baldin badezakete
haien luxu izarigabea manten, beren burua sal-
tzen dute. Beren buruaren saltzen ez badakite,
beren amen sabelak irekiko lituzkete zerez disti-
ra han bilatzeko. Hots, mila zakurkeria eta bi
gehiago egiten dituzte. Gauza jakina da hori, ala-
jainkoa!

Goriot zaharraren aurpegia, ikaslea entzunez
egun eder bateko eguzkia bezala argitu zena,
goibeldu egin zen Vautrinen ohar krudel hori adi-
turik.

— Eta? erran zuen andere Vauquerek, non dago beraz zure abentura? Hitz egin diozua? Zuzenbidea ikasi nahi ote zuen galdetu diozua?

— Ez nau ikusi, erran zuen Eugènek. Baina Pariseko emakume politenetako baten, dantzal-ditik goizaldeko bi orenetan itzuli behar izan duen emakume baten, de Grès karrikan, bedera-tzietan aurkitzea, ez ote da bada bitxia? Ez da Paris bezalakorik holako abenturentzat.

— Bah! hagitzez bitxiagoak ere badira, oihu egin zuen Vautrinek.

Andereño Tailleferrek doi-doia entzuna zuen hori, hain baitzen kezkatu egitera zihoan entseguagatik. Andere Couturek jaikitzeke kei-nua egin zion janztera joateko. Bi damak jalgi zirelarik, Goriot zaharrak haiek bezala egin zuen.

— Eta? Ikusi duzuea? erran zuen andere Vauquerek Vautrini eta bere bertze apopiloiei. Argi da emakume horiengatik errekaratua dela.

— Sekula ez didate sinetsaraziko, erran zuen ikasleak, Restaudeko kondesa ederrak zer ikusi-rik baduela Goriot zaharrarekin.

— Baina, erran zion Vautrinek eteten ziola, interesik tikiena ere ez dugu horren zuri sinesta-

razteko. Gazteegia zara oraindik Parisen ongi ezagutzeko, geroago jakinen duzu badirela guk *gizon grinadunak* deitzen ditugunak... (Hitz horien entzutearekin, andereño Michonneauk buru-argi aire batez behatu zion Vautrini. Errejimenduko zaldi bat tronpetaren soinua aditzean erran zenuketen. —Ah! ah! egin zuen Vautrinek bere solasa moztuz hari behako sakon baten jaurtikitzeke, *zer*, guk ere *ez ditugu bada* geure grina ttikiak *izan?* (Neskazaharrak giza irudi biluziak ikusi dituen serora batek bezala apaldu zituen begiak.) —Ongi da! segitu zuen, jende horiek behin asmo bat kaskoan sartzen dutenean, behin ere ez dute horretan gibelerat egiten. Iturri jakin bateko ur jakin baten, eta maiz mahelduaren, egarririk baizik ez dute; ur haren edateko, beren emazteak, beren haurrak salduko lituzkete; beren arima deabruari salduko liokete. Batzuentzat, iturri hori da jokoak, Bursa, taula edo intsektu bilduma bat, musika; bertze batzuentzat, mizkinkeriak egiten dizkien emakume bat. Hauei, lurreko emakume guztiak eskaintzen ahal dizkiezue, trufa egingen lukete haietaz, beren grina satisfatzen diena baizik ez dute nahi.

Askotan emakume horrek ez ditu bat ere maite, portu txarra ematen die, biziki garesti saltzen satisfazio-pizar horiek; tira bada, ene fartsantak ez dira hargatik aspertzen, eta beren hondarreko burusia ere eramanez lukete Bahitetxerat beren azken ezkutuen ematekotz emazteari. Goriot zaharra tipo horietako bat da. Zuhurra delakotz ustiatzen du kondesak, eta horra handikiak zer diren! Gizagaixo dohakabeak kondesa baizik ez darabil gogoan. Bere grinatik landa, ikusten duzu, kaiku bat bertzerik ez da. Hitz egin iezaiozu gai horretaz, haren aurpegiak diamant batek bezala distiratuko du. Ez da zaila sekretu horren asmatzen. Egun goizean zilarra eramanez du saltzera, eta aita Gobseckenean sartzen ikusi dut, de Grès karrikan. Entzun ongi! Handik etorritakoan, Christophe ertzo hori igorri du Restau-deko kondesarenerat. Mutilak gutunaren helbidea erakutsi digu, barnean zor-agiri ordaindu bat zeukana. Argi da, kondesa ere lukurrariarenerat baldin bazihoan, premia zuelakotz zihoala. Goriot zaharrak jendetasunez ordaindu du haren orde. Burua hautsi beharrik ez da hori argi ikusteko. Horrek frogatzen dizu, ene ikasle gaztea,

ezen, zure kondesak bere irri, dantza eta zimino-keriak egin, bere mertxika-loreak kulunkatu, eta bere soinekoa berdintzen zuen bitartean, barneak jaten zegoela, erraten den bezala, bere diru-agiri protestatuak, edo eta amorantearenak, zerabiltzala gogoan.

— Egiaren jakiteko alimaleko gogoia ematen didazu. Bihar joanen naiz Restaudeko anderea-renerat, oihu egin zuen Eugènek.

— Bai, erran zuen Poiretek, Restaudeko anderearenerat joan beharra da bihar.

— Han aurkituko duzu menturaz Goriot giza-gaixoa, bere adeitasunen ordaina eskuratzerako joana.

— Baina, erran zuen Eugènek higuin aire batez, zuen Paris hau lupetza hutsa da, beraz.

— Eta lupetza bitxia gainera, gehitu zuen Vautrinek. Kotxez lohitzak direnak jende pres-tuak dira, oinez lohitzak direnak filusak. Izan ezazu zerbait bere tokitik kentzeko zorigaitza, bitxikeria bat bezala erakutsia zara Justizia-Jau-regiko plazan. Ebats milioi bat, norbait bikaintzat hartuko zaituzte saloietan. Hogeita hamar milioi

ordaintzen dizkiozu Jendarmeriari eta Justiziari moral horren atxikitzeko. Ederra zinez!

— Nolaz, egin zuen oihu andere Vauquerek, Goriot zaharrak bere zilarrezko baxera urtu duela?

— Estalkian bi urzapal zituena? galdetu zuen Eugènek.

— Horixe, bai.

— Estimatu handitan zuen bada, negar egin zuen goporra eta platerxka bihurdikatu zitue-nean. Halabeharrean ikusi nuen, erran zuen Eugènek.

— Bere bizitza bezainbat maite zuen, erantzun zuen alarguntsak.

— Ikusten duzue bada zein gizon sutsua den gizagaixoa, oihu egin zuen Vautrinek. Emakume horrek badaki, bai, haren flañukatzen.

Ikaslea bere ganbararat igan zen. Vautrin jalgi zen. Handik laster, andere Couture eta Victorine Sylvie haientzat bilatzera joan zen alogereko kotxe batean sartu ziren. Poiretek bere besoa eskaini zion andereño Michonneauri, eta Landa-reen Jardinerat egurastera joan ziren biak, egu-neko bi ordu ederretan.

— Hara, bada! Horra beraz biak abantzu ezkonduak, erran zuen Sylvie lodiak. Egun lehen-dabizikotz jalgi dira elkarrekin. Hain dira idorrak biak non, elkar berotuz geroz, ardaiak bezala su hartuko bailukete.

— Kasu andereño Michonneauren xalari, erran zuen irriz andere Vauquerek, ardaia bezala irazekiko baita.

Arratsaldeko lauretan, Goriot etxeratu zenean, han ikusi zuen, bi lanpara ketsuren argirat, Victorine begiak gorri zituela. Andere Vauquer han zen goizean Taillefer jaunari eginikako bisitaldi antzuaren kontakizunaren entzuten. Bere alaba eta emakume zahar horren errezibitzeaz gogaiturik, Taillefer jaunak bereganaino heltzeko baimena eman zien bere esplikazioen emateko.

— Ene andere maitea, erraten zion andere Couturek andere Vauqueri, pentsa ezazu bada jartzeko ere ez diola Victorineri erran; neskatila zutik egon da denbora guztian. Eni, aldiz, haserretu gabe, hotz-hotzean, biak bere etxerat joanez alferrik ez nekatzeko erran dit; andereñoak, alaba deitu gabe, bere buruaren kaltez ari zela

hari enbarazu eginez (urtean behin, ankerra halakoa!); Victorineren ama fortunarik gabe esposatu baitzen, deus eskatzekorik ez zuela; hots, gauzarik gogorrenak, neskatxa gaixo hau negarretan urtarazi dutenak. Neskatila orduan bere aitaren oinetarat jaurtiki da, eta kuraiatz erran bere amarengatik baizik ez zela hainbertze lehiatzen, haren borondatea obedituko zuela txintik erran gabe, baina otoi defunta gaixoaren testamentua irakur zezala; neskatilak gutuna hartu eta eman egin dio munduko gauzarik ederrrenak eta hobekien sentituenak erranez. Ez dakit non ikasi dituen. Jainkoak hain ongi iradokitzen zizkion, non tuntun bat bezala bainengoen negarrez hari aditzean. Badakizua bizkitartean zer egiten zuen gizon beldurgarri horrek? Azkazalak moztu. Victorine gaixoak malkoz busti gutun hori hartu, eta supazterrerat bota du erranez: «Aski da!» Bere alaba, muinkatu asmoz eskuak hartu nahi zizkiona, altxarazi nahi izan du, baina beregandik aldaratu ditu. Ez dea bada ankerkeria bat hori? Haren seme lerdo porrokatua bere arreba agurtu gabe sartu da.

— Munstroak ote dira bada? erran zuen Goriot zaharrak.

— Eta gero, erran zuen andere Couturek giza-gaixoaren erranari kasurik egin gabe, aita-semeak handik joan dira ni agurtuz eta otoi desenkusatzeko eskatuz, presako egitekoak omen zituzten. Horra gure bisita. Bere alaba ikusi du bederen. Ez dakit nik nolaz uka deza-keen, bu ur tanto bezain elkar irudiak dira.

Apopiloak, barnekoak ala kanpokoak, batzuk bertzeen ondotik heldu ziren, elkarri egunon emanez, eta batak bertzeari erranez Pariseko zenbait jende-mailatan halako jite jostagarria erakusten duten huskeria horietarik, astakeria osagarri nagusi eta merezimendurik handiena ihakina edo ahoskera duen jite jostagarria bera. Argot suerte hori taigabe aldatzen da. Hatsarri duen arraileriak sekula ez du hilabete bat baino gehiago irauten. Gertakari politiko batek, Epaite-giko prozesu batek, karriketako kantu batek, aktore baten irri-solasek, orok du balio adimenduaren joko horretan aritzeko, oroz gain ideiak eta hitzak pilotak bailiran bildu eta erraketen medioz haien berriz elkarri itzultzean datzan

joko horretan, alafede. Dioramaren asmakuntza berriak, optikaren ilusioa Panorametan baino goragoko heinetarat altxatzen zuenak, *ramaz* mintzatzeko arraileria eramana zuen zenbait pintura-lantegitarat, halako irrigailu-suerte bat pintore gazte batek, andere Vauqueren pentsio-ko bezero zenak, han kutsatu zuena.

— Eta? *Poirrret* jauna, erran zuen Museume-ko enplegatuak, nola doa *osarama* ttiki hori? Gero, erantzuna iguriki gabe: ene Damak, xan-grinaturik zaudete, erran zien andere Couture eta Victoreneri.

— *Jaterra* goaza? egin zuen oihu Horace Bianchonek, Rastignacen adiskide zen medikuntzako ikasle batek, *usque ad talones* jaitsi zait tripa-zorroa.

— Berebiziko *hotzirama* dago! erran zuen Vautrinek. Aparta zaitez bada, xaharra! Mila dea-bru! sutontziaren aho guztia estaltzen duzu oina-ekin.

— Vautrin jaun argi hori, erran zuen Bianchonek, zergatik diozu *hotzirama*? Ez dago ongi errana, *hotzarama* da.

— Ez, erran zuen Museumeko enplegatuak, hotziramada, arauari jarraiki: zangoak hotzituak ditut.

— Ah! ah!

— Hona hemen bere gorentasuna Rastignaceko markesa, zuzenbide okerrean doktore, oihu egin zuen Bianchonek Eugèneri lepotik oratuz eta ito nahi bailuen hertsatuz. Eit! bertze guztiak, Eit!

— Andereño Michonneau poliki-poliki sartu zen, mahaikideak agurtu deus erran gabe, eta hirur emakumeen ondorat joan zen jartzera.

— Beti ikararazten nau saguzahar horrek, erran zion ahapetik Bianchonek Vautrini andereño Michonneau seinalatuz. Nik, Gall-en sistema ari bainaiz ikasten, Judasen konkorrak dituela uste dut.

— Ezagutzen zenuen? erran zuen Vautrinek.

— Nor ez da harekin inoiz edo behin fortuna-tu! erantzun zuen Bianchonek. Mutxurdi hori azkenean habe bat osoki jaten duten har handi horietako bat begitantzen zait, alajainkoa!

— Horixe bertzerik ez baita, gazte, erran zuen Vautrinek papiloteak orraztuz.

*Eta arrosa izaki, arrosak bizi direna bizi
izana da,
goiz bateko tartea.*

— Ah! ah! heldua da bada zoparama ederra, erran zuen Poiretek Christophe eltzekoa errespetuz atxikitzen zuela sartzen ikusirik.

— Barka iezadazu, jauna, erran zuen andere Vauquerek, azazopa duzue hau.

— Gazte guztiek irriari eman zioten.

— Hondoratua, Poiret.

— Poirrrrrrette hondoratua!

— Marka bi pondu amatto Vauqueri, erran zuen Vautrinek.

— Norbaitek erreparatu dio goiz honetako lainoari? erran zuen enplegatuak.

—Zen, erran zuen Bianchonek, laino bat frenetikoa eta antzik gabea, laino bat goibela, malenkoniosa, berdea, hats-bahigarria, laino bat goriotiarra.

— Goriorama, erran zuen pintoreak, han ez baitzen pikorik ikusten.

— Ei, milord Gâôriotte, xutaz ari direla!

Mahaiaren hondarrean jarria, zerbitzatzeko erabiltzen zen atetik hurbil, Goriot zaharrak burua altxatu zuen zamauaren azpian zeukan ogi-zati bat usnatuz, zenbaitetan berragertzen ohi zen merkatari zeneko ohitura zahar batengatik.

— Zer, bada? oihukatu zion garrazki andere Vauquerek koilara, plater eta ahotsen soinuari nagusitu zitzaion ahots batez, ez duzua ogia on atzematen?

— Aitzitik, anderea, erantzun zuen, Étampeseko irinaz egina da, lehen kalitateko irinaz, alafede.

— Zertan ikusten duzu hori? erran zion Eugènek.

— Zuritasunean, gustuan.

— Sudurraren gustuan, usaina hartzen baitiozu: erran zuen andere Vauquerek. Hain zara ekonomo bilakatzen ari non azkenean aurkituko baituzu sukaldeko haizea hurrupatuz mantentzeko moldea.

— Eraman ezazu orduan patentatzera, egin zuen oihu Museumeko enplegatuak, fortuna ederra eginen duzu.

— Utzazue bakean, fideogile izana dela sine-
tsarazteko egiten du hori, erran zuen pintoreak.

— Hortaz, erretorta bat ote da zure sudurra?
galdetu zuen berriz Museumeko enplegatuak.

— Erre zer? egin zuen Bianchonek.

— Erre-ge.

— Erre-mentari.

— Erre-sinola.

— Erre-tolika.

— Erre-pika.

— Erre-ka.

— Erre-a.

— Erre-matea.

Zortzi erantzunak tiro-erauntsi jarraiki baten
zalutasunaz jalgi ziren salako alde guztietatik,
eta hainbatenaz ere irrigarriago izan ziren, non
Goriot dohakabeak halako zozo itxuraz so egiten
baitzien mahaikideei, hizkuntza arrotz baten
konprenitzera entseatzen ari den gizon bat irudi.

— Erre! erran zion Vautrini, harengandik hur-
bil zegoenari.

— Erredios, arraioa! erran zuen Vautrinek
Goriot zaharraren kapela kaskako batez hondo-

ratuz, buru gainean eman eta kapela bekainetarraino jaitsarazi zionaz.

Agure gaixoa, itsumustuko jazarraldi horrek zur eta lur, mugitu gabe egon zen lipar batez. Christophek, zopa bukatua zuelakoan, gizagaixoaren platera eraman zuen; hainbertzenarekin, Goriotek, kapela berriz altxatu eta gero, bere koilara hartu zuenean, mahaian jo zuen. Mahai-kide guztiak irriz lehertu ziren.

— Jauna, erran zuen agureak, kitzikatzaille eskasa zara, eta holako bertze zartakada bat ematen baldin badidazu...

— Zer, bada, xaharra? erran zuen Vautrinek eteten ziola.

— Zer, bada? Egunen batean garesti baino garestiago ordainduko duzula hori.

— Infernuan, ezta? erran zuen pintoreak, ume bihurriak kokatzen dituzten xoko beltz ttiki horretan!

— Zer, bada? andereño, erran zion Vautrinek Victoreneri, ez duzu deus jaten. Aita egoskor agertu da bada?

— Ikaragarri, erran zuen andere Couturek.

— Zentzarazi beharra dugu bada, erran zuen Vautrinek.

— Baina, erran zuen Rastignacek, Bianchonengandik aski hurbil kausitzen zenak, andereñoak auzia ezar liezaioke hazkurriaren karietara, ez baitu jaten. Ei! ei! ikus ezazue nolako begiez behatzen dion Goriot zaharrak andereño Victoreneri.

Agureari jatea ahanzten zitzaion neskatila gaixoari behatzeko, zeinaren azpegietan min bat egiazkoa ageri baitzen, aita maite duen haur zapuztuaren mina bera.

— Ene adiskide maitea, erran zuen Eugènek ahapetik, tronpatuak gaituk Goriot zaharraz. Ez duk ez ergela eta ez zaingabeko gizona. Aplikaezaiok Gallen sistema hori, eta erradak zer pentsatzen duan. Zilarrezko azpil bat bihurdikatzen ikusi diat barda, argizagia izan balitz bezala, eta, oraintxe berean ere, ohiz kanpoko sentimenduak salatzen ditik haren aurpegiak. Sobera misteriosa iruditzen zaidak haren bizitza aztertua izatea merezi ez izateko. Bai, Bianchon, alferrik egiten duk irri, ez nabilek arrailerietan.

— Gizon hau medikuntzako kasu berezia duk, erran zuen Bianchonek, ongi duk; diseekatuko diat, berak nahi badu.

— Ez, haztaiezaiok burua.

— Ah! tira, kutsakorra izan zezakek ergelkeria.

Biharamunean Rastignac dotorezia handi batez jantzi, eta, arratsaldeko hirurak irian, Restaudeko anderearenerat joan zen, bidean halako esperantza burtzoragarri eroei ematen zelarik, gazteen bizitza bihotz-hunkiduretan horren jori bilakarazten dutenei: ez dituzte orduan ez oztopoak eta ez arriskuak kalkulitzen, orotan arrakasta ikusten dute, bizitza poesia bihurtzen dute soilki beren irudimenarekin jostatuz, eta zorigaitzean ala tristezian erortzen dira artean ere haien irrika neurrigabeetan baizik bizi ez ziren egin-asmoek lur jotzen dutenean; ezjakin eta herabe ez balira, ezinezkoa litzateke gizartearen mundua. Eugène kasu handi-handirekin zihoan den-mendren ere ez lohitzeko; alabaina Restaudeko andereari zer erranen liokeen pentsatuz zihoan, adoretz hornitzen zen, ustezko solasaldi baten erantzunak asmatzen, ateraldi bitxiak,

erranaldi tailleyrandiarrak prestatzen, bere etorkizunaren oinarri ezartzen zuen deklarazioaren aldeko zirkunstantzia tikiak suposatuz. Lohiez zikindu zen, Palais-Royalerat behar izan zuen joan hala bere boten ziratzera nola bere galtzaren igurztera. Aberats banintz, erran zuen bere baitan *bada ez bada* ere hartu zuen hogeita hamar soseko txanpon bat trukatzuz, kotxez joan eta neure gogara pentsatu ahal izanen nian. Noizbait ere Helder-eko karrikarat arribatu da eta Restaudeko kondesaz galdetu. Egun batean triumfatuko duela segur den gizonaren amorrazio hotzarekin, halaxe bildu zuen baila oinez eta atean kotxe baten hotsa aditu gabe iragaten ikusia zuten jendeen behako mesprezagarria. Behako hori hainbatenaz ere mingarriago izan zitzaion non bere gutiagotasunaz jabetu baitzen baila horretan sartu zenean, hantxe ikusi baitzuen putinka zaldi eder bat cabriolet pinpirina horietako bati lotua, bizitza xahutzaile baten luxua erakutsi eta Pariseko zorion guztien aztura iradokitzen duten cabriolet horietako bati, alegia. Umore txarrez jarri zen, bera bakarrik. Burmuinean zabaldu zitzaizkion tiraderak, agude-

ziaz beterik ediretea espero zuenak, hertsia eta zozoturik gelditu zen. Kondesaren erantzuna igurikitzen zueno, zeinaganat ganbarako lekaio bat joaten baitzen bisitariaren izenaren erratera, Eugène zango bakar baten gainean pausatu zen aitzinganbarako leiho baten aitzinean, ukondoa leiho-herskailu batean ezarri, eta bailarat behatu zuen oharkabetarik. Berantetsi zen, handik alde eginen zuen hegoaldetarren gogortasun horrez, zuzenean doalarik mirariak erditzen dituenaz, jantzia izan ez balitz.

— Jauna, erran zuen ganbarako lekaioak, anderea bere apaingelan dago eta biziki lanpetua, ez dit erantzun; baina jaunak saloirat iragan nahi badu, bada han norbait jadanik.

Hitz bakarrez beren nagusiak akusatzen zein jujatzen dituzten jende horien botere beldurgarria miretsiz batean, Rastignacek nahitara ireki zuen ganbarako lekaioa jalgia zen atea, dudarik gabe lekaio ahalkegabe horiei sinetsarazteko ezagutzen zituela etxe hartan bizi zirenak; alabaina, aztoraturik oso, gela baterat jo zuen non lanparak, arasak, bainuko xukaderen berotzeko tresna bat, ageri eta aldi berean korridore ilun

eta eskailera gorde baterat eramaten baitzuen. Aitzinganbaran aditu zituen irri itoek gainezka eragin zioten bere nahasmenduari.

— Jauna, saloia honatako aldean da, erran zion ganbarako lekaioak begirune faltsu eta bertze arraileria bat irudi duen horrekin.

Eugène hain zen tarrapataka itzuli gibelerat non bainu-ontzi batekin behaztopatu baitzen. Hala ere, zorionez bere kapela atxiki zuen bainu-ontzirat eror zekion eragozteko. Une hartan, ate bat ireki zen lanpara tiki batek argitu korridore luzearen gibelean, Rastignacek han aditu zuen batera Restaudeko anderearen ahotsa, Goriot zaharrarena, eta musu baten soinua. Jangelan sartu zen, aldean bertze iragan zuen, ganbarako lekaioari jarraitu zitzaion, eta lehen saloi batean sartu zen non leiho ondoan pausaturik gelditu baitzen, leiho horrek bailarat ematen zuela ohar-tuz. Goriot zahar hori egiazki bere Goriot zaharra zenetz nahi zuen ikusi. Bihotzak pilpira estrainioak ematen zizkion, Vautrinen gogoeta ikaragarriak zetorzkion gogorat. Ganbarako lekaioak saloiko atean igurikitzen zuen Eugène, baina supituki mutil gazte dotore bat jalgi zen handik,

eta erran zuen ezin-egonez: «Banoa, Maurice. Andere kondesari erranen diozu ordu erdiz baino gehiagoz egon naizela haren begira.» Mutiri horrek, dudarik gabe mutiri izateko eskubidea eduki uste zuenak, Italiako xaramela bat kantatu zuen ahapeka Eugène, hala ikaslearen itxura ikusteagatik nola bailarat so egiteagatik, zegoen leihorat zihoala.

— Jaun kondeak hobeko luke baina bertze istant batez igurikitzea, Andereak bukatu du, erran zuen Mauricek aitzinganbararat itzulirik.

Une hartan, Goriot zaharra kotxeen atetik hurbil jalgitzera zihoan eskailera tikiaren aterabidetik. Gizagaixoa bere euritakoa ari zen ateratzen eta bazihoan haren zabaltzera, ohartu gabe ate handia irekirik zegoela tilbury bat gidatzen zuen mutil gazte apaindu bati bide emateko. Goriot zaharrak gibelerat egiteko astia baizik ez zuen izan zanpatua ez izateko. Euritakoaren tafetanak zaldia izitu zuen, zeinak jauzi egin eta harmailen kontra joan baitzen heriosuhar. Mutil gazte hura koleragorriturik bihurtu zen, Goriot zaharrari behatu eta, gizagaixoa jalgi aitzin, egin zion diosala bat zeinak erakusten baitzuen beha-

rezkoak zaizkigun lukurrariei ematen diegun begiramendu bortxatua, edo gizon ustel bati nahitaez erakutsi beharreko, baina geroago ahalkearazten gaituen errespetu hori. Goriot zaharrak adiskidetasunezko agur tiki batez, ontasunez beteaz, erantzun zuen. Gertakari horiek oinazturaren zalutasunaz iragan ziren. Sobera kordegabetua bakarrik ez zegoela ohar-tzeko, Eugènek kondesaren ahotsa aditu zuen bat-batean.

— Ah! Maxime, bazindoazen bada, erran zuen destaina apur batez nahasi halako gaitzespen-doinuaz.

Kondesa ez zen tilburyaren sarreraz ohartu. Rastignac tupustean itzuli zen gibelerat eta kondesa ikusi zuen lakrikunki jantzia katxemira zurizko txabux laxo arrosadun batez, artarik gabe orraztua, Pariseko emakumeak goizean jantzirik egoten diren gisan; urrin gozoa zerion, bainu bat hartua zegoen inolaz ere, eta haren edertasunak, hala errateagatik leundua zenak, boluptuosagoa irudi zuen; begiak bustirik zeuzkan. Gazteen begiak badaki ooren ikusten: landare batek behar dituen elikagaiak airean irens-

ten dituen bezala, hala bat egiten dira mutil gazteen izpirituak emakumearen isuriei. Eugènek emakume horren eskuen freskotasun loratua sentitu zuen beraz haien ukitu beharrik izan gabe. Ikusten zituen, katxemiran barna, txabuxak, apur bat irekia zegoenak, noizean behin agerian utzi eta ikaslearen behakoa bereganatzen zuen bularraren kolore zurigorriak. Kondesak ez zuen gerrontzearen beharrik bat ere, gerrikoak berak bakarrik markatzen zion bere gerri malgua, lepoak amodioari dei egiten zion, oinak ttiki eta pollit ageri ziren pantufletan. Haren muinkatzekotz Maximek esku hori hartu zuelarik, Eugènek Maxime ikusi zuen, eta kondesak Eugène. Ah! zu zara, Rastignaceko jauna, kontent naiz oso zure ikusteaz, erran zuen kondesak adimendunek hautematen dakiten halako eite batez.

Maximek aldiz Eugèneri aldiz kondesari behatzen zien sarkoiaren handik hastanarazteko aski molde adierazgarriaz. «Maltea, espero dinat kanporat bidaliko dunala kakanarru hori!» Hitz hauek klarki eta aditzeko moldean itzultzen zituzten mutil gazte ahalkegabeki burgoi horren

soak, Anastasie kondesak Maxime deitu eta orain aurpegia ikertzen baitzion emakume baten sekretu guztiak, emakume hori horretaz ohartu gabe, salatzen dituen manukortasun horrekin. Rastignacek gorroto bortitz bat nabaritu zuen mutil gazte horren alderat. Lehenbizi, Maxime-ren bilo hori eder eta ongi kizkurtuek bereak zein itsusiak zituen erakutsi zioten. Gero, Maximek bota fin eta garbiak bazituen, bereak ordea, ibiltzean ezarri zuen artarengatik ere, lokatzezko azal mehe batez estaliak zeuzkalarik. Hondarrik, Maximek xenila bat bazerabilen gerria sotilki hertsatu eta emakume polit baten eitea ematen ziona, Eugènek ordea, bi orenak eta erdietan, frak beltz bat zeraman bitartean. Charente-ko haur izpiritualak hauteman zuen dandy segail, handi, begi-argi eta begitarte zurbileko horri, umezurtzen errekaratzeko ere gai diren gizon horietako bati, janzkerak ematen zion gailentasuna. Eugèneren erantzunaren begira egon gabe, Restaudefeko andereak hega ahala egin zuen ihes bertze saloirat, kulunkatzera utziz bere txabuxaren hegadak, tximeleta baten irudia ematen ziotela bildu eta barreiatu egiten zire-

nak; eta Maxime haren ondotik joan zen. Eugène, sutan, Maximeren eta kondesaren ondotik joan zen. Hirur pertsonaia hauek bekoz beko kausitu ziren beraz, tximiniaren parean, saloi handiaren erdian. Ikasleak bazekien poxelu eginen ziola Maxime higuingarri horri; baina, Restaudeko anderearen atsekabetzeko arriskuarekin, dandyari poxelu egin nahi izan zion. Bat-batean, mutil gazte hori Beauséanteko anderearen dantzaldian ikusia zuela oroitu zelarik, asmatu zuen zer zen Maxime Restaudeko anderearentzat, eta lerdokeria handiak eginarazten zein arrakasta handia ematen duen gazteen ausartzia horrekin, bere baitan erran zuen: «Honatx neure arerioa, garaitu behar diat.» Zuhurgabea! ez zekien, ez, Maxime de Trailles kondeak irain zezaten utzi, lehena tiratu eta bere lehiakidea hiltzen zuela. Eugène ehiztari trebea zen, baina artean ere bota gabe zegoen tiro batez hogeitapanpina hogeita bitik tiralekuan. Konde gaztea suaren altzoan besaulki batean etzan, su-hatzak hartu eta hain mugimendu bortitz eta zaputzez kitzikatu zuen sua, non Anastasieren aurpegi ederra goibeldu baitzen bat-batean. Emakume

gaztea Eugènerenganat itzuli eta behako hotz itaunkor horietako bat jaurtiki zion, hots, «zergatik ez duzu alde egiten» hain klarki dioten behako horietako bat non jende ontsa ikasiak berehaxe joaten baitira «agur, joan beharra dut» edo horrelako zerbait erranez.

Eugènek aurpegi atsegina ezarri eta erran zuen: —Anderea, presa nuen zure ikusteko...

Istantean isildu zen. Ate bat ireki zen, tilburya gidatzen zuen jauna bat-batean agertu zen, kapelarik gabe, kondesa agurtu zuen, Eugèneri arta handiz behatu, eta eskua luzatu zion Maximeri, ziotsala: «Egunon.» Eugène partikularzki harritu zuen halako begitarte anaikorrak. Probinzietako gazteek ez dakite zein gozoa den hiruren arteko amodio-bizitza.

— Restaudeko jauna, erran zion kondesak ikasleari senarra erakutsiz.

Eugène barne-barneraino makurtu zen.

— Jauna, erran zuen kondesak aitzinerat joanez eta Eugène Restaudeko kondeari aurkezten ziola, Rastignaceko jauna duzu, *Beauséanteko andere bizkondesaren ahaidea Marcillactarren aldetik!* hitz horiek, kondesak kasik hanpurutsu-

ki erran zituenek, etxekandere batek berean handikiak baizik ez dituela hartzen frogatuz atzematen duen halako harrotasun-suertez, miragarrizko ondorioa izan zuten, kondeak bere aire hotz zeremoniosa utzi eta ikaslea agurtu zuen.

— Atsegin handia da, erran zuen, jauna, zure ezagutzen egitea.

Maxime de Traillesekin berak ere behako urduri bat jaurtiki Eugènerenganat eta bere mutiritasuna utzi zuen bat-batean. Makil ukaldi horrek, izen-deitura batzuen ahalmenak emanaraziak, hogeita hamar kutxa ireki zituen hegoaldetarren burmuinean, eta prestatua zuen kuraia bihurtu zion. Bat-bateko argi batek klarki ikusarazi zion Pariseko goi-gizartearen giroan, artean ere goibel eta ilun ageri zitzaionean. Maison-Vauquer, Goriot zaharra bere gogotik urrun oso zituen orduan.

— Marcillactarrak iraungiak zeudela uste nuen, erran zion Restaudeko kondeak Eugèneri.

— Bai, jauna, erantzun zuen. Ene osaba handia, Rastignaceko zalduna, Marcillac familiako primarekin esposatu zen. Ez zuten alaba bat bai-

zik izan, Clarimbault-eko marexalarekin esposatu zena, Beauséanteko anderearen amaren aldeko aitatzirekin. Gu adar gaztea gaituzue, hainbatenez ere adar pobreagoa bera non ene osaba handiak, almiranteordeak, dena galdu baitzuen Erregeren zerbitzutan. Gobernamentu iraultzaileak ez zituen gure harturenak onartu nahi izan Indietako Konpainiaren likidazioan.

— Jauna, ez zen bada zure osaba handia *le Vengeur*-eko buruzagia 1789 baino lehen?

— Halaxe da.

— Ene aitatzia ezagutu zuen orduan, *le Warwick*-eko buruzagia baitzen.

Maximek besagainak apur bat altxatu zituen Restaudeko andereari behatzen ziola, eta hau erran bide zion: «Galduak gaitun, itsasoaz hasten baldin bada horrekin solasean.» Anastasiek Trailleseko jaunaren behakoa konprenitu zuen. Emakumeek duten ahal miresgarri horrez, irribarre egiten hasi zen erranez: «Zatoz, Maxime, badut zerbait zuri galdetu beharra. Jaunak, ibil zaitezte lasai itsasoan *le Warwick* eta *le Vengeur*-en oroitzapenetan.» Kondesa jaiki eta erki-detasun nausagarriz beterikako keinu bat egin

zion Maximeri, harekin batean apaingelarat abiatu zenari. Bikote *morganatiko* hori, frantsesez ordainik ez duen erranmolde aleman zoragarria bera, aterat arribatu orduko, kondeak eten zuen Eugènerekin zerabilen solasaldia.

— Anastasie! geldi zaitez, maitea, egin zuen oihu aldarte txarrez, ongi dakizu ezen...

— Berehalaxe nator, erran zuen kondesak eteten ziola, une bat bertzerik ez dut behar Maximeri erratekotz manatu nahi diodana.

— Kondesa berehala itzuli zen. Gogoak eman bezala jokatu ahal izatekotz beren senarren izaeraren miazera bortxaturik, konfiantza preziatu baten ez galtzeagatik noraino joan daitezkeen badakiten, eta, beraz, bizitzako gauza tikieta sekula kontra egiten ez dieten, emakume guztien antzera, kondesa hautemanik zegoen, kondearen ahotsaren goitibeheitien arabera, ez zela bat ere segurtasunik izanen apaingelan geldituz geroz. Eugène zen makur horien guztien sorburu. Kondesak hortaz, mesprezuz josirikako aurpegi eta keinu batez, ikaslea erakutsi zion Maximeri, zeinak biziki epigramatikoki erran baitzuen kondeari, honen emazteari eta Eugèneri: —

Aizue, hitz egin beharra duzue zuek, ez dizuet enbarazurik egin nahi; adios. Eta joan zen.

— Geldi zaitetz, Maxime! oihukatu zuen kondeak.

— Etor zaitetz afaltzera, erran zuen kondesak zeina, bertze behin ere Eugène eta kondea utzirik, lehen saloirat jarraitu baitzitzaion Maximeri. Han egon ziren biak elkarrekin, behar bezain luzaz egon ere, Restaudeko jaunak Eugene bidaliko zuela segur izateko-edo.

Rastignacek, noiz irri-karkailaka, noiz eleketan, noiz isilik aditzen zituen; baina ikasle maliziosak iaioitasun handi-handia erakusten zuen Restaudeko jaunarekin, hura balakatuz nahiz eztabaidetarat lerraraziz, kondesa berriz ikusi eta Goriot zaharrarekin nolako harremanak zituen jakiteko asmoz. Emakume hori, argiro Maximez maitemindurik zegoena; emakume hori, senarra bere mende zeukana, fideogile zaharrari isilpean lotua, misterio handi bat iruditzen zitzaion. Misterio hori zulatu nahi zuen, ustez-eta halaran errege bakar egonen zela emakume hain eminentki paristar horren gainean.

—Anastasie, erran zuen kondeak bere emazteari dei eginez berriz.

— Ea, ene Maxime gaixoa, erran zion mutil gazteari, etsi beharra dinagu. Arratsa arte...

— Espero dut, *Nasie*, erran zion belarrirat, pikutara bidaliko dunala mutil zirtzil hori, zure txabuxa doi bat zabaldu orduko begiak txingarrak irudi izekitzen zitzaizkiona. Proposamenak eginen lizkizuke, hersturetan sartuko, eta haren hiltzera bortxatuko nindukezu.

— Burutik zaudea, Maxime? erran zuen kondesak. Ez direa bada ikasle zirtzil horiek ximist-orratz hautak? Hastiaraziko diot, bai eiki, Restau-di.

— Maxime irriz lehertu eta jalgi zen ondotik kondesa zerraikiola, zeina leihoan jarri baitzen mutil gaztearen kotxerat igaiten ikusteko, bere zaldia putinkarazi eta zigorra inarrosten zuela. Ate handia hertsu zen arte ez zen itzuli.

— Aizu, maitea, erran zion kondeak emakumea sartu zenean, jaunaren familia bizi den herria ez dago Verteuil-etik urrun, Charenten. Jaunaren osaba handiak eta ene aitatzik elkar ezagutzen zuten.

— Kontent naiz jende ezagunen artean izateaz, erran zuen kondesak adigabeturik.

— Uste duzun baino gehiago, erran zuen aha-petik Eugènek.

— Nola? erran zuen kondesak bizi-bizia.

— Baina, gehitu zuen ikasleak, gizon bat ikusi berria dut zuenetik jalgitzen zeinarekin atez ate bainago pentsio batean, Goriot zaharra.

«Zaharra» hitzaz apaindu izen horren aditzearekin, kondeak, suaren zirikatzen ari baitzen, su-hatzak surat jaurtiki zituen, eskuak erre balizkiote bezala, eta jaiki zen.

— Jauna, Goriot jauna erran zenezakeen bederen!

Senarraren ezinegona ikusirik kondesa lehenik zurbildu, gero gorritu eta nabarmen poxelaturik agertu zen azkenik; hau erantzun zuen, natural itxura eman nahi izan zion ahotsaz, eta faltsuki jabaldurik: «Ez daiteke inor aurki gehiago maita genezakeenik...» Isilik gelditu zen, bere pianoari so egin, zerbait miragarria bururatuko balitzaio bezala, eta hau erran zuen: —Atsegin duzua musika, jauna?

— Anitz, erantzun zuen Eugènek tomate bat bezain gorri eta lerdokeria larriren bat egin ote zuen irudipen nahasiak zozoturik.

— Kantuz aritzen zarea? galdetu zuen kondesak bere pianorat joan eta tekla guztiak arrapaladan joaz, beheko ut-etik hasi eta goiko fa-raino dantzarazten zituela. Rrrrah!

— Ez, anderea.

Restaudeko kondea harat-honat zebilen geldigabe.

— Pena da, triumfatzeko bide handi bat galdua duzu. —*Ca-aro, ca-a-ro, ca-a-a-a-ro, non dubitare*, kantatu zuen kondesak.

Goriot zaharraren izenaren erratearekin, Eugènek bertze ukaldi bat eman zuen azti-makilttoaz; orain ordea «Beauséanteko anderearen ahaidea» hitzek ekarri zutenaren kontrako ondorioa ekarri zuen. Kinka larri batean zegoen, bitxikeriazale baten etxean fagorez sartu eta, eskultura tikiz beterikako armairu bat oharkabetarik ukiturik, hiruzpalau buru gaizki eratxikiak erorarazi dituen gizon baten kinka larrian, alafede. Amildegi baterat nahi izan zukeen bere burua egotzi. Restaudeko anderearen aurpegia idor,

hotz ageri zen, eta haren begiak, ez-axoldurik, ikasle dohakabearenen ihesi zebiltzan.

— Anderea, erran zuen, badukezu zertaz solas egin Restaudeko jaunarekin, onets itzazu otoi ene errespetuak, eta baimena eman...

— Etortzen zaren aldi oro, erran zuen arrapaladan kondesak Eugène zeinu batez geldiaraziz, segur izan zaitez ezen, hala Restaudeko jaunari nola neroni, atsegirik handiena emanen diguzula.

Eugènek bikoteari agur sakon bat egin eta kanporat jalgi zen ondotik Restaudeko jauna zeramala, zeinak, ikaslearen erreguak gorabehera, aitzinganbararaino lagundu baitzuen.

— Jaun hori agertuko den aldi oro, erran Zion kondeak Mauriceri, ez anderea eta ez ni izanen gara etxean.

Eugène atariko eskaillerarat heldu zenean, euria ari zela ohartu zen. —Ea, erran zuen bere baitan, errebeskeria bat egin bide diat, ez baitakit ez haren sorburua eta ez haren ondorea; jantzia eta kapela hondatu ditiat gainera. Zoko batean behar nitek egon Zuzenbidea buru-belarri ikasten, magistratu garratz bat bilakatzea

bertze burubiderik ez ibili buruan. Nolaz joanen ote naiz mundurat, han taiuz jokatu ahal izateko, ezin konta ahala gauza behar ditudala: cabriole-tak, bota ziratuak, baitezpadako edergailuak, urrezko kateak, goizetik hasi eta orkatzezko eskularru zuriak, sei libera gusta direnak, eta gauzez beti ere eskularru horiak? Agure-zahar pikaro galanta, bai, Goriot xaharra!

Karrikako atearen azpian kausitu zelarik, alokairuko kotxe bateko karrozainak, zeinak dudarik gabe ezkonberri batzuk eraman berriak baitzituen eta orain nagusiari kontrabandoko kurtsa batzuk ebatsi bertze asmorik ez baitzerabilen, keinu bat egin zion Eugèneri, hau euritakorik gabe, soineko beltz, maripolis zuri, eskularru hori eta bota ziratuekin ikusi zuenean. Eugène errabiatu zegoen, mutil gazte bat, leizezulo batean sartzen denean, barnean zorioneko aterabide bat atzeman uste bailuen bere hartan gero eta gehiago sartzera bultzatzen duten errabia sor horietako batek harrapaturik. Burua higitu eta baietz erran zion karrozainaren galdeari. Sakelan hogeita bi sos baino gehiago eduki gabe, kotxerat igan zen non zenbait laranja-

lorek eta kanetilazko izpi batzuek ezkonberrien pasaia salatzen baitzuten.

— Norat doa jauna? galdetu zuen karrozainak, ordukotz bere eskularru zuriak erantziak zituenak.

— Arraioa! erran zuen Eugènek bere baitan, hondatzen ari naizenaz geroz, zerbaitetako behintzat balio behar zidak horrek! Zoaz Beausé-antenekorat, erantsi zuen ozenki.

— Zeinetarat? erran zuen karrozainak.

— Hitz sublime horiek Eugène nahasi zuten. Ezjakin dotore hark ez zekien bi Beauséanteko bazirenik; ez zekien, ez, zeinen aberatsa zen beraz axolatzen ez ziren ahaideetan.

— Beauséanteko bizkondearenerat, harako karrika har...

— De Grenell-erat, erran zuen karrozainak burua higitu eta Eugèneri eteten ziona. Gehiago ere baduzu bada, Beauséanteko kondearena eta Beauséanteko markesarena, Saint-Dominique karrikan, gehitu zuen oin-maila altxatuz.

— Badakit, ihardetsi zuen Eugènek idorki. Agi denaz egun mundu guztia trufatzen duk nitaz! erran zuen bere kapela aitzineko kuxinen gaine-

rat jaurtikiz. Errege baten jarei-saria gostako zaidak eskapada hau. Baina bederen zinez aristokrata handien gisan eginen zioat bisita neure lehengusina ustezko horri. Goriot xaharra gutienaz ere hamar libera gusta zaidak ja, zitala alaina! Ala ene fedea, Beauséanteko andereari konstatuko zioat neure abentura, menturaz irri eraginen zioat. Jakinen dik, dudarik gabe, arratoi zahar isats-gabe horren eta emakume eder horren harreman kriminalen misterioaren berri. Hobe duk ene lehengusinari atsegina ematea ezen eta mutur joka ibiltzea emakume moralgabe horrekin, hagitz garestia begitantzen zaidanarekin. Bizkondesa ederraren izena hain ahaltsua baldin bada, zer indar izanen du bada haren pertsonak? Jo dezagun gorenerat. Zeruan zerbait nahi delarik erdietsi, Jainkoa enkaratu beharra duk!

Hitz hauek dira ikaslea beren artean kulunkarazten zuten ehunka pentsamenduen laburpena. Baretasun eta segurtasun apur bat berreskuratu zuen euriaren erortzen ikustearekin. Bere buruari erran zion ezen, gelditzen zitzaizkion ehun soseko txanpon preziatuetako bi xahutu behar

bazituen, hala behar eta bere jantzi, bota eta kapelaren kontserbatzen erabiliko zituela. Ez hargatik irri-mugimendurik gabe, bere karrozaina entzun zuen oihuka: *Atea, otoi?* Alabardari gorri eta urreztatu batek bere erroetan kirrinkarazi zuen jauregiko atea, eta han ikusi zuen Rastignacek bozkario ezti batez bere kotxea arkupearen azpian iragan, baila barnean itzuli, eta harmailetako markesinaren pean gelditzen. Karrozaina, gorritz bordatu hopalanda lodi urdinez jantzia, oin-mailaren zabaltzera jaitsi zen. Kotxetik jaistean, Eugènek irri ito batzuk, peristilotik jalgitzen zirenak, aditu zituen. Hiruzpalau lekaio arrailerietan hasiak ziren jadanik emaztegai arruntaren karroza horren ganean. Haien irriek ikaslea argitu zuten kotxe hori Pariseko berlinarik dotoreenetako bati konparatu zionean, hantxe baitzegoen bi zaldi ernairi loturik zeinak, belarrietan arrosak zituztela eta ahokoari hagin-ka, karrozain hautseztatu batek, gorbata ederra zuenak, bridetatik atxikitzen baitzituen ihesi joan nahi balute bezala. Chaussée-d'Antinen, Restaudeko andereak hogeita sei urteko gizonaren cabriolet fina zuen bere bailan. Saint-Ger-

main faubourgean, jaun handi baten luxuak igurikitzen zuen, hots, hogeita hamar mila liberak ere ordainduko ez zuten karrozak.

— Nor ote dago hor? erran zuen bere baitan Eugènek apur bat berant konprenituz Parisen oso emakume guti ziratekeela gizon bati lotu gabekorik, eta erregina horietako batez jabetzea odola bera ere baino garestiago zela. Mila deabru! inolaz ere, lehengusinak ere badik bere Maxime!

Larriduraz beterik igan zituen harmailak. Haren agertzearekin, ate beiraduna zabaldu zen; lekaioak serio aurkitu zituen, zurratzen ohi dituzten astoak irudi. Bera izana zen festa harre-ra-saloi handietan izan zen emana, Beauséanteko behealdean kokaturik daudenetan. Astirik izan ez zuelarik, gonbitearen eta dantzaldiaren artean, lehengusinari bisita egiteko, ez zen beraz artean ere sartu Beauséanteko anderearen ganbaretan; lehen aldikotz ikustera zihoan beraz emakume gailen baten arima eta azturak ezagutarazten dituen dotoretasun pertsonal horren miresgarritasunak. Hainbatenaz ere azterketa bitxiagoa bera non Restaudeko ande-

rearen saloiak konparabide bat ematen baitzion. Laurak eta erdietan, agertzeko gisan zegoen bizkondesa. Bortz minutu lehenago, ez zuen bere lehengusua errezibituko. Eugène, Parisen ziren etiketez deus ez zekiena, lorez beterikako eskailera handi, maila zuriko, baranda urreztatuko eta tapiz gorriarekiko batetik, Beauséanteko andereaganat izan zen eramana, zeinaren ahozko biografia, arrats oro belarritik belarrirat Pariseko saloietan kontatzen diren istorio aldakor horietako bat, ez baitzekien.

Bazuen hirur urte bizkondesa Portugaleko jaunik ospetsu eta aberatsenetako bati, Ajuda-Pintoko markesari, loturik zegoela. Horrelako lotura lañoek hainbertze erakargarritasun dituzte horrela lotu pertsonentzat, non bertze inor ere ezin baitezakete tartean jasan. Halatan Beauséanteko bizkondea bera emana zen etsenplurik publikoari, gogo onez ala gogo txarrez, elkartze morganatiko hori begiratz. Adiskidetasun horren lehen egunetan, bizkondesa bi orenetan ikustera etorri zirenek, Ajuda-Pintoko markesa aurkitzen zuten han. Beauséanteko andereak, bere atearen hesteko ez-gauza, biziki kaltegarria

izanen zena, hain hoztasun handiz zituen jendeak hartzen eta hain ergelki egoten zen bere saloiko erlaintzari beha, non denak ere ohartzen baitziren zenbateraino gogaitarazten zuten. Parisen jakin zelarik gogaikarria zela Beauséanteko anderearentzat bi orenetatik laurak bitartean haren ikustera etortzea, bakartasunik handienan kausitu zen. Bouffonsetarat zein Operarat joaten zen Beauséanteko eta Ajuda-Pintoko jaunak lagundurik; baina bizitzen dakien gizonaren gisan, Beauséanteko jaunak biak bakarrik uzten zituen beti emaztea eta Portugaldarra beren tokirat eraman ondoan. Ajudako jaunak ezkondu behar zuen. Rochefideko andereño batekin esposatzekoa zen. Goi-gizarte guztian pertsona bakar bat zegoen artean ere ezkontza horren berri ez zekiena, pertsona hori Beauséanteko anderea zen. Bere adiskideetako batzuk mintzatu zitzaizkion hala-hola horretaz; hark irri egin zuen, ustez-eta emakume horiek zorion tirriatu bonkordokarazi nahi ziotela. Bizkitartean ezkondeiak publikatzera zihoazen. Nahiz ezkontza hori bizkondesari jakinaraztera etorria zen, Portugaldar ederra ez zen artean ere hitz bat beraren

erratera ausartu. Zergatik? deus ez da inolaz ere zailagoa emakume bati halako *ultimatum* baten gaztigatzea baino. Zenbait gizon erosoago kausitzen dira guduka-tokian, bihotza ezpata batez mehatxatzen dien gizon baten aitzinean, ezen ez, bi orduz bere eresiak erraten aritu ondoan, hil irudi egin eta usaintzeko gatzak eskatzen dituen emakume baten aitzinean. Hortaz, une hartan, Ajuda-Pintoko jauna herstura handi batean zegoen, eta bere hartatik nahi zuen jalgi, erranezeta bere buruari ikasiko lukeela Beausé-anteko andereak berri hori; izkiriatu eginen lioke, hagitzez errazagoa litzateke erailketa amoros hori gutunez egitea zuzenki hitz eginez baino. Bizkondesaren lekaio ganbarazainak Eugène de Rastignac jauna iragarri zuelarik, Ajuda-Pintoko markesa bozkarioz asaldarazi zuen. Jakin ezazue ongi: emakume amoros bat are iaioagoa da bere buruaren durduzarazten plazeraren aldatzen baino. Bazter utzia izateko menean dagoela, bizkorrago asmatzen du zeinu baten zentzua Virgilioren zaldia amodioa iragartzen dioten urruneko korspuskuluak usaintzen baino. Horregatik, izan zaitezte segur Beau-

séanteko andereak atzeman zuela asaldura gogoz bertzeko, apal, baina lañoki ikaragarri hori. Eugènek ez zekien Parisen ez dela sekula inorenerat agertu behar aitzinetik etxeko adiskideen medioz senarraren, emaztearen ala seme-alaben istorioa ezagutu gabe, ez egiteagatik-eta halako inozokeriarik, Polonian bitxikiro haiengatik hauxe erraten ohi dutenik: *Uztart bortz idi zeure orgari!* sartu zaren ateka gaiztotik atera zaitzaten, inondik ere. Solasaldiaren zorigaitz horiek bat ere izenik ez badute oraino Frantzian, da hemen ezinezkotzat jotzen diratekeelako, gaizki-erranek erdiesten duten gaitzeko publizitatea dela kausa. Restaudeko anderearenean, zeinak bortz idiak orgari uztartzeko astia ere ez baitzion utzi, lohian sartu ondoan, Eugène baka-rrik zen gauza bere itzaingoari berriz lotzeko, Beauséanteko anderearenerat agertuz. Baina Restaudeko anderea eta Trailleseko jauna itsuski poxelatu bazituen, Ajudako jauna ateka gaiztotik behar zuen atera.

— Adios, erran zuen Portugaldarrak presa guztian aterat zihoala noiz eta ere Eugène sartu

baitzen saloi airos, gris eta arrosa batean, non luxuak dotoretasuna baizik ez baitzuen irudi.

— Arratsa arte, dena den; erran zuen Beauséanteko andereak burua itzuli eta markesari behako bat jaurtikiz. Ez garea Bouffonsetarat joanen?

— Ezin dut, erran zuen atearen sagarra hartuz.

Beauséanteko anderea jaiki eta bereganat etorrarazi zuen, kasurik tikiena ere egin gabe Eugèneri, zeinak, zutik, miragarrizko aberastasun baten dirdariek zozoturik, mairuen ipuinak egiazkoak zirela sinesten baitzuen, eta non sartu ez zekiela baitzegoen, emakume horren agerian kausituagatik, honek so egiten ere ez ziolakotz. Bizkondesak bere eskuineko eri handia goratu eta, mugimendu airos batez, toki bat erakusten zion bere aitzinean markesari. Izan zen, jestu horretan, grinazko hain despotismo bortitza non markesak atearen sagarra laxatu eta emakumearenganat zuzendu baitzen. Eugènek jelsiaz beterik behatu zion.

— Horra, erran zuen bere baitan, berlinako gizona! Baina, premiazkoa ote da beraz zaldi

biziak, libreak eta urrea erruz edukitzea emakume baten behakoaren erdiestekotz Parisen? Luxuaren deabruak bihotzean ausiki zion, dirugoseak bere mende hartu, urre-egarriak eztarria idortu. Ehun eta hogeita hamar libera zeuzkan bere hiruhilabete bakoitzeko. Aitak, amak, anaiek, arrebek, izebak, ordea, hilabeteko berrehun libera ere ez zuten denen artean gas-tatzen. Oraingo bere egoeraren eta heldu beharreko jomugaren artean zalu eginikako konparazio horrek are baldituagoa utzi zuen.

— Zergatik, erran zuen bizkondesak irriz, *ezin zaitezke Italiarretarat etor?*

— Aferak! Ingalaterrako enbaxadorearenean afaltzekoa nauzu egun.

— Laga itzazu, bada!

Gizon bat gezurretan ari denean, gezurrak gezurren gain pilatu beharra du ezinbertzez. Ajudako jaunak irriz erran zuen orduan: «Behartzen nauzua?»

— Baiki.

— Horixe nahi nuen entzun, ihardetsi zuen bertze edozein emakume jabalduko zuten beha-

ko argi horietako bat jaurtikiz. Bizkondesaren eskua hartu, muinkatu eta joan zen.

Eugènek bere iletik pasatu zuen eskua eta diosala egiteko makurtu zen ustez-eta Beausé-anteko anderea beraz oroituko zela; honek bat-batean jauzi egiten du, arrapaladan joaten solairurat, lasterka egiten leihorat eta Ajudako jaunari beha gelditzen kotxerat igaiten zen bitartean; belarria zorrozten du manuaren entzuteko, eta lekaioari aditzen dio karrozainari erraten: «Rochefideko jaunarenerat.» Hitz horiek, eta Ajudakoa bere kotxean nola murgildu zen ikustea, oinaztura eta ximista bezala izan ziren emakume honentzat, hartzara goganbehar lazgarri batzuek erasan ziotenarentzat. Horixe bertzerik ez dira handikien munduan hondamendirik izigarrienak. Bizkondesa bere lo-ganbaran sartu zen, bere mahaian jarri, eta paper eder bat hartu zuen.

Ingeles Enbaxadan barik, izkiriatu zuen, Rochefidetarrenean afaltzekoa zarenaz geroz, esplikazio bat zor didazu, aiduru naukazu.

Bere eskuaren dardararizoak itxuragabeturikako zenbait hitz zuzendu ondoan, Claire de

Bourgogne adierazi nahi zuen C bat ezarri, eta hots egin zuen.

— Jacques, erran zion berehala etorri zen bere lekaio ganbarazainari, zazpiak eta erdietan Rochefideko jaunarenerat joanen zara, han Ajudako markesaz galde egingen duzu. Markes jauna han bada, paper hau helaraziko diozu erantzunik eskatu gabe; han ez baldin bada, berriz honat etorri eta neure gutuna bihurtuko didazu.

— Andere bizkondesak badu norbait bere saloian.

— Ah! egia, erran zuen ateari bultza eginez.

Eugène oso gaizki sentitzen hasia zen, noizbait ere bizkondesa ikusi zuen zeinak erran baitzion bihotzaren zolari eragin zion doinu hunkigarri batez: «Barka ezazu, jauna, gauzatto batzuk izkiriatu beharra nuen, dena zeuretzat nauzu orain.» Ez zekien zer zuen, ezen horra zer zerabilen gogoan: «Ah! Rochefideko andereñoarekin nahi du esposatu. Baina libro dea bada? Egun arratsean ezkontza hori hautsia izanen da, edo... Bihar ordea ez da horretaz gehiago mintzatuko.»

— Ene lehengusina... erantzun zuen Eugènek.

— Nola? egin zuen bizkondesak behako bat jaurtikitzen ziola zeinaren mutiritasunak ikaslea hotzarritu baitzuen.

Eugènek «nola» hori konprenitu zuen. Hirur ordu hartan hainbertze gauza zituen ikasiak, non adi eta erne jarriarik baitzegoen.

— Anderea, segitu zuen gorritu ahalaz bat. Duda egin zuen, gero aitzinerat joan eta erran zuen: Barka iezadazu; hain dut babes behar handia non ahaidetasun-amiñi batek deus ez baitzuen hondatuko.

Beauséanteko andereak irribarre egin zuen, baina tristeki: hautematen hasia zen inguruan erortzear zuen zorigaitza.

— Bazeneki zer egoeran kausitzen den ene familia ene familia, erran zuen Eugènek aitzinerat joanez, atsegingo zenuke alegietako maitagarri horietako batena egitea, laket hartzen baitzuten oztopoak kenduz beren magalpekoen inguruan.

— Ongi da! ene lehengusua, erran zuen bizkondesak irriz, zer egin dezaket zuretzat?

— Nik ote dakit, baina? Franko zorte handia da berez zurea izatea itzalpean galtzen den ahai-detasun-lokarri batengatik. Asaldarazi nauzu, ez dakit zer gehiago behar nizun erran. Parisen eza-gutzen dudan pertsona bakarra zara. Ah! Zure iritzia nahi nuen jakin eta ene onartzeko eskatu, hots, zure gonari josi nahi duen eta zugatik hiltzen lekikeen haur gaixo bat bezala onartzeko.

— Norbait hilen zenuke enegatik?

— Bi ere hil nitzake, erran zuen Eugènek.

— Haurra! Bai, haur bat zara, erran zuen andereak negar batzuk azpiratuz; zuk egiaz maiteko zenuke!

— Oi! egin zuen Eugènek burua higituz.

Bizkondesa biziki interesatu zen ikasleaz, handinahiaren ihardespina eman zuelakotz. Hegoaldetarra bere lehen kontuak ari zen ateratzen. Restaudeko anderearen apaingela urdinarren era Beauséanteko anderearen saloi arrosaren artean, hirur urte eginak zituen jendeak aipatzen ez duen *Zuzenbide paristar* horrenak, nahiz, ongi ikasia eta ongi erabilia, orotarot garamatzen goi-jurisprudentzia sozial bat izan.

— Ah! aditzen dut, erran zuen Eugènek. Res-taudeko anderea hauteman nuen zure dantzal-dian, harenerat joan naiz egun goizean.

— Ederki poxelatu izan behar duzu, erran zuen irribarrez Beauséanteko andereak.

— Oi! bai, ezjakin bat naiz eta mundu guztia neure kontra emanen dut, zeure laguntza ukatzen baldin badidazu. Badut ustea biziki zaila den Parisen emakume gazte, eder, aberats, dotore baten ediretea, lehendik ere loturik ez dagoena, eta nik bat behar dut zuek emakumeek hain ongi adierazten dakizuena erakutsiko didana: bizitza. Trailleseko jaun bat aurkituko dut denetan. Zureganat etorria naiz beraz bai enigma baten gakoaren eskatzeko, bai otoi erran diezadazun zer ertzokeri suerte egin dudan. Halako zahar bat aipatu dut...

— Langeaiseko andere dukesa, erran zuen Jacquesek solasa eteten ziola ikasleari, zeinak gizon bortizki gaitzitu baten keinua egin baitzuen.

— Nahi baduzu ongi heldu, erran zuen biz-kondesak ahapetik, lehenik eta behin ez zaitez hain agerikoa izan.

— Egunon, ene adiskide ona, segitu zuen bizkondesak jaiki eta dukesaren aitzinerat joanez. Haren eskuak ahizpa batengatik erakuts zezakeen samurtasun maitekorrak tinkatu zituen eta dukesak losintxarik eztienez erantzun zion.

— Horra bi adiskide on, erran zuen bere baitan Rastignacek. Hemendik goiti bi emakume babes-emaile ukanen ditiat; bi emakume hauek maitasun berberak behar ditiztek ukan, eta bertze hau nitaz interesatuko duk inondik ere.

— Zer pentsamendu zoriontsuri zor diot zure ikusteko loria, ene Antoinette maitea? erran zuen Beauséanteko andereak.

— Ajuda-Pintoko jauna Rochefideko jaunarenean sartzen ikusi dudala eta bakarrik izanen zinela pentsatu dut.

Beauséanteko andereak ez zituen ezpainak hozkatu, ez zen ahalketu, behakoak bere hartanxe iraun zuen, bekokia argiz bete bide zitzaion, dukesak zorigaiztoko hitz horiek erraten zitueino.

— Egitekoak zenituela jaki izan banu... erantsi zuen dukesak Eugèneren alderat itzuliz.

— Eugène de Rastignac jauna duzu bera, ene lehengusuetako bat, erran zuen bizkondesak. Baduzua Montriveau jeneralaren berririk? galde-tu zuen. Ez zela gehiago inon ageri erran zidan atzo Sérisyk, egun zeurean izan duzua?

Dukesak, hots, Montriveauko jaunak, zeinaz itsutuki amorosturik baitzegoen, bazterrerat utzi omen zuenak, bihotzean sentitu zuen galde horren punta zorrotza, eta gorritzen zela erantzun zuen: —Atzo Élyséen zegoen.

— Zerbitzuko, erran zuen Beauséanteko andereak.

— Clara, inolaz ere badakizu, segitu zuen dukesak gaiztakeria burrustan barreiatuz bere behakoekin, ezen bihar Ajuda-Pintoko jaunaren eta Rochefideko andereñoaren ezkon deiak argitaratzeko direla?

Ukaldi hori bortitzegia zen, bizkondesa zurbildu eta irriz erantzun zuen: —Ergelak jostatzeko gisako hotsak dituzu horiek. Zergatik eramanen luke Ajudako jaunak Portugaleko izenik ederretako bat Rochefidetarrenerat? Atzo goizean egin dituzte aitonen- seme Rochefidetarrak.

— Baina Berthek berrehun mila liberaren errentak bilduko omen ditu.

— Ajudako jauna aberatsegia da halako kontuen ateratzeko.

— Baina, ene adiskide maitea, Rochefideko andereñoa xarmangarria da.

— Ah!

— Han afaltzekoa duzu egun dena den, baldintzak hitzarturik daude. Oso harritzen nau zuk horren gauza guti jakiteak.

— Zer lerdokeria egin duzu bada, jauna? erran zuen Beauséanteko andereak. Haur gaixo hau hain da mundurat jaurtiki berria, non fitsik ere ez baitu, ene Antoinette maitea, guk erraten dugunaz konprenitzen. Izan zaitez gisakoa harekin, bihar mintzatuko gara berriz honetaz. Bihar, ikusten duzu, dena ofiziala izanen da dudarik gabe, eta zu ofiziosa izaten ahalko zara segurantzia osoz.

Dukesak behako mutin bat egotzi zuen Eugènerenganat, gizon bat zangoetatik bururaino bildu, zapaldu, eta hutsaren pare uzten duten horietakoa.

— Anderea, jakin gabetarik puñal bat sartu dut Restaudefeko anderearen bihotzean. Jakin gabetarik, horra ene hobena, erran zuen ikasleak zeinari bere adimenduak zerbitzu handia egin baitzion eta zeinak antz eman baitzien bi emakume horien ele amultsuen pean ezkutatu epigrama gordinei. Izan ere, denek behatzen diate, eta beldur izaten menturaz, jakinki min ematen duten jendeei, bere zauriaren sakona jakin gabe zauritzen duena ordea lerdo bat bezala, deusez baliatzen ez dakien eta denek mesprezatzen duten dorpe bat bezala, behatua den bitartean.

— Beauséanteko andereak behako urgarr horietako bat igorri zuen ikaslearenganat, hots, arima handiek oroz bat eskerrona eta duintasuna ezartzen dakiten horietakoa. Behako hori baltsamo bat bezalakoa izan zen zeinak eztitu baitzuen hegazti harrapakariaren begi-kolpeak, dukesak haren haztatze kotz jaurtikiak, ikaslearen bihotzean egin berria zuen zauria.

— Pentsa ezazu, erran zuen Eugènek aitzinerat joanez, Restaudefeko kondearen onginahia eskuratu berria nuela; ezen, erran zuen dukesa-

renganat bihurturik umil eta malizios aldi berean, behar dizut erran, anderea, oraindik ikasle ezdeus bat bertzerik ez naizela, bakar-bakarrik dagoena eta behartsua oso...

— Ez ezazu hori erran, Rastignaceko jauna. Guk emakumeek ez dugu sekula nahi inork nahi ez duena.

— Bah! egin zuen Eugènek, hogeita bi urte baizik ez ditut, nork bere adinaren zorigaitzak behar ditu eramaten jakin. Aitorketan nago bertzalde; eta ezinezkoa da hau baino konfesategi politago batean belauniko jartzea: hemen egiten ditugu bertzean salatzen ditugun bekatuak.

Dukesak hoztasunez hartu zuen erlijioaren kontrako hitzaldi hori, zeinaren gustu txarra gaitzetsi baitzuen bizkondesari ziotsala: —Jauna etorri berria da...

Beauséanteko andereak irriari eman zion zabal-zabala eta bere lehengusuaz eta dukesaz egin zuen irri.

— Etorri berria da, ene adiskide maitea, eta gustu ona erakatsiko dion errientsa baten bila dabil.

— Andere dukesa, segitu zuen Eugènek, ez dea bada naturala xarmantzen gaituenaren sekretuen jakiten hasi nahia? (Ea, erran zuen bere kautan, segur nauk ile-apaintzaile baten gisan ari natzaiera hitz egiten).

— Baina Restaudeko anderea Trailleseko jaunaren ikaslea da, nik uste, erran zuen dukesak.

— Ez nekien deus horretaz, anderea, segitu zuen ikasleak. Horregatik sartu nintzen haien artean zoro bat bezala. Egia erran, aski ongi moldatua nintzen senarrarekin, han ikusten nuen neure burua emakumeek jasanik aldi bateko, noiz eta ere halako gizon bat ezagutzen nuela erratea bururatu baitzitzaidan. Gizon hori otseinen eskailera batetik ikusi berria nuen jalgitzen, bai eta kondesaren besarkatzen ere korridore baten hondarrean.

— Nor da gizon hori? erran zuten bi emakumeek.

— Agure zahar bat hilabetea bi lousekin ematen duena Saint-Marceau faubourgaren hondarrean, ene, ikasle gaixo honen, antzera; egiazko dohakabe bat, mundu guztiak iseka egin eta guk Goriot xaharra deitzen duguna.

— Baina, bai umea zarela, oihu egin zuen bizkondesak, Gorioten alabetako bat duzu Restau-
deko anderea.

— Fideogile baten alaba, segitu zuen duke-
sak, emakume purtzil bat bere burua gozogile
baten alabaren egun berean eman zuena aur-
keztera. Ez zarea oroitzen, Clara? Errege irriz
hasi da, eta irri-solas bat erran du latinez irisaren
ganean. Jende horiek zerak zirela erran zuen.
Nola zen...?

— *Ejusdem farinae*, erran zuen Eugènek.

— Horixe, erran zuen dukesak.

— Ah! haren aita da, hasi zen berriz ikaslea
nardazko jestu bat eginez.

— Jakina baietz; gizagaixo honek bazituen bi
alaba, zoro baten antzera maite zituenak, nahiz
batak ala bertzeak, guti edo aski, hartaz arnega-
tu duten.

— Bigarrena ez zena bada ezkondu, erran
zuen bizkondesak Langeaiseko andereari beha-
tuz, deitura alemaneko bankari batekin, delako
Nucingeneko baroi batekin? Ez deritzoa bada
Delphine? Ez dea bada ile-hori bat Operan albo-
ko gela bat daukana, Bouffonsetarat ere etor-

tzen dena, eta nabarmentzearren irri ozen-ozenak egiten dituen?

— Dukesak irribarre egin zuen zioela: — Baina, ene adiskide maitea, miresten zaitut. Zergatik axola dizute hainbertze jende horiek? Itsutuki maitemindurik behar zen egon, Restaud zegoen bezalaxe, andereño Anastasierekin saltsetan nahasteko. Oi! gozo guti aterako du emakume horrengandik! Trailleseko jaunaren esku artean dago, haren galgarria izanen baita.

— Beren aita ukatu diate, zioen behin eta berriz Eugènek.

— Ongi da! bai, beren aita, aita, aita bat, segitu zuen bizkondesak, aita on bat bortz edo sein a ehun mila libera eman omen dizkiena ongi ezkontzen zituela zoriontsuak izan zitezen, eta bere buruarentzat zortzi-hamar bat mila libera baizik gorde ez zituena, urtez-eta bere alabak beti bere alabak edukiko zituela, eta haien medioz bi etxe, bi familia sortuak zituela, non itsuki maite eta eztitan ukanen baitzuten. Bi urtegarrenean, suhiek miserableetan miserableena bailitzan aizkatu dute beren mundutik...

Negar batzuk erori ziren Eugèneren begietan, hots, familiaren bihotz-hunkidura aratz eta sainduek freskatu berriaren begietan, artean ere gazte-jendearen sinesmenen xarmaren pean baitzegoen, eta bere lehen eguna baizik ez baitzuen hura Pariseko zibilizazioaren gudu-zelaietan. Egiazko bihotz-hunkidurak hain dira adierazkorrak, non lipar batez hirur pertsona horiek elkarri behatu baitzioten isiltasunean.

— Eh! Jainkoa, erran zuen Langeaiseko andereak, bai, latza oso irudi du horrek, eta egun oro ikusten dugu bizkitartean. Ez ote da zergatiren bat horrentzat? Erradazu, ene adiskide maitea, inoiz pentsatu duzua zer den suhi bat? Suhi bat da gizon bat zeinarentzat guk, zuk edo nik, izaki ttiki maitagarri bat haziko baitugu, zeinari mila lokarriz estekaturik egonen garen, familiako loria izanen dena hamazazpi urtez, etxearen bizia dena, Lamartinek erranen lukeen bezala, eta haren izurria bilakatuko dena. Gizon horrek haur hori edekitzen digunean, aizkora bat irudi hasiko da haren amodioaz jabetzen, aingeru horren bihotzean, eta giharrean, bere familiari lotzen zuten sentimendu guztien ebakitzeagatik. Atzo,

dena guretzat zen gure alaba, gu ere harentzat ginen oso-osorik; biharamunean gure etsai bilakatu da. Ez ote dugu bada tragedia hori egun oro burutzen ikusten? Hemen, erraina da mutirietan mutiriena aitagarrebarekin, dena bere semearentzat sakrifikatu duenarentzat. Urrunago, suhi batek kanporat bidaltzen du bere amaginarreba. Galdetzen aditzen dut ea zer den egun gizartean dramatikorik; baina suhiaren drama lotsagarria da, lerdokeria handiak bihurtu diren gure ezkontzez ere hitz egin gabe. Ongi baino hobeki oharitzen naiz fideogile zahar horri agitu zaionaz. Oroitzen-edo naizenaz, Foriot hori...

— Goriot, anderea...

— Bai, Moriot honi bere saileko presidentia izan omen zen Iraultza denboran; gosete famatuaren berri jakin eta garai hartan hasi omen zuen bere fortuna, irinak gusta zirena baino hamar aldiz garestiago salduz. Nahi bezainbat irin ukan zuen. Ene amatxiren intendentak sekulako dirutzen truke saldu zion. Moriot hori erdibana joaten zen, dudarik gabe, jende horien guztien antzera, Osasun Publikoaren Komitearekin. Oroitzen naiz intendentak amatxiri erraten ziola

guztizko segurtasunean geldi zitekeela Granvilliersen, hiritartasun-agiri hauta zirelaketz haren gariak. Bada Loriot horrek, buru-moztaileei garia saltzen zienak, grina bat baizik ez du izan. Itsuki maite omen ditu bere alabak. Zaharrena Restau-
deko etxeraino hupatua du, eta txertatua bertzea Nucingeneko baroiaren baitan, erregezale-
irudi egiten duen bankari aberats baten baitan. Ongi konprenitzen duzu ezen, Inperioaren pean, bi suhie
ez zaiela sobera gaitzitu agure laurogeita-hamairutar hori etxean edukitzea; Bonaparte-
rekin ere onar zitekeen. Baina Borbondarrak itzuli direnean, gizagaixoak traba egin dio Res-
taudeko jaunari, eta are gehiago bankariari. Alabek, menturaz artean ere aita maite zutenek,
makila bi buruetatik nahi izan dute atxiki; Goriot hori etxean bertze inor ez zutelarik hartzen
omen zuten; samurtasunezko estakuruak asma-
tzen omen zituzten. «Aitatto, zatoz,, hobeki ego-
nen gara, bakarrik egonen gara-eta:» etab. Ni,
ene adiskide maitea, egiazko sentimenduek
begiak eta adimendua dutelakoan nago: Lauro-
geita-hamairu dohakabe horren bihotza odol-
hustu da, beraz. Alabak beraz ahalke zirela ikusi

du; haiek beren senarrak maite zituzten arren, bera kaltegarria zela suhientzat. Sakrifikatu behar zuen, beraz. Sakrifikatu egin da, aita zela-kotz: bere kabuz du bere burua baztertu. Bere alaben kontent ikustean, ongi jokatua zela ohar-tu zen. Aita eta alabak gaizkide izan dira krimen tiki honetan. Denetan ikusten dugu hori. Aita Doriot hori ez zena bada koipe-tatxa bat izanen bere alaben saloian? Hastio izanen zuen, asper-tu egingen zen. Aita horri agitzen zaiona emaku-merik politenari ere agi dakioke gehien maite duen gizonarekin: bere amodioaz aspertzen badu, gizona joanen da, lazokeriak egingen ditu harengandik ihes egiteko. Sentimendu guztiak dira horrelakoak. Gure bihotza altxor bat da, huts ezazue behingoan, errekan zarete. Ez diogu gehiago barkatzen sentimendu bati bere osoan agertu izana gizon bati aldean sosik ez edukitzea baino. Dena emanik zegoen aita hori. Hogei urtez, bere erraiak, bere maitasuna, aritu zen ematen; egun bakar batean eman zuen bere for-tuna guztia. Zitroina ongi brentsaturik, azala karrika bazterrean utzi dute alabek.

— Mundua doilorra da, erran zuen bizkonde-
sak bere xalaren litsak berdinduz eta begiak
altxatu gabe, zaurian kolpaturik baitzegoen Lan-
geaiseko andereak istorio horren kontatzean tar-
teka-marteka harentzat erranikako hitzekin.

— Doilorra! ez, hasi zen berriz dukesa; bere
bidea urratzen du, hori da dena. Munduko petze-
roa ez naizela erakusteagatik mintzo natzaizu
honela. Zuk bezala pentsatzen dut, erran zuen
bizkondesaren eskua tinkatuz. Mundua lupetza
bat da, berma gaitezen bada gainetan egotera.
Dukesa jaiki zen, Beauséanteko andereari beko-
kian musu eman eta erran zion: «Eder-ederra
zaude orain, ene adiskide maitea. Inoiz ikusi
ditudan kolorerik politenak dituzu.» Gero jalgi
zen, burua doi bat makurtu ondoan lehengusua-
ri behatzean.

— Goriot hori sublimea da! erran zuen Eugè-
nek gau hartan bere zilarra bihur dikatzen ikusi
zuela oroitzen zelarik.

Beauséanteko andereak ez zuen aditu, pen-
tsakor zegoen. Isilune batzuk iragan ziren, eta
ikasle dohakabea, halako harrialdura ahalkegarri

bat zela kausa, ez zen ausartzen ez joatera, ez gelditzera, ez mintzatzera.

— Mundua doilorra eta ankerra da, erran zuen azkenean bizkondesak. Zorigaitz bat gertatzen zaigun bezain laster, beti ere edireten dugu adiskide bat prest izaten dena horren erratera etorri eta, haren eskutokia miretsaraten digula, puñal batez bihotzean zirikatzeke. Laster datoz sarkasmoak, burlatzarrak. Ah! defendatuko naiz. Zen dama handiari zegokion gisan goratu burua, eta ximista batzuk jalgi ziren haren begi urguilo-setatik. —Ah! egin zuen Eugèneren ikustean, hor zaude zu!

— Oraindik, erran zuen Eugènek urrikalgarriro.

— Ongi da! Rastignaceko jauna, ibil ezazu mundu hau ibiltzea merezi duen bezala. Gora heldu nahi duzua? nik lagunduko zaitut. Ikertuko duzu emakumeen ustelkeriaren sakona, izartuko duzu gizonezkoen banokeria miserablearen zabaltasuna. Nahiz nik ongi irakurri dudan munduaren liburu horretan, baziren han orrialde batzuk hargatik ezagutzen ez nituenak. Oro daukat orain. Zenbatenaz hotzago kalkulatuko bai-

tuzu, hainbatenaz aitzinago joanen zara. Jo urri-
kalmendurik gabe, beldur izanen dizute. Ez itza-
zu gizonak eta emakumeak onets ezpada gel-
dialdi bakoitzean lehertzera utziko dituzun pos-
tako zaldien antzera, zeure nahien obratzera
helduko zara hala. Ikusten duzu, deus ez zara
hemen izanen zutaz grinatzen ez den emakume
bat ez badaukazu. Gaztea, aberatsa, dotorea
behar duzu emakume hori. Baina sentimendu
bat egiazkoa baldin baduzu, gorde ezazu altxor
bat bezala; ez ezazu behin ere barrundatzera
utz, galdua zintezke. Jadanik ez zinateke borre-
roa izanen, petzero bilakatuko zinateke. Inoiz
inor maite baduzu, gorde ongi zeure sekretua!
ez ezazu zabal harik eta ongi jakin arte bihotza
nori irekitzen diozun. Oraino erne ez den amodio
horren alde aitzinetik begiratzekotan, ikas
mundu honetaz mesfidatzen. Entzun iezadazu,
Miguel... (izenaz larriki tronpatzen ari zen ohartu
gabe.) Bada are zerbait izigarriagoa aita hura
bere bi alabek, hilik nahi luketenek, zapuztea
baino. Bi ahizpek beren artean duten etsaigoa,
alafede. Restaudek etorkia du, emaztea adopta-
tua izan da, aurkeztua izan da; baina ahizpa,

ahizpa aberatsa, Delphine Nucingeneko andere ederra, gizon dirudun baten emaztea, xangrinez hiltzen da; jelsiak suntsitzen du, ahizparengandik ehun lekoatarat dago; bere ahizpa ez du jadanik bere ahizpa, aita ukatzen duten bezala dute elkar ukatzen bi emakume horiek. Orogen buru, Nucingeneko andereak Saint-Lazare eta de Grenelle karriken arteko lohi guztia hurrupatuko luke ene saloian sartzeko. De Marsayek bere xederat helaraziko zuela pentsatu du, eta de Marsayen jopu bihurtu da, narda-narda egina du de Marsay. Bortz axola zaio bera De Marsayi. Aurkezten baldin badidazu, haren Benjamin izanen zara, itsuki maiteko zaitu. Maita ezazu ahal baduzu gero, balia zaitez beraz bertzenaz. Behin edo bitan ikusiko dut, besta handi batean, oste handi bat dagoenean; baina sekula ez dut goizean errezibituko. Diosala eginen diot, aski izanen da hori. Goriot zaharraren izena erran duzulakotz hertsu diozu zeure buruari kondesaren atea. Bai, ene adiskide maitea, hogei aldiz joan zintezke Restaudefeko anderearenerat, hogei aldiz ediren zenezake kanpoan. Agindu hori eman dute zu joaten zareneko. Ongi da! Goriot zaha-

rrak eraman zaitzala Nucingeneko andere Delp-
hineren ondorat. Zeure bereizgarria izanen duzu
Nucingeneko andere ederra. Izan zaitez hark gai-
lentzen duen gizona, zoratzeraino maiteko zai-
tuzte emakumeek. Haren etsaiek, haren adiski-
deek, haren adiskiderik hoberenek, nahiko zai-
tuzte hari kendu. Badira emakumeak bertze
emakume batek hautatu duen gizona maite
dutenak, hala nola badiren ere burges dohaka-
beak, gure kapelak hartuz, gure moldeen esku-
ratzea ere espero dutenak. Arrakasta ukanen
duzu. Parisen, arrakasta da oro, boterearen
gakoa da. Emakumeek adimendua, talentua,
atzematen baldin badizute, gizonak sinetsiko
dute, ustel atera ezean behintzat. Dena nahi
ukaiten ahalko duzu orduan, oina denetan izan-
nen duzu. Mundua zer den jakinen duzu orduan,
petzero eta filusen biltzarra. Ez zaitez ez batzuen
eta ez bertzeen artean egon. Arianeren hari bat
bailitzan ematen dizut neure izena labirinto
honetan sartzeko. Ez ezazu arriskuan sar, erran
zuen lepoa makotuz eta erreginaren behako bat
jaurtikiz ikasleari: itzul iezadazu garbi. Zoaz, utz

nazazu. Guk, emakumeek ere baditugu ekin beharreko geure guduak.

— Borondate oneko gizon bat behar bazenu metxa bati su emateko? erran zuen Eugènek eteten ziola.

— Eta? erran zuen bizkondesak.

Eugènek bere bihotza jo zuen, lehengusina-
ren irriñoari irriño egin, eta jalgi zen. Bortzak
ziren, Eugène goseak zegoen, izitu zen ez ote
zen afal orduko tenorez helduko. Beldur horrek
Parisen barna berehala eramana izanaren zorio-
na sentiarazi zion. Itsu-itsuko hutsa zen goza-
men horrek, oso-osorik utzi zuen erasaten zioten
pentsamenduen mende. Haren adineko mutil
gazte bat erdeinuak jotzen duelarik, haserretzen
da, errabiatzen da, ukabilaz mehatxatzen du
gizarte osoa, mendeku hartu nahi du eta bere
buruaz ere egiten du duda. Rastignac, une har-
tan, hitz hauek zapaldurik zegoen: *Kondesaren
atea hertsu diozu zeure buruari.* —Joanen nauk
harat! erran zuen bere baitan, eta Beauséanteko
andereak arrazoi badu, ez baldin banaute sartze-
ra uzten... zera... bera joaten den saloi guzti-guz-
tietan aurkituko naik Restaudeko andererak.

Armen erabiltzen ikasiko diat, pistolaz tiratzen, bere Maxime akatuko zioat! —Eta dirua! oihukatzen zion kontzientziak, nondik aterako duk dirua? Bat-batean, begien aitzinean dirdir agertu zitzaion Restaudeko kondesarenean pilatu aberastasun guztia. Ikusia zuen han andereño Goriot batek maitemindua behar zuen luxua, urrezta-durak, prezioa agerian zuten apaingarriak, aberastu berriaren apainkeria burugabea, emakume mantenduaren zarrastelkeria. Irudi liluragarri hori supituki izan zen Beauséanteneko etxe handi-aberatsak zapaldua. Bere irudimenak, Pariseko gizartearen goi-eremuetarat eramanak, mila burutazio gaizto ernarazi zizkion bihotzean, burua eta kontzientzia luzatzen zizkiola. Den bezalako ikusi zuen mundua: lege eta moral ezinduak aberatsengan, eta *ultima ratio mundi* ikusi zuen fortunari. «Vautrinek arrazoi dik, fortuna duk bertutea» erran zuen bere baitan.

Sainte-Geneviève berria karrikarat heldurik, bere gelarat zalu igan, berriz jaitsi karrozainari hamar libera emateko, eta hango jangela okaz-tagarri hartarat joan zen non, abere batzuk ganbela batean nola, halaxe ikusi baitzituen hama-

zortzi mahaikideak tripa-zorroaren betetzen. Miseria horien ikustea eta sala horrek zuen itxura lazgarriak begitandu zitzaizkion. Aldakuntza bortitzegia zen, kontrastasuna osoegia, handi-nahiaren sentimenduak haren baitan bertze neurririk ez garatzeko. Alde batetik, izaera sozial sotilenaren irudi fresko eta xarmangarriak, irudi gazteak, biziak, artearen eta luxuaren mirarien markoan emanak, buru suhar poesiaz beteak; bertzetik, lohiez inguratu taula ilunak, eta aurpegi batzuk zeinetan grinek kordak eta zirrikak bertzerik utzi ez baitzuten. Emakume bazter utzi baten kolerak Beauséanteko andereari aterarazi zizkion erakaspentak, haren eskaintza maltzurak, gogorat etorri eta miseriak eman zituen aditzera. Rastignacek pareko bi lubaki egitea erabaki zuen fortunarat heltzeko, zientzia eta amodioa oinarri hartzea, doktore jakintsun eta modako gizon izatea. Umegorri hutsa zen artean ere! Bi marra horiek behin ere ezin elkar daitezkeen asintotak dira.

— Goibel-goibela zaude, jaun markesa, erran Zion Vautrinek, gizon honek bihotzaren sekretu-

rik gordeenen argitzeko erabiltzen bide zituen behako horietako bat jaurtikitzen ziola.

— Ez nago gertu jaun markesa deitzen naute-
nen adar-jotze gehiagoren jasateko, ihardetsi
zuen Eugènek. Hemen, egiatan markesa izateko,
ehun mila liberako errenta eduki beharra da, eta
Maison-Vauqueren bizi garelarik ez gara Fortu-
naren kuttunak preseski.

Vautrinek halako aita itxuraz eta mesprezuz
behatu zion Rastignaci, erran balu bezala: «Haur
xixtrina! mokadu batentzako aski ere ez niake
hirekin!» Gero ihardetsi zuen: —Umore txarrez
zaude, beharbada arrakastarik izan ez duzula-
kotz Restaudeko kondesa ederrarekin.

— Atea hertsu dit aitak gure mahaian jaten
duela erran diodalakotz, oiho egin zuen Rastig-
nacek.

Mahaikide guztiek elkarri so egin zioten.
Goriot zaharrak begiak apaldu eta gibelerat itzu-
li zen haien txukatzeke.

— Tabakoa begirat bota didazu, erran Zion
bere aldamenekoari.

— Goriot zaharra iraintzen duenak eni ere
erasanen dit hemendik goiti, ihardetsi zuen

Eugènek fideogile ohiaren aldamenekoari so; gu guztiak baino hobea duk. Ez naiz damez ari, erran zuen andereño Tailleferenganat itzuliz.

Hitz horiek halako atarramendu-suerte bat izan ziren, Eugènek mahaikideak isilarazi zituen, halakoxe aurpegiaz erran baitzituen. Vautrinek bakarrik ihardetsi zion adarra jo nahiz: —Goriot zaharra zeure gomendio hartzeko, eta haren editore arduradun gisa jartzeko, ezpata bati ongi heldu eta pistolaz ongi tiratzen jakin beharra da.

— Halaxet eginen dut, erran zuen Eugènek.

— Guduari lotua zarea bada egun?

— Badaiteke, ihardetsi zuen Rastignacek.

Baina nik ez dut zertan inori eman neure aferen berri, ni ez bainaiz entseatzen bertzek gauez zer egiten duen jakitera.

Vautrinek zeharkatu so egin zion Rastignaci.

— Mutikoa, txotxongiloen petzeroa izan nahi ez dugunean, behar da osoki sartu haien etxolan, eta ez kontentatu estalkiko zuloetatik behatzearekin. Aski da eleketarik, erantsi zuen Eugène sumintzear ikusiz. Solasaldi ttiki bat izanen dugu nahi duzunean.

Afaria goibel eta hotz bilakatu zen. Goriot zaharra, ikaslearen erranak eragin zion min sakonak beregaindurik, ez zen ohartu ez haren ganako aldarteak aldatuak direla, ez eta haren jazarleen isilarazteko gauza zen mutil gazte batek babestu behar zuela ere.

— Beraz, Goriot jauna, erran zuen andere Vauquerek ahapetik, kondesa baten aita litzateke orain?

— Eta baronesa batena, ihardetsi zion Rastignacek.

— Hori bertzerik ezin dik egin, erran zion Bianchonek Rastignaci, burua haztatu zioat, konkorr bat bakarrik zeukak, aitatasunarena, Aita *betiereko* bat izanen duk.

Eugène seriosegi zegoen Bianchonon arraile-riak irri eragin ziezaion. Beauséanteko anderearen kontseiluak nahi zituen baliarazi, eta bere baitan galdetzen zuen non eta nola eskuratuko zuen dirua. Arranguraz bete zen munduko belazeen ikustearekin zeinak haren begien aitzinean aldi berean hutsik eta beterik hedatzen baitziren; bakarrik utzi zuten denek jangelan, afaria bukatu zutenean.

— Ene alaba ikusi duzua, beraz? erran zion Goriotek ahots hunkituaz.

Gizagaixoak bere gogoetalditik iratzarririk, Eugènek eskua hartu zion, eta bihotza hunkiturik baileukan erran: —Gizon on eta duina zara, erantzun zuen. Gero mintzatuko gara zure alabez. Goriot zaharrari entzun nahi izan gabe altxatu zen, eta bere ganbararat erretiratu, non honako gutun hau izkiriatu baitzion bere amari:

«Ene ama maitea, ikus ezazu ez ote duzun hirugarren bular bat enetzat irekitzekoa. Fortuna laster egiteko gisako egoeran nauzu. Mila eta berrehun libera behar ditut, eta baitezpadan behar ditut. Ez iezaiozu aitari deusik erran ene eskariak, horren kontra ager liteke menturaz, eta diru hori eskuratuko ez banu, neure buruaz bertze egitera eramanez nindukeen etsi handi batek ninduke harrapatuko. Ikusten zaitudan bezain laster adieraziko dizkizut neure arrazoiak, ezen liburuak eta liburuak behar nizkizuke izkiri-riatu nagoen kinkaren konpreniarazteko. Ez dut jokatu, ama, ez dut deus zor; baina zinez axola badizu eman didazun bizitzaren kontserbatzeak,

kopuru hori behar didazue aurkitu. Tira, Beausé- anteko bizkondesarenerat joaten naiz, zeinak bere babespean hartu bainau. Mundurat joan beharra naiz, eta sosik ez daukat eskularru garbi batzuen ere ukaiteko. Jakinen dut ogia baizik ez jaten, ura baizik ez edaten, beharrezkoa bada barurtuko naiz; baina ezin egon naiteke herri honetan mahastiaren aitzurtzeko erabiltzen diren lanabesak gabe. Gauza da enetzat, edo neure bidearen urratzea edo lohian gelditzea. Badakit ene baitan ezarri dituzuen esperantza guztien berri, eta laster nahi ditut bete. Ama, sal itzazu zeure harribitxi zahar zenbaitzuk, berriak ekarriko dizkizut berehala. Aski ongi ezagutzen dut gure familiaren kinka larria halako sakrifizio- ak aintzat hartzen jakiteko, eta, sinets ezazu, ez dizut halakoen alferrik egiteko eskatzen, muns- tro bat nintzateke bertzenaz. Premia gorri baten aldarria baizik ez ezazu ene erreguan ikus. Gure etorkizuna laguntza horri dago guztiz, zeinarekin guduari lotu beharrean bainaiz; ezen Pariseko bizitza hau betiereko guduka da. Baldin eta, diru-kopuruaren osatzeko, ene izebaren dentei-

len saltzea bertze biderik ez bada, errozu ederra-
goak igorriko dizkiodala.» Etab.

Arreba bakoitzari izkiriatu zion beren ekono-
mien eskatzeko, eta, ekonomia horien atera ahal
izatekotz hargatik familiar-tean mintzatu gabe
inondik ere harentzat atseginez eginen zuten
sakrifizioaz, haien urguritasuna ernarazi zuen
ohorearen lokarriei, bihotz gazteetan hari ongi
tinkatuak diren eta hain hots ozena ateratzen
dutenei, erasanez. Gutun horiek izkiriatu zituela-
rik, gogoz bertzeko dardarizoa sentitu zuen hala
ere: dardaraz zegoen, ikara latzean. Gazte han-
dinahi honek bakartasunean ehortzi arima
horien zintzotasun orbangabea ezagutzen zuen,
bazekien zer nolako penak eraginen lizkiekeen
bere bi arrebei, bai eta zein izanen liratekeen
haien alegrantziak ere; zer atseginarekin mintza-
tuko liratekeen isilpean bihotzeko anaia bihotze-
ko horretaz, olesiaren hondarrean. Kontzientzia
argiz beterik zutitu zitzaion, eta beren altxor
tikia isilpean kontatzen bistaratu zizkion: han
ikusituen, neskatxa gazteen jeinu maliziosaren
hedatzen diru horren hari *incognitoz* igortzekotz,

beren lehen gezurraren asmatzen sublimeak izateko. «Arreba baten bihotza garbitasunezko diamant bat duk, samurtasunezko leize bat!» erran zuen bere baitan. Ahalke zen izkiriatu izanaz. Zein indartsuak liratekeen haien desirak, zein garbia haien arimen bulta zeruari buruz! Zer boluptuositateaz ez liratekeen sakrifikatuko! Zer minak joko lukeen ama, kopuru guztia ezin igor bazezakeen! Sentimendu handi horiek, bizio izigarri horiek, eskailera-mailatzat erabiliko lituzke Nucingeneko Delphinerenganat heltzeko. Negar batzuk, familiaren aldare sakraturat jaurtiki azken intsentsu-bihiak, ilki zitzaizkion begietatik. Harat-honat ibili zen etsipenezko durduzaduraz. Goriot zaharra, ikaslea horrela ikusirik erdi irekia gelditu zen bere atetik, sartu zen eta erran zion: —Zer duzu, jauna!

— Ah! ene auzo ona, zu aita bezala, semea eta anaia naiz ni oraindik. Baduzu arrazoia kondesa Anastasiegatik ikaratzeko; Maxime de Trailles delako jaun batena ei da, haren galgarria izanen baita.

Goriot zaharra urrundu zen zenbait hitz murduskatuz, Eugènek endelegatu ez zituenak.

Biharamunean, Rastignac postarat joan zen bere gutunen igortzera. Ezbaian egon zen azken unera arte, baina kutxarat jaurtiki zituen erranez: «Triunfatuko diat!» Jokalariaren hitzak, Kapitain haundiarenak, salbatzen dituen baino gizon gehiago galtzen dituen hitz fatalista bera. Zenbait egun geroago, Eugène Restaudefko anderearenerat joan zen eta ez zen errezibitua izan. Hirur aldiz itzuli zen harat, hirur aldiz ediren zuen atea hertsirik, nahiz Maxime de Trailles kondea han ez zegoen orduetan baizik ez zen harat agertzen. Bizkondesak arrazoi zuen. Ikasleak ez zuen gehiago ikasi. Deiarri erantzuteko joaten zen eskoletarat, eta behin bere presentzia egiaztaturik, bazterrak husten zituen. Ikaslerik gehienek egiten duten arrazonamendua egin zuen bere kautan. Ikasketak bere etsaminak egin behartuko zitzaizkioneko zituen uzten; erabakia hartua zuen bai bigarren eta hirugarren urteetako inskripzio guztiak batean egitekoa, bai gero, behingoan eta azken unean, Zuzenbidea serioski ikastekoa ere. Bazuen, beraz, hama-bortz hilabeteko astia Pariseko itsasandian nabigatzeko, han emakume ezagutzen ibili edo eta

fortunaren harrapatzeko. Aste horretan bi aldiz ikusi zuen Beauséanteko anderea, zeinarenerat Ajudako markesaren kotxea jalgitzen zenean baizik joaten ez baitzen. Zenbait egunez, emakume aipatu hori, Saint-Germain faubourgeko irudirik poetikoena, garaile egon zen, eta Rochefideko andereñoaren eta Ajuda-Pintoko markesaren ezkontza etenarazi zuen. Baina azken egun horiek, bere zorionaren galtzeko beldurrak denean erregarrienak egin zituenek, hondamendia bultzarazi behar zuten. Ajudako markesak, Rochefidetarrekin elkar adituz, zorioneko zirkunstantziaz hartu zuen samurgo eta baketze hori: igurikitzen zuten ezen Beauséanteko anderea ezkontza horren ideiarat jarri eta, azkenean, edozein gizonentzat aitzin-ikusi etorkizun bati sakrifikatuko lizkiokeela bere goizak. Egun oro berritu agintzarik sailduenengatik ere, Ajudako jaunak komedia bat jokatzeko ziharduen beraz, bizkondesak laket zuen engainatua izatea. «Handikiro leihotik jauzi egin beharrean, eskailetan anbilkatzera uzten zuen bere burua», erra-ten zuen Langeaiseko dukesak, haren adiskide-rik hoberenak. Hala ere, hondar argi horiek

behar bezain luzaz distiratu zuten bizkondesa Parisen geldi eta bere ahaide gaztea zerbitza zezan, zeinari halako maitasun superstiziosa baitzion. Eugène arduraz eta sentiberatasunez betea agertu zitzaion emakumeek ez urrikal-mendurik, ez egiazko kontsolamendurik, inongo behakotan ikusten duten zirkunstantzia batean. Gizon batek hitz eztiak erraten badizkie orduan, espekulazioz erraten dizkie.

Nucingeneko etxeari esestera entseatu aitzin bere borrokatokia ongi baino hobeki ezagutu nahiz, Rastignacek Goriot zaharraren lehenagoko bizitzaren barrunbeak nahi izan zituen jakin, eta egiazko argitasun batzuk bildu zituen, honela labor daitezkeenak:

Jean-Joachim Goriot, Iraultza baino lehen, soldatapeko fideogile soil bat omen zen, abila, zuhurra, eta nagusiaren, halabeharrak 1789ko lehen altxamenduaren biktima bilakatu zuenaren, fondoan erosteko behar bezain ausarta izan zena. De la Josienne karrikan kokatu zen, Garien Merkatutik hurbil, eta bere saileko presidentziaren onartzeko zentzu ona izan zuen, bere tratuetan sasoi arriskugarri haietako pertsonaiarik

ahaltsuenek geriza eman ziezaioten amoreagatik. Zuhurtzia hori izan zen haren fortunaren sorburua. Fortuna hori gosetean, gezurrezko zein egiazkoan, hasi zuen, haren ondorioz bihiak alimaleko prezioak harrapatu baitzituzten Parisen. Herriak elkar hiltzen zuen okindegietako atean, baten batzuk kalapitarik gabe jaki-dendetatrat joaten zireino Italiako pasten erostera. Urte hartan, Goriot hiritarrak bere kapitalak bildu zituen, hots, dirutza handi batek bere jabeari ematen dion gailentasun guztiaz, gerora bere salerospenen egiteko erabili zituenak. Nolabaiteko gaitasuna baizik ez duten gizon guztiei gertatzen zaiena gertatu zitzaion. Bere mediokritateak zuen salbatu. Bertzalde, nola haren fortuna ez baitzen ezagutua izan harik eta aberats izatea arriskutsua izan ez zen arte, ez zuen inoren bekaizgorik piztu. Bihien tratuak adimendu guztia hurrupatu ziola irudi zuen. Izan zedin gari, irin edo bihi, haien ezaugarri eta etorkiak hauteman, haien kontserbazioaz ardura, prezioen aitzinetik jakin, uzten joritasun zein eskasia aitzinetik igar, laboreen merke eskura, Sizilian ala Ukrainian horni, Goriotek ez zuen horretan guztian parerik.

Ikusiz geroz bere aferen kudeatzen, bihien esportazio eta inportazioaren gaineko legeen adierazten, haien jitearen aztertzen, akatsei antz ematen, gizon batek Estatuko ministro izateko gai jukatuko zuen. Pazientziadun, langile, iraukor, zalu bere espedizioetan, arranoaren begi-ukaldia zuen, dena aitzintzen zuen, dena aitzinetik ikusten, dena jakiten, dena gordetzen; diplomata asmatzeko, soldadu ibiltzeko. Bere alorretik jalgia, bere botiga xume eta ilunetik zeinaren atalasean egoten baitzen alfer orduetan, bizkarrara atearen habean pausaturik, lehengo langile ergel eta zakar hura bihurtzen zen berriz, arrazonomendu baten konprenitzeko gauza ez zen gizona, gogoaren gozamen guztiekiko soraioa, ikuskizunetan lo hartzen zuena, Dolivan paristar horietako bat, astakerietan soilik azkarrak. Izaera horiek, elkarren antza izaten dute kasik denek. Abantzu denetan, sentimendu sublime bat ediren zinirote bihotzean. Bi sentimenduk soilik bete zuten fideogilearen bihotza, eta bere zukua hurrupatu, bihien tratuak burmuinaren adimendu guztia hurrupatzen zion bezalaxe. Emazteak, la Brie-ko nekazari aberats baten ala-

bak, halako mirespen erlijiosa, halako amodio mugagabea bildu zuen harengandik. Izaera bat erkin eta indartsua, sentibera eta polita, bereaz arras bertzelakoa, miretsi zuen Goriotek haren-gan. Baldin eta gizonaren bihotzean sentimendu bat berezkoa bada, ez dea hura beti ere izaki indarge baten fagore ematen dugun babesaren harrotasuna? gehi horrat amodioa, arima toles-gabe guztiek beren atseginen hastapenarentzat duten ezagutza bizi hori, eta bitxitasun moral andana bat endelegatuko dituzue. Zazpi urtez lanbrorik gabeko lorian bizi izan ondoan, Goriotek, bere zorigaitzez, emaztea galdu zuen: gizonari nagusitzen hasia zen, sentimenduen esparrutik landarat. Badaiteke izaera ilaun hori landu zukeen, badaiteke han munduaren eta bizitzaren gauzen adimendua erein zukeen. Egoera horretan, zentzugabekeriarraino garatu zen Goriotengan aitatasunaren sentimendua. Heriotzak ihartu bere maitabeharrak bi alabenganat zuzendu zituen, zeinek lehenbizian osoki satisfatu baitzizkioten bere sentimendu guztiak. Nahi bezain hautak izanik ere alabak hari emateko irrikatzen zeuden afera-gizonek edo nekazariiek eginikako

proposamenak, alargun nahi izan zuen iraun. Aitaginarrebak, gizon bakarra zeinarentzako jaidurarik izan baitzuen, ba omen zekien, berak zioenaz, Goriot bere emaztearekiko infidel ez izatea, ezta hil ondoan ere, zin egina zela. La Halleko jendeek, eromen sublime horren endelegatzeko ezgauza, horretaz trufatu eta izengoiti irri-garri zenbait ezarri zioten. Jende horietatik, merkatu bateko arnoa edaten ari, izengoiti horren erratera lehenbiziko ausartu zenak, ukabilkada bat hartu zuen bizkarrean fideogileagandik, burua aitzinetik Oblin karrikako zedarri baterat bidali zuena bera. Goriotek alabentzat erakusten zuen ardura burugabea, amodio irudikor eta minbera, hain zen ezaguna, non egun batean bere lehiakideetako batek, prezioen jabe egoteko merkatutik alderagin nahi ziola, Delphine cabriolet batek kolpatu zuela erran baitzion. Fideogileak, zurbil eta hits, istantean alde egin zuen la Halletik. Ea egon zen zenbait egunez gezurrezko asaldura horrek eraginikako sentimendu kontrakarren erreakzioaren ondorioz. Gizon horren bizkarrean bere ukaldi latza eman ez bazuen ere, la Halletik aizkatu zuen, zirkuns-

tantzia larri batean krak egitera bortxatzen zue-
larik. Bistan denaz, bi alaben hezkuntza zentzu-
gabea izan zen. Hirurogeita mila libera baino
gehiagoko errentaren jabe, eta beretzat mila eta
berrehun libera ere ez xahutuz, bere alaben
gurarien asebetetzeak egiten zuen Gorioten
zoriona; maisurik hoberenen esku utzi zuen hez-
kuntza on bat ezagutarazten duten talentuen
ematea; andereño konpainiako bat ukan zuten;
zorionez haientzat, berori adimentsua eta gustu-
ko emakumea izan zen; zaldiz ibiltzen ziren,
bazuten kotxea, jaun zahar aberats baten amo-
ranteak biziko ziren bezala ziren bizi; aski zuten
gutiziarik garestienen adieraztea beren aita
haien betetzera lehiatzen ikusteko; hark fereka
bat baizik ez zuen eskatzen bere oparien truke.
Goriotek aingeruen herronkan ematen zituen
bere alabak, eta bere gainean baitezpadan.
Gizagaixoa! Egiten zioten mina ere zuen maite.
Alabak ezkon-adinean izan zirenean, senarrak
beren gustuen arabera hautatu ahal izan zituz-
ten: bakoitzak aitaren ondasunen erdia behar
zuen ukan. Bere edertasunagatik Restaudeko
kondeak gorteiatua, Anastasiek bazituen jaidura

aristokratikoak zeinek aitaren etxearen kitatzera eramán baitzuten gizartearen garaiko mailetarat jauzi egiteko. Delphinek dirua maite zuen: Nucingenekin esposatu zen, Saint-Empireko baroi bilakatu zen aleman etorkiko bankari batekin. Goriotek fideogile iraun zuen. Alaba eta suhiak berehala ziren muturtu artean ere tratu horietan segitzen zuela ikustearekin, hori bere bizitza guztia zuen arren. Bortz urtez haien hertsadurak pairatu ondoan, erretiratzea onartu zuen bere fondoan emariekin, eta hondar urte haietako mozkinekin; kapital horrek, andere Vauqueren kontuen arabera, harenerat bizitzera etorria baitzen, zortzi-hamar bat mila liberako errenta ekartzen omen zuen. Etsipenak hartaraturik egotzi zuen bere burua pentsio hartarat, ikusi zitue-larik bere alabak, senarrek behartuak, ez soilki bera etxean ez hartzera, baina baita agerian ez errezibitzera ere.

Xehetasun horiek ziren Muret izeneko jaun batek Goriot zaharrari buruz, zeinaren fondoak erosi baitzituen, zekien guztia. Baieztatuak zeuden, hortaz, Rastignacek Langeaiseko dukesari egiten aditu zizkion irudipenak. Hemen burura-

tzen da tragedia paristar Hun, baina lazgarri honen agerpena.

II MUNDURATZEA

Abenduko lehen aste horren hondarrerat, Rastignacek bi gutun hartu zituen, bata amarena, bertzea arreba zaharrenarena. Izkiriamolde hain ezagun horiek atseginezko pilpirak eta lotsazko dardarak eragin zizkioten era batera. Bi paper hauskor horiek hil ala biziko epaia zekarten haren esperantzendako. Gurasoen hersturaz oroiturik lotsa zenbait atzematen baldin bazuen, sobera ongi dastaturik zegoen haien ederra beraien azken odol-xortak hurrupatu izanaren beldurrez ez egoteko. Amaren gutuna honela taiuturik zegoen:

«Ene haur maitea, eskatu didazuna igortzen dizut. Erabil ezazu ongi diru hori, ez nezake, zure bizitza salbatu behar izanez geroz, bigarren aldi batez horren dirutza handirik ediren aita horren berri jakin gabe, eta horrek gure ezkon bizitzaren armonia nahasiko luke. Kopuru horren erdiesteko, geure lurraren gaineko bermeak

eman beharrean ginateteke. Ezin jukatuzkoa dut ezagutzen ez ditudan egitasmoen merezimendua; baina zer nolakoak ote dira beraz horien eni ez kontatzeko beldurrez egon zaitezten? Esplikazio horrek ez zuen liburutzarren beharrik, aski dugu hitz bat guk, amek, eta hitz horrek durduzaren larridurak hastanduko zituen enegandik. Ez niezazuke gorde zure gutunak eragin didan bihotz-ikara mingarria. Ene seme maitea, zein duzu bada ene bihotzerat halako lazturaren jaurtikitzera behartu zaituen sentimendua? anitz izan behar duzu sufritu eni izkiriatzean, nik anitz sufritu baitut zuri irakurtzean. Zein bideri lotzekoa zara beraz? Emanak izanen direa zure bizitza, zure zoriona, ez zarenaren irudi ematera, mundu baten ikustera non ezin ibiliko baitzara jasan-ezinak dituzun gastu batzuk egin gabe, zeure ikasketentzako denbora preziatu bat galdu gabe? Ene Eugène ona, sinets ezazu zeure amaren bihotzean, bide makurrek ez garamatzate deus handitarat. Pazientziak eta etsipenak behar dute zure heinean dauden gazteen bertuteak. Ez zaitut larderiatzen, ez nioke geure eskaintzari inolako samintasunik eratziki nahi. Ama fidakor

bezain zuhur batenak dituzu ene hitzak. Zuk zeure eginbideak zein dituzun baldin badakizu, nik ere badakit zeinen garbia duzun bihotza, zeinen bikainak dituzun xedeak. Horregatik erran diezazuket beldurrik gabe: Ea, ene seme bihotzekoa, aitzina!. Ama naizelakotz nabil ikaran; baina zure urrats guztiek gure desiren eta gure benedikazioaren laguntza samurra izanen dute. Izan zaitez burutsu, haur maitea. Zintzoa behar duzu gizon bat bezala, maite dituzun bortz lagun-en etorkizunak zure baitan ezarriak dira. Bai, zutan dira gure zori guztiak, zure zori ona gurea ere badenaz. Jainkoa otoizten dugu guk guztiek zeure eginbeharretan lagun zaitzan. Zure izeba Marcillacek harrigarritzko bihotz ona erakutsi du zirkunstantzia honetan: zeure eskularruez diostazunaren asmatzerainokoa. Kuttuntasun berezi bat zuen baina zaharrenarentzat, zioen alegariki. Ene Eugène, maita oso zeure izeba, ongi heldua zarenean baizik ez dizut erranen zer egin duen zuentzat; bertzenaz, haren diruak eriak erre liezazkizuke. Zuek, haurrek, ez dakizue zer den oroigarrien sakrifikatzea! Zer ez genuke zuentzat sakrifikatuko baina? Bekokian musu

ematen dizula errateko manatzen dit, eta usu zorientsu izateko indarra eman nahi lizuke musu horren bitartez. Emakume on eta bikain honek izkiriatu egin zizukeen erietako hezurreriarik ez balu. Aita ongi doa. 1819ko uztak gure esperantzak alatzen ditu. Adios, haur maitea. Deus ez dut zure arrebez erranen: Laurek izkiriaturiko dizu. Familiaren gertakari xumeen gain tartarikatzearen plazera utziko diot. Nahi dakiola zeruari ongi heldu izan zaitez! Oi! bai, ongi hel, ene Eugène, sobera oinaze bizia ezagutara zi didazu bertze aldi batez ere eraman ahal izan dezadan. Jakin dut zer zen behartsu izatea, fortuna, hura neure semeari ematekotz desira nuela. Ea, adios. Ez gaitzazu zeure berririk gabe utz, eta har hemen amak igortzen dizun musua.»

Eugènek gutun hau bukatu zuenean, negarrez zegoen, Goriot zaharra zerabilen gogoan bere zilarraren bihurtzeko eta saltzen alabaren diru-agiriaren ordaintzera joateko. «Amak bere pitxiak saldu ditik! zioen bere baitan. Izebak negar egin dik, naski, bere erlikietako batzuen saltzean! Zer dretxorekin madarikatuko

huke Anastasie? Imitatu berria duk, heure etorki-zunaren egoismoagatik, hark bere amoranteagatik egin duena! Nor, hartarik ala hitarik, da hobia?» Erraiak halako berotasun jasanezin batek janak atzeman zituen ikasleak. Munduari uko egin nahi zion, ez zuen diru hori hartu nahi. Isilpeko barne-aladura prestu eta eder horiek sentitu zituen, zeinen merezimendua gutitan izaten baita gizonek on-iritzia lagun hurkoa jukatzen dutenean, eta zeinek maiz zeruko aingeruei absolbarazten baitiete lurreko lege-gizonek kondenaturikako gaiztagina. Rastignacek bere arre-baren gutuna ireki zuen, zeinaren erranmolde lañoki graziosek bihotza freskatu baitzioten.

«Zure gutuna zinez behar-orduan etorria da, anaia maitea. Agathe eta biek hain molde bereizietan nahi genuen geure dirua erabili, non zer eros ez genekiela baikeunden. Espainiako erregeren zerbitzariak bere nagusiaren erlojuak uzkaile zituenean bezala egin duzu zuk, ados jarri gaituzu. Egia da, bai. Mokoka atergabean ari ginen geure gutzietarik zein hobetsiko ote, eta asmatu gabe geunden, ene Eugène ona, gure

gutuzia guztiak bateratuko zituen erabilera. Agathek loriaz egin du jauzi. Hitz batez, bi marizororen antzera ibili gara egun guztian, *halako zalapartekin* (izebaren tankerara) non amak bere eite zorrotzaz erraten baitzigun: «Zer duzue baina, ene andereñoak?» Doi bat larderiatuak izan bagina, are loriatuagoak izanen ginen, nik uste. Emazte batek zinez plazer handia atzeman behar du maite duen gizonagatik sufrituz! Ni bakarrik nengoen ameskor eta atsekabez neure bozkarioaren erdian. Emakume txar bat eginen nuke inolaz ere, sobera xahutzailea naiz. Bi gerriko eta puntxoi polit bat ene gerrontzeetako sarbegien zulatzeko erosia nintzen, tontakeriak; hainbertzenarekin diru gutiago neukan Agathe lodi horrek baino, gordezalea izanez ezkutuak mika baten antzera pilatzen dituenak. Berrehun libera bazeuzkan! Nik, ene adiskide gaixoa, berrogeita hamar ezkutu bertzerik ez daukat. Zigor ederra hartua naiz, putzurat bota nahi nuke neure gerrikoa, damugarria izanen zait beti haren eramatea. Ebatsi egin dizut. Agathe maitagarri izan da. Erran dit: «Igor ditzagun hirurehun eta berrogeita hamar liberak, gu bien

artean!» Baina ezin izan naiz egon dena gertatu den bezalaxe kontatu gabe. Jakin ezazu nola egin dugun zure manuei obeditzeko: geure zorioneko dirua hartu dugu, biak elkarrekin joan gara egurastera, eta behin bide berriraino arribatuak, Ruffec-erat joan gara lasterka, non onez-onean dirua Grimbert jaunari eman baitiogu, Errege-Postako bulegoa zuzentzen duenari! Enarak bezain arin gentozen itzultzean. «Zorionak arinago egiten ote gaitu bada?» erran zidan Agathek. Mila gauza erran dizkiogu elkarri, zuri, jaun paristar horri, errepikatuko ez dizkizudanak. Zutaz ari ginen, inondik inora ere. Oi! anaia maitea, maite zaitugu, horra dena bi hitzetan. Sekretuaz bezainbatean, izebak dioenaz, gu bezalako moxorro ttikiak edozertako gauza dira, baita isilik egoteko ere. Ama, misterio handiz, Angoulême-erat joan da izebarekin eta isilpean atxiki dute biek beren bidaiaren goi-politika. Bidaia hori solasaldi luze batzuen ondoan egin dute, zeinetatik, nola gu hala jaun baroia, baztertutak izan garen. Aieru handiek beretzen dituzte gogoak Rastignaceko Estatuan. Erregeren alabek bere maiestate erreginarentzat bordatzen

duten lore landuez apaindu mousselinazko soinekoa, sekreturik handienez doa aitzinerat. Bi lango baizik ez dira gelditzen egiteko. Deliberatua izan da ez dela Verteuileko aldean murrurik eginen, hesi bat ezarriko da han. Jende xeheak fruituak eta mahasparrak hondatuko ditu, baina bista eder bat irabaziko dugu kanpotarrentzat. Baldin eta ustezko oinordekoak mokanesak behar balitu, gaztigatua da ezen Marcillaceko alarguntsak, bere altxor eta kutxetan, Pompeia eta Herculanium izenarekin deituetan, arakatu eta Holandako oihal eder bat aurkitu duela, berak ezagutzen ez zuena; Agathek eta Laure printzesek haren manuetarat paratzen dituzte beren hariak, beren orratzak, eta beti ere gorrixkegiak diren esku batzuk. Don Henri eta don Gabriel bi printze gazteek zenbait usantza galgari gorde dituzte: ezti-urez leporaino betetzea, arrebak amorraraztea, bat ere ez ikasi nahia, txoriak habiatik jalgiaraziz jostatzea, ardaila ateratzea eta, Estatuko legeak gorabehera, zumeak ebakitzea makilatuen egiteko. Aita sainduaren nuntzioak, arruntean jaun apezka deituak, eskomikatzeaz mehatxatzen ditu baldin eta gramati-

karen arau sainduak utzi eta sabuka gerlatarrarenak hartzen jarraitzen badute. Adios, anaia maitea, inoiz ez du gutun batek zure zorionari egin hoinbertze desirarik eraman, ezta hoinbertze amodio asebetterik ere. Hamaika gauza izanzen dituzu beraz guri errateko etortzen zarenean! Dena eni erranen didazu, zaharrena bainaz. Izebak ikusarazi digunaz, arrakasta izan omen duzu munduan.

Dama batez mintzo dira eta gainerakoez isiltzen.

Gurekin bada moldatzerik! Errazu Eugène, nahi bazenu, mokanesik gabe ibil gintezke, eta atorrak eginen genizkizuke. Erantzun emadazu fite sujet honetaz. Laster atorra eder ongi josiak behar bazenu, berehala hasi beharrak gintuzkezu horretan, eta ezagutzen ez dituzkegun fazoinak izanen balira Parisen, eredu bat igorriko zeniguke, eskumuturrentzat guztiz. Adios, adios! port dizut bekokian ezker aldean, neurea ez bertzerena daukadan lokian. Bertze alderdia Agat herentzat uzten dut, erraten dizudanetik fitsik ez

duela irakurriko hitz eman didanarentzat. Baina, horretaz segurago izateko, harengandik hurbil egonen naiz izkiriaturen dizun bitartean. Maite zaituen zeure arreba.

«Laure de Rastignac.»

— Oi! bai, erran zuen Eugènek bere baitan, bai, fortuna gostaia gusta! Mila altxorrek ere ez lezakete ardura hau ordain. Zorion guztiak batean nahi nizkiekek eman. Mila eta bortzehun libera! erran zion bere buruari eten batetik landarat. Txanpon bakoitzak bere jomuga behar dik kausi! Laurek arrazoi dik. Mila deabru! zarpailez eginikako atorrak baizik ez zauzkaat. Ohoinak bezain maltzur bilakatzen dituk neskatilak mutil baten zorionarentzat. Lañoa bere buruarentzat eta zuhurra enetzat, haiek konprenitu gabe lurreko hobenak barkatzen dituen zeruko aingerua bezalakoa duk.

Berea zuen mundua! Jostuna deitua, ikertua, limurtua zeukan jadanik. Trailleseko jaunaren ikustearekin, Rastignacek konprenitua zuen jostunek gazteen bizitzan duten eragina. Ondikotz! ez da erdibiderik bi muga horien artean: jostuna

da edo etsai mina, edo ordainkizunek emanikako adiskidea. Eugènek, bere jostunagan, gizon bat ediren zuen bere lanbidearen aitatasunaz ohar-tua zena, eta gazteen orainaren eta geroaren lokarritzat jotzen zuena bere burua. Baina, esker-ronez, Rastignacek ere egin zuen gizon horren fortuna gerora nabarmenduko zuten erran horie-tako batengatik. —Ezagutzen ditut hark egin bi galtza, erraten zuen, hogeit mila liberaren erren-tako ezkontzak lortu dituztenak.

Mila eta bortzehun libera eta jantziak nahi adina! Une hartan hegoaldetar gaixoak ez zuen gehiago zalantzarik izan, eta edozein diru-kopu-uren ukaiteak mutil gazte bati ematen dion ezin-erranezko traka horrekin jaitsi zen otordur-at. Dirua ikasle baten sakelaratzat lerratzen denean, zutabe fantastiko bat goratzen da bera-rengan, euskarritzat hartuko duena. Lehen baino hobeki ibiltzen da, zurkaitz antzeko zerba-it hautematen du bere eskuhagarentzat, behakoa du betea, zuzenekoa, mugimenduak bizkor; bezpe-ran, umil eta herabe, ukaldiak bilduko zituen; biharamunean, lehen ministro bati lizkioke ema-nen halakoak. Inoiz entzungabeko fenomenoak

agitzen dira haren baitan, oro dakusa eta oro dezake, zernahi eta nolanhahi gutiziatzen du, alegera, eskuzabala, lagunkoia da. Hitz batez, ares-tixean hegorik ez zuen txoriak bere zabalgo ego-kia atzeman du. Ikasle dirugabeak, hezur bat mila arriskutan gaindi ebasten duen txakur baten antzera irensten du plazer-izpi bat, hura kraskatu, muina xurgatu, eta lasterrari lotzen zaio berriz; alabaina bere barne sakelan urrezko txanpon iheskor batzuk mugiaraz ditzakeen mutil gazteak bere plazerak dastatzen ditu, xehekatu eta haietaz gozatzen da, zeruan kulunkatzen da, orain ez daki zer nahi duen erran *miseria* hitzak. Paris osoa du bere. Oro distiranta deneko adina, orok izarniatzen eta erretzen dueneko! inork, ez gizonak eta ez emakumeak, baliarazten ez duen indar alegeraren adina! plazer guztiak hamarkoizten dituzten zor eta beldur bizien adina! Senaren ibar ezkerrean ibili izan ez denak, Jaundone Jakue eta Aita Sainduen karriken artean, ez daki deus gizakien bizitzaz! — «Ah! Pariseko emakumeek balekitez! zioen bere baitan Rastignacek andere Vauquerek zerbitzatu madari egosiak, ardit bat aleko, zanka-zanka

jaten, honat etorriko hituzke amodio bila.» Une hartan Errege-Postako postari bat agertu zen jangelarat, xeilako txintxarria jo ondoan. Eugène de Rastignac jaunaz galdetu zuen, zeinari bi moltsa hartzeko eta liburu bat sinatzeko luzatu baitzion. Rastignac orduan, zigor-ukaldi batek bezala, Vautrinek jaurtiki zion behako sakonak astindu zuen.

— Izanen duzu zerekin ordain arma-erakaspinak eta tiro-saioak, erran zion gizon honek.

— Galeoiak arribatuak dira, erran Zion andere Vauquerek moltsei behatuz.

— Andereño Michonneauri beldurra ematen zion begiak diruarenganat zuzentzeak, bere dirugosearen erakusteko lotsaz.

— Ama on bat duzu, erran zuen andere Cou-turek.

— Jaunak ama on bat du, errepikatu zuen Poi-retek.

— Bai, ama odolustu da, erran zuen Vautrinek. Zeure fartsak jokatzen ahalko dituzu orain, mundurat joan, ezkon sariak atzeman, eta dantzari ibili buruan mertxika-loreak darabiltzaten

kondeseekin. Baina, sinets iezadazu, gazte, ikas ongi tiro egiten.

Bere arerioa enkaratzen duen gizonaren zeinua egin zuen Vautrinek. Rastignacek eskupekoa nahi izan zion postariari eman, eta deus ez zuen bere sakelan atzeman. Vautrinek berean arakatu, eta hogeit hamar jaurtiki zizkion gizonari.

— Kreditu ona duzu, segitu zuen ikasleari behatuz.

Rastignac hari eskerren ematera izan zen bortxatua, nahiz ezin jasana zuen gizon hori, Beauséanteko anderearenetik itzuli zen egunean elkarri erranikako hitz garratzen ondoan. Zortzi egun horretan elkarri hitz egin gabe egon ziren Eugène eta Vutrin, eta batak bertzea aztertzen ziharduten. Ikasleak alferretan galdetzen zuen zergatik bere kautan. Dudarik ez da ezen ideiak, zer nolako indarraz asmatzen diren, indar haren ario zuzenean jaurtikitzen direla, eta, norat ere igortzen baititu burmuinak, hantxe dutela jotzen, bonbak mortairutik jalgitzean zuzentzen dituenari konpara daitekeen lege bat dela kausa. Ondorioak desberdinak dira. Izaera samurrak baldin badira zeinetan ideiek, beraiek birrinduz,

ostatu hartzan baitute, badira orobat izaera sendo gotortuak, burezur brontzeko hesidunak zeinen gainean bertzeen borondateak berdindu eta balak murraila baten aitzinean bezala erortzen baitira; gero badira oraindik ere izaera malet eta faunak zeinetan bertzeren ideiak kanoi-balak irudi etortzen baitira hiltzera, lubakietako lur gurian ematuz. Jo orduko lehertzen diren buru bete bolbora horietako bat zuen Rastignacek. Sobera gazte ernea zen harrapatua ez izatekotz ideien jaurtikitze horrez, sentimenduen kutsatze horrez, gu ohartu gabe hainbat eta hainbat gertakari bitxiz kolpatzen gaituzten sentimenduen kutsatze horrez, alafede. Haren ikusmolde moralak, haren lintze-begien helmena zuen. Haren zentzumen bikoitz bakoitzak luzetasun misterios hori zuen, goragoko jendeengan, soinburdin guztien akatsari antz ematen trebe diren ezpatariengan, txunditzen gaituen joan-etorriko malgutasun hori. Hilabete bat bazuen, bertzalde, akats bezainbat kualitate garatuak zirela Eugènerengan. Akatsak, munduak eta bere desira gero eta handiagoen bete-nahiak sorrarazi zizkioten. Haren kualitateen artean

ohiko ernetasun hegoaldetarra kausitzen zen, zailtasunei buruz, haien suntsitzeko, zuzen abiarazi eta Loiraz haraindiko gizon bat inolako zalantzarekin gelditzera uzten ez duena; Iparraldeko gizonak akats deritzoten kualitatea: haientzat, hori Muraten ondasunen sorburu izan bazen, haren heriotzaren kausa ere izan zen. Handik atera behar litzateke ezen Hegoaldetar batek asmatzen dakienean Iparraldeko amarrukeria Loiraz haraindiko ausartziari uztartzen, guztizkoa izan eta Suediako errege bilakatzen dela. Rastignac ez zitekeen beraz luzaz egon Vautrinen baterien pean, gizon hori adiskide edo etsai zuen jakin gabe. Aldian baino aldian gehiago, iruditzen zitzaion ezen pertsonaia berezi horrek grinak igarri eta bihotzean irakurtzen ziola, harengan ordea dena hain ongi hertsirik zegoelarik non dena dakien, oro dakusan, eta deus ez dioen esfinge baten sakontasun higigabea zuela irudi baitzuen. Barne-sakela betea atzemanetz, Eugène erreboltatu zen.

— Zaude apur batez, otoi, erran zion Vautrini zeina, bere kafearen azken xurrutak ahoan dastatu ondoan, jalgitzeko altxatzen baitzen.

— Zergatik? ihardetsi zuen berrogei urteko gizonak bere kapela hegi-nasaia jantzi eta burdinazko makila bat hartuz, zeinarekin zirimolak egiteko ohitura baitzuen mila ohoinek erasan beldurrak ez zegokeen gizon baten gisan.

— Dirua behar dizut itzuli, ihardetsi zuen Rastignacek moltsa bat laxatuz berehala, eta ehun eta berrogei libera kontatuz andere Vauquerentzat. Kontu garbiek adiskide onak egiten dituzte, erran zion alarguntsari. Kito gaude urtezaharrak artio. Kanbia iezazkidazu ehun sos hauek.

— Kontu garbiek adiskide onak egiten dituzte, errepikatu zuen Poiretek Vautrini so eginez.

— Hementxe dauzkazu hogeit hamar sos, erran zuen Rastignacek esfinge ileordedunari txanpon bat luzatuz.

— Irudi du lotsak-edo zaudela eni zerbait zorizateaz? erran zuen Vautrinek behako barrundatzaile bat tinkatuz mutil gaztearen ariman zeinari jaurtiki baitzion irriño trufari eta diogeniko horietako bat, Eugène ehun aldiz haserretzear jarri zutenetakoa.

— Baina... bai, erantzun zuen ikasleak, bi moltsak eskuan zeuzkala eta bere gelarat joateko altxaturik.

Vautrin jalgitzera zihoan saloirat jotzen zuen atetik eta ikaslea ere bazihoan kanporat eskaile-ra-zabalkorat ematen zuenetik.

— Jakin ezazu, Rastignacoramako jaun markesa, erraten didazuna ez dela preseski oso atsegina, erran zuen orduan Vautrinek saloiko ateari bultza egin eta ikasleaganat, hozki behatu zionaganat, etorriz.

Rastignacek jangelako atea hertsu zuen, Vautrin berekin zeramala eskailera-barnerat, jangelak sukaldetik banantzen zuen zabalkorat, non ate trinko bat bazegoen jardinerat eman eta gainaldean lauki luze bat burdinagez hornitua zuena. Han, ikasleak erran zuen bere sukaldetik ilkiaz Sylvieren aitzinean: —Vautrin *jauna*, ni ez naiz markesa, eta ez deritzait Rastignacorama.

— Borrokatzera doaz, erran zuen andereño Michonneauk ezaxolki.

— Borrokatzera! errepikatu zuen Poiretek.

— Ezetz bada, erantzun zuen andere Vauquerek bere ezkutupila ferekatuz.

— Hor doaz baina ezkien azpirat, oihukatu zuen andereño Victorinek jardinerat so egiteko jaikiz. Mutil gaixo horrek arrazoi du baina.

— Igan gaitezen, ene neskatxa maitea, erran zuen andere Couturek, afera horiek ez digute axola.

Andere Couture eta Victorine jaiki zirelarik, buruz buru egin zuten, atean, Sylvie Iodiarekin zeinak bidea zerratu baitzien.

— Zer pasatzen da baina? erran zuen kuzinersak. Vautrin jaunak erran dio Eugène jaunari: «Orain neurtuko ditiagu geure indarrak!» Gero besotik hartu, eta hor dira biak orain gure orburuen gainean.

Une hartan Vautrin agertu zen. —Amatto Vauquer, erran zuen irribarretsu, ez zaitez deusez izi, ezkien azpirat noa neure pistolen frogatzera.

— Oi! jauna, erran zuen Victorinek eskuak bilduz, zergatik nahi duzu Eugène jauna hil?

Vautrinek bi urrats eman zituen gibelerat eta Victorineri so gelditu.

— Hara bertzea, erran zuen neskatila gaixoa ahalkearazi zuen ahots trufatzaile batez. Ederra

da, ezta, mutil gazte hori? segitu zuen. Ideia bat ematen didazu. Biak eginen zaituztet zoriontsuak, neskatxa eder hori.

Andere Couturek bere umezurtza besotik hartu eta bereganat erakarria zuen belarrirat ziotsala: —Baina, Victorine, zur eta lur uzten nauzu egun goizean.

— Ez dut nahi ene etxean inor tiroka ibiltzerik pistolekin, erran zuen andere Vauquerek. Barri-de guztiak iziarazi eta polizia etorrarazten baldin baduzue ere, tenore honetan gainera!

— Ea, trankil, amatto Vauquer, erantzun zuen Vautrinek. Tira, tira, batxe-batxe, tiralekurat joanen gara. Rastignaci bildu zitzaion, zeina trebantziak besotik hartu baitzuen:

— Frogatu izan banizu ere neure bala, hogeita hamabortz urratsetarat, bortz aldiz segidan kokatzen dudala bateko pika baten erdian, erran zion, horrek ez lizuke zeure kuraia kenduko. Nago doi bat sumindurik ote zauden eta ergel baten atzera utziko ote zenukeen hiltzera zeure burua.

— Gibel egiten duzu, erran zuen Eugènek.

— Ez nazazula amorraraz, ihardetsi zuen Vautrinek. Egun goizean ez du hotzik egiten, zatoz hemen jartzera, erran zuen berde-kolorez tindatu aulkiak erakutsiz. Han ez digu inork adi-tuko. Zurekin hitz egin beharra dut. Mutil gazte txintxo bat zara, gaizkirik desira ez diodana. Maite zaitut, ala Tromp... (mila arraio!), ala Vautrinen fedea. Zergatik maite zaitudan, erranen dizut... Anartean, jakin ezazu semea bazintut bezala ezagutzen zaitudala, eta frogatuko dizut. Ezar itzazu moltsak hemen, segitu zuen mahai biribila erakusten ziola.

Rastignacek mahai gainean utzi zuen bere dirua eta jakin-min handi baten mende jarri zen aulkian, gizon horrek, zeina hil behar zuela erran ondoan haren babesle gisa ageri baitzen, bere moldeetan bat-batean izanikako kanbiamendua-ren ondorioz.

— Jakin gogo zenuke nor naizen, zer egin dudan, edo eta zer egiten dudan, segitu zuen Vautrinek. Sobera jakinzale zara, ene haurra. Tira, lasai egon. Bertze anitz gauza ere adituko dituzu! Zorigaitzak izan ditut. Entzun lehenik, gero erantzunen didazu. Hauxe da ene lehengo

bitza hirur hitzetan. Nor naizen? Vautrin. Zer egiten duzun? Gogoak ematen didana. Segi dezagun. Nahi duzua ene izaera jakin? Ona naiz ongia egiten didatenekin zein enari mintzo zaizkion bihotzak dituztenekin. Dena haizu dute horiek, ostikoak ematen ahal dizkidate hankezurretan nik hargatik erran gabe: *(Gogo emak!)* Baina, apotxarra! deabrua bezain gaiztoa naiz amorrarazten nautenekin, edo eta begiko ez ditudanekin. Eta on duzu jakitea gizon baten garbitzeak honek bezainbat kezkatzen nauela! erran zuen ttu-zurrusta bat jaurtikiz. Haren garbiki hiltzeaz baizik ez naiz axolatzen, ezinbertzekoa delarik. Artista bat deituko zenukeena naiz. Benvenuto Celliniren oroitzapenak irakurria naiz, ikusten nauzun hau, eta italieraz gainera! Ikasia naiz gizon horrengandik, gizon zuhurra baitzen, zernahi eta nolana hiltzen gaituen Probidentziaren imitatzen, bai eta edertasunaren maitatzen ere, kausitzen den lekuan kausi. Ez dea bada jokatzeko partida eder bat, gizon guztien kontra bakarrik suertatu eta zortea ukaitea? Gogoeta franko eginik nago zuen desordenu sozialaren egungo izaeraz. Mutikoa! duelua

haurkeria bat da, lerdokeria bat. Bi gizaki bizitarik batek itzali behar duelarik, ergela behar du hori halabeharraren menpean jartzeko. Duelua? zotz ala motz! horra zer den duelua. Bortz bala ezartzen ditut nik lerroan bateko pikan bala berri bakoitza bertzearen barnean sartuz, eta hogeita hamabortz urratsetarat gainera! bat talentu tiki horrez jantzia delarik, segur dateke garbitu beharreko gizona garbituko duela. Ongi da, bada! hogeit urratsetarat egin diot tiro gizon bati, eta huts egin dut. Astakirten hark sekula ez zuen pistola bat erabili. Soizu! erran zuen aparteko gizon horrek bere maripolisa zabaldu eta bere bularra erakutsiz, hartz baten bizkarra bezain ilezua, baina ile-xerlo gorrixka batez hornitua, zeinak halako higuin bat lotsaz nahasia eragiten baitzuen, bizarguri horrek ilea kiskali zidan, erantsi zuen Rastignacen eria bularrean zeukan zulo batean sartuz. Umegorri bat ninduzun ordea denbora hartan, zure adina nuen, hogeita bat urte. Zerbaitetan sinesten nuen artean ere, emakume baten amodioan, nahastera zoazen tontakeri andana batean. Borroka eginen genuen, ez da hala? Hil ahal izanen ninduzun. Emazu ni

zerraldo nagoela, non zinateke zu? Bazterrak hustu beharra zenuke, Suitzarat joan, aitattoren, sosik ez daukanaren, dirua jan. Argituko dizut nik zein egoeratan zauden; baina gailentasunez egingen dut, hots, behere honetako gauzak aztertu eta gero, bi alderdi baizik ez zirela hartzen ahal ikusi duen gizon baten gailentasunaz: edo obedientzia ergel bat edo errebolta. Nik ez diot ezeri obeditzen, argi dea hori? Badakizua zer behar duzun daramazun abiadan? milioi bat, eta berehalaxe; hori gabe, zure burutto horrekin, egurastera joan gintezke Saint-Cloud-eko sareak gaindi, han Izaki Goren bat badenetz ikusteko. Nik emanen dizut milioi hori. Eten bat egin zuen Eugèneri so eginez. —Ah! ah! begitarte argiagoa egiten diozu orain zeure aitatto Vautrini. Neskatila bat bezala zaude hitz hauen aditzearekin, «gauera arte» erran dioten eta, esnea edaten duen katu baten antzera, ezpainak milikatuz apaintzen ari den neskatila gazte bat bezala, alegia. Ederki. Goazen bada! Orain neurtuko ditiagu geure indarrak! Horra zeure kontua, gazte. Badugu, han behean, aita, ama, izeba handia, bi arreba (hamazortzi eta hamazazpi urte), bi anaia

ttiki (hamabortz eta hamar urte), hauxe da eski-faiaren errolda. Izebak zure arrebak hezten ditu. Apeza bi anaiei latin erakastera etortzen da. Familiak gaztain-ahi gehiago jaten du ogi zuria baino, aitak bere galtzak sareztatzen ditu, amak soineko bat neguko eta bertze bat udako egiten du doi-doia, gure arrebak ahal bezala moldatzen dira. Dena dakit. Hegoaldean izana naiz. Gauzak holakoak dira zuenean, urtean mila eta berrehun libera igorri eta zuen lur-puskek hirur mila bertzerik ematen ez badute. Badugu kuzinersa eta mutil bat ere, dedua gorde behar, aita baroia izaki. Gutaz denaz bezainbatean, handinahia dugu, Beauséantiarrak kidetzat eduki eta oinez ibilki, fortuna nahi eta sosik ez ukaiten, amatto Vauqueren *zadura-badurak* jan eta Saint-Germain faubourgeko apairu ederrak laket, lastaira batean lo egin eta jauregi bat nahi! Ez ditut zure nahiak gaitzesten. Handinahia ukaitea, adiskidea, hori ez da mundu guztiak dezakeena. Galde emakumeei zer-nolako gizonak xerkatzen dituzten, handinahiak. Handinahiak indartsuagoak dira, burdina gehiago dute odolean, bihotza bertze gizonek baino beroagoa. Eta emakumea hain

da uros eta eder kausitzen azkarra denetan, non gizon guztiak baino nahiago baitu indar alimalea duena, gizon horrek mila puska egin ahal baleza ere. Ondorengo galdearen pausatzeko egiten dut zure desiren inbentarioa. Honatx galde hori. Otsoak bezalako gosea dugu, gure haginxxak xorrotxak dira, zer egingen ote dugu eltzearen hornitzeko? Lehenik Kodea dugu jan beharra, hori ez da jostagarria, eta fitsik ere ez du erakasten: baina beharrezkoa da. Bego. Abokatu egingen gara tribunal bateko president bilakatzeko, gu baino hobeak diren jendexkak L.B. bizkar gainean ezarririk bidaltzeko, lo lasai egin dezakete la aberatsei frogatzeko. Ez da inondik inora irri-garria, eta luzea da gainera. Lehenik, bi urteko trabailuak eraman behar Parisen, irrika ditugun *kutixiei* beha, haiek ukitu gabe. Unagarria da behin ere ase gabe beti gutiziatzen egotea. Zurbila eta muluskuen jitekoa izanen bazina, ez zenuke deusen beldurrik ukanen: lehoien odol beroa dugu ordea eta egun oro hogeitastakeria egiteko gisako gosea. Men egingen duzu beraz suplizio horren pean, Jainkoaren infernua inoiz ikusi dugun izigarriena baita. Onar dezagun zen-

tzuduna zarela, esnea edan eta eresiak egiten ariko zarela: hasteko, jenerosa zarenaz geroz, txakur baten errabiarazteko gisako hamaika trabailu eta gabeziaren ondoan, malerusen baten ordezkoa izan beharko duzu, hirixka galduren batean, non gobernamentuak mila liberako soldata bat botako baitizu, harakinaren zakurrari hondarrak botatzen dizkioten bezala. Sainga egiten du ohoinei, aberatsak defendatzen, jende bihoztunak gillotinarazten. Eskerrik anitz! Babesik izan ezean, probintzietako tribunaltto horretan ustelduko zara. Hogeita hamar urteetarat, jujea izanen zara mila eta berrehun liberatan urteko, oraino ere jantzia asuinetarat egotzi ez baduzu behintzat. Berrogei urteetarat heldua izanen zarelarik, errotazain-alabaren batekin, sei mila libera inguruko errentaren jabe denarekin, esposatuko zara. Mila esker. Ukan babesak, erret abokatua izanen zara hogeita hamar urteetan, mila ezkutuko soldatarekin, eta auzapezaren alabarekin esposatuko zara. Ttipikeria politiko hauetako batzuk egiten badituzu, hala nola buletin batean Manuel irakurri ordez Villèle irakurri (horrek errimatzen du, kontzientzia lasai-

tzen du), berrogei urteetan abokatu nagusia izanen zara, eta deputatu bilakatu ahal izanen. Ohar zaitez, haur maite hori, urratu batzuk egin izanen dizkiogula geure kontzientzia xumeari, hogei urtez nekeak eta isilpeko miseriak jasan eta gero, gure arrebak neskazahar egonen direla. Ohore dut zuri jakinaraztea gainera, hogei abokatu nagusi baizik ez daudela Frantzia guttitan, eta hogei mila zaretela gradu hori erdietsi nahi duzuenak, horien artean, hein baten igaiteko, familia ere salduko luketen azalzuriak badirelarik. Ofizioak higuintzen bazaitu, ikus dezagun bertze gauza bat. Rastignaceko baroiak abokatu nahi du izan? Oi! ederki. Hamar urtez sufritu behar, mila libera gastatu hilabetean, biblioteka bat eduki, kabinete bat, mundurat joan, muin eman abokatu baten jantziari auzien eskuratze-ko, jauregia norbere mihiaz ekortu. Ofizio horrek gora eramanez bazintu, ez nuke ezetz erranen; baina aurki iezazkidazu Parisen borts abokatu, berrogeita hamar urteetan, urteko berrogeita hamar mila liberaz goiti irabazten dutenak? Bah! Arima hola mendrarazi baino nahiago nuke kortsario egin. Bertzalde, non erdiets ezkutuak?

Hori guztia ez da biziki alegera. Baliabide bat badugu emakume baten ezkon sarian. Nahi duzua ezkondu? Ipoan harri baten ezartzea litzateke hori: gainera, diruagatik ezkonduz geroz, zer bilakatzen dira gure ohore-sentimenduak, gure noblezia? Hobe da horretarakotz egun berean lotzea giza konbentzioen kontrako borrokari. Ez litzateke deus emakume baten aitzinean suge bat irudi herrestan ibiltzea, haren amaren oinen milikatzea, zerrama baten higuinarazteko gisako ttipikerien egitea, ufa! zoriona atzeman bazeneza bederen. Baina estoldetako harriak bezain zorigaiztokoa izanen zara hola esposaturikako emazte batekin. Hobe du, hagitzez ere, gizasemeekin gerla egiteak nor bere emaztearekin gatazkan ibiltzeak baino. Horra bizitzaren bidegurutzea, gazte, hauta ezazu. Hautua egina duzu: joana zara Beauséanteko zeure lehengusinarenerat, eta luxua usaindua duzu han. Joana zara Restaudeko anderearenerat, Goriot zaharraren alabarenerat, eta Pariseko urrina usaindua duzu han. Egun horretan kope-tan hitz bat izkiriatura zenuela itzuli zinen, nik ongi irakurtzen jakin dudana: gora *heldu!* gora

heldu gostaia gusta. Brabo! erran nuen neure baitan, horra puttiko bat begikoa dudana. Diruz behartu zinen. Non erdiets? Arrebak odolustu dituzu. Anaia guztiek dituzte, gehiago edo gutiago, arrebak *larrutzen*. Zure mila eta bortzehun liberek, ehun soseko txanponak baino gaztaina gehiago aurkitzen den herri batean, Jainkoak daki nola! ateratuek, soldaduek harrapaketan bezala eginen dute hanka. Gero, zer eginen duzu? lanean hasiko? Lanak, une honetan endelegatzen duzun bezala endelegaturik, gela bat ematen die amatto Vauquerenean Poireten indarreko tipoei zahartzaroan. Fortunaren laster eskuratzea da une honetan berrogeita hamar mila gaztek, denak ere zure heinean kausitzen baitira, ebatzi asmo duten problema. Zenbaki horretako ale bat baizik ez zara zu. Pentsa egin behar dituzun eginahalei eta gudukaren ankerrari. Poto baten barnean dauden armiarmek bezala jan beharko duzue elkar, ez baita berrogeita hamar mila plaza on. Badakizua jendeek nola urratzen duten beren bidea hemen? jekuaren argitasunagatik edo ustelkeriaren trebetasunagatik. Kanoi-bala bat irudi behar da giza oste

horretan sartu, edo izurrite baten antzera lerratu bertzenaz. Zintzotasunak ez du deusetako balio. Jeinuaren boterearen azpirat makurtzen gara, hura aiher dugu, izena belztu nahi diogu, partitu gabe hartzen duelakotz; baina makurtzen gara irauten badu; hitz batez, belauniko adoratzten dugu lohi pean ehortzi ezin izan dugunean. Ugari da ustelkeria, bakan talentua. Ustelkeria, hortaz, erruz dabilen mediokritatearen arma dugu, eta nonahi susmatuko duzu haren eztena. Ikusiko dituzu emakumeak zeinen senarrek sei mila liberako soldatak baitauzkate denetako, eta jantzitan hamar mila liberaz goiti xahutzen dutenak. Ikusiko dituzu mila eta berrehun libera irabazten duten enplegatuak lur-sail erosten. Ikusiko dituzu emakumeak prostituitzen Frantziako pare baten semearen kotxean joan ahal izateko, zeinak Longchamp-en erdiko galtzadan lasterka joatea baitauka. Ikusi duzu Goriot babalore gaixo hori alabak sinatu zor-agiriaren ordaintzera behartua, haren senarrak berrogeita hamar mila liberako errenta daukan arren. Ezetz Parisen bi urrats eman infernuzko jukutriarik aurkitu gabe. Neure burua eginen nuke uhaza hauetako baten

kontra liztor-habia batean eroriko zarela laket
duzun lehen emakumearekin, izan ledin aberats,
eder eta gazte. Legeek hertsatuak dira denak,
beren senarrekin gerlan ororen karietara. Ez
nuke inoiz bukatuko esplikatu behar banizu zer
azpijoko erabiltzen dituzten amoranteengatik,
pildengatik, haurrengatik, familiagatik ala bano-
keriagatik, bakan bertuteagatik, zaude segur
horretaz. Beraz, denen etsaia da gizon onesta.
Baina zer da bada, zure ustez, gizon onest bat?
Parisen, isildu eta partekatzeari uko egiten diona
da gizon onesta. Ez natzaizu mintzo esklabo
gaixo horiez, beren ordaina sekula hartu gabe,
denetan lanik gogorrenak egin eta nik Jainkoar-
en moldagaitzen kofradia deitzen ditudanez.
Izanez ere, hantxe ageri da bertutea bere guztiz-
ko ergelkerian, baina han da miseria baita ere.
Hemendik ikusten dut jende prestu horien kei-
nua Jainkoak azken judiziorat ez agertzearen
arraileria gaiztoa eginen baligu. Horrela bada,
fortuna laster nahi baldin baduzu, aberatsa
behar duzu jadanik, edo eta aberats irudi egin.
Hemen aberasteko, kolpe hautak eman beharra
da; iraun bertzerik ez duzu eginen bertzenaz, eta

gaitzerdi! Baldin eta, har ditzakezun ehun ogibi-
deetan, hamar gizon baldin badira fite aberasten
direnak, jendeek lapur deitzen dituzte. Atera
zeure ondorioak. Horra bizitza den bezalako.
Hori ez da sukaldea baino ederragoa, hark adina
kirasten du, eta eskuak zikindu behar azpijanean
jardun nahi izatera; jakin ezazu bederen ongi
ikuzten: hortxe dago gure garaiko moral guztia.
Munduaz honela hitz egiten badizut, hartako
eskubidea eman dit, ezagutzen dut. Gaizki
erranka ari naizela uste duzua? inolaz ere ez.
Horrelakoa izan da beti. Moralistek ez dute seku-
la aldatuko. Gizona inperfektua da. Batzuetan
bertzeetan baino hipokritagoa da, eta baduela
edo ez duela ekandurik diote orduan zozoek. Ez
ditut aberatsak akusatzen populuaren fagore:
gizona bera da goian, behean, erdian. Goi-azien-
da klase horretako milioi buruko hamar tipo
ausart kausitzen dira ororen gainean, are legeen
gainean ere, jartzen direnak; haietarik nauzu ni.
Zu, goi-mailako gizona bazara, zoaz zuzen-zuze-
na eta burua gora. Beharko duzu alta borroka
egin bekaizgoaren, gezur beltzaren, mediokrita-
tearen kontra, mundu guztiaren kontra. Napole-

onek Aubry izeneko geria-ministro batekin egin zuen topo, eta gutik egin zuen ez baitzuen kolonietarat bidali. Pentsa ezazu ongi! Beha ea goiz oro jaikitzen ahalko zaren bezperan baino gogo handiagoarekin. Aieru hauetan, inork arbuiatuko ez lukeen proposamena eginen dizut. Entzun ongi. Nik badut asmo bat, aizu. Patriarken antzera bizitzera joan nahi dut ehun mila goldeko-edo etxalde handi batean, Estatu Batuetan, hegoaldean. Landatzailea nahi nuke han izan, esklaboak eduki, milioixka eder batzuk irabazi neure abelgorriak, neure tabakorria, neure zura salduz, errege bat irudi biziz, neure nahiak eginez, hemen, non bakoitza bere kisuzko gordagian kukuturik bizi baikara, ezin-pentsatuzkoa den bizimolde bat eramanez. Poeta handi bat naiz ni. Ez ditut neure poesiak izkiriitzen: ekintzak eta sentimenduak baitira izan. Badauzkat une honetan berrogeita hamar mila libera, doi-doia berrogei beltz emanen lizkidaketenak. Berrehun mila libera behar ditut, berrehun beltz nahi baititut, patriarken antzera bizi eta neure gogoaren beteitzeko. Beltzak, aditzen duzua? haur kozkortu erosi batzuk dira zeinekin nahi duzun guztia egin

baitezakezu, hargatik inongo erret abokatu begi-luzerik etorriko ez zaizula horretaz kontu eskatzen. Kapital beltz horrekin, hamar urteren buruan hiruzpalau milioi ukanen ditut. Ongi helduz geroz, inork ez dit galdetuko: «Nor zaitugu?» Jaun Laur-Miloiduna izanen naiz, Estatu-Batuetako hiritarra. Berrogeita hamar urte izanen ditut, oraino usteldu gabe egonen naiz, neure gisara dibertituko naiz. Bi hitzez, milioi bateko ezkon saria eskuratzen badizut, berrehun mila libera emanen dizkidazu? Ehuneko hogeiko komisioa, aizu! garestiegia ote da hori? Moldatuko zara zeure emazteñoak maita zaitzan. Behin ezkondurik, arrangurak, barne-aladurak agertuko dituzu, triste irudi eginen hamabortz egunez. Gau batean, zenbait ziminokeriaren ondoan, bi musuren artean, berrehun mila liberako zorrak dituzula gaztigatuko diozu zeure emazteari, erraten diozula: «Ene maitea!» Komedia bitxi hori egun oro jokaten dute gazterik gailenenek. Andere gazte batek ez dio moltsa ukatzen bere bihotzaren jabe denari. Zer uste duzu, horretan zerbait galduko duzula? Ez. Aurkituko duzu bidea zeure berrehun mila liberak afera batean berriz

irabaztekoa. Zeure diruaz eta zeure adimenduaz, desira dezakezun bezainbateko fortuna bilduko duzu. *Ergo*, sei hilabeteko epean, egina izanen duzu zeure zoriona, emakume maitagarri batena eta zeure aitatto Vautrinena, zeure familiarena kontatu gabe, neguan, egurraren eskasaz, bere eriei fu eman beharrean kausitzen denarena. Ez zaitez barri ez proposatzen, ez eskatzen dizudanaz! Parisen egiten diren hirurogei ezkontza ederretarik, berrogeita zazpi badira holako salerospenak ekartzen dituztenak. Notarien Ganbarak bortxatua du jaun...

— Zer egin beharra dut? erran zuen irrikaz Rastignacek Vautrini etenez.

— Deus ez kasik, erantzun zuen gizon horrek oharkabez bozkario-mugimendu bat eginez, bere amu-hagaren muturrean arrain bat susmatzen duen arrantzalearen begitarte sorraren irudikoa. Entzun iezadazu ongi! Neskak dohaka-be eta lander baten bihotza amodioz betetzeko irrikarik handiena duen esponja da, esponja idor bat sentimendu-xorta bat erori ordukotz zabalitzen dena. Gortearen egitea bakartasunean, etsipenean eta pobrezian etorkizunak ekarriko

dion zortea hauteman gabe kausitzen den neska gazte bati! to! hori zera bezalako da: eskutan hamabortz eta hamalau edukitzea, loteriako zenbakien jakitea, eta albisteen berri jakinki burtsan jokatzeko. Ezin-hautsizko ezkontza eraikiko duzu pilare sendo batzuen gainean. Datozkiola milioiak neskatila horri, hark zangoetararat jaurtikiko dizkizu, harkoskorrak bailiran. «Har ezazu, ene laztana! Har ezazu, Adolphe! Alfred! Har ezazu, Eugène!» erranen du baldin eta Adolphek, Alfredek edo Eugènek harengatik sakrifikaizeko zentzu ona izan badute. Nik sakrifiziotzat hartzen dudana da jantzi zahar baten saltzea zuek biak Cadran-Bleu-rat joan ahal izateko, ziza-opila batzuen jatera elkarrekin; handik, arratsean, Ambigu-Comique-rat; da norbere erlojuaren Bahitetxean ezartzea hari xal baten erregalatzeko. Ez natzaizu mintzo ez amodioaren ihakinaz, ezta emakumeek hain laket dituzten fitskeriez ere, hala nola, konparazio, bat haiengandik hurrun delarik ur tantoen botatzea gutunerat, negarrak bailiran: ongi baino hobeki dakizulakoan nago ni bihotzaren argota. Paris, ikusten duzu, Mundu Berriko oihan bat bezala-

koa da, non hogeit hamar basaleinu mota mugitzen baitira artega, Illinoistarrak, Hurondarrak, gizarte-ehiza batzuek eta bertzeek ematen duten fruitutik bizi direnak; zu milioien ehiztaria zara. Horien hartzeko, ibiltzen dituzu arteak, segadak, apeguak. Ehiza-molde bat baino gehiago badira. Batzuek ezkon sariak ehizatzen dituzte; bertzeek likidazioak; honakoek kontzientziak arrantzatzen dituzte, harakoek beren abonatuak saltzen zangoz eta eskuz estekaturik. Ehiza-zakua ongi horniturik itzultzen dena agurtua da, goretsia, onartua, gizarte onean. Egin diezaiogun justizia lur abegikor honi, tratutan zara munduan den hiririk adeitsuenarekin. Baldin eta Europako hirinagusi guztietako aristokrazia harroek ez badute beren lerroetan milioidun doilor bat onartu nahi, Parisen besoak dizkio luzatzen, lasterka joaten haren festetarat, haren apairuak jaten, eta haren desohorearekin topa egiten.

— Baina non aurki holako neska bat? erran zuen Eugènek.

— Hortxe duzu, zeure aitzinean!

— Andereño Victorine?

— Justuki!

— Eh! nola?

— Maite zaitu jadanik, zeure Rastignaceko baronesattoak!

— Sosik ez dauka ordea, segitu zuen Eugènek harriturik.

— Ah! heldu gara azkenean. Bi hitz gehiago, erran zuen Vautrinek, eta dena argituko da. Aita Taillefer zirtzil zahar bat duzu Iraultza denboran bere adiskideetako bat hilarazi omen zuena. Ene puttiko horietako bat da, bere eskukoa dena irizietan. Bankaria da, Frédéric Taillefer eta konpainia etxearen partalier nagusia. Seme bakarra du, zeinari bere ondarea nahi baitio utzi, Victorinerekin kaltez. Nik ordea ez, bada, injustizia horiek laket. Don Kixote irudia nauzu, atsegin dut ahularen alde egitea indartsuaren kontra. Baldin eta Jainkoaren borondatea hari bere semearen edekitzea balitz, Tailleferek bere alaba onartuko luke berriz; ezein oinordeko ukan nahi luke, giza naturalezan den ergelkeria bat, eta hark ezin du jadanik haurrik izan, nik badaikit. Victorine ezta eta gisakoa da, aita aurki izanen du zakurat bildua, eta Alemaniako ziba bat bezala itzulikaraziko du sentimenduaren zigo-

rraz. Sentiberaegi izanen da zure amodioaren alderat zutaz ahanzteko, harekin esposatuko zara. Nik probidentziaren egitekoa hartuko dut neure gain, Jainkoa eskuratuko dut. Badut adiskide bat zeinarentzat ahal izan dudan guztia egin baitut, Loirako armadako koronel bat erregeren guardian enplegatu berria dena. Ene aburak entzuten ditu, eta erregezale egin da txit: ez da beren iritzia atxikitzen dituzten ergel horietarik. Oraindik aholku bat baldin badut zuri emateko, ene aingerua, zeure iritziei zeure hitzei baino gehiago ez atxikitzeoa da bera. Eskatzen dizkizutenean, sal itzazu. Iritziz sekula ez aldatzeaz arrandiatzen den gizona da gizon bat beti zuzenean joatera tematzen dena, ertzso bat infalibilitatean sinesten duena. Ez da hatsarririk, gertakariak bertzerik ez da; ez da legerik, zirkunstantziak bertzerik ez da: goi-mailako gizona gertakariekin eta zirkunstantziekin esposatzen da haien gidatzeko. Hatsarririk eta lege finkorik balitz, herriek ez lituzkete aldatuko guk atorraz aldatzen dugun bezala. Gizona ez omen da nazio osoa baino zentzudunagoa. Frantziari zerbitzurik gutien egin dion gizona, gorriak ikusi dituelako

arrazoi bakarragatik, fetitxe beneratu bat da, gehienaz ere Kontserbatorian paratzeko balio duena, makinen artean, la Fayette txartelarekin; aldiz, denek harrika egiten dioten printzeak, eta zeinak gizateria aski mesprezitzen baitu hark eskatzen bezainbat zin egoztekotz baten aurpegiat, Frantziaren zatikatzea eragotzi duelarik: koroak zor izan, eta lohia botatzen diote. Oi! Aferak ezagutzen ditut nik! hamaika gizonen sekretuen berri badut nik! Aski da. Ezin-kordokatuzko iritzia izanen dut hirur buru hatsarri baten erabileraz akort aurkitzen ditudan egunean, eta luzaz igurikiko dut! Ez dira aurkitzen tribunaletan hirur juje legearen artikulu batez aburu bera dutenak. Neure gizonaganat itzultzen naiz. Jesus-Christ birgurutzefika liro erran baniezaio. Bere aitatto Vautrinen hitz bakar batekin, kereila bilatuko dio bere arreba gaixoari ehun sos ere igortzen ez dion ihizi horri, eta... hemen Vautrin jaiki, guardian jarri, eta hiltzerat tiratzen duen arma-maisu baten mugimendua egin zuen. —Eta, itzalperat! erantsi zuen.

— Izigarria da! erran zuen Eugènek. Adarra jotzen zabilteza, Vautrin jauna?

— Et-et-et-et, trankil, hasi zen berriz gizon hori. Ez egin haurrena: bizkitartean, horrek dibertituko bazaitu, samur zaitez! asalda zaitez! Errazu zital bat naizela, gaiztagin bat, zirtzil bat, ohoin bat, baina ez nazazula ez iruzurgile, ez espioi dei! Hots, errazu, huts ezazu zakua! Barkatzen dizut, hain da naturala zure adinean! Ni ere izan naiz holakoa! Egin gogoeta bederen. Okerrago eginen duzu egunen batean. Emakume politen baten lakrikuntzera joanen zara eta dirua emanen dizu. Pentsatua zara horretan! erran zuen Vautrinek; ezen, nola helduko zara ongi, zeure amodioaren gain kontatzen ez baduzu? Bertutea, ene ikasle maitea, ez da zatitzen: bada edo ez da. Geure hobenen penitentzia egiteko erraten digute. Bertze sistema polit bat, zinez, urriki-egintza baten ondorioz krimen bate-tik garbi uzten gaituena! Emakume baten liluraztea gizarte-zurubiko halako mailatan jartzera heltzeko, iraka ereitea familia bateko haurrideen artean, hots, supazter baten sugainaren pean edo, bertzenaz, bat bederaren plazer ala interesaren bila egiten diren doilorkeria guztiak, uste duzua horiek fede, esperantza eta karitatezko

egintzak direla? Zergatik bi hilabeteko kartzela gau batean neskato bati bere fortunaren erdia kentzen dion dandyari, eta zergatik presondegia zirkunstantzia gaizkoagarriekin mila liberako billetea ebasten duen zorigaiztokoari? Horra zuen legeak! Artikulu bat ez da zentzugabekeria-rat heltzen ez dena. Eskularru eta hitz hori eta leunekiko gizonak erailketak egin ditu non ez baina odolik isurtzen, baina non odola ematen baita: eraileak ate bat ireki du giltza-orde batez: gauzko bi gauza! Nik proposatzen dudanaren eta egun batean eginen duzunaren artean, odola da desberdintasun bakarra. Zerbait finkotan sinesten duzu mundu honetan! Mespreza itzazu beraz gizonak, eta ikus zein mailatatik pasa daitekeen zeharka Kodearen sarea. Zio ageririk gabeko fortuna handien sekretua krimen ahortzi bat da, garbiki egina izan delakotz.

— Isilik, jauna, ez dut horretaz gehiagorik entzun nahi, neure buruaz dudaraziko nindukezu. Une honetan sentimendua dut neure zientzia guztia.

— Zeure gustura, haur eder hori. Indartsuago uste zintudan, erran zuen Vautrinek, ez dizut

deus gehiagorik erranen. Hondarreko hitz bat, alta. Irmoki behatu zion ikasleari: Badakizu ene sekretua, erran zion.

— Errefusatzen zaituen mutil gazte batek ongi jakinen du horren ahanzten.

— Ongi errana da hori, atsegin ematen dit. Bertze batek, ikusten duzu, ez luke hainbertze kezkarik. Oroit zaitez zugatik egin nahi dudana. Hamabortz egun ematen dizkizut. Hartzekoa edo uztekoa da.

— Hau burdinazko burua gizon honek duena! erran zuen bere baitan Rastignacek Vautrinen handik lasaiki, makila besapean zihoala ikustean. Gordinki erran zidak Beauséanteko andreak molde onez erraten zidana. Altzairuzko erpeekin urratzen zidaan bihotza. Zergatik nahi ote dut Beauséanteko anderearenerat joan? asmatu ditudan bezain laster igarri ditik ene arrazoiak. Bi hitzez, maltzur horrek gizonak eta liburuek baino gauza gehiago erran zizkidak bertutearen gain. Bertuteak amore ematerik jasaten ez badu, arrebei ebatsi ote diet beraz? erran zuen moltsa mahai gainerat jaurtikiz. Jarri eta han egon zen gogoeta burtzoragarri batean mur-

gildurik. —Bertuteari fidel izatea, martirio gain-
gainekoa! Bah! mundu guztiak sinesten dik bertutean; baina nor da bertutetsua? Populuek libertatea ditek jainkoaizun; baina non da lur gainean populu libro bat? Ene gaztetasuna urdina duk oraindik hodeirik gabeko zerua bezala: handi edo aberats izan nahia, ez ote da hori deliberatzea gezur erratera, men egitera, herrestan ibiltzera, zutitzera, balakatzera, disimulatzena? ez ote da hori onartzea gezur erran, men egin, herrestan ibili direnen mirabe bilakatzea? Haien gaizkidea izan aitzin, haien zerbitzatu beharra duk. Ez, bada! Prestuki, sailduki nahi diat lan egin; gau eta egun nahi diat lan egin, neure fortuna neure lanari ez bertzeri zor izan. Fortunarik geldiena izanen duk, baina egun oro burua bat ere pentsamendu gaiztorik gabe pausatuko diat neure burkoan. Zer ote da ederragorik nork bere bizitzari behatu eta haren lili bat bezain aratz atzematea baino? Bizitza eta biak mutil gazte bat eta haren emaztegaia irudiak gaituk. Vautri-
nek ikusarazi zidak zer gertatzen den hamar urteko ezkontzatik lekorat. Futxo! Burua ari nauk

galtzen. Ez diat deusetan ere pentsatu nahi, bihotza gidari ona duk.

Eugène Sylvie Iodiaren ahotsak izan zen bere ametsetatik aterara jostuna han zuela erran zio-larik. Ikaslea haren aitzinerat agertu zen eskuan bere bi diru-moltsak zeuzkala, baina ez zen har-gatik haserretu. Bere gau-jantziak frogatu zitue-larik, erabat eraldatzen zuen bere goizeko beztimenda berria jantzi zuen berriz. —Trailleseko jaunaren betekoa nauk inolaz ere, erran zuen bere baitan. Noizbait ere badiat aitonen-sembaten traka!

—Jauna, erran zuen Goriot zaharrak Eugène-renean sartuz, Nucingeneko anderea zein etxetarat joaten den ba ote nekien galdetu didazua?

— Bai!

— Ongi da! heldu den astelehenean Carigliano marexalaren dantzaldirat joanen da. Han izan ahal bazaitezke, erranen didazu ea ene bi alabak biziki dibertitu diren, nola egonen diren apainduak; den-dena, hitz batez.

— Nola jakin duzu hori, ene Goriot ona, erran zuen Eugènek bere suaren ondoan jarrarazten zuela.

— Haren andere ganbarazainak erran dit. Egiten duten guztia dakit Thérèse eta Constanteren bidez, segitu zuen arraiki. Agureak irudi zuen maitale bat artean ere sobera gaztea, bere amorantearekin, honek hargatik bat ere susmatu gabe, harremanetan jartzen ahal duen amarru batez alegeratzeko. —Ikusiko dituzu! erran zuen halako bekaitz mingarria adieraziz lañoki.

— Ez dakit, erantzun zuen Eugènek. Beausé-anteko anderearenerat joanen naiz ea marexalaren anderea aurkezten ahal didan.

Eugènek halako barne-bozkario batez pentsatzen zuen handik goiti jantziko zen bezala jantzia agertzea bizkondesarenerat. Moralistek giza bihotzaren leizeak deitzen dituztenak pentsamendu etsigarriak, norberaren interesaren mugimendu nahigabekoak dira soilki. Goiti-beheiti horiek, hainbertze kexuren sujeta, bat-bateko itzultze horiek, gure gozamenen fagore eginikako kalkuluak dira. Bere burua jantzi onez, eskularru onez, bota onez ikusirik, Rastignacek bere delibero bertutetsua ahortzi zuen. Gaztaroa ez da kontzientziaren mirailean bere buruaren behatzera ausartzen kontzientzia hori injus-

tiziaren alderat makurtzen denean, helaroak ordea bere burua ikusia duelarik ispilu horretan: hortxe datza bizitzako bi atal horien arteko alde guztia. Duela zenbait egun, bi auzoak, Eugène eta Goriot zaharra, adiskide onak bilakatuak ziren. Haien adiskidetasun sekretuak Vautrinen eta ikaslearen artean kontrako sentimenduak sorrarazi zituzten arrazoi psikologikoak zituen oinarri. Gure sentimenduek mundu fisikoan dituzten ondorioak egiaztatu nahi dituen filosofo ausartak haien egiazko materialitatearen froga bat baino gehiago edirenen ditu, dudarik gabe, gure eta animalien artean sortzen dituzten harremanetan. Zein fisionomistak sumatzen du ezaugarri bat lasterrago txakur batek ezezagun batek maite duenez igartzen baino? *Atomo makoak*, denek darabilgun zuhur-hitza, antzina-ko hitzen zurikinen mazatzea laket dutenek aztergai dituzten ertzokeria filosofikoen gezurtatzeko mintzairetan gelditzen diren egitate horietakoak dira. Bat maitatua sentitzen da. Sentimendua gauza guztiei eransten zaie eta eremuak iragaten ditu. Gutun bat arima bat da, hain da hitz egiten duen ahotsaren oihartzun fidela

non izpiritu minberek amodioaren altxorrik jorie-
nen artean ematen baitute. Goriot zaharra, zeina
bere sentimendu burugabeak txakur-izaeraren
goreneraino goratzen baitzuen, usnaturik zego-
en ikaslearen bihotzean haren alderat erneak
ziren urrikalmendua, mirespenezko onginahia,
gaztezutuko begikotasunak. Bizkitartean elkar-
ganatze jaioberri horrek ez zuen artean ere ino-
lako konfidentziarik ekarri. Baldin eta Eugènek
Nucingeneko anderearen ikusteko gogoia eraku-
tsia bazuen, ez zen agurearen gain kontatzen
zuelakotz honek bere alabarenean sar zezan,
baina zuhurgabekeria bat laguntza handikoa iza-
nen zitzaiolakoan baitzegoen. Goriot zaharrak ez
zion bere alabez hitz egin ezpada bere bi bisiten
egunean jendeen aitzinean erratera ausartu
zenaren karietara. —Ene jaun maitea, erran zion
biharamunean, nolaz pentsatu ote duzu Restau-
deko andereak aiher zaituela ene izena erran
duzulakotz? Asko maite naute neure bi alabek.
Aita zoriontsua naiz. Soilki, bi suhiak jokatu dira
gaizki enekin. Ez ditut haur maite horiek sufria-
razi nahi izan haien senarrekin ditudan tirabiren-
gatik, eta nahiago izan dut haiek isilpean ikusi.

Misterio horrek mila gozamen ematen dizkit, bertze guraso beren alabak nahi dutelarik ikus ditzaketenek konprenitzen ez dituztenak. Nik ezin dut, konprenitzen duzua? Orduan, aro ona delarik, Champs-Élyséesetarat joaten naiz, andere ganbarazainei galdetu eta gero ene alabak jalgitzekoak direnetz. Zain egoten naiz haiek noiz pasatuko, bihotzak pil-pil egiten dit kotxeak arribatzen direlarik, beren jantzi ederretan miresten ditut, iraganez bidenabar irriño bat eskaintzen didate naturaleza urreztatzen didana bere hartan eguzki eder zenbaiten errainu bat eroriko bailitzan. Eta hantxe gelditzen naiz, haiek berriz noiz etorriko zain. Hartzara ikusten ditut! haizeak on egiten die, arrosa-kolorea dute. Neure inguruan aditzen dut erraten: Hau da emakume ederra hau! Bihotza alegeratzen dit horrek. Ez dea bada ene odola! Harat-honat daramatzaten zaldiak ere maite ditut, eta haien belaunen gaineko xakurñoa nahi nuke izan. Haien plazeretik bizi naiz. Nork bere maitatzeko moldea du, eneak ez dio hargatik kalterik egiten inori, zergatik axolatzen da mundua nitaz? Uros naiz neure gisara. Legeen kontrakoa ote da neure alaben

ikustera joan nadin, arratsean dantzaldirat joateko beren etxeetatik jalgitzen direnean? Neure bihozmina berantegi heldu eta erraten badidate: Anderea jalgia da. Gau batez goizeko hirurak arte iguriki dut Nasieren, hondar bi egunean ikusi gabea nuenaren, ikusteko. Atseginez leher-tzear izan naiz! Otoi, ez zaitez nitaz mintza ene alabak zein onak diren errateko ez bada. Zernahi erregali suertez nahi naute bete; nik hori galarrazten diet, erraten diet: «Gorde zuen dirua! Zer nahi duzue hartaz egin dezadan? Ez dut haren beharrik bat ere.» Izan ere, ene jaun maitea, nor ote naiz ni? hilotz ziztrin bat, arima ene alabak dauden leku guztietan duena. Nucingeneko anderea ikusia izanen duzularik, erranen didazu zein duzun bietarik nahiago, erran zuen gizagai-xoak lipar batez isilik egon ondoan ikusi zuenean Eugène partitzera zihoala Tuileries-etarat egurastera joateko Beauséanteko anderearenerat agertzeko tenorea etorri bitartean.

Ibilaldi hori zorigaiztokoa izan zen ikaslearentzat. Zenbait emakumek begiz jo zuten. Hain zen eder, gazte eta gustu oneko dotoreziaz ageri! Arta bat kasik mirespenezkoa biltzen zuela iku-

siz, istantean hastandu zitzaizkion gogotik alaba eta izeba larrutuak, hala nola bere biguin bertutetsuak ere. Ikusia zuen bere buruaren gainetik iragaten hain erraz aingerutzat hartzen dugun deabru hori, hego koloreztatuko Satan hori, errubiak ereiten dituen, bere urrezko geziak jauregien aitzinalderat jaurtikitzen, emakumeak purpuraztatzen, tronuk, hain xumeak beren hastapenean, distira ergel batez janzten; entzuna zuen banokeria zirtakari horren jainkoa zeinaren girgileria ahal-sinbolotzat hartzen baitugu. Vautrinen eleak, nahi bezain zinikoak izan zirelarik ere, birjina baten oroimenean «Urrea eta amodioa burrustan!» erran dion lupeme zahar baten aurpegi-orraze doilorra finkatzen den bezala ostatu hartuak zeuden haren bihotzean. Ezaxolki alderrai ibili ondoan, bortzak man Eugène Beauséanteko anderearenerat agertu zen, eta gazteak beraiei buru emateko armarik gabe kausitzen diren ukaldi latz horietako bat hartu zuen han. Adikortasun fin horrez, hots, hezkuntza aristokratikoak emanikako grazia ezti eta bihotzetik etorri ezik osoa ez den horrez betea atzemana zuen ordudaino bizkondesa.

Sartu zenean, Beauséanteko andereak keinu idor bat egin eta ahots laburrez erran zion: — Rastignaceko jauna, ezinezkoa zait zure ikustea, une honetan bederen! egitekoak ditut...

Soegile batentzat, eta Rastignac laster bihurtu zen soegile, erran hori, keinua, behakoa, ahotsaren inflexioa, kastaren izaeraren eta ohituren kondaira ziren. Burdinazko eskua nabaritu zuen belusezko eskularruaren pean; nortasuna, berekoikeria, moldeen pean; egurra, bernizaren pean. Aditu zuen, finean, tronuaren gaindorren pean hasi eta azken aitonen-semearen kaskagainaren azpian bukatzen den NI ERREGÉ-a. Eugène errazegi abandonatua zen emakumearen prestutasunean sinesteko berak emanikako hitzaren gainean. Malerus guztiak bezala, fede onez sinatua zuen ongilea zordunari lotu behar duen hitzarmen atsegingarria, eta zeinaren lehen artikuluak guztizko berdintasuna sendesten baitu bihotz handien artean. Ongintza, bi izaki bakar batean elkarretaratzen dituen, da grina zerutiar bat hain konprenigabea, hain bakana nola egiazko amodioa. Bata eta bertzea arima ederren oparotasuna dira. Rastignacek

Cariglianoko dukearen dantzaldiraino nahi zuen heldu, eta ihes egin zion ekaitz horri.

— Anderea, erran zuen ahots hunkitu batez, gora handiko zerbaitengatik ez balitz, ez nintzatekeen zure gogaitzera etorri; izan zaitez zu geroago ikustera uzteko bezain atsegina, iguririkodut.

— Ongi da! etor zaitez enekin afaltzera, erran zuen andereak nahasikara bere hitzetan ezarria zuen gogortasunaz; ezen emakume hori zinez handia bezain ona zen.

Bat-bateko gibeleratze horrek ukiturik egonagatik, Eugènek bere baitan erran zuen handik zihoala: «Apal hadi, jasan ezak dena. Zer izanen dira bertze emakumeak, baldin eta, une batez, emakumerik hoberenak ere bere adiskidetasunagintzak ahantzi eta zapata zahar baten antzera ibiltzen bahau? Nor bere buruarentzat, hortaz? Egia duk haren etxea ez dela botiga bat, eta oker naizela haren beharra ukanez. Hemen, Vautrinek dioenaz, kanoi-bala bihurtu beharra duk.» Ikaslearen gogoeta garratzak laster izan ziren bizkondesarenean afalduz erdiestea espero zuen plazerak barreiatuak. Hala, halako fatalitate-

suerte batengatik, haren bizitzako gertakaririk xumeenak elkartu ziren urratu beharra zuen bide horretarat bultzatzeko, non, Maison-Vauquereko esfinge beldurgarriaren arabera, beharrezkoa izanen baitzuen, gudu-zelai batean bezala, hilaraztea hila ez izateko, trunparaztea trunpatua ez izateko; non muga beharko baitzuen bere kontzientzia, bere bihotza utzi, moztu bat jantzi, gizonez urrikaldu gabe jokatu, eta, Lazedemoniok bezala, inork ikusi gabe bere fortuna hartu, koroaren merezient izatekotz. Bizkondesarenerat itzuli zelarik, betidanik erakutsi izan zion onginahi adeitsu horrez beterik ediren zuen. Biak elkarrekin joan ziren jangela baterat non bizkondeak bere emaztea igurikitzen baitzuen, eta non bere distira osoan ageri baitzen, Restaurazioaren pean, denek dakitenaz, goieneko gradurat eramana izan zen mahaiaren luxu hori. Beauséanteko jaunak, anitz jende nardaturen antzera, ez zuen kasik bertze plazerik mahai onarenak baino; sabelzaintzaren eretzean Louis XVIII.aren eta Escars-eko Dukearen eskolakoa zen. Haren mahaiak luxu bikoitza eskaintzen zuen beraz, edukigailuarena eta edukiarena.

Egundaino ez zuten Eugèneren begiek halako ikuskizun-suerterik ikusi, lehen aldikotz afaltze-koa baitzen gizarteko handitasunak etorkiz berez-zen dituzten etxe horietako batean. Modak kendu berriak zituen lehenago Inperioko dantzal-diei akabera ematen zieten afariak, non milita-rrek indarrak bildu beharra baitzuten nola bar-nean hala kanpoan aiduru zituzten guduka guz-tietarako prestatzeko. Eugène dantzaldietarat soilik joana zen artean ere. Geroago hain emi-nentki bereiziko zuen zentzutasunak, eta jadanik hartzen hasia zenak, adurra zeriola teteletzetik libratu zuen. Baina ikusiz zilarrerria zizelkatu hori, bai eta mahai jori baten mila bilakuntzak ere, lehen aldikotz miretsiz harrabotsik gabe eginika-ko zerbitzu bat, zaila zen irudimen suharreko gizon batentzat ez nahiago izatea bizitza etenga-be dotore hori biharamunean hasi-asmo zuen gabeziako bizitza baino. Pentsamenduak lipar batez bere pentsiorat ohildu zuen; hain zen bar-natik izitu horretaz non handik urtarrilean alde egitea zin egin baitzuen bere baitan, hala etxe garbi baterat joateko nola Vautrinengandik ihes egiteko, zeinaren esku zabala bizkar gainean

nabari batzuen. Gogoan hartuz geroz ustelkeriak, mintzodunak nahiz mutuak, Parisen hartzen dituen mila itxurak, zentzu oneko gizon batek bere artean galdetzen du ea zer aberrazioengatik ezartzen duen han Estatuak eskolarik, elkarretaratzen gazte-jenderik, nolaz emakume politak diren han errespetatuak, nolaz kanbiatzaileek metatu urrea ez den magikoki haien saskituetatik bat-batean aienatzen. Baina kontutan hartuz geroz guti direla krimenak, are delituak ere, gazteek eginikakoak, zer begirune ez dugu agertu behar Tantaloren horien alderat, elkar gudu-katzen duten eta kasik beti garaitiar diren Tantaloren pazient horien alderat! Ongi deskribatua baldi Parisen kontrako bere borrokan, egungo gure zibilizazioaren sujetik lazgarrienetako bat horni lezake ikasle dohakabeak. Beauséanteko andereak alferretan behatzen zion Eugèneri mintzatzera gonbidatzeko, ikasleak ez zuen deus erran nahi izan bizkondearen aitzinean.

— Italiarretarat eramanez nauzu egun arratsuan? galdetu zion bizkondesak bere senarrari.

— Ez dakikezu zein plazer handia hartuko nukeen zure erranak eginez, ihardetsi zuen biz-

kondeak ikasleari zauzka egin zion adeitasun trufari batekin, baina norbaitekin biltzera joan beharra nauzu Variétés-etarat.

— Amorantearekin, pentsatu zuen bizkonde-sak.

— Zer, arrats honetan ez duzua beraz Ajuda-koa? galdetu zuen bizkondeak.

— Ez, ihardetsi zuen bizkondesak ozpindurik.

— Ongi da! beso bat behar baduzu baitezpa-da, har ezazu Rastignaceko jaunarena.

Bizkondesak Eugèneri behatu zion irribarre-tsu.

— Hagitz konprometigarria dateke zuretzat, erran zuen bizkondesak.

— *Frantsesak laket du arriskua, han loria edi-reten duelakotz*, erran du Chateaubriandeko jau-nak, ihardetsi zuen Rastignacek makurtzen zela.

Une batzuen buruan, Beauséanteko anderea-ren ondoan, coupé zalu batean, modako teatro-rat izan zen eramana, eta sorginkeriaren bat ote zen pentsatu zuen aitzinaldeko gela batean sartu eta bere burua hantxe ikusi zuenean, zora-garri apaindurik zegoen bizkondesarekin batean,

largabista guztien xede. Enkantamendurik
enkantamendu zebilen.

— Enekin mintzatu beharra zara, erran zion
Beauséanteko andereak. Ah! soizu, horra Nucin-
geneko anderea guretik hirur gelatarat. Haren
ahizpa eta Trailleseko jauna bertze aldean dira.

Hitz horiek erranez, bizkondesak Rochefideko
andereñoak egon behar zuen gelarat behatzen
zuen, eta, han Ajudako jauna ez ikusiz, berebizi-
ko distira hartu zuen haren irudiak.

— Xarmangarria da, erran zuen Eugènek
Nucingeneko andereari so egin ondoan.

— Betileak horailak ditu.

— Bai, baina zein gerri mehe pollita!

— Eskuak lodiak ditu.

— Eta zoragarriak begiak!

— Aurpegia luzekara du.

— Luzetasunak gailentasuna ematen du
baina.

— Bai zortea duela orduan. Beha ezazu nola
hartzen eta kentzen dituen sudur-aizturrak!
Mugimendu guztietan ageri zaio Gorioten hazia,
erran zuen bizkondesak Eugèneren harrialdura
handitako.

Izan ere, Beauséanteko andereak sala arakatzeko ziharduen bere largabistekin eta ez bidezko kasurik egiten Nucingeneko andereari, zeinaren keinurik bat ere ez baitzuen hargatik galtzen. Biltzarra eztiki ederra zen. Nucingeneko Delphinek ez zuen harrotasun tikirik, ez, bera izateaz Beauséanteko anderearen lehengusu gazte, eder eta dotorearen jabe bakarra, Eugènek hari baizik ez zion behatzen.

— Zeure behakoez estaltzen segitzen baduzu, eskandalua sortuko duzu, Rastignaceko jauna. Ez duzu deus erdietsiko, jendeen kontra horrela oldartzen bazara.

— Ene lehengusina maitea, erran zuen Eugènek, babes handia eman didazu jadanik; nahi baduzu zeure lana bukatu, zerbitzu bat errendatzea baizik ez dizut eskatzen, alegia zuri neke guti emanen eta eni on handia egingen didan zerbitzu bat. Maitemindurik nago.

— Dagoenekotz?

— Bai.

— Eta emakume horrez?

— Bertze nonbaiten entzun litezkea bada ene pretentsioak? erran zuen ikasleak behako sakon

bat jaurtikiz bere lehengusinari. Cariglianoko andere dukesa Berry-ko andere dukesari lotua da, hasi zen berriz eten baten ondoan, harekin behar duzu mintzatu, otoi aurkeziezadazu bera eta eraman nazazu astelehenean emanen duen dantzaldirat. Nucingeneko anderea ikusiko dut han, eta neure lehen borrokaldia izanen.

— Gogotik, erran zuen andereak. Jadanik hartaz laketua baldin bazaude, oso ongi doaz zure bihotz aferak. Horra de Marsay printzesa Galathionne-ren gelan. Nucingeneko anderea sufritzen ari da, hisi gaiztoan dago. Une hoberik ez da emakume batenganat, oroz gain bankari-emakume batenganat, hurbiltzeko. Chaussée-d'Antineko dama horiek mendekuzaleak dira denak.

— Zer eginen zenuke bada zuk halako kasuan?

— Nik isilean sufrituko nuke.

Une hartan Ajudako markesa agertu zen Beauséanteko anderearen gelan.

— Alde bat utzi ditut neure egitekoak zurekin biltzera etortzeko, erran zuen markesak, eta sakrifizio bat izan ez dadin gaztigatzen dizut.

Bizkondesaren aurpegiaren distirek egiazko maitasunaren agerbideei antz ematen erakutsi zioten Eugèneri, bai eta beroriek Pariseko lakrikunkeriarren sino-minoekin ez nahasten ere. Bere lehengusina miretsi zuen, mututu zen eta bere tokia Ajudako jaunari utzi zion hasperen eginez. Zein izaki prestua, zein izaki sublimea den hala maite duen emakumea! erran zuen bere baitan. Eta gizon honek panpina batengatik salduko ote luke? nolaz sal ote daiteke?» Halako haur-errabia bat nabaritu zuen bihotzean. Nahia-go izan zukeen Beauséanteko anderearen oinetarat amildu, deabruen boterea desira zuen haren bihotzean nagusitu ahal izateko, arranoak ahuña xuri oraindik ere bularra hartzen duena ordokitik bere habiarat altxatzen duen bezala. Umiliaturik zegoen edertasunaren Museo handi horretan bere taula gabe, bere amorantea gabe kausitzeaz. «Amorante baten ukaitea erregeen pare egotea da kasik, erraten zion bere buruari, boterearen sinboloa duk!» Eta gizon iraindu batek nola behatzen dion bere arerioari, halaxe behatu Zion Nucingeneko andereari. Bizkondesa harenganat itzuli zen begi-kliskako batez mila

esker emateko erakutsirikako zuhurtziagatik. Lehen agerraldia bururatua zen.

— Aski ezagutzen duzua Nucingeneko anderea Rastignaceko jaunaren hari aurkezteko? erran zion Ajudako jaunari.

— Atsegin handia emanen dio baina jaunaren ezagutzeak, erran zuen markesak.

Portugaldar ederra jaiki zen, ikaslearen besoa hartu zuen, zeina begi-kliskako batez Nucingeneko anderearen ondorat bildu baitzen.

— Andere baronesa, erran zuen markesak, ohore dut zuri Rastignaceko zaldunaren, Beausé-anteko anderearen lehengusuaren, aurkeztea.

Hain diozu bihotz-zimiko bizia eragiten, non bere idoloarenganat hurbiltzen dudala nahi izan baitut haren zoriona osatu.

Hitz horiek izan ziren erranak arraileri doinu-suerte batez zeinak errazago pasarazten baitzuen pentsamendu anker samarra, baina zeinak, ongi itxuraturik, sekula ez baitu emakume bat minberatzen. Nucingeneko andereak irribarre egin zuen, eta bere senar jalgi berriaren tokia eskaini Eugèneri.

— Ez naiz ausartzen enegandik hurbil geldi zaitezten proposatzera, jauna, erran zion. Beau-séanteko anderearen ondoan egoteko zoriona izanez geroz, han behar da gelditu.

—Baina, erran zion ahapetik Eugènek, iruditzen zait, anderea, ene lehengusinarene gustua eginen badut, zugandik hurbil egonen naizela. Jaun markesa etorri aitzin, zutaz eta zure izate guztiaren bikaintasunaz ari ginen solasean, erran zuen ozenki.

Ajudako jauna joan zen.

— Zinez, jauna, dio baronesak, enekin geldituko zarea? Elkar ezagutuko dugu beraz, lehenetik ere banuen zure ezagutzeko desirarik biziena Restaudeko andereak emanik.

— Hagitz emakume faltsua da bada, ez nau bere etxean errezibitu nahi izan.

— Nola?

— Anderea, izanen dut horren arrazoia zuri errateko zintzotasuna; baina zeure induljentzia guztia eskatzen dizut halako sekretu baten jakinarazteko. Zure aita jaunaren auzoa naiz. Ez nekien Restaudeko anderea haren alaba zenik. Hartaz laño-lañoiki mintzatzeko zuhurgabekeria

egin dut, eta zure ahizpa anderea eta haren senarra haserrarazi ditut. Ez zenezake asma zeinen gustu txarrekoa iruditu zaien Langeaiseko andere dukesari eta ene lehengusinari seme-alaben apostasia hori. Gertakaria kontatu diet, txoralden pare egin dute irri. Orduan izan zen, zu eta zure ahizparen artean parekotasun bat eginenez, Beauséanteko anderea biziki molde onez mintzatu zitzaidanean zutaz, eta erran zidanean zein bihotz-onekoa zinen ene auzoaren alderat, Goriot jaunaren alderat. Nolaz, izan ere, ez zenuke maiteko? Hain zaitu suharki adoratzen non jeloskorturik bainauka dagoenekotz. Zutaz mintzatu gara egun goizean bi orduz. Gero, zure aitak kontatu didanaz bete-betea, egun arratsean ene lehengusinarekin afaltzean, erraten nion ezen ez zintezkeela amultsu bezain eder izan. Horren mirespen sutsua fagoratu nahiz inondik ere, Beuaséanteko andereak honat ekarri nau, hemen ikusiko zintuzkedala erraten zidala bere ohiko graziaz.

— Nola, jauna, erran zuen bankariaren emazteak, eskerronik zor ote dizut bada jadanik? Beritze apur bat eta adiskide zaharrak izanen gara.

— Adiskidetasunak zugandik hurbil bat ere sentimendu arrunta izan behar ez duen arren, erran zuen Rastignacek, sekula ez dut zure adiskidea izan nahi.

Hasberriek erabiltzen ohi dituzten zozokeria estereotipatu horiek xarmantak iruditzen zaizkie beti emakumeei, eta hotzean irakurriak baizik ez dira landerrak. Mutil gazte baten zeinuak, mintzaerak, behakoak, balio asmaezinak ematen dizkiete. Nucingeneko andereak xarmangarri atzeman zuen Rastignac. Gero, emakume guztiek bezala, deus ere ezin erranez ikaslearena bezain gordinki eginikako galdeei, arras bertze gauza bati ihardetsi zion.

— Bai, ahizpak bere buruari kalte egiten dio jokutzen den bezala jokatzuz aita gaixo honekin, guretzat egiazki jainko bat izan denarekin. Nucingeneko jaunak berak behar izan dit garbiki manatu aitaren goizez baizik ez ikusteko, pondu honetaz amore eman nezan. Alabaina, zorigaiztokoa oso izan naiz luzaz hori dela kausa. Negar egiten nuen. Bortxakeria horiek, ezkontzaren aberekerien ondoan etorriek, ene ezkon bizitza gehien goibeldu zuten arrazoietako bat izan dira.

Pariseko emakumerik zoriontsuena naiz eiki munduaren begietan, zorigaiztokoena baina izatez. Erotzat hartuko nauzu zuri honela mintzatzegatik. Baina ezagutzen duzu ene aita, eta, hortaz, ez zaitezke arrotz izan enetzat.

— Ez duzu egundaino inor ediren, erran zion Eugènek, zurea izateko desira handiagoak sustatua denik. Zer bilatzen duzue zuek guztiek? zoriona, segitu zuen arimarat zihoan ahotsaz. Ongi da! baldin eta, emakume batentzat, zoriona bada maitatua, adoratua izatea, adiskide baten ukaitea zeinari bere desirak, bere gutiziak, bere bihozminak, bere bozkarioak jakinarazten ahal baitizkio; bere arimaren biluztasunean agertzea, bere akats polit eta bere kualitate ederrekin, saldua izateko beldurrik gabe; sinetsiezadazu, bihotz eskaini hori, beti ere suharra, ezin ediren daiteke baizik eta mutil gazte eta ametsez beterikako batengan, zuen zeinu bakar batez hil daitekeen, oraindik ere munduaz deus ez dakien eta deus jakin nahi ez duen mutil gazte batengan, alafede. Ni, ikusten duzu, irri eginen duzu ene lañokeriaz, probintzia baten zolatik heldu naiz, eta neure hasberrian, arima

ederrak baizik ez ezagaturik, amodiorik gabe egonen nintzela uste nuen. Fortunatu zait neure lehengusinarekin ikustea, zeinak bere bihotzetik hurbilegi eman bainau; pasioaren mila altxorak asmarazi dizkit, ni naiz, Kerubin bezala, emakume guztien amorantea, haietako bati atxikitzen ahal natzaion bitartean. Zure ikustearekin, sartu naizelarik, haize-bolada batek bezala sentitu naiz zureganatua. Hainbertze pentsatua nintzen lehendik ere zutaz! Baina ez zintudan egiaz zaren bezain ederra amestu. Beauséanteko andereak zuri hainbertze ez behatzeko manatu dit. Hark ez daki zeinen liluragarria den zure ezpain gorri politen, zure azal zuriaren, zure begi hain gozoen ikustea. Nik ere erraten dizkizut errokeriak, baina utz nazazu berorien erratera.

Deus ez dute atseginagorik emakumeek hitz gozo horiek bertzek adierazten aditzea baino. Saindu-jalerik zorrotzenak ere entzuten ditu, baita haiei ihardetsi beharrik ez duelarik ere. Horrela hasi ondoan, Rastignacek ahots lakrinkunki sor batez hustu zuen bere barnea; eta Nucingeneko andereak irriño batzuk eginez sus-tatzen zuen, noiztenka de Marsayri, printzesa

Galathionneren gelatik joaten ez zenari, so eginenez. Rastignac Nucingeneko anderearen ondoan egon zen harik eta senarra handik eramateko bila etorri zitzaion arte.

— Anderea, erran zion Eugènek, zure ikustera joateko atsegina izanen dut Cariglianoko dukesaren dantzaldia aitzin.

— *Antereak konpitatzen zaituenaz geroz*, erran zuen baroiak, Alsaziar potolo batek zeinaren gorputz biribilak halako finezia arriskugarria salatzen baitzuen, *sekur izan ontsa errezipitua izanen zarela*.

— Ene aferak ezin hobeki zoazak, ez baita bat ere asaldatu erraten entzun didalarik: «Maiteko nauzua?» Ene zaldiak ahokoa paratua dik, salto egin gainerat eta goberna dezagun, erran zuen Eugènek bere baitan agur erratera joanez Beau-séanteko andereari, jarlekutik jaiki eta Ajudakorekin handik zihoanari. Ikasle gaixoak ez zekien baronesak bertze nonbait zuela gogoia, eta gutun erabakigarri arima erdiratzen duten horietako bat igurikitzen zuela de Marsayrengandik. Bere arrakasta alegiazkoagatik loriatua, Eugè-

nek bizkondesa peristiloraino lagundu zuen, non bakoitzak bere kotxeari itxaroten baitio.

— Zure lehengusuak ez dizu gehiago berbera irudi, erran zion portugaldarrak irriz bizkondesari Eugènek utzi zituenean. Banka zapartarazikodu. Malgua da aingira bat bezala, eta urrun joanen delakoan nago. Zuk bakarrik ahal izan diozu emakume bat eskumenean ezarri emakume horrek kontsolatu beharra dueneantxe.

— Baina, erran zuen Beauséanteko andereak, behar da jakin ea oraindik maite duen bazterrerat uzten duena.

Ikaslea oinez itzuli zen Teatro Italiarretik Sainte Geneviève berria karrikarat, xederik gozoenak eginez. Ongi oharturik zegoen zer artarekin aztertu zuen Restaudeko andereak, dela bizkondesaren gelan, dela Nucingeneko anderearenean, eta kondesaren atea ez ziotela gehiago hertsiko iruditu zitzaion. Hortaz, laur harreman handi eginak zituen jadanik, ezen marexalaren anderearen gustukoa izatea espero zuen, Pariseko goi-gizartearen bihotzean. Arrazoiak sobera ongi jakin gabe, aldeztatik aitzinetik igartzen zuen ezen, mundu horren interesen

joko nahaspilatsuan, zirrika bati eratxiki beharra zuela makinaren goialdean kausitzekotan, eta gurpilaren trabarazteko bezain indartsua sentitzen zen. «Nucingeneko anderea nitaz interesatzen bada, senarraren gobernatzeko erakatsiko zioat. Senar horrek urrezko aferak egiten ditik, laguntzen ahalko naiz kolpe batez fortuna baten biltzera.» Ez zuen hori gordinki erraten bere baitan, ez zen artean ere aski politikoa egoera bat haztatu, ikuskatu eta kalkulatzeko; burutazio horiek kulunka zebiltzan hodeiartean hodei armen itxurapean, eta, nahiz ez ziren Vautrine-nak bezain garratzak, baldin eta kontzientziaren arragoaren pean ezarri balira, ez zuketena deus oso garbirik emanen. Gizonezkoak heltzen dira, horrelako zenbait hautsi-mautsiren ondorioz, egungo garaiak profesatzen duen horrako moral laxo horretarat, non bertze inoiz baino bakanago edireten baitira halako gizon errektangeluarrak, gaizkirat sekula makurtzen ez diren halako borondate onak, zeinei bide zuzenaren zehardurarik tikiena krimen bat iruditzen baitzaie: zuzentasunaren irudi hautak, alafede, bi maisulan eman dizkigutenak, Alceste Molièrerena, gero

berrikiago Jenny Deans eta haren aita, Walter Scotten obran. Menturaz kontrako obra, munduko gizon batek, handinahi batek, gaizkiaren bazterrean ibiltzera entseatuz, bere xederat heltzeagatik itxurak gordez, bere kontzientziaren titulikatzeke darabiltzan inguru-minguruen irudi bizia ez litzateke ez itsusiagoa, ez laztura gutiagokoa. Bere pentsioko aterat heltzean, Rastignac Nucingeneko andereaz maitemindurik zegoen, liraina, fina enara bat bezala iruditu zitzaion. Haren begien eztitasun hordigarria, haren azalaren —zeinaren pean odola zeriola ikusi uste izan baitzuen— ehun mehe eta zetazkoa, haren aho-tsaren soinu zoragarria, haren bilo horiak, oro atxikitzen zuen gogoan; eta badaiteke urratsak, odola higiarazten ziola, liluramen hori laguntzen ote zuen. Ikasleak zakarki jo zuen Goriot zahar-rraren atean.

— Ene auzoa, erran zuen, andere Delphine ikusi dut.

— Non?

— Italiarretan.

— Hagitz jostatzen zena? Sar zaitez bada. Eta gizagaixoak, atorratan jaikia zenak, bere atea ireki eta bizkor sartu zen berriz ohean.

— Hitz egin iezadazu bada hartaz, eskatu zuen.

Eugènek, Goriot zaharrarenean lehen aldiz kausitzen zenak, ezin izan zuen izialdurazko mugimendu bat eragotzi aita bizi zen zuloa ikusirik, alabaren apaindurak miretsi ondoan. Leihoa errezelik gabe ageri zen; hormetan eraxiki paper tindatua leku batean baino gehiagotan laxatzen zen hezetasunaren eraginez, bai eta kizkurtzen ere keak horiturikako kisua ikusterantz utziz. Gizagaixoa ohe ziztrin batean etzaten zen, ez zeukan burusi mehe bat eta zango-estalki kotoiztatu bat bertzerik, andere Vauqueren soineko zaharren zati onez egina berau. Lauzatu heze eta hautsez betea zegoen. Leihoaren parean egur arrosazko komoda zahar sabel hantu horietako bat ageri zen, zeinek kobre bihurdikatzeko eskutokiak baitauzkate hosto eta lorez apaindurikako aihenak bailiran; altzari zahar bat zurezko oholez egina eta gainean ur ontzi bat bere konketan eta bizarraren egiteko

behar diren tresna guztiak zituena. Bazter batean, zapatak; oheburuan, gaueko mahai bat aterik eta marmolik gabe; supazterraren zokoan, non suaren aztarnarik ere ez baitzegoen, Goriot zaharrak bere zilarrezko goporraren bihurtikatu eta itxuraldatzeko erabili zuen intxaurrezko mahaia ageri zen. Gainean gizagaixoaren kapela zuen izkiria-mahai ziztrin batek, lastozko besaulki ilun batek eta bi kadirak osatzen zuten ostilamendu miserable hori. Ohearen hagak, zolari zarpa batez lotuak, lauki gorri eta zuriko oihalzerrenda narras bat sustengatzen zuen. Fardelkaririk behartsuenak ere ez zuen eiki bere sabaian Goriot zaharrak andere Vauquerenean zituenak baino altzari txarragorik. Ganbara horren itxurak hotz ematen zuen eta bihotza hertsatzen, presondegi bateko ziegarik hitsena irudia zen. Zorionez Goriotek ez zuen ikusi Eugèneren aurpegian agertu zen begitartea ikasleak bere kandela gau-mahaiaren gainean ezarri zutenean. Gizagaixoa haren alderat bihurtu zen kokotseraino estalirik geldituz.

— Eta? nor duzu maiteago, Restaudeko anderea ala Nucingeneko anderea?

— Andere Delphine dut nahiago, erantzun zuen ikasleak, hark hobeki maite zaituelakotz.

Suharki erran hitz hori entzunik, gizagaixoak bere besoa ohetik atera zuen eta Eugèneren eskua tinkatu.

— Mila esker, mila esker, erantzun zuen agureak hunkiturik. Zer erran dizu beraz nitaz?

Ikasleak baronesaren hitzak edertu eta errepikatu zituen, eta agureak Jainkoaren hitza aditu balu bezala entzun zuen.

— Haur maitea! bai, bai, oso maite nau. Baina ez iezaiozu sinets Anastasiez erran dizuna. Bi ahizpek elkarren espa dute, konprenitzen duzua? haien samurtasunaren bertze froga bat da hori. Restaudeko andereak ere maite nau oso. Badakit. Nolakoa den Jainkoa gurekin, halakoa da aita bat bere hurrekin, bihotzen zolaraino joaten da, eta asmoak jujatzen. Bata bertzea bezain amultsuak dira. Oi! suhi onak izan banitu, sobera zoriontsua izanen nintzen. Ez dago inolaz ere guztizko zorionik hemen behean. Alabenean bizi izan banintz; haien ahotsak aditu, han zirela jakin, haien joaten, jalgitzen ikusi hutsez, neurean izaten nituenean bezala, horrek bihotza

pinpoilka ezarriko zidan. Ontsa jantzirik zeudena?

— Bai, erran zuen Eugènek. Baina, Goriot jauna, nolaz, alabak horren ederki ezkondurik dauzkazula, bizi ahal zaitezke honelako kobazuloan?

— Ala ene fedea, erran zuen irudiz axolarik gabe, zertako balioko lidake hobeki egoteak? Ez dizkizut fisik esplikatzen ahal gauza horiek; ez dakit bi hitz lerroan behar bezala erraten. Dena hemen da, erantsi zuen bere bihotza jotzen zuela. Bi alaben baitan dut nik neure bizitza. Dibertitzen badira, zoriontsuak badira, dotore janzten badira, tapizen gainean ibiltzen badira, zer axola du ni zer pildaz janzten naizen, eta nolakoa den oheratzen naizen tokia? Ez dut hotzik bat ere haiek bero badira, ez naiz sekula aspertzen haiek irri egiten badute. Haienak dira ditudan xangrin bakarrak. Aita zarenean, zeure baitan diozunean, seme-alabak zizaka mintzatzten entzutean: «Enegandik jalgia duk hori!», sentitzen dituzunean haur ttiki horiek zeure odol xorta bakoitzari atxikiak, odol berorren hoberena izan baitira, hortxe direlakotz! haien azalari este-

katua egon usteko duzu, haien ibilerak zerori ere inarosten zaituela irudituko zaizu. Haien ahotsak nonahi erantzuten dit. Haien behako batek, tristea denean, odola batzen dit. Egun batez jakinen duzu bat aise urosagoa dela haien zorionaz bat bederarenaz baino. Ez dizut hori esplikatzen ahal: aiseria orotarar barreiatzen duten halako barne-mugimenduak dira. Hirur aldiz bizi naizela, hara!. Nahi duzua gauza bitxi bat erran diezazudan? Tira! aita izan naizelarik, Jainkoari konprenitu diot. Oso-osorik dago denetan, kreazioa harengandik jalgia baita. Jauna, horrelakoa naiz neure alabekin. Jainkoak mundua baino hobeki maite ditut nik neure alabak ordea, mundua ez baita Jainkoa bezain ederra, eta ene alabak ni baino ederragoak baitira. Hain ongi atxikia naukate arimatik, non egun arratsean ikusiko zenituelakoan bainengoen. Jainkoa! gizon batek ene Delphine ttikia maite izan eta emakume bat egiaz maitatua denean bezain zoriontsu eginen balu; botak garbituko nizkioke, manuak eginen nizkioke. Haren andere ganbarazainaren bidez jakin dut ezen de Marsay jaunxkila hori tresna txar bat dela. Haren lepoaren bihurdikatzeko

gogoak eman dit. Halako emakume eder baten, halako erresiñol-ahots baten, eta modelo bat irudi eginaren, ez maitatzea ere! Non ezarri ote ditu begiak Alsaziar kankailu horrekin esposatzeko? Biek ere behar zituzten gazte eder maitagarrikoak. Tira, apetak eman diena egin dute.

Goriot zaharra sublime zegoen. Sekula ezin izan zuen Eugènek haren aita-minaren sugarrek argiturik ikusi. Gauza bat goraipatzekoa sentimenduek duten infusio-gaitasuna da. Kreatura bat nahi bezain dorpea bada ere, maitasun bat azkarra eta egiazkoa adierazten duen ber, jario berezi bat isurtzen du begitartea aldatzen, jestua biziartzten, ahotsa nabartzen diona. Izakirik ergelena, maiz, pasioaren eraginaren pean, hitz-erorrikerik garaienerat heltzen da ideian ez ezik, baita lengoaian ere, eta irudi du halako esfera argitsuan dabilela. Bazen une hartan gaizagaixo honen ahotsean, jestuan, aktore ona agerrarazten duen halako indar komunikatiboa. Baina gure sentimendu handiak ez direa bada borondatearen poesiak?

— Ongi da! ez zara naski haserretuko jakiteaz, erran zion Eugènek, ezen dudarik gabe de

Marsay horrekin behar duela hautsi. Mutil eder horrek printzesa Galathionneri lotzeko utzi du bazterrerat. Nitaz denaz bezainbatean, andere Delphinez amorostua naiz egun arratsean.

— Bah! erran zuen Goriot zaharrak.

— Bai. Ez natzaio desagradatu. Amodio-solas ibili dugu ordu batez, eta larunbat arratsaldean behar dut haren ikustera joan.

— Oi! zeinen maite izanen zintuzkedan, ene jaun maitea, oniritziko balizu. Ona zara, ez zenuke bat ere atsekabetuko. Salduko bazenu, lehenik eta behin lepoa moztuko nizuke. Emakume batek ez ditu bi amodio, konprenitzen duzua? Jainkoa! baina astakeriak erraten ditut, Eugene jauna. Hotz da hemen zuretzat. Jainkoa! entzun diozu hortaz, zer erran dizu enetzat?

— Fitsik ez, erran zuen bere baitan Eugènek. —Erran dit, erantzun zuen ahots goraz, alabaren musu handi bat igorri nahi zizula.

— Adios, ene auzoa, egizu lo, izan amets onak; eneak osoki eginik daude hitz horiekin. Jainkoak begira zaitzala nahi dituzun gauza guztietan! Aingeru on baten irudikoa izan zara enetzat gau honetan; alabaren urrina dakarkidazu.

— Gaixo gizona, erran zuen Eugènek bere baitan ohean sartuz, harrizko bihotzen hunkiarazteko gisakoa duk hau. Alaba ez duk hartaz Turku-Haundiaz baino gehiago oroitu.

Solasaldi horren ondoan, Goriot zaharrak ustekabeko konfident bat, adiskide bat ikusi zuen bere auzoarengan. Agure honek bertze gizon bati lotzeko egin zitzakeen harreman bakarrak ezarriak zeuden haien artean. Grinek ez dute behin ere kalkulu faltsurik egiten. Goriot zaharrak alaba Delphinerengandik hurbilxeago ikusten zuen bere burua, hark hobeki errezibitua ikusten zuen bere burua, Eugène baronesaren bihotzeko bilakatzen bazen. Bertzalde bere oina-zeetako bat kontatu zion. Nucingeneko anderea, zeinari egun oro mila aldiz desira baitzion zoriona, maitasunaren eztitasunak ezagutu gabea zen. Izan ere, Eugène zen, haren erranmoldeaz baliatzekotz, sekula ikusi zituen mutil gazte gisakoenetako bat, eta susmatzen edo zuen alabak ordura arte dastatzerik ukan ez zuen atsegin guztiak emanen lizkiokeela. Erne zen, beraz, gizagaixoaren baitan bere auzoarenganat adiskidetan bat gero eta handiagokoa, eta zeina

gabe ezinezkoa izanen baitzen inolaz ere istorio honen atarramenduaren jakitea.

Biharamun goizean, gosarian, Goriot zaharrak Eugèneri, harengandik hurbil kokatua baitzen, so egitean erakusten zuen hunkidurak, hari erran zizkion hitz banakek, eta haren begitar-teak, komunzkiro kisuzko zomorro baten irudikoa zenak, izan zuen aldaketak, apopiloak harritu zituzten. Vautrinek, beren hitzalditik landaratikaslea berriz lehenbizikotz ikusten zuenak, haren ariman irakurri nahi zuela irudi zuen. Gizon horren xedeaz oroit zelarik, Eugènek, zeinak, lo hartu aitzin, gauetz, bere behakoen aitzinean hedatzen zen zelai zabala izari baitzuen, andereño Tailleferen ezkon sarian pentsatu zuen nahitaez, eta, ezin eragotzi izan zion bere buruari Victorineri behatzea mutil gazterik bertutesuenak prima aberats bat] behatzen dion bezala. Halabeharrez, haien begiek buruz buru egin zuten. Neskabila gaixoak ere xarmant atzeman zuen Eugène bere apaindura berrian. Elkarrekin trukatu zuten behakoa aski adierazgarria izan zen Rastignacek dudarik izan ez zezan neskatilaren desira nahasien helburu zela, hots, neskatila

gazte guztiak harrapatzen eta beroriek lehen izaki liluragarriari lotzen dizkioten desira nahasien helburu. Ahots bat zuen aldarrika: «Zortziehun mila libera!» Baina brastakoan bezperako oroitzapenetan erori zen berriz, eta pentsatu ezen Nucingeneko andereaganat zuen manuzko grina antidorik hoberena zela bere nahigabeko burutazio gaiztoentzat.

— Atzo Rossiniren *Sevillako Bizargina* ematen zuten Italiarretan. Egundaino ez nuen horren musika gozorik aditu, erran zuen. Jainkoa! hau zortea Italiarretan gela baten ukaitea!

Nola atzematen duen txakur batek nagusiaren mugimendu bat, hala atzeman zituen hegaz hitz horiek Goriot zaharrak.

— Erregeak bezala bizi zarete, erran zuen andere Vauquerek, zuek gizonak. Laket duzuen guztia egiten duzue.

— Nola itzuli zara? galdetu zuen Vautrinek.

— Oinez, erantzun zuen Eugènek.

— Ni, hasi zen berriz tentatzailea, ez nintzateke erdi-gozamenez laketuko; nik neure kotxeanjoan gogo nuke harat, neure gela ukan,

eta guztizko aietasunean itzuli etxerat. Dena ala bat ere ez! horra ene goiburua.

— Eta bai ona dela, gehitu zuen andere Vauquerek.

— Nucingeneko anderearen ikustera joanen zara menturaz, erran zion Eugènek ahapetik Gorioti. Beso zabalik errezibituko zaitu, bai; mila xehetasun jakin nahiko ditu nitaz zugandik. Jakin dut daitekeen guztia eginen lukeela ene lehen-gusinarenean, Beauséanteko andere kondesarenean, errezibitua izateko. Ez ahantz hari erratea ezen sobera maite dudala atsegin horren eman nahi ez izateko.

Rastignac Zuzenbide Eskolarat joan zen laster, ahalik eta denbora gutien nahi zuen etxe higuigarri horretan egon. Harat-honat ibili zen kasik egun osoan, esperantza biziagiek harrapatu-rikako gazteek ezagutu duten buruko sukar horren mende. Vautrineren arrazonamenduek hartaraturik, gizarte-bizitza zerabilen gogoan noiz eta ere bere adiskide Bianchonekin topatu baitzen Luxembourgeko jardinean.

— Non hartu duk larriare hori? erran zion medikuntzako ikasleak besoa hartzen ziola jau-regiaren aitzinean egurasteko.

— Burutazio gaizto batzuek asaldatzen naitek.

— Zein gisatakoek? Hori sendatzen duk, burutazioak.

— Nola?

— Haiei amore emanaz.

— Irri egiten duk zer pasatzen den jakin gabe. Rousseau irakurri duka?

— Bai.

— Gogoan duk pasarte hori zeinetan bere irakurtzaileari galdetzen baitio zer egingen lukeen aberastu ahal baldin baledi Txinan bere gogo hutsaz mandarin zahar bat hilaraziz, Parisetik lekutu gabe?

— Bai.

— Eta?

— Bah! Ni neure hogeita hamahirugarren mandarinarekin nabilek.

— Etzak adarrik jo. Ea, frogatuko baldin bali-tek hori posible dela eta buru-keinu bat aski duala, egingen hukea?

— Hagitz zaharra ote da, mandarina? Baina, bah! gazte ala zahar, elbarri zein osagarri oneko, ala ene fedea... Futxo! Ez, bada.

— Mutil zintzoa haiz, Bianchon. Baina emakume bat maiteko baldin bahu harengatik anima ifrentzutara ezartzeko gisan, eta emakume horrek dirua behar baldin balu, diru anitz bere apaindurarentzat, bere kotxearentzat, bere gurari guztientzat, alegia?

— Baina arrazoia kentzen didak, eta arrazona dezadan nahi duk?

— Ongi duk! Bianchon, burutik nagok, senda nazak. Baditiat bi arreba edertasunaren, lañotasunaren bi aingeru direnak, eta zoriontsuak izan daitezen nahi diat. Non erdiets berrehun mila libera haien ezkon sarientzat hemendik bortz urtetarat? Badituk, ikusten duk, zirkunstantziak bizitzan zeinetan beharrezkoa baita gogor jokatzea eta nork bere zoriona sosen irabazten ez baliatzea.

— Baina bizitzako sarreran mundu guztiarentzat kaustitzen den galdea egiten ari haiz, eta ezpatarekin ebaki nahi duk gordiar korapiloa. Hola jokatzeko, ene adiskide maitea, behar duk

Alexandro izan, espetxerat hoa bertzenaz. Ni kontent nauk probintzian antolatuko dudan bizi-molde xumearekin, non neure aitaren oina hartu bertzerik eginen ez baitut. Gizakiaren maitabeharrak zirkunferentzia eskerga batean bezain osoki betetzen dituk zirkulurik tikienean ere. Napoleon ez zuan bitan afaltzen, eta ez zitian medikuntzako ikasle batek Capucins-etan barneko dagoenean izaten dituenak baino amorante gehiago ukaiten ahal. Gure zoriona, ene adiskide maitea, beti egonen duk gure oin-zolaren eta gure garondoaren artean; eta, gosta dadin urteko milioi bat edo ehun louis, funtsean berdin hautematen diagu geure barnean. Txinatarraren bizitza hautatzen diat nik.

— Mila esker, on egin didak. Bianchon! adiskideak izanen gaituk beti.

— Errak, hasi zen berriz medikuntzako ikaslea, Cuvier-en eskolatik Landareen Jardinerat jalgitzean, Michonneau eta Poiret begiztatu berri ditiat aulki batean solasean gizon batekin. Bada gizon hori iazko kalapitetan ikusi nuen Deputatuen Ganbararen inguruetan, eta iruditu zaidak ez ote zen poliziako gizon bat bere mozkinetatik

bizi den burges onest basez jantzirik. Azter dezagun bikote hori: erranen diat zergatik. Adios, Lauretako deiari erantzutera noak.

Eugène pentsiorat itzuli zelarik, Goriot zaharra aurkitu zuen haren begira.

— Tori, erran zuen gizagaixoak, haren gutun bat da. Idazkera polita, ez da hala?

Eugènek gutunari zigilua ken eta irakurri zuen.

«Jauna, aitak erran dit Italiako musika atsegin duzula. Zoriontsua nintzateke nahi baldin bazenit atsegin eman jesarleku bat onartuz Teatroko ene gelan. Larunbatean Fodor eta Pelligrini izanen ditugu; segur naiz beraz ez didazula ezetz erranen. Nucingeneko jaunak bat egiten du enekin otoi eskatzeko gurekin afaltzera etor zaitez zeremoniarik gabe. Onartzen baldin baduzu, bozkario handi bat emanen diozu bere ezkon betebeharetik, enekin egon behar pisutik, libratzen duzularik. Ez iezadazu erantzun, etor zaitez, eta onets ene konplimenduak.

«D. de N.»

— Erakuts iezadazu, erran zion gizagaixoak Eugèneri honek gutuna irakurri zuelarik. Joanen zara, ez da hala? erantsi zuen papera usnatu ondoan? Hau urrin ona! Haren eriek ukitu dute hau, alabaina!

— Emakume bat ez duk hola jaurtikitzen gizon baten bururat, zioen bere baitan ikasleak. Nitaz nahi dik baliatu de Marsayren berreskuratzeke. Hisia bezalakorik ez duk holakoen eginartzeke.

— Eta? erran zuen Goriot zaharrak, zer darabilzu bada gogoan?

Eugènek ez zuen une horretan zenbait emakume harrapaturik zeuzkan banokeriaren zoramenaren berri, eta ez zekien ezen, Saint-Germain faubourgean ate baten irekiarazteko, zernahi sakrifizio-suerteren egiteko gauza zela bankari baten anderea. Garai hartan, moda emakume guztien ganean ezartzen hasia zen Saint-Germain faubourgeko gizartean sartzea zeukatenak, Gaztelu Tikiko damak izengoitia zutenak, zeinen artean Beauséanteko anderea, haren adiskide Langeaiseko dukesa eta Maufrigneuseko dukesa lehen lerroan baitzeuden. Rastigna-

cek bakarrik ez zekien zer suak zeuden harrapatuak Chaussée d'Antineko emakumeak beren sexuko izar-multzorik ederrenek distiratzen zuten zirkulu garaian sartzeko. Baina bere mesfidantza balio handikoa izan zitzaion, hoztasuna eman zion, bai eta, halakoen hartzeko orde, kondizioen ezartzeko ahalmen tristea ere.

— Bai, joanen naiz, erantzun zuen.

Hortaz jakin-mina zen Nucingeneko anderea-renerat zeramana, nahiz, emakume horrek gutietsi izan balu, menturaz pasioa izanen zen harat joatera bultzatuko zuena. Hala ere ez zen biharamunaren eta joateko tenorearen begira egon halako ezinegon bat eduki gabe. Mutil gazte batentzat, bada menturaz bere lehen jukutrian lehen amodio batean kausi daitekeen bezainbat xarma. Arrakasta izatearen segurtasunak mila zorion sortzen ditu, gizonek aitortzen ez dituztenak eta zenbait emakumeren xarma guztia egiten dutenak. Desira ez da gutiago sortzen zailtasunetik garaitien erraztasunetik baino. Gizonen grina guztiak dira inolako zalantza barik bi kausa horietako, amodioaren inperioa zatitzen dutenetako, batek edo bertzeak kitzikatuak edo

bizaraziak. Badaiteke zatiketa hori odol-suer-teen auzi handiaren ondorio izatea, hots, erranak erran, gizartea bere mende duenaren ondorio izatea. Baldin eta malenkoniosek lakrikunke-rien bizkorgarria behar badute, badaiteke jende zainart edo odolbizek alde egitea jazargoak gehiegi irauten badu. Bertze hitzetan, eresia da funtsean hain linfatiko nola ditiranboa behazun-tsu. Apaintzen ari zela, Eugènek dastatu egin zituen zorion tiki horiek guztiak zeinez gazteak ez baitira mintzatzera ausartzen, haiengatik trufa egin diezaieten beldur, baina zeinek harrotasuna kilikarazten baitiete. Emakume eder baten behakoa bere kizkur beltzen azpitik goxoki sartuko litzaiokeela pentsatuz apaintzen zituen buruko ileak. Neskatila gazte batek dantzarat joateko janztean egin zituzkeen bezainbat haur-ziminokeria egin zituen.

Atseginez so egin Zion bere gerri meheari, bere soinekoa zabalduz. —Egia duk, erran zuen bere baitan, okerrago moldatuak aurki daitezkeela! Gero behera jaitsi zen pentsioko bezero guztiak mahaian zeudenean, eta alegeraki bildu zituen baten jantzi sotilek xaxatu zituzten kirten-

keria eta «bibak». Pentsio burgesen ohitura berezien ezaugarri bat da apain jantzteak bere haietan sorrarazten duen harrialdura. Inork ez du han jantzi berririk paratzen nork bere iritzia eman gabe.

— Kt, kt, kt, kt, egin zuen Bianchonek mihia ahosabaiaren kontra klaskaraziz, zaldi baten eiatzeko bezala.

— Duke eta pareen itxura! erran zuen andere Vauquerek.

— Jauna konkistarat doaiea? ohartarazi zuen andereño Michonneauk.

— Kukurruku! oihukatu zuen pintoreak.

— Ene konplimenduak zure espos-andereari, erran zuen Museoko enplegatuak.

— Jaunak badua espos-andere bat? galdetu zuen Poiretek?

— Espos-andere bat konpartimentuduna, ur gainean dabilena, tindu sendoa bermatua, hogeita bortzetik berrogeira bitarteko prezioan, azken modako laukiak dituena, garbi daitekeena, traka politekoa, erdi hari, erdi kotoi, erdi artile, hortzetako gaitza sendatzen duena, bai eta Medikuntzako Erret Akademiak onetsirikako ber-

tze eritasun batzuk ere! hauta haurrentzat, bertzalde! hobea oraindik buruko min, betetasun eta hertzegorri, begi eta belarrietako bertze gaitz batzuentzat, egin zuen oihu Vautrinek txerpolari baten hitz-jario irrigarri eta mintzoaz. Baina zenbatean mirari hori, erranen didazue, jaunak? bi sosean! Ez! Erabat dohainik! Mongol Handiari eginikako horniduren hondar bat da, eta Europako errege-soberano guztiek, Bade-ko Duke Hauuuuuundia barne, ikusi nahi izan dutena! Sar zaitetze barrenerat, jaunak! Eros ezazue txartela eta pasa barrenerat! Has dadila musika! Brooun, là, là, trinn! là, là, boum! Klarineteko jauna, desafinatzen ari zara, segitu zuen ahots erlastuaz, erietan emanen dizut.

— Jainkoa, hau da gizon xelebrea hau, erran Zion andere

Vauquerek andere Coutoureri, sekula ez ninteke harekin asper. Hitzaldi irrigarri eman honek piztu zituen irri eta arrailerien erdian, Eugènek andereño Tailleferen sasi-behako bat atzeman ahal izan zuen; hau andere Coutouren alderat bihurtu zen, eta hitz batzuk erran zituen haren belarrian.

— Hor dago cabrioleta, erran zuen Sylviek.

— Non afaltzekoa da bada? galdetu zuen

Bianchonek.

— Nucingeneko andere baronesarenean.

Goriot jaunaren alabarenean, ihardetsi zuen ikasleak.

Izen hori aditurik, behakoak fideogile zahar-rarenganat zuzendu ziren, zeina Eugèneri so baitzegoen halako bekaizgo-suertez.

Rastignac Saint-Lazare karrikarat arribatu zen, etxe arin, zutabe mehe, arkupe ziztrin, Parisen *sotiltasuna* taiutzen duten horietako batera; egiazko bankari-etxe bat zen bera, sofistikazio garestiz, iztukuz eta marmolezko eskailera-maillartez betea. Nucingeneko anderea pintura italiarreko saloi tiki batean, kafetegietakoa bezalako apaindura zuenean, ediren zuen. Baronesa triste zegoen. Bere bihozminaren gordetzeko egin zituen eginahalek hainbatenaz ere interes biziagoa eragin zioten Eugèneri non han ez baitzen deus alegiazkorik. Uste zuen aski zela bere presentzia emakume baten alegerarazteko, eta horra non atzematen duen etsiak harturik.

Amets-eten horrek bere harrotasuna zauritu zion.

— Zinez eskubide guti daukat zure konfiantzaren izateko, anderea, erran zuen haren arranguraren gain kitzikatu ondoan; baina poxelu eginen banizu, zure fede onari nago, deblauki behar zenidake erran.

— Geldi zaitez, erran zuen andereak, bakarrik nengoke joanen bazina. Nucingen hirian afaltzekoa da, eta ez nuke bakarrik egon nahi, jolastu beharra dut.

— Zer duzu baina?

— Azkenekoa zinateke hori erranen niokeena, erantzun zuen baronesak.

— Jakin egin nahi dut, zeren erran nahi ez badidazu, sekretu hori eni ere badagokidalakotz izanen da.

— Agian! Ez baina, segitu zuen andereak, senar-emazteen kasailak dira horiek, bihotzaren zolan ehortzi beharrekoak. Ez nizuna bada here-negun erraten? ez naiz bat ere zoriontsua. Urrezko kateak ditugu astunenak.

Emakume batek mutil gazte bati zorigaiztokoa dela erraten diolarik, mutil gazte hori izpiri-

tuala, ongi jantzia baldin bada, eta sakelan mila eta bortzehun libera sobera baldin badauzka, Eugènek bere baitan zioena pentsatu behar du, eta gangartu egiten da.

— Zer desira ukan dezakezu? erantzun zuen Eugènek. Ederra zara, gaztea, maitatua, aberatsa.

— Ez gaitezen nitaz mintza, erran zuen andereak buru-mugimendu goibel bat eginez. Elkarrekin afalduko gara, buruz buru, musikarik gozoenaren entzutera joanen gara. Zure gustuko nago? gehitu zuen jaiki eta bere soinekoa erakutsiz, dotoretasunik ederreneko irudi pertsiarreki-ko katxemira zuriz egina bera.

— Dena enetzat izan zintezten nahi nuke. Xar-manta zaude.

—Jabetza hits bat ukanen zenuke, erran zuen andereak irriño samin bat eginez. Deusek ez dizu hemen zorigaitza gaztigatzen, eta bizkitartean, itxura horiengatik, etsiturik nago. Bihozminek loa galarazten didate, itsustuko naiz.

— Oi! hori ezinezkoa da, erran zuen ikasleak. Baina aiherrak nago amodio eskaini batek eza-batuko omen ez lituzkeen pena horien jakiteko.

— Ah! konta baniezazkizu, ihesi joan zenkidake, erran zuen andereak. Gizonezkoek berezkoa duzuen adeitasun batez baizik ez nauzu oraindik maite; baina zinez maiteko baninduzu, etsipen lazgarri batean eror zintezke. Isildu beharra dudala ikusten duzu. Otoi, segitu zuen, mintza gaitezen bertze gauza batez. Zatoz ene apartamentuen ikustera.

— Ez, gauden hemen, ihardetsi zuen Eugènek zizailu tiki batean jarriz suaren aitzinean Nucingeneko andereagandik hurbil, zeinaren eskua segurtasunez hartu baitzuen.

Andereak hartzera utzi zuen bere eskua, bai eta mutil gaztearenean pausatu ere bihotz-mugida bortitzak salatzen dituzten indar bilduzko mugimendu horietako batez.

— Entzun ezazu, erran zion Rastignacek; bihozminak baldin badituzu, eni jakinarazi behar dizkidazu. Zerorreatatik maite zaitudala froga diezazuket. Edo mintzatu eta zeure penak erraten dizkidazu haiek barreia ahal izan ditzadan, sei gizon hilarazi beharra balitz ere, edo berriz ez itzultzeko jalgiko naiz.

— Ongi da! oihu egin zuen andereak bere kopeta joarazi zion etsipenezko pentsamendu batek hartaraturik, istantean berean jarriko zaitut frogan. Bai, erran zuen bere baitan, bide hau bertzerik ez dago. Hots egin zuen.

— Jaunaren kotxea lotua dea? erran zion bere lekaio ganbarazainari.

— Bai, anderea.

— Nik hartuko dut. Hari enea eta ene zaldiak prestatuko dizkiozu. Zazpiak arte baizik ez duzu afaria zerbitzatuko.

— Ea, zatoz, erran zion Eugèneri, zeinak ametsetan zegoela uste baitzuen Nucingeneko jaunaren *coupéan*, emakume horren alboan, jesarri zenean.

— Palais-Royalerat, erran zion andereak karrozainari, Teatro Frantsesetik hurbil.

Bidean zihoala, asaldaturik oso irudi zuen, eta erantzunik gabe utzi zituen Eugèneren mila itaunak, zeinak ez baitzekien zer pentsa mukertasun mutu, trinko eta kamuts horretaz..

— Aurki egin zidak ihes, zioen bere baitan ikasleak.

Kotxea gelditu zelarik, baronesak halako aurpegi batez so egin zion ikasleari non baten hitz zoroak isilarazi baitzituen; Eugène erresumindua baitzen.

— Maite nauzu? erran zuen baronesak.

— Bai, erantzun zuen Eugènek beraz jabetzen ari zen larridura gordez.

— Ez duzu nitaz deus txarrik pentsatuko, zernahi eskatzen dizudala ere?

— Ez.

— Prest zarea eni obeditzeko?

— Itsu-itsuan.

— Joana zarea inoiz jokorat? erran zuen andereak ahots dardaratsuaz.

— Inoiz ez.

— Ah! beharrik. Asturua izanen duzu. Honatx ene moltsa, erran zion. Har ezazu bada! ehun libera badituzu hor, horra emakume hain zoriontsu honek daukan guztia. Igan joko-etxe baterat, nik ez dakit non dauden, baina badakit Palais-Royalen badirela. Arriska itzazu ehun liberak erruleta deitzen den joko batean, eta gal dena, edo ekar eni sei mila libera. Itzultzen zarelarik neure bihozminak erranen dizkizut.

— Zinez deabruak eraman nazala zerbait konprenitzen baldin badut egitera noanaz, baina obedituko dizut, erran zuen ikasleak honako pentsamendu honek pizturikako bozkario batez: «Enekin behartzen ari duk, deus ez zidak ukatzen ahalko.»

Hartzen du Eugènek moltsa polita, eta badoa lasterka BEDERATZigarrenerat, jantzi-saltzaile bati hurbileneko joko-etxea non zegoen galdetu eta gero. Igaiten da harat, uzten du bere kapela har diezaioten; baina sartzen da eta galdetzen ea erruleta non dagoen. Bezeroak harri eta zur utziz, salako mutilak badarama mahai luze baten aitzinerat. Eugènek, ikusliar guztiak beha zituela, galdetzen du ahalkerik gabe ea non behar den parioa ezarri.

— Louis bat paratzen baduzu hogeita hamasei zenbaki hauetako bakar baten gainean, eta huraxe jalgitzen bada, hogeita hamasei louis ukanen dituzu, erran Zion agure agurgarri buruzuri batek.

Eugènek jaurtikitzen ditu ehun liberak bere adinaren zifraren gainerat, hogeita baterat. Harrialdurazko oihu bat jaulkitzen da hark oraino

deusen konprenitzeko astirik izan gabe. Jakin gabe irabazi zuen.

— Eskura ezazu beraz zeure dirua, erran zion jaun zaharrak, ez da bitan irabazten sistema honetan.

Eugènek hartzen du jaun zaharrak luzatzen dion eskuare bat, bereganat ekartzen hirur mila eta seiehun liberak eta, oraindik ere jokoaz fitsik jakin gabe, gorriaren gainean ematen ditu. Ikuslegoak bekaizkeriaz behatzen dio, gehiago jokatut behar duela ikusirik. Zirrika itzulikatzen da, berriz ere irabazten du, eta bankariak hirur mila eta seiehun libera gehiago jaurtikitzen dizkio.

— Badauzkazu zazpi mila eta berrehun libera irabazirik, diotso belarrirat jaun zaharrak. Sines ten baldin badidazu, bazterrak hustuko dituzu, gorria zortzi aldiz pasaia da. Bihozbera baldin bazara, ontzat hartuko duzu aholku on hau Napoleonen prefet ohi baten, azken beltzean kausitzen denaren, miseria eztituz.

Rastignacek, burtzaturik, hamar liberaren hartzera uzten du ile zuriko gizona, eta zazpi mila liberekin jaisten, oraindik ere fitsik konpre-

nitzen ez duela jokoaz, baina bere asturuaz txunditurik.

— Aizu! norat eramanen nauzu orain, erran zuen zazpi mila liberak Nucingeneko andereari erakutsiz ateka hertsirik egon zenean.

Delphineek tinkaldi ero batez hertsatu zuen eta bizi-bizi, baina berotasunik gabe besarkatu. «Salbatu nauzu!» Bozkariozko negar batzuk isuri ziren naharo haren masailetan. Dena erranen dizut, ene adiskidea. Ene adiskidea izanen zara, ezta? Aberats, aberats okitu ikusten nauzu, deusen eskasik ez dut edo eta deusen eskasik ez dudala irudi dut! Jakin ezazu, bada, Nucingeneko jaunak ez nauela sosik ere erabiltzera uzten: hark ordaintzen du etxe guztia, ene kotxeak, ene gelak; ez dit dirurik aski izendatzen neure apaindura-gastuentzat, isilpeko miserian bizitzera bor txatzen nau nahita. Harroegia naiz hari erregutzeko. Kreaturetan azkena, horixe izanen nintzateke bere dirua saldu nahi didan prezioan erosi-ko banio! Nolaz, zazpiehun mila liberaren jabe izaki, utzi ote dut larru nazaten? fiertasunez, suminduraz. Hain gara gazteak, hain gara lañoak, ezkon bizitza hasten dugunean! Neure sena-

rrari diru eskatzeko erran beharrezko hitzak ahoa urratzen zidan; sekula ez nintzen ausartzen, neure ekonomien dirua eta aita gaixoak ematen zidana jaten nuen; gero zorpean sartu naiz. Ametsondorik izigarriena da enetzat ezkontza, ez diezazuket hartaz hitz egin: aski bekizu jakitea leihotik behera botako nukeela neure burua bakoitzak bere apartamentua eduki gabe bizi behar izanez geroz Nucingenekin. Beharrezkoa izan delarik ene zorren berri ematea, alegia emakume gazte batenak, harribitxienak, gurarietak, (aita gaixoak deusen ez ukatzera ohiturik ginduzkan), martirioa pairatu dut; baina azkenik horien jakinarazteko kuraia bildu dut. Ez ote neukan bada fortuna bat neurea? Nucingen haserre-tu da, erre-kara eramane-n nuela erran dit, izigarrikeriak! Lurpetik ehun oinetarat nahi nukeen egon. Ene ezkon saria hartua baitzuen, ordaindu egin du; baina bizi-sari bat xedatzen zuela handik goiti ene gastu pertsonal-entzat, harexekin etsi baitut bakea izateagatik. Gero, ezagutzen duzun norbaiten harrokeriari nahi izan diot ihardetsi, erran zuen. Hark engainatua izan banaiz ere, ez nintzateke zuzena izan-en justizia ez eginez

geroz haren izaeraren prestutasunari. Alabaina, zitalkiro utzi ninduen azkenean! Ez *litzatete* sekula bazter utzi behar emakume bat zeinari, hersturako egun batean, urreketa bat jaurtiki baitzaio! Beti behar *litzateke* maite ukan! Zuk, hogeita bi urteko arima eder horrek, gazte eta aratz zaren horrek, galdetuko didazu nolaz onar dezakeen emakume batek gizon baten urrea? Jainkoa! ez dea bada berezkoa oro partekatzea zoriona zor diogun izakiarekin? Oro elkarri eman diogularik, nor arrangura liteke oro horren zati batengatik? Dirua sentimendua suntsitua denean baizik ez da zerbait bilakatzen. Ez ote gaude bizitza guztiko loturik? Gutarteko nork aitzin-ikusten du bereiztea egiaz maite dutela uste izanik? Amodio betierekoa zin egiten diguzue, nolaz ukan orduan interes desberdinak? Ez dakizu zenbat sufritu dudan egun, Nucingenek argi eta garbi ukatu didanean sei mila libera ematea; nork eta berak, libera horiek hilabete oro bere amoranteari, Operako neska bati, ematen dizkionak! Neure buruaz bertze nahi nuen egin. Burutaziorik zoroenak pasatzen zitzaizkidan burutik. Uneak izan dira neskame baten zor-

tearen, neure andere ganbarazainaren zortearen inbidiatan egon naizenekoak. Aitaren bila joatea, erokeria! Anastasiek eta biek lepoa egin diogu: aita gaixoak bere burua saldu zukeen sei mila libera erdiestearen truke. Alferrik joan nintzatekeen haren etsiaraztera. Ahalketik eta heriotzatik salbatu nauzu, oinazez hordi nintzen. Ah! jauna, esplikazio hau zor nizun: guztiz zentzuga-beki zoroa izan naiz zurekin! Utzi nauzularik, eta nik bistatik galdu zaitudanean, oinez nahi nuen ihes egin... norat? ez dakit. Horra Pariseko emakumeen erdien bizitza: apainkeria kanpoan, arrangura gordinak ariman. Kreatura dohaka-beak ezagutzen ditut ni baino are malerusagoak. Badira hargatik emakumeak beren hornitzaileei faktura faltsuak eginaraztera behartuak. Bertze batzuk bortxatuak dira beren senarrei ebastera: batzuek uste dute ehun louiseko katxemirak bortzehun liberatan ematen dituztela, bertzeek bortzehun liberako katxemira batek ehun louis balio duela. Kausitzen dira emakume gaixoak seme-alabak barurarazi eta zaborretan xerka ibiltzen direnak soineko baten eskuratzeko. Ni aldiz garbi naiz engainu higuigarri horietatik. Horra

ene azken larridura. Baldin eta zenbait emakume, beren burua senarrei saltzen badiete hauek beren nahierara erabili ahal izateko, ni behintzat libro naiz. Nucingenek urrez josiko ninduke nik hala nahi banu, eta nahiago dut negar egin oniritz diezaikedan gizon baten bihotzean pausaturik burua. Ah! egun arratsean de Marsay jaunak ez du eskubiderik ukanen ordaindu duen emakume bati bezala eni behatzeko. Aurpegia eskuen artean ezarri zuen, bere malkoen Eugèneri ez erakusteko, zeinak begitartea garbitu baitzion berari so egiteko, sublime zegoen horrela. —Dirua sentimenduekin nahastea, ez dea hori izigarria? Zuk ezin maite izanen nauzu, erran zuen baronesak.

Sentimendu onen, emakumeak hain handi egiten baitituzte, eta gizartearen egungo osakerak egitera bortxatzen dituen hutsegiteen nahaste horrek Eugène asaldarazten zuen, zeinak hitz ezti eta kontsolagarriak erraten baitzitu en emakume eder hori, hain lañoki zuhurgabea bere dolamenetan, miretsiz.

— Ez duzua hori ene kontrako armatzat erabiliko, erran zuen Delphine, agin iezadazu.

— Ah! anderea! ez naiz horretako gauza, erran zuen ikasleak. Delphinek eskua hartu zion eta bere bihotz ganean ezarri eskerron eta adetasunez beterikako mugimendu batez.

— Zuri esker hementxe nago ni berriz libro eta kontent.

Burdinazko esku batek hertsaturik bizi nintzen. Bizi izan, horixe bertzerik ez dut orain nahi, deusik ere ez xahutu. Ongi atzemanen nauzu izanen naizen bezala, ene adiskidea, ez da hala? Gorde ezazu hau, erran zuen bankako sei billete baizik ez hartuz. Egiaren erratekotz mila ezkutu zor dizkizut, ezen beti ere pentsatu dut zurekin erdibana nindoala. Eugene birjina bat irudi defendatu zen. Baina baronesak erran ziolarik: —Neure etsaitzat behatuko zaitut ene erkidea ez bazara, dirua hartu zuen. —Diru-gordailu bat izanen da ezbeharren bat gertaturik ere, erran zuen ikasleak.

— Horra izitzen ninduen hitza, oi hu egin zuen andereak zurbilduz bidenabar. Nahi baduzu zer-bait izan nadin zuretzat, zin egidazu, erran zuen, ez gehiago jokorat itzultzeko. Jainkoa! nik zure usteltzea! minez hil ninteke.

Arribaturik zeuden. Miseria eta oparotasun horren kontrastasunak ikaslea zorarazten zuen, zeinaren belarrietan Vautrinen hitz beldurgarriak hasi baitziren burrunbaka.

—Jar zaitez hor, erran zuen baronesak bere ganbaran sartu eta zizailu tiki bat erakutsiz suaren ondoan, gutun zail-zail bat behar dut izkiriatu! Emadazu aholku.

— Ez ezazu izkiria, erran zion Eugènek, bilitzazu billeteak, emazu helbidea, eta igor itzazu zeure andere ganbarazainaren bidez.

— Zinez gizon maitagarria zara baina, erran zuen baronesak. Ah! hor duzu, jauna, zer den ontsa hezia izatea! Beauséantiar garbi-garbia da hori, erran zuen irribarre eginez.

— Xarmangarria duk, erran zuen bere baitan Eugènek gero eta maitemintzenago ari zelarik. Ganbara horri so gelditu zen, zeinari gorteko andere aberats baten sotiltasun boluptuosaren hatsa baitzerion.

— Atsegin duzua erran zuen baronesak bere andere ganbarazaina deitzen zuela.

— Thérèse, eraman hau zuk zeuk de Marsay jaunari, eta eskutan eman berari. Aurkitzen ez baduzu, gutuna berriz ekarriko didazu.

— Thérèse ez zen handik joan aitzinetik Eugèneri behako malizios bat jaurtiki gabe. Afa-ria zerbitzaturik zegoen. Rastignacek besoa eman Zion Nucingeneko andereari eta honek jangela ezinago atsegin baterat eraman zuen, non hartzara ere ediren baitzuen lehengusinare-nean miretsi izan zuen mahaiaren luxua.

— Italiarretako egunetan, erran zuen barone-sak, enekin afaltzera etorriko zara, eta lagun egi-nen didazu.

— Ohituko nintzateke bizitza ezti honetarat irauin behar balu; baina bere fortuna egiteko duen ikasle gaixo bat bertzerik ez naiz.

— Eginen duzu, erran zuen baronesak irriz. Ikusten duzu, dena konpontzen da: ez nuen honen zorientzua izatea igurikitzen.

Emakumeen izaeran dago ez daitekeena dai-tekeenaz frogatzea eta egitateak susmo hutsez suntsitzea. Nucingeneko anderea eta Rastignac Bouffonsetako beren gelan sartu zirelarik, hain eder agerrarazi zuen halako satisfazio-aurpegia

erakutsi zuen baronesak, non denak ere ausartu baitziren gezur ttiki horien erratera, zeinek emakumeak gerizarik gabe uzten baitituzte eta, maiz, ziorik gabe asmatu nabarmenkeriak irudi baitute. Paris ezagutzen denean, ez da fitsik sinesten han erraten denaz, eta ez da fitsik erraten han egiten denaz. Eugènek baronesaren eskua hartu zuen, eta biek ala biek egin zuten solas halako saka bizi samarren medioz, musikak ematen zizkien sentsazioak elkarri helaraziz. Haientzat, gau-bilkura hau hordigarria izan zen. Elkarrekin jalgi ziren, eta Nucingeneko andereak *Pont-Neuferaino* nahi izan zuen Eugène eraman, bide guztian barna ukatzen ziolarik, *Palais-Royal*en hain suharki eta oparo eman zizkion musu horietako bat. Eugènek aurpegian eman zion aldakorkeria hori.

— Arestian, ihardetsi zuen andereak, eskerona zen ustekabeko eskaintza batengatik; orain agintza bat litzateke.

— Eta zuk, ezker gaiztoko horrek, halakorik bat ere egin nahi ez eni. Ikaslea haserretu zen. Maitale bat liluratzen duten ezin-egoneko keinu horietako bat eginez, baronesak muinkatzera

eman zion bere eskua. Rastignacek hain antze gutiz zuen hartu non baronesa zoraturik utzi baitzuen.

— Astelehena arte, dantzaldian, erran zion.

Etixerat oinez itzultzean, ilargi ederretan, Eugène gogoeta serioz batzuetan erori zen. Kontent eta haserre zen aldi berean: kontent abentura batengatik zeinaren atarramendurik itxurazkoenak Pariseko emakumerik polit eta sotiletako bat, bere desiren xedea, ekarriko baitzion; haserre bere fortuna-asmoak uzkailliak ikusteaz, eta orduantxe zuen dastatu bi egun lehenago gogoan ibili zituen pentsamendu dudamudazkoen errealitatea. Porrotak geure nahikerien ahala salatzen digu beti. Zenbat eta gehiago gozaten baitzuen Eugènek Pariseko bizitzaz, hainbat eta gutiago nahi zuen ilun eta pobre iraun. Mila liberako bere billetea maspiltzen zuen sakelan, mila arrazonamendu maltzur asmatuz haren jabe egiteko. Azkenik Sainte-Geneviève berria karrikarat heldu zen, eta eskailera goienan izan zenean, argia ikusi zuen. Goriot zaharrak irekia utzia zuen bere atea eta piztua bere kandela, ikasleari *alabaren berri ematea*, haren

erranmoldeari jarraiki, ahantz ez zekion amoreagatik. Eugènek dendena kontatu zion.

— Baina, egin zuen oihu Goriot zaharrak jelo-siazko etsipenaldi bortitz batean, errekan nagoela uste dute: badaukat oraindik mila eta hirurehun liberako errenta! Jainkoa! alabatto gaixoa, niganat ez etortzea! neure errentak salduko nituen, kapitaletik diruaaterako genuen, eta gainerakoaz bisisari bat eginen enetzat. Zergatik ez zara zu etorri haren behartasunaren berri ematera, ene auzo prestua? Nolaz izan duzu kemenik haren ehun liberattoen jokoan arriskatzera joateko? arimaren erdiratzekoa da hori. Horra zer diren suhiak! Oi! harrapatuko banitu, lepoa moztuko nieke! Jainkoa! negar egin, negar egin dua?

— Ene maripolisaren gainean, erran zuen Eugènek.

— Oi! emadazu, erran zuen Goriot zaharrak. Jakina! hor isuri ditu bere malkoak ene alabak, ene Delphine maiteak, haurrean inoiz negar egiten ez zuenak! Oi! bertze bat erosiko dizut, ez ezazu gehiago jantz, utz iezadazu. Bere hitzarmenaren arabera, bere ondasunez behar du gozatu. Ah! bihar berean joanen naiz Derville

abokatuaren bila. Haren ondasunak irabazitan ezartzea eskatuko dut irmoki. Ezagutzen ditut legeak, otso zahar bat naiz ni, hortzak erakutsiko ditut berriz ere.

— Hartu, jauna, hemen dituzu mila libera gure irabazietatik eman nahi izan dizkidanak. Gorde itzazu, maripolisean.

Goriotek Eugèneri behatu zion, eskua luzatu zion harenaren hartzeko, zeinaren gainerat negar bat utzi baitzuen erortzera.

— Ongi helduko zara bizitzan, erran zion agurak. Jainkoa zuzena da, badakizu? Aditua naiz ni gizalegetan, eta segur erran diezazuket hagitz gizon guti dela zure irudikorik. Nahi duzua beraz ene haur maitea ere izan? Zoaz, egizu lo. Lo egitea badaukazu, ez zara aita oraindik ere. Negarrez egon da. Nork eta nik behar dut hori jakin; hark sufritzen zuen bitartean, hemen trankilki jarri eta ergel bat bezala jaten ari nintzen honek; bati eta bertzeari malko baten aienaraztekoztz, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua ere salduko nituzkeen honek!

— Ala ene fedea, erran zuen Eugènek bere baitan ohean sartuz, uste dut gizon onesta iza-

nen naizela neure bizitza guztian. Gozoa duk nor bere kontzientziaren iradokizunei jarraitzea.

Badaiteke, menturaz, Jainkoa sinesten dutenek baizik ez duten ongia isilpean egiten, eta Eugènek Jainkoa sinesten zuen. Biharamunean, dantzaldiaren tenorean, Rastiganac Beauséanteko anderearenerat joan zen, zeinak Cariglianoko dukesari aurkezteko eraman baitzuen. Marexalaren anderearen harrerarik adeitsuena bildu zuen, zeinarenean Nucingeneko anderea ediren baitzuen berriz. Delphine denen gustukoa izateko xedeaz apaindua zen, halatan Eugèneren gustuagokoa izateko, zeinarengandik ezin-egonez behako bat igurikitzen baitzuen, bere ezin-egona gordetzen zuelakoan zegoela. Emakume baten bihotz-mugiden asmatzen dakienarentzat, une hori atseginez beterik dago. Nor ez da maiz laketu bere iritziaren luzarazten, bere gozamenaren lakrikunki estaltzen, sorrarazten den arranguran aitorpenen xerkatzen, irriño basez barreiatuko diren beldur-iziez gozatzen? Festa horretan, ikasleak bat-batean bere heinaren norainokoa neurtu zuen, eta konprenitu bazela norbait munduan Beauséanteko anderearen

lehengusu onartua izaki. Nucingeneko andere baronesaren konkista, jendeek jadanekotz ematen ziotena, hain ongi zuen nabarmenarazten, non gazte guztiek behako bekaiztiak jaurtikitzen baitzizkioten; horietako batzuk ustekabean harrapaturik, gangarkeriaren lehen plazerak dastatu zituen. Saloi batetik bertzerat iragaitan, jende-taldeen artean pasatzean, bere zorionaren laudorioak aditu zituen. Emakume guztiek arrakasta iragartzen zioten. Delphinek, haren galdu beldurrez, bere hitza eman zion ez ziola gauean ukatuko bi egun lehenago hain lehia handiz errefusaturikako musua. Dantzaldi honetan, Rastignacek konpromiso bat baino gehiago bildu zituen. Lehengusinak hainbat emakume aurkeztu zizkion, denak sotiltasuneko haize handiekikoak eta halako etxe atseginak omen zeuzkatenak; Pariseko gizarterik handi eta ederrenean ezagutarazia ikusi zuen bere burua. Gau-festa horrek beraz hastapen distirant baten xarmak izan zituen harentzat, eta zahartzaroa arte behar zuen hartaz oroitu, neskatila gazte bat garaitiak ukan dituen dantzaldiaz oroitzen den bezalaxe. Biharamunean, gosaltzean, apopi-

loen aitzinean bere arrakasta Goriot zaharrari kontatu zionean, Vautrine irriz hasi zen deabruaren gisan.

— Eta uste duzu zuk, galdetu zuen logikazale anker honek, modako mutil gazte bat Sainte-Geneviève berria karrikan, Maison-Vauqueren, bizi daitekeela? Pentsio hau oso errespetagarria da, bai, zernahi aldetatik ikusirik, baina inondik inora ez da modakotzat hartzen ahal. Aztoraturik dago, eder dago bere oparotasunean, harro dago Rastignac baten behin-behineko jauregia izateaz; baina, ororen buru, Sainte-Geneviève berria karrikan duzu, eta ez daki luxuaren berri, *patriarkalorama* hutsa delakotz. Ene adiskide gaztea, hasi zen berriz Vautrin, aire aitakoi isekari batez, nahi baldin baduzu Parisen itxura ona eman, behar dituzu hirur zaldi eta tilbury bat goizeko, coupé bat arratseko, denetarat bederatzi mila libera ibilgailutako. Ez zintezke zeure etorkizunaren dina izan hirur mila libera xahu ez baze-nitza zeure jostunarenean, ehun libera urrindu-narenean, ehun ezkutu zapatagilearenean, ehun ezkutu kapelagilearenean. Zeure bokata-egileaz denaz bezainbatean, hori mila libera gostako

zaizu. Modako gazteak ezin libra daitezke oso azkarrak izatetik jantziei dagozkienetan: ez dea bada hori haiengan maizenik ikertzen dena? Amodioak eta elizak oihal ederrak behar dituzte beren aldareen gainean. Hamalau milatan gara. Ez natzaizu mintzo jokoan, parioetan, presentetan galduko duzunaz; ez duzu posible sakelan bi mila libera baino diru gutiagorekin ibiltzea. Era- mana naiz bizitza hori, ezagutzen ditut xahupe- nak. Gehi lehen behar horiei bertze ehun louis jateko eta bertze mila libera ohandzeko. Ea, ene haurra, urteko hogeita bortz mila liberatto behar ditugu aldean, bertzenaz istilerat eroriko gara, geure buruak irrigarri utziko, eta fini geure etor- kizuna, geure arrakasta eta geure amorante guz- tiak. Ganbarazaina eta eskumakila ahantzi zaiz- kit! Christophek eramanen ote ditu zure amo- diozko gutunak? Orain erabiltzen duzun pape- rean izkiriaturko dituzua? Zeure burua hiltzea litzateke hori. Sinets iezaiozu eskarmentu zaba- leko agure zahar bati! hasi zen berriz *rinforzan- do* bat eginez bere baxu-ahotsean. Edo zokora zaitez mantsarda bertutetsu baterat, eta han

ezkon lanarekin, edo bertze bide bati lot zakizkio.

Eta Vautrinek begi bat keinatu zuen andereño Taillefer seinalatuz, behako horretan, haren usteltzekotz ikaslearen bihotzean erein zituen arrazonamendu liluragarrien oroitaraz eta laburtzeko gisan. Egun batzuk iragan ziren zeinetan Rastignacek bizitzarik nabarmenena eraman baitzuen. Kasik egun oro afaltzen zuen Nucingeneko anderearekin, mundurat laguntzen zuenarekin. Goizaldeko hirur edo lauretan etxeratzen zen, eguerdian jaikitzen ikuzteko, Oihanerat joaten Delphinerekin egurastera, aro ona zenean, hala bere denbora alferrik galduz horren prezioa jakin gabe, eta erakaspén guztiak, luxuaren lilurapén guztiak edoskiz datil-ondo eme baten kaliza urduriaz bere himeneioko hauts ernalkorren eraginez jabetzen den suaz. Ausartziaz jokatzén zen, anitz galtzen edo irabazten zuen, eta hondarrean ohitu zen Pariseko gazteen neurritz landako bizitzarat. Lehen irabazien kontu, mila eta bortzehun libera itzuli zizkien amari eta arrebei, ordainarekin batean esku-erakutsi ederrak ere igorritz. Nahiz gaztigatua zuen Maison-Vauquer

utzi nahi zuela, han zen artean ere urtarrileko hondar egunetan, eta handik nola jalgi ez zekien. Gazteak lege baten menpean daude gutiz-gehienak; lege hori itxuraz esplika ezina da, baina haien gaztetasuna bera du zio eta funts, hala nola gozamenari lotzeko erakusten duten herio-suertearen ere. Aberats ala pobre, sekula ez daukate dirurik premiazko gauzentzat, aldiz beti ere aurkitzen dutelarik beren gutizientzat. Zorretan erdiesten den guztiarekin eskuzabalak, zikoitzak dira istantean berean ordaintzen den guztiarekin, eta irudi dute ez daukatenaz mendekatzen direla, ukan dezaketen guztia parrastatuz. Hortaz, gaiaren garbiki agerraraztegatik, ikasle batek hagitzez arta handiagoa hartzen du bere kapelaz bere jantziaren baino. Irabaziaren esker-gak hartzedun huts bihurtzen du jostuna, kopuruaren urriak izakirik ezkibelenetako bat bilakarazten dueino kapilagilea nahitaez solastatu beharrak ditugun jendeen artean. Baldin eta teatroko balkoian jarririkako mutil gazteak emakume politen largabistei maripolis txundigarriak eskaintzen badizkie, zalantzazkoa da galtzerdirik ba ote duen. Bonetagilea da haren moltsako ber-

tze kokoetako bat. Rastignac horrat heldua zen. Beti hutsa andere Vauquerentzat, beti betea banokeriaren betebeharrontzat, haren moltsak ipurdiko eta arrakasta aldartetsuak izaten zituen, pagamendurik naturalenekin bat etortzen ez zirenak. Bere pretentsioak aldian-aldian apaltzen zitzaizkion pentsio kirastun eta doilorraren utzi ahal izateko, ez zena bada beharrezkoa bere ostalersari hilabete baten ordaintzea, eta bere dandy-apartamentuko altzarien erostea? hori izaten zen beti ezinezkoa zena. Baldin eta, bere jokoarentzat behar zuen diruaren eskuartzeko, Rastignacek erosten jakiten bazuen bere pitxidunarenean erlojuak eta urrezko kateak, bere irabazien gain garesti ordainduak, eta gero Bahitetxerat, gazteriaren adiskide ilun eta zuhur horrenganat, eramaten zituenak, nola asmorik hala ausartziarik gabe kausitzen zen bere mantenua, bere ostalua, ordaindu beharra egokitzen zenean, zein bere bizitza dotorearen ustiatzeko baitezpadako tresnak erosi behar izaten zituenean. Premia arrunt batek, behar satisfatuengatik eginikako zorrek, ez zioten gogoia argitzen jadanik. Menturazko bizitza hori ezagu-

tu duten gehienen antzera, hondar-hondarrera arte igurikitzen zuen burgesen begietan sakratuak diren hartzekoen garbitzeko, Mirabeau-kegiten zuen bezala, hark ere ogia zor-agiri baten itxura drakonianoan agertzen zenean baizik ez baitzuen ordaintzen. Garai hartan, Rastignacek bere dirua galdu eta zorretan zegoen. Ikaslea hasia zen ohartzen ezinezkoa izanen litzaiokeela bizimolde horri jarraitzea dirubide jakinik eduki gabe. Alabaina, bere kinka larriaren ukaldi min-korren pean dolamenka ari izanik ere, ez zen gauza sentitzen bizitza horren gozamenei uko egiteko, eta gostaia gosta ere nahi zuen bere hartantxe jarrai. Bere fortunaren bermagarri ezarriak zituen menturak amets huts bilakatzen ziren, eta egiazko oztopoak handitzen. Nucingeneko jaun-andereen etxe-barneko sekretuen jakiten hastean, ohartu zen ezen, amodioa fortunagai bihurtzez geroz, beharrezkoa zela ezin ahalke irentsi izana, bai eta gaztaroko hobenen absolbazio diren asmo prestuei uko egitea ere. Bizitza azaletik bikain hori, baina barne-aladuren *taenia* guztiek marruskatua, eta bere plazer iheskorrak atergabeko larridurez garesti ordain-

tzen zituena, harekin esposaturik zegoen, bere hartan ihalozkatzen zen, La Bruyère-ren Distraituak bezala, ohe bat eginez pezoineko lohian; baina Distraituak bezala, artean ere bere jantziak soilik lohitzen zituen.

— Zer, mandarina hila dugu beraz? erran zion egun batean Bianchonek otordu bat bukatu ondoan.

— Oraino ez, erantzun zuen, baina azken hatsetan duk.

Medikuntzako ikasleak arraileriatzat hartu zituen hitz horiek, inondik inora ere ez zirena. Eugène, aspaldiko partez pentsioan lehen aldikotz afaldua zena, pentsakor agertua zen afari guztian. Apairu-ondokoan jalgi orde, jangelan gelditu zen andereño Tailleferen ondoan jarririk, zeinari noizbehinka behako adierazkor batzuk jaurtiki baitzizkion. Apopilo batzuk artean ere mahaian jarri eta intxaur jaten ari ziren, bertzeak harat-honat zebiltzan lehenago hasi eztabaidetan murgildurik. Kasik arrats oro bezala, nork bere gogara alde egiten zuen, zenbaterainoko arta ezartzen zuen solasaldian, edo eta zenbaterainoko astuntasuna eragiten zion digeritzeak.

Neguan, bakan hustuko zen osoki jangela zor-tziak baino lehen, orduan laur emakumeak baka-rrean gelditzen baitziren eta mendeku hartzen beren sexuak gizonezkoen bilkura horren erdian ezartzen zien isiltasunaz. Eugèneri erasaten zion arrangurak jorik, Vautrin jangelan gelditu zen, nahiz lehenbizian jalgitzeko presa zuela irudi izan zuen, eta Eugènek ez ikusteko gisan egon zen denbora guztian, zeinak handik joana zela uste izan baitzuen halatan. Gero, azkenak joan ziren apopiloekin batean erretiratu beharrean, saloian gelditu zen maltzurki. Ikaslearen ariman irakurria zen eta sintoma erabakigarri bat susmatzen zuen. Rastignac, kausitzez, anitz gaztek ezagutu izan behar duten egoera harrigarri batean kausitzen zen. Maitale ala lakrikun, Nucingeneko andereak egiazko pasio baten larri-dura guztietatik iraganarazia zuen Rastignac, harengatik hedatuz emakumezkoek Parisen usaian darabilten diplomaziaren eskuarteak. Bere burua lotu ondoan ikusliarren begietan Beauséanteko anderearen lehengusua beregan-dik hurbil ezartzera, dudatan zen egiatan ema-nen zizkionetz mutil gazteak irudiz bide zeuzkan

eskubideak. Duela hilabete bat hain zituen ongi kitzikatzen Eugèneren zentzumenak, non azke-
nean bihotzari erasan baitzion. Baldin eta, bere
harremanaren lehen uneetan, ikasleak bere
burua nagusitzat jo bazuen, Nucingeneko ande-
rea azkarrena bilakatua zen, Eugèneren baitan
Pariseko mutil gazte batengan diren bizpahirur
gizonen sentimendu guztiak, onak ala txarrak,
mugarazten zituen trikimailu horren laguntzare-
kin. Kalkulu bat ote zen hori harengan? Ez; ema-
kumeak egiazkoak dira beti, baita haien faltsu-
keria handienen artean ere, zeren sentimendu
naturalen bati amore emanen baitute. Badaiteke
Delphineek, mutil gazte hori bat-batean beregan
hainbertze nagusitzera utzi eta hari gehiegizko
legea erakutsi ondoan, halako duintasun-senti-
mendu bati obeditzen ote zion, zeinak eragiten
baitzion edo bere kontzesioetan gibelerat itzul-
tzera, edo kontzesio horien eteteaz atsegin har-
tzera. Hain du berezkoa emakume paristar
batek, grina beraz jabetzen deneantxe, bere ero-
rikoan dudatan hastea, bere etorkizuna emanen
dion gizonaren bihotzaren frogatzea! Nucingene-
ko anderearen esperantza guztiak lehen aldi

batez tradituak izanak ziren, eta gazte berekoi batenganako bere fideltasuna gutietsia izana zen berrikitan. Mesfidosa izan zitekeen arrazoiez. Badaiteke nabaritu zuen Eugèneren moldeetan, zeina bere arrakasta lasterrak gangaturik baitzegoen, halako gutieste-suerte bat haien egoeraren bitxikeriek sorrarazia. Errespetagarria nahi zuen inolaz ere iruditu adin horretako gizon bati, eta haren aitzinean handi agertu horren denbora luzean tikia izan eta gero bazter utzi zuen gizonaren aitzinean. Ez zuen nahi Eugènek menpera-erraz juja zezan, hain zuzen ere ikasleak de Marsayrena izana zela bazekielakotz. Orogen buru, anker gorri baten, gazte lizunkoi baten plazer degradagarria pairatu ondoan, hainbertzeko eztitasuna atzematen zuen amodioaren eskualde loratuetan zebilela, non dudarik gabe zoragarria baitzitzaion amodio horren alderdi guztien mirestea, haren dardaren luzaz entzutea, eta haize zuri-nahasgabeek luzaz ferekaturik egotea. Egiatzko amodioak gaiztoagatik ordaintzen zuen. Zentzuz kontrako hori zorigaitzez ohikoa izanen da harik eta gizonak ez dakitena arteengainuaren lehen ukaldiek zenbat lore

segatzen dituzten emakume gazte baten ari-
man. Zein ere baitzituen arrazoiak, Delphine
Rastignacez trufatzen zen, eta laketzen hartaz
trufatzean, inolaz ere bere burua ikusten zuela-
kotz maitatua eta segur bere amorantearen
bihozminen geldiarazteaz, bere emakume-
borondate ederrari jarraiki. Bere buruarekiko
begirunez, Eugènek ez zuen nahi bere lehen
guduka ipurdiko batekin buka zedin, eta bere
jazargoan irauten zuen, bere lehen Saint-Hubert
festan ezinbertzez eper bat akabatu nahi duen
ehiztari baten antzera. Bere antsiek, bere urgui-
lu irainduak, bere etsiek, gezurrezko zein egiaz-
koek, gero eta gehiago estekatzen zuten emaku-
me hori. Paris guztiak ematen zion Nucingeneko
anderea, zeinarenganat ikusi zuen lehen egu-
nean baino gehiago aitzinatu gabe baitzegoen.
Artean ere ez jakinki emakume baten lakrikun-
keriak batzuetan onura gehiago eskaintzen
dituela haren amodioak plazerik ez ematen
baino, halako amorrualdi zozoetan erortzen zen.
Baldin eta emakume batek amodioa errefusa-
tzen dueneko sasoiak bere breen bilkina eskain-
tzen bazion Rastignaci, horiek hain kario gerta-

tzen zitzaizkion nola ondugabe, gazi-gozo eta dastatzeko ezti ziren. Noizean behin, bere burua sosik eta etorkizunik gabe ikusirik, gogorat etortzen zitzaizkion, bere kontzientziaren erranak gorabehera, fortuna egiteko menturak, Vautri- nek posible zirela frogatu zizkionak baldin eta andereño Tailleferekin ezkontzen bazen. Alabaina haren miseria hain zen ozenki mintzo une hartan, non kasik nahi gabe eman baitzien amore esfinge beldurgarriak, bere soez maiz liluraturik edukitzen zuenak, zerabiltzan azpijokoei. Poiret eta andereño Michonneau berenerat igan zirenean, Rastignacek, bera bertze inor ez zela- koan andere Vauqueren eta andere Coutureren artean, zeina artilezko mahukak trikotatzen ari baitzen sutontziatek ondoan lo-kuluska, begien apalarazteko behar bezain molde samurrean behatu zion andereño Tailleferi.

— Ez duzu bada xangrinik izanen, Eugène jauna? erran zion Victorinek une batez isilik egon ondoan.

— Zein gizonak ez ditu bada bere xangrinak! ihardetsi zuen Rastignacek. Segur bagina, gu gazteak, egiaz maitatuak garela, beti ere egite-

ko prest garen sakrifizioen ordaina emanen ligu-keen atxikimenduaz, sekula ez genuke agian xangrinik izanen.

Andereño Tailleferrek, erantzun guztikotz, tronpagarria ez zen behako bat jaurtiki zion.

— Zuk, andereño, zeure bihotzaz segur zarela uste duzu egun; bermatuko ote zenuke ordea inoiz aldatuko ez zarela?

Irriño bat lerratu zen neskatxa gaixoaren ezpainetan haren arimatik jalgi argi-izpi bat irudi, eta hain ongi zion begitartea distirarazi non Eugène ikaratu baitzen halako sentimenterketa bizi baten sorrarazi izanaz.

— Nolaz! bihar aberats eta zoriontsua bazina, hodeietatik fortuna handi-handi bat eroriko bali-tzaizu, oraindik ere maiteko zenukea atsekabeko egunetan atsegina eman dizun mutil gazte pobrea?

Delphineek keinu polit bat egin zuen buruaz.

— Mutil gazte malerus-malerus bat?

Bertze keinu bat.

— Zer zozokeria ari zara erraten? oihera egin zuen andere Vauquerek.

— Utz gaitzazu, ihardetsi zuen Eugènek, guk badakigu zer gabiltzan.

— Ezkon agintzarik izanen dea, beraz, Rastignaceko jaun zaldunaren eta andereño Victorine Tailleferen artean? erran zuen Vautrinek bere ahots handiaz jangelako atean tupustean agerturik.

— Ah! iziarazi nauzu, erran zuten batean andere Couturek eta andere Vauquerek.

— Makurrago hauta nezake, ihardetsi zuen irriz Eugènek zeinari Vautrinen ahotsak inoizko bihotz-zarrastarik krudelena eragin baitzion.

— Arraileria gaiztorik ez, jaunak, erran zuen andere Couturek. Ene alaba, igan gaitezen geure gelarat.

Andere Vauquer bere bi apopiloen ondotik joan zen, afalondoa haienean emanaz bere kandelaren eta bere suaren ekonomizatzeko xedearrekin. Eugène Vautrinekin bakarrik eta bekoz beko kausitu zen.

— Banekien bada hona etorriko zinela, erran Zion gizon horrek bere betiko odol-hotz izikaitza erakutsiz. Entzun, ordea! bertze edozeinek bezalaxe, nik ere badut urguritasunik! Ez ezazu une

honetan erabakirik har, orain ez zaude zeure ohiko heinean. Zorrak badituzu. Ez dut nahi grina, etsipena, baina arrazoia izan dadin enegat etortzera deliberatzen zaituena. Badaiteke milakoren bat ezkutu behar dituzun. Har ezazu, nahi duzua?

Deabru honek bere sakelan diruzorro bat hartu eta bankako hirur bilete atera zituen handik, ikaslearen begietan kliskarazi zituenak. Eugène egoerarik krudelenean zegoen. Hitzaren pean galdurikako ehun louis zor zizkien Ajudako markesari eta Trailleseko kondeari. Diru hori ez zeukan, eta ez zen ausartzen Restaudeko andereanerat joatera, non haren aiduru baitzeuden, afalondoaren iragaitera. Zeremoniarik gabeko afalondo horietako bat zen hura, non jendeek pastiza ttikiak jaten baitituzte, tea edaten baitute, baina sei mila libera ere gal baititzakete whistean.

— Jauna, erran Zion Eugènek bere gorputzaren dardarizoa nekez ezkutatzuz, kontatu didazuna kondatu ondoan, konprenitu beharra duzu ezin ukan dezakedala zure alderateko obligaziorik.

— Ongi da! pena emanen zenidan bertze gisaz mintzatzera, segitu zuen tentatzaileak. Mutil gazte ederra zara, samurbera, burgoia lehoi bat bezala eta ezta neskatila bat irudi. Harrapakin ederra zinateke deabruarentzat. Gogokoa dut gazteen kualitate hori. Goi-politika-ko bertze bizpahirur gogoeta, eta den bezalako ikusiko duzu mundua. Bertutezko ikuskari tiki zenbait jokatzuz, goi-mailako gizonak bere nahieria guztiak satisfatzen ditu parterreko ertzoen eskuzarta handien artean. Egun guti gabe guretarra izanen zara. Ah! ene ikasle nahi bazenu bilakatu, orotarot helaraziko zintuzket. Desira bat ez zenezake asma berehalakoan bete ez litekeenik, zernahi desira ahal bazeneza ere: ohera, fortuna, emakumeak. Zibilizazio guztia anbrosia bihurtua genizuke emanen. Gure haur mainatua, gure Benjamin izanen zinateke, denak suntsituko ginatke zugatit atseginez. Traba eginen lizukeen oro izanen litzateke berdindua. Oraindik ere barneko harrik baldin baduzu, gaiztagintzat hartzen nauzu agian? Bada, zuk oraindik ukan uste duzun adina zuzentasun zuen gizon batek, Turenne-ko jaunak, bere burua

lotua ikusi gabe, afera ttikiak egiten zituen birigarro batzuekin. Ez duzua eni obligatua egon nahi, eh? Bortz axola horrek, segitu zuen Vautri- nek irriño bat lerratzeraz utziz. Har papertxar hauek, eta czar iezadazu hor gainean, erran zuen zigilu bat ateraiatz, hor, zeiharka: *Onartua, urtebetean ordaintzeko, hirur Pila eta bortzehen liberako kopuruagatik*. Eta emazu data! Korritua aski gogorra da zuri edozein kezka edekitze- ko, judu dei nazakezu, eta ezein ezagutzatetik kito zaudela pentsa. Baimena ematen dizut oraindik ere ene mesprezatzeko egun, geroago- an maiteko nauzulakoan segur. Edirenen dituzu ene baitan leize izigarri horiek, ertzoek bizio dei- tzen dituzten sentimendu kontzentratu eskerga horiek; sekula ez nauzu ordea ez lazo eta ez esker-gaiztoko edirenen. Hots, ni ez naiz ez peoi bat eta ez alfil bat, baizik eta dorre bat, ene umea.

— Nolako gizona zaitugu beraz? galdetu zuen Eugènek, ene atsekabetzeko sortua zara zu.

— Inolaz ere ez, ni naiz gizon on bat bere burua lohitu nahi duena zu lupetzatik kanpo egon zaitezten bizi zaren bitartean. Zergatik

ardura hau galdetzen dukezu zeure baitan? Ongi da! ezti-eztia erranen dizut egunen batez, belarrian isilka. Lehenik harritu zaitut gizarte-ordenamenduaren arramantza eta makinaren itzulika erakusten dizudala; baina pasatuko da zure lehen izialdura soldadu-berriarena bezala gudu-zelaian, eta usatuko zara gizonen ikustera beren buruak errege aldarrikatzen dituztenen alde bizia emateko prest dauden halako soldaduek izanen bailiran. Denborak arrunt aldatuak dira. Lehen erraten genion kazkarro bati: «Tozkik ehun ezkutu, garbi iezadak horrako jaun hori», eta trankilki joaten ginen afaltzera gizon bat huskeria batengatik lurpean eman ondoan. Egun fortuna eder baten egitea proposatzen dizut deusi lotzen ez zaituen buru-keinu baten ordeztu, eta duda egiten duzu. Mende honek ez du kalipurik.

Eugènek pagamendu-manua sinatu zuen, eta bankuko bileteekin trukatu.

— Ongi da! ea bada, mintza gaitezen zentzuz, hasi zen berriz Vautrin. Hemendik hilabete batzuen buruan Ameriketarat nahi dut abiatu, neure tabakoaren ereitera. Adiskidetasunaren

zigarroak igorriko dizkizut. Aberasten baldin banaiz, lagunduko zaitut. Haurrik ez baldin badut (daitekeena oso, ez dut tirriarik adaxka bidez hemen neure buruaren birlandatzeko), tira! neure fortuna utziko dizut. Hori ote da gizon baten adiskide izatea? Maite zaitut, ordea. Bertze gizon batengatik arduratzeko grina dut. Lehendik ere egina naiz hori. Ikusten duzu, ume, bertze gizonak baino goragoko heinean bizi nauzu. Ekintzak mediotzat behatzen ditut, eta ez dut xedea bertzerik ikusten. Zer den gizon bat enetzat? Hau! egin zuen bere erpuruko azkazala klaskaraziz bere hortzetako baten pean. Oro ala deus ez, horra gizon bat zen den. Deus ez baino gutiago duzu Poiret deritzon: tximitxa bat bezala zapal dezakegu, mengela da eta kiratsa dario. Baina gizona jainko bat duzu zure eitea duenean: orduan ez duzu makina bat larruz estalia, baina teatro bat non sentimendurik ederrenak hunkitzen baitira, eta ni sentimenduengatik bakarrik bizi naiz. Sentimendu bat, ez dea hori mundua pentsamendu batean? Ikus ezazu Goriot zaharra: haren bi alabak dira harentzat unibertso guztia, kreazioan zuzen joateko duen haria. Hor-

taz bada, bizitza barnatik ikertu dudan honentzat, ez da egiazko sentimendu bat baizik, gizon arteko adiskidetasuna. Pierre eta Jaffier, horra ene grina. Buruz dakit *Venise sauvée*. Anitz jende ikusi dituzua behar bezain bulartsuak, adiskide batek dioenean: «Goazen gorpu baten ehorztera!», fisisik erran eta lagun hori moralaz nardarazi gabe bere hartarat joateko? Neronek egin dut hori. Ez nieke honela denei hitz eginen. Zu ordea, zu goi-mailako gizona zara, dena erran dakizuke, dena dakizu konprenitzen. Zu ez zara luzaz palastatuko hemen inguratzen gaituzten gizonkilak bizi diren zingiradietan. Ongi da! errana da hori. Esposatuko zara. Zorrotz ditza-gun geure ezpatak. Enea altzairuzkoa da eta ez da inoiz kamusten, aizu!

Vautrin jalgi zen ikaslearen ezezko erantzuna aditu nahi izan gabe, bere gogara uzteagatik. Irudi zuen bazekiela halako jazargo tikien, halako guduken sekretua, hots, gizonezkoek beren buruen aitzinean sendagaila egin eta beren ekin-tza gaitzesgarrien zuritzeko baliatzen dituzten jazargo eta guduken sekretua.

Egin dezala nahi duen bezala, ez naiz alabaina andereño Tailleferekin esposatuko! erran zuen Eugènek bere baitan.

Barne-sukar baten ongi-eza jasan ondoan, hain zuzen ere gizon horrekin, zeinak ikara ematen baitzion, hain zeina bere ideien zinismoagatik beragatik eta gizartearen tinkatzen erakusten zuen ausartziagatik begietan handituz baitzihoakion, hitzarmen bat egin lezakeela pentsatzeak sorrarazia bera, Rastignac jantzi, kotxe bat eskatu, eta Restaudeko anderearenerat joan zen. Zenbait egun bazituen emakume honek artak berretuak zituela mutil gazte baten alderat zeinaren urrats bakoitza aitzinatze bat bai baitzen mundu handiaren bihotzerat, eta zeinaren eskuak irudi baitzuen egun batez beldurgarria behar zuela izan. Trailleseko eta Ajudako jaunei ordaindu, gauaren zati batean whistean jokatu, eta galdu zuena irabazi zuen berriz. Superstizio-sa izaki, bidea egiteko duten eta guti-aski fatalistak diren gizon gehienen antzera, zeruaren sari bat nahi izan zuen bere asturuan ikusi, bide zuzenean irauteko bere pertseberantziagatik. Biharamun goizean, astirik galdu gabe Vautrini

galdetu zion ea artean ere bere zor-agiria bazeukanetz. Baietz erantzun ziolarik, hirur mila liberrak bihurtu zizkion atsegin bat aski naturala erakutsiz.

— Dena ongi doa, erran zion Vautrinek.

— Ni ez naiz baina zure erkidea, erran zuen Eugènek.

— Badakit, badakit, ihardetsi zuen Vautrinek eteten ziola. Haurkeriak egiten dituzu oraindik. Ateko fitskerietan gelditzen zara.

III

TROMPE-LA-MORT

Handik bi egunerat, Poiret eta andereño Michonneau aulki batean jarririk kausitzen ziren, eguzkitan, Landareen Jardineko ibiltoki bakarti batean, eta solasean ari ziren norekin eta medikuntzako ikasleari arrazoi guztiz susmagarria iruditzen zitzaion jaunarekin.

— Andereño, zioen Gondureau jaunak, ez dut ikusten zerk sorrarazten dituen zure kezkek. Bere Gorentasun Monsinore Erresumako Polizia Jeneraleko Ministro jaunak...

— Ah! Bere Gorentasun Monsinore Erresumako Polizia Jeneraleko Ministro jaunak... errepikatu zuen Poiretek.

— Bai, Bere Gorentasunak du afera honen axola, erran zuen Gondureauk.

Nori ez zaio sinesgaitza irudituko Poiretek, enplegatu ohia eta ideiaz gabeturik egon arren dudarik gabe bertute burgesez jantzi gizona zenak, artean ere Buffon karrikako ustezko errentariari entzuten jarraitzea, hain zuzen ere

honek polizia hitza erran zuenean, hala Jérusalem karrikako agente baten begitartea ikustera utziz, bere gizon prestuaren mozorroa gaindi? Deus ez zen berezkoagoa, alta. Hobeki konprenituko dute denek zer espezie berezitakoa zen Poirret, ertzoen familia handian, zenbait so egilek jadanik egin duten baina egundaino argitaratu ez den ohar baten ondoan. Bada nazio lumadun bat, *buxetari* hertsatua mila eta berrehun libera-ko tratamenduek dakarten latitudeko lehen graduaren, halako Groenland administratiboaren, eta hirugarren graduaren artean, non tratamendu beraxeagoak hasten baitira, hirutik seira bitartekoak. Eskualde epela da bera, non sariztapena zoritzen baita, non sariztapena loratzen baita haren laborantzaren zailtasunengatik ere. Menpeko jende horren zimurkeria eria ongien salatzen duten ezaugarrietako bat, da halako begiramendu-suerte bat nahigabekoa, oharkabekoa, jitezkoa, ministerio orotako lama handi horren alderat, enplegatuak sinadura irakurtezin baten medioz eta BERE GORENTASUN MONSINORE MINISTRO JAUNA izenaren pean ezagutzen duenaren alderat, erakutsia; bortz hitz *Calife de*

Bagdadeko II Bondo Caniren parekoak direnak, eta, jendaki zuri honen begietan, botere sakratu ezinbertzezko bat agerrarazten dutenak. Aita Saindua kristaudentzat bezala, Monsinore jauna administratiboki ezin-hutsegina da enplegatua- ren begietan; jaurtikitzen duen distira bere egi- tateei, bere hitzei, haren izenean erranikakoei eratxikitzen zaie; oro bere edergailuez estaltzen du, eta manatzen dituen ekintzak legeztatzen; Gorentasuna izena bera, bere asmoen araztasu- na eta bere nahien saindutasuna egiaztatzen duena, ideiarik gaitzesgarrienei baliatzen zaien pasaporte da. Jende miserable horiek beren buruen fagore egin ez lezaketena, presa guztian egiten dute Bere Gorentasuna hitzak aditu ordu- kotz. Bulegoek beren obediencia pasiboa dute, armadak berea baduen bezala: kontzientzia ito- tzen, gizon bat deuseztatzen eta hondarrean, denboraren buruz, gobernamentuaren makinari torloju edo dranbal bat bailitzan moldatzen duen sistema. Horregatik, Gondureau jaunak, gize- tan aditua bide zenak, laster hauteman zuen Poi- retengan ertzo burokratiko horietako bat, eta *Deus ex machina* hori, *Bere Gorentasuna* hitz

talismanikoak jalgiarazi zituen, hain zuzen ere noiz eta, bere bateriak agerraraziz, Poiret txundiarazi beharra zenean, zeina Michonneauren-tzako ar egokiena iruditzen baitzitzaion, Michonneau Poiretentzako emea iruditzen zitzaion bezala.

— Kondutan hartuz ezen Bere Gorentasunak berak, Bere Gorentasun Monsinore...! Ah! desberdina da oso, erran zuen Poiretek.

— Entzuten diozu bada jaunari, haren aburuei fio zinela irudi baitzenuen, hasi zen berriz gezurrezko errentaria andereño Michonneauri zuzenduz. Ongi da! Bere Gorentasunak segurantziarik osoena du orain ezen ustezko Vautrin hori, MaisonVauqueren dagoena, galeriano bat dela Toulon-eko espetxetik ihes egin zuena, non Trompe-la-Mort izenaren pean ezagutua baita.

— Ah! Trompe-la-Mort, erran zuen Poiretek, hagitz zorionekoa da, izen hori merezi izan badu.

— Baiki, hasi zen berriz agentea. Izengoiti hori ematen diote, izan ere, aitzinerat eraman dituen sail ezin ausartagoetan sekula bizitzaren ez galtzeko izan duen zorteagatik. Gizon hori lanjerosa duzu, aizue! Ohiz landako bilakarazten

duten kualitateen jabe da. jasan duen zigorrak berak ere egundainoko ohorea ekarri dio bere alderdian...

— Ohoreko gizona da beraz, galdetu zuen Poiretek.

— Bere gisara. Bere gain hartzea onartu du bertze batek egin krimena, biziki maite zuen mutil gazte batek egin faltsutze bat, alegia; mutil hori italiar gazte aski jokozale bat zen, gero soldadutzarat joan eta han, bertzalde, ezin hobeki gobernatu dena.

— Baina Bere Gorentasun Poliziako Ministro jauna segur baldin bada Vautrin jauna Trompe-la-Mort dela, zertako bada behar ote ninduke ni? erran zuen andereño Michonneauk.

— Ah! bai, erran zuen Poiretek, baldin eta Ministro jaunak izan ere, guri horren errateko ohorea egin digun bezala, inolako segurantzia badu ezen...

— Segurantzia ez da hitza; baina susmoak baditugu, ordea. Konprenituko duzue kuestioa. Jacques Collinek, Trompe-la-Mort goitizenez, hirur espetxeren konfiantza guztia du, eta beren agentea eta beren bankaria izan dadin hautatu

dute. Anitz irabazten du horrelako aferasuertee-tan, zeinek nahitaez berebiziko, *markako* gizon baten beharra baitute.

— Ah! ah! konprenitzen duzua hitz-jokoa, andereño? erran zuen Poiretek. Jaunak markako gizona deitzen du, markatua izan delakotz.

— Gezurrezko Vautrinek, erran zuen agenteak aitzinerat joanez, jaun galerianoen kapitalak biltzen ditu, horiek irabazitan ezartzen, haientzat begiratzen, eta ihes egiten dutenen esku ipintzen, edo haien familien, testamentuz hala erabakitzen dutenean, edo haien amoranteen, haiei emateko hari bidaltzen dizkiotenean.

— Haien amoranteen! Haien emazteen nahiko duzu erran, ohartarazi zuen Poiretek.

— Ez, jauna. Galerianoak komunzkiro sasi-emazteak baizik ez ditu izaten, guk ohaide izendatzen ditugunak.

— Hortaz, denak ohaideturik bizi direa?

— Hain segur.

— Hara! erran zuen Poiretek, horra itsuskeria batzuk Monsinore jaunak onartu behar ez lituzkeenak. Bere Gorentasunaren ikusteko ohorea duzunaz geroz, zuri, ene irudiz ideia filantropiko-

ak dituzun horri, dago haren jakinean ezartzea jende horiek, gainerako gizarteari oso etsenplu txarra ematen diotenek, daramaten bizimolde lizunaren gainean.

— Baina, jauna, gobernamenduak ez ditu han ematen bertute guztien eredu eman dezaten.

— Egia da hori. Bizkitartean, jauna, zure bai-menarekin.

— Baina, utz beraz jauna mintzatzera, ene poxia, erran zuen andereño Michonneauk.

— Zuk konprenitzen duzu, andereño, hasi zen berriz Gondureau. Gobernamenduak interes handi bat izan dezake legez kanpoko diru-kutxa baten, franko kopuru handi bat gordetzen omen duenaren, atzemateko. Tromp-la-Mortek balore handiak eskuratzen ditu ez soilki bere lagun batzuen dirua gordez, baina baita Hamar Milen Elkargotik datozenak ere...

— Hamar Mila Ohoinak! egin zuen oihu Poiretek iziturik.

— Ez, Hamar Milen Elkargoa goi-ohoinen elkargo bat da. Jende horiek handizki lan egiten dute, eta ez dira aferetan sartzen gutienaz ere hamar mila libera irabazterik ez badago. Elkargo

hori zuzenki epaitegirat joaten diren gure gizonetarik hoberenek osatua da. Badakite Kodea, eta sekula ez dira arriskatzen heriotza zigorraren jasatera atz ematen dietenean. Collin da haien konfiantzako gizona, haien aholku-emailea. Bere neurrigabeko eskuarteez lagundurik, gizon horrek jakin du beretzako polizia bat apailatzen, biziki harreman zabal batzuk ezinargituzko misterioaz estaltzen dituenak. Nahiz urte batez geroz espioiez inguratu dugun, ezin izan dugu oraino haren jokoa argitu. Haren diru-kutxa eta haren talentuak etengabe baliaraziak dira beraz bizioaren pagatzeko, gaiztagintzaren dirubideen egiteko, eta armada bat atxikitzen dute zutik gizarteari taigabeko gerla egiten dioten gaiztaginek osatua. Trompe-la-Morten atzematea eta haren bankuaz jabetzea gaitzaren errotik mozteak izanen da. Horregatik espedizio hau Estatu-ko eta goi-politikako afera bilakatu da, arrakasta ukan dezan laguntzen dutenei ohore eman ahal liezaiekeena. Zerori ere, jauna, izan zintezke berriz administrazioan enplegatua, poliziako komisario baten idazkari bilaka, funtzio horiek

inondik ere eragotziko ez lizuketelarik alta zeure erretiro-sariaren eskuratzea.

— Baina zergatik ez du Trompe-la-Mortek bere diru-kutxarekin hanka egiten, erran zuen andereño Michonneauk?

— Oi! egin zuen agenteak, norat ere bailihoa-ake, harat gizon bat jarraikiko litzaioke haren hiltzeaz enkargatua, espetxeari ebatsiko balio. Gero diru-kutxak ere ez dira etxe oneko dama-ttoak bezain errazki ebasten. Bertzalde, Collin ez duzu halako azpikerien egiteko gai den puttikoa, bere buruaren desohoratzea irudituko litzaioke.

— Jauna, erran zuen Poiretek, arrazoi duzu, guztiz desohoratuko litzateke.

— Horrek guztiak ez digu argitzen zergatik ez zareten itzulinguru barik haren harrapatzera etortzen, galdetu zuen andereño Michonneauk.

— Ongi da! andereño, erantzutera noa... Baina, erran zion belarrirat, eragotz iezaiozu zeure adiskide jaunari eni etetea, sekula ez dugu bukatuko bertzenaz. Fortuna handia behar du bere buruaren entzunarazteko, agure zahar horrek. Trompe-la-Mortek, honat etortzean, gizon prestu baten larrua jantzi du, Pariseko bur-

ges zintzo bat egin da, pentsio apal batean hartu du ostatu; iaioa da, hara! sekula ez dugu oharkabetarik atzemanen. Beraz Vautrin jauna gizon estimatua da, afera estimagarriak egiten dituen.

— Jakina, erran zuen Poiretek bere baitan.

— Ministro jaunak, egiazko Vautrin bat atxilotuz tronpatuz geroz, ez du nahi ez Pariseko merkatalgoa ez iritzi publikoa etsai dakion. Poliziako jaun prefeta kordoka dabil bere karguan, arerioak ditu. Hutsik eginez geroz, haren tokia nahi dutenek liberalen elegaizto eta kalapitak profita-tuko lituzkete haren uzkalearazteko. Gauza da hemen Cogniard-en, Sainte-Hélène-ko konde falsuaren aferan bezala jokatzea; Sainte-Hélèneko kondea egiazko konde bat izan balitz, leporaino zikinduko ginen. Egiaztatu beharra da beraz.

— Bai, baina emakume polit bat behar duzu, erran zuen zirt-zart andereño Michonneauk.

— Trompe-la-Mortek ez luke emakumerik ondoratzen utziko, erran zuen agenteak. Ikas ezazu sekretu bat: ez ditu atsegin emakumeak.

— Baina ez dut orduan ikusten zertako nahi nauzuen halako egiaztatze batean, bi mila libe-

rarengatik horren egiteko gertu izanen banintz behintzat.

— Errazagorik! erran zuen ezezagunak. Poto bat emanen dizut pattar-neurri batekin; edari bizi horrek, hartakotzat prestatuak, den mendre-neko arriskurik ez dakar eta apoplexia bat irudiarazten du. Droga hori arnoarekin eta kafearekin ere nahas daiteke. Segidan gizon hori ohe baterat eramanen duzu, eta arropak erantziko hiltzen ari ez dela egiaztatzeko. Bakarrik zaudenean, zaflako bat eman bizkar gainean, punpa! eta han ikusiko dituzu hizkiak agertzen.

— Baina hori ez da deus, erran zuen Poiretek.

— Eta? baietz diozua? erran zion Gondureauk neskazaharrari.

— Baina, ene jaun maitea, erran zuen andereño Michonneauk, hizkirik ez balitz, bi mila liberak eskuratuko nituzke orduan ere?

— Ez.

— Zein izanen da beraz ordaina?

— Bortzehun libera.

— Holako zerbait egin hoin gutirengatik. Gaitza bera da kontzientzian, eta nik neure kontzientzia jabaldu beharra dut, jauna.

— Zinez diotsut, erran zuen Poiretek, andereñoak kontzientzia handia duela, oso pertsona atsegina eta hagitz aditua izateaz gain.

— Ongi da! hasi zen berriz andereño Michonneau, emazkidazu hirur mila libera Trompe-la-Mort bada, eta deusik ere ez burges bat bada.

— Ados, erran zuen Gondureauk, baina bihar egitekotz egitekoa.

— Oraindik ez, ene jaun maitea, neure konfessorearekin kontsultatu behar dut.

— Maltzurra! erran zuen agenteak jaiki ahala. Bihar arte, orduan. Eta enekin hitz egin beharretan bazina, etor zaitez Sainte-Anne karrika tiki-rat, Sainte-Chapelleko karrika itsuaren hondar-rean. Ate bat baizik ez dago gangaren azpian, galde ezazu Gondureau jaunaz.

Bianchoni, Cuvieren eskolatik zetorrenari, belarria kolpatu zion Trompe-la-Mort hitz aski bereziak, eta sûreté-ko poliziburu aipatuaren adosa aditu zuen.

— Zergatik ez duzu trinkatzen, hirurehun liberako bizisaria litzateke hori, erran zion Poiretek andereño Michonneauri.

— Zergatik? erran zuen honek. Gogoeta egin beharra da horretaz. Vautrin jauna Trompe-la-Mort hori balitz, etekin gehiago atera liteke agian harekin akomeatuz. Dena den, dirua eskatuko bagenio, susmo txarra hartu eta geure gizonak doan eginen liguke alde. *Peto* higuin garria litzateke.

— Jakinaren gainean legokeenean, hasi zen berriz Poiret, gizon honek ez ote digu erran Vautrin zainpean daukatela? Zuk dena galduko zenuke!

— Bertzalde, pentsatu zuen andereño Michonneauk, ez dut bat ere atsegin gizon hori! Gauza zatarrak baizik ez dizkit erraten.

— Baina, segitu zuen Poiretek, oso ongi eginen zenuke. Gizon horrek erran duenaz, txit egoki jantzirik egoteaz gain, biziki gisakoa iruditzen baitzait, legeek diotenari men egitea da gizartea gaiztagin batengandik libratzea, nahi bezain bertutetsua izan daitekeela ere. Edan duenak edanen du. Gu guztien hiltzeko emanen balio bulkoak? Baina, zer deabru! gu ginatke erailketa horien hobendun, berorren lehen biktimak ginatkeela ahantzi gabe.

Andereño Michonneauren arrangurak ez zituen entzutera uzten Poireten ahotik erortzen ziren ahapaldiak, bana-banaka eta iturri gaizki hertsu bateko dutxulutik isurtzen diren ur-xortak irudi jalgitzen zirenak. Behin agure horrek bere ahapaldi-saila hasiz geroz, eta andereño Michonneauk geldiarazten ez baldin bazuen, atergabe ihardukitzen zuen, giltza eman baliote bezala. Lehen sujet bati lotu ondoan, egiten zituen parentesiek bertze arras kontrako batzuez mintzatzeraz eraugitzen zuten, inongo ondoriotarat heldu gabe. Maison-Vauquererat arribatzeko, pasarte eta iragaitzezko aipamen lerro luze batean sartua zen zeinek jaun Ragoullauren eta andere Morinen aferako bere deklarazioaren ematera joanarazi baitzuten, non defentsaren lekuko gisa agertu baitzen. Sartu eta berehala, haren neskalagunak hantxe ikusi zuen Eugène de Rastignac andereño Tailleferekin solasaldi goxo batean murgildurik zeinaren interesa hain zen pilpiragarria non bikoteak bat ere kasurik ez baitzuen egin bi apopilo zaharren pasaiari hauek jangela alderen alde iragan zutenean.

— Horrela behar zuen bukatu horrek, erran zion andereño Michonneauk Poireti. Arimaren ateratzeko gisan so egiten zioten elkarri azken zortzi egun honetan.

— Bai, erantzun zuen Poiretek. Horregatik izan zen kondenatua.

— Nor?

— Andere Morin.

— Ni andereño Victorinez mintzatzen, erran zuen Michonneauk, horretaz ohartu gabe Poireten ganbaran sartzen zela, eta zuk andere Morinez erantzuten. Nor da bada emakume hori?

— Zeren hobendun litzateke beraz andereño Victorine? galdetu zuen Poiretek.

— Eugène de Rastignac jaunaren maitatzearen, eta lerro-lerro doa jakin gabe horrek norat eramane duen, gaixo inuzentea!

Eugène etsipenaren mende eroria zen goiz hartan Nucingeneko andereak hartaraturik. Bere barnean, oso-osoki Vautrini abandonaturik zegoen, ikertu nahi izan gabe ez ohiz kanpoko gizon horrek eskaintzen zion adiskidetasunaren arrazoiak, ez eta halako elkarretaratze baten etorkizuna ere. Mirakulu bat behar zen haren azken

ordu hartan andereño Tailleferekin ekintzarik ez-tienak elkartrukatzuz jadanekotz sartzen hasia zen amildegitik ateratzeko. Victorine aingeru bat mintzo zitzaiolakoan zegoen, zeruak harentzat zabaltzen ziren, Maison-Vauquer dekoratzaileek teatroko jauregiei ematen dizkieten tindu fantasiazkoiez ederretzatzen zen: maite zuen, maite zuten, hala uste zuen bederen! Eta zein emakume ez zukeen berak bezala sinetsi Rastignacen ikusten, Rastignacen entzuten etxeko barrandari guztiei ebatsirikako ordu horretan? Bere kontzientziaren kontra gatazkatzuz, min egiten zuela jakinez eta min egin nahiz, bere buruari erranez ezen bekatu arin hori emakume baten zorionaz ordainduko lukeela, bere etsipenak edertua ageri zen, eta bihotzean zuen infernuaren su guztiez distiratzen zuen. Zorionez harentzat, mirakulua agitu zen: Vautrin alegeraki sartu zen, eta irakurri zuen bi gazteen ariman zeinak bere jeinu infernutarraren jukutriez ezkonduak baitzuten, baina zeinen bozkarioa urratu baitzuen bere ahots zakar nausatzaileaz kantatuz:

Ene Fanchette xarmangarria da

Bere lañotasunean...

Victorinek isilka lekutu zen, ordura arteko bere bizitzan izanikako zorigaitzak hainbateko bozkarioarekin lekutu ere. Gaixo neskatila! esku-tinkatze bat, bere masaila Rastignacen ileak azal-hunkitua, ele bat bere belarritik hain hurbil errana non ikaslearen ezpainen berotasuna nabaritua baitzuen, bere gerria beso dardaratsu batek hertsatua, musu bat lepoan hartua, horiek izan ziren haren pasioaren ezkon hitzak, Sylvie lodia inguruan egoteak, jangela dohatsu hartan sartzeko mehatxatuz, maitasunezko istoriorik ospetsuenetan kontatu sakrifizio-lekukotasunik ederrenak baino suharrago, biziago, erakargarriago bilakarazi zituenak. *Alegrantzia xume* horiek, gure arbasoen erranmolde polit bati jarraiki, krimenak begitantzen zitzaizkion hama-bortz egunetik behin konfesatzen zen neskatila gazte debot bati! Ordu horretan, geroagoan, aberats eta zoriontsu, bere burua osorik eskainirik ere eman ez zituzkeenak baino arimako altxor gehiago eman zituen.

— Egitekoa egina da, erran zion Vautrinek Eugèneri. Gure bi dandyak etsaitu dira. Dena behar bezala joan da. Iritzi-afera. Gure urzaku-meak ene belatza iraindu du. Bihar artio, Clignancourt-eko gazteluan. Zortziak eta erdietan, andereño Tailleferrek amodioa eta fortuna bilduko du bere aitarengandik, hemen trankilki bere ogi-xerra gurineztatuak kafean bustitzen dituen bitartean. Ez dea bitxia hola errateko? Taillefer ttiki hori oso azkarra da ezpatarekin, buru-iritzia *brélan-carré* bat bezala; baina odol hustua izanen da asmatu dudan kolpe batez, ezpataren altxa eta arerioaren kopeta zauritzeko manera batez, alafede. Erakutsiko dizut ukaldi hori, ika-ragarri baliosa baita.

Rastignacek ergel airez entzuten zuen, eta ez zezakeen deus ihardets. Une hartan Goriot zaharra, Bianchon eta bertze zenbait apopilo heldu ziren.

— Horrelakoa zintudan nahi, erran zion Vautrinek. Badakizu zer egiten duzun. Ongi da, ene arrantxia! gizonak gobernatuko dituzu; azkarra zara, sendoa, bulartsua; ene oniritzia baduzu.

Eskua nahi izan zion hartu. Rastignacek berea bipilki aldaratu zuen, eta kadira baten gainerat erori zen zurbilduz batean; uste zuen odoluzko istil bat ikusten zuela bere aitzinean.

— Ah! baditugu oraindik troxa ttiki batzuk bertutez zikinduak, erran zuen Vautrinek ahaptetik. D'Olivan xaharrak baditu hirur milioi, badakit haren fortunaren berri. Ezkon sariak emaztegaijantzi bat bezala zurituko zaitu, eta hutsaren truke.

Rastignacek ez zuen gehiago dudarik izan. Deliberoa hartu zuen arratsean Taillefer jaun aita-semeen gaztigitzera joatekoa. Une hartan, Vautrinek kitatu zuelarik, Goriot zaharrak belarri-rat erran zion: —Triste zaude, ume! nik alegeratuko zaitut. Zatoz! Eta fideogile zaharrak lanparretako batean piztu zuen bere kriseilua. Eugene jakin-minez guztiz hunkiturik jarraitu zitzaion.

— Sar gaitezen zure gelan, erran zuen giza-gaixoak, ikaslearen giltza Sylvieri eskatu zionak. Ez zintuela maite uste izan duzu egun goizean, ez da hala? hasi zen berriz. Halabeharrez bidali zaitu, eta zu haserretua, etsitua joan zara handik. Zozoak halakoak! Ene begira zegoen. Adi-

tzen duzua? Apartamentu zoragarri baten atontzen bukatzera behar genuen joan, bere hartarat joanen baitzara bizitzera hirur egunen buruan. Ez nazazu sal. Ustekabe bat nahi dizu erran; baina nik ezin dut zuri sekretua luzeago gorde. D'Artois karrikan egonen zara, Saint-Lazare karrikatik bi urratsetarat. Printze baten pare izanen zara han. Espos-andere batentzat bezalako altzariak erosi dizkizugu. Hamaika gauza egin ditugu hondar hilabetean, horretaz zuri fitsik erran gabe. Ene abokatua guduari lotu da, alabak eskuratuko ditu bere urteko hogeita hamaisei mila liberak, bere ezkon sariaren korrituak, eta nik eguzkipeko ondasun ederretan ezarraraziko ditut haren zortziehun mila liberak.

Eugène mutu zegoen eta hegiz hegi zebilen, besoak gurutzaturik, bere ganbara lander nahastekatuan. Goriot zaharrak ikasleak bizkarra ematen zioneko une bat profitatu zuen, eta supazter gainean larruzko kaxa gorri bat ezarri, zeinetan Rastignactarren armak urrez inprimaturik ageri baitziren.

— Ene haur maitea, zioen gizagaixo urrikalgarriak, leporaino sartua naiz honetan guztian.

Baina, ikusten duzu, bazen ene baitan egoismoa franko, interesaturik nago auzoz alda dezazun. Ez didazu ezetz erranen, ezta? zerbait eskatzen baldin badizut?

— Zer nahi duzu?

— Zure apartamentuaren gainean, borzgarrean, ganbara bat bada hari datxekiola, ni han biziko naiz, ez da hala? Zahartzen ari naiz, urrunegi nago neure alabengandik. Ez dizut poxelurik eginen. Han egon baizik ez dut eginen. Hartaz mintzatuko zatzaizkit arrats oro. Hori ez zaizu gaitzituko, ezta? Etxeratzen zarelarik, ni neure ohean egonen naizela, entzunen zaitut, erranen neure baitan: ene Delphine ttikiaren ikustetik heldu duk. Dantzaldirat eraman dik, uros duk hari esker. Eri banintz, bihotzeko minak eztituko lizkidake zure itzultzen, sar-jalgitzen, joaten entzuteak. Alaba hementxe edukitzea bezala izanen da! Ez dut urrats bat bertzerik eman beharko Champs-Élyséesetan izateko, non egun oro pasatzen baitira, beti ere ikusiko ditud, batzuetan berantegi arribatzen banaiz ere. Eta gero hura zure etxerat etorriko da menturaz! Entzunen dut, ikusiko dut goizeko bere aldagarri

goxoan, laxterka, xotilki ibiliz kateme ttiki bat irudi. Badu hilabete bat berriz ere bilakatua dela lehen zena, neskatila gazte, alegera, pinpirina. Arima sendabidean du, zoriona zor dizu. Oi! zernahi ere den eginen nuke zuretzat. Oxtion erraten zidan honatekoan, «Aitatto, zoriontsua naiz oso!» Zeremonioski *Ene aita* erraten didatelarik, ikararazten naute; ordea *aitatto* deitzen nautelarik, iruditzen zait oraindik handitu gabe ikusten ditudala, neure oroitzapen guztiak bihurtzen dizkidate. Hobeki naiz haien aita. Oraindik inorenak ez direla uste dut. Gizagaixoak begiak xukatu zituen, negarrez ari zen. —Aspaldian ez nituen hitz horiek aditu, aspaldian ez zidan besoa eman. Oi! bai, badu hamar urtez goiti ez naizela neure alabetako baten ondoan ibili. Hain da gozoa haren soinekoaz igurztea, haren pausorot ibiltzea, haren beroaren partekatzea! Hots, egun goizean orotarot joan naizela Delphine lagunduz. Harekin sartzen nintzen botigetan. Eta etxeraino lagundu dut. Oi! eduki nazazu zeuregandik hurbil. Inoiz edo behin norbait beharko duzu zeure laguntzeko, hantxe izanen nauzu. Oi! Alsaziar kankailu hori hilen balitz, duen hezueriak haren

estomakaraino igaiteko ernetasuna balu, zoriontsua litzateke, bai, ene alaba gaixoa! Ene suhia zinateke, haren senarra zinateke denen agerian. Bah! hain da zorigaiztokoa mundu honetako plazerez deus ez jakiteaz, non dena barkatzen baitiot. Egiazki maite duten gurasoen alde behar du egon Jainkoak. Sobera maite zaitu! erran zuen burua higituz eten baten ondoan. Ibiltzean, zutaz ari zen enekin: «Ez da hala, aita, ontsa polita da! bihotz ona du! Nitaz mintzatzen ote da?» Bah, liburuak eta liburuak kontatu dizkit horretaz d'Artois karrikatik has harik eta Panoramas-etako pasaia arteraino. Azkenean enean hustu du bere bihotza. Goiz eder honetan guztian ez nintzen ja zaharra, ontza bat ere ez nuen pisatzen. Mula liberako billetea eman zenidala erran diot. Oi! alaba maitea, negarrez hasi da horretaz hunkiturik. Zer duzu bada supazter gainean? erran zuen noizbait ere Goriot zaharrak, Rastignacen mugitu gabe ikustearekin ezin egonez hiltzen zenak. Eugènek barri eta zur aire zozo batez behatzen zion bere auzoari. Duelu hori, Vautrinek biharamunekotz gaztigatua, hain zen bortizki kontrastatzen bere esperantzarik mai-

teenen gauzatzearekin, non amesgaiztoaren sentsazio guztiak atzematen baitzituen. Supazter alderat bihurtu zen, han kaxa tiki karratua ikusi zuen, ireki, eta barnean paper bat aurkitu zuen Breguet-en erloju bat estaltzen zuena. Paper horretan hitz hauek izkiriatuak zeuden: «Nahi dut nitaz etengabe nitaz oroit zaitezten, zeren...

«DELPHINE.»

Azken hitz horrek, inondik ere, haien arteko gertakariren bat aipu zuen. Horrek Eugèneri bihotza beratu zion. Han zituen bere armak emailatuak kaxaren barnealdeko urrean. Edergailu hain luzaz gutzizatu hori, katea, giltza, egitura, diseinuak, berak desira bezal-bezalakoak ziren. Goriot zaharra ezinago kontent ageri zen.

Dударик gabe bere alabari hitz emana zen jakinaraziko ziola haren erregaliak Eugèneri sorraraziko liokeen ustekabearen ondorio tikiennen berri, ezen hirugarrena zen bihotz-hunkidura gazte horietan eta ez zuen irudi hiruretan malerusena. Rastignac maite zuen jadanik alabagatik ez ezik beragatik ere bai.

— Egun arratsean joanen zara haren ikustera, begira daukazu. Alsaziar kankailua bere dantzarisarenean afaltzekoa da. Ah! ah! zinez irrigarri agertu da ene abokatuak zer egin duen errandionean. Ez dio bada erran ene alaba adoratzearaino maite duela! uki dezala, bertantxe garbituko dut. Pentsatze hutsak ezen Delphine... (hasperen egin zuen) bidegabekeria bat eginaraziko lidake; baina hori ez litzateke giza eraitea, aratxe-buru bat da urde-gorputz baten gainean. Zeurekin hartuko nauzu, ezta?

— Bai, ene Goriot ona, ongi dakizu maite zaitudala...

— Ikusten dut, zu ez zara nitaz herabe! Utz zeure besarkatzera. Eta ikaslea bere besoetan tinkatu zuen. —Gutziz zorioneko errendatuko duzu, emadazu zeure hitza! Egun arratsean joanen zara, ezta?

— Oi, bai! Jalgi beharra dut ezin-gibelatuzko afera batzuengatik.

— Zer baitetan laguntzen ahal zaitut?

— Bai, segurki! Nucingeneko anderearenerat noan bitartean, joan zaitetz Taillefer aita jaunarenerat, afalondoan ordu bat eman diezadan erra-

tera, inportantziarik handieneko afera batez hitz egiteko berarekin.

— Egia litzatekea beraz hori, gazte, erran zuen Goriot zaharrak aurpegia aldatuz; haren alabaren gorteiatzen ote zabilta, hor behereko ergel horiek dioten bezala? Alajainkoa! zuk ez dakizu zer den Gorioten ukabilkada bat. Eta ziria sartuko bazenigu, ukabilkada baten afera izanen litzateke. Oi! ez da posible hori.

— Zin degizut emakume bakarra maite dudala munduan, erran zuen ikasleak, orain berriki arte ez dut jakin.

— Ah, hau zoriona! egin zuen Goriot zaharrak.

— Baina, segitu zuen ikasleak, Tailleferen semea bihar borrokatzekoa da, eta hilen dutela aditua dut erraten.

— Zer axola dizu horrek? erran zuen Goriotek.

— Baina behar da hari erran ez uzteko bere semea harat joatera... oihu egin zuen Eugènek.

Une hartan, Vautrinen ahotsak hautsi zuen ikaslearen solasa bere ateko atalasean kantari hasi baitzen ozenki:

*Ô Richard, ô ene errege!
Unibertsoak abandonatzen zaitu...*

Broum! broum! broum! broum! broum!

Mundua dut luzaz kurritua,
Eta orotan naute ikusia...

Tra la, la, la, la...

— Jaunak, oihukatu zuen Christophek, afaria begira daukazue, eta mundu guztia dago mahaian.

— To, erran zuen Vautrinek, hator Bordeleko ene botila arno baten hartzera.

— Polita atzematen duzua, erlojua? erran zuen Goriot zaharrak. Gustu ona du, gero!

Vautrin, Goriot zaharra eta Rastignac elkarrekin jaitsi eta, berant heldu izanaren ondorioz, mahaian elkarren ondoan jarririk kausitu ziren. Afaritan inoizko hoztasunik handiena agertu zion Eugènek Vautrini, nahiz egundaino gizon honek, andere Vauqueren begietan hain gisakoa zenak,

ez zuen hainbertzeko antzerik erakutsi. Ateraldietan zorrozki aritu zen, eta mahaikide guztiak berotu zituen bere zirtoez. Segurtasun horrek, odol hotz horrek Eugène atsekabetzen zuen.

— Zer belardi-klasetan ibili zara bada egun? erran zion andere Vauquerek. Botz-botzik zaude zinez.

— Beti nago botzik afera onak egiten ditudanean.

— Aferak? erran zuen Eugènek.

— Aferak, bai. Komisio-eskubide ederrak emanen dizkidan salgai sorta bat igorria dut. Andereño Michonneau, erran zuen neskazaharra haren aztertzen ari zela oharturik, ba ote dut bisaian zerbait laket ez duzuna, begi amerikarra egiten baitidazu? Behar didazu erran! aldatuko dut zuri gustu emateko. Poiret, ez gaituk horregatik samurtuko, ezta? erran zuen enplegatu zaharrari begia keinatuz.

— Astapittoa! Feriako Herkules batentzako modelo behar zenuke pausatu, erran zion pintore gazteak Vautrini.

— Ados naiz, ala fedea! beti ere andereño Michonneauk Père-Lachaise-ko Venus-en gisan pausatu nahi badu, ihardetsi zuen Vautrinek.

— Eta Poiret? erran zuen Bianchonek.

— Oi! Poiret Poireten gisan pausatuko da. Jardinetako jainkoa izanen da! erran zuen Vautrinek. Porrutik baitator...

— Porru mardotik! segitu zuen Bianchonek. Porruaren eta gasnaren artean zeundeke orduan.

— Zozokeriak bertzerik ez dira horiek guztiak, erran zuen andere Vauquerek, hobeki eginen zenuke Bordeleko zeure arnotik emanen bazenigu. Botila bat ikusten dut nik bere sudurra erakutsiz! Horrek alegera mantenduko gintuzke, *urdailarentzako* ona izateaz gain.

— Jaunak, erran zuen Vautrinek, andere presidentak ordenurat deitzen gaitu. Andere Couture eta Andereño Victorine ez dira zuen erretolika isekariez zapuztuko; baina errespeta ezazue Goriot zaharraren lañotasuna. Bordeleko botilaxka bat arnorama proposatzen dizuet, Laffite izenak bi aldiz ospetsu bihurtzen duena, politikazko kutsurik gabe erranez segurki. Ea, txinatar hori!

erran zuen Christopheri, zirkinik egin ez zuenari, so eginez. Hator, Christophe! Nolaz ez duk heure izena aditzen? Txinatar, ekar mama goxoak!

— Horra, jauna, erran zuen Christophehek botila eskaintzen ziola.

Eugèneren eta Goriot zaharraren basoa bete ondoan, berean emeki-emeki xorta batzuk zerbitzatu zituen, gero bere bi auzoek edaten zuten bitartean dastatu zituenak, eta bat-batean imintzio bat egin zuen.

— Futxo! futxo! tapoi-urrina du. Gorde ezak hau heuretzat, Christophe, eta habil bertze baten bila guretzat; eskuinetarat, badakika? Hamasei gaituk, jaits itzak zortzi botila.

— Sakela laxatu duzunaz geroz, erran zuen pintoreak, nik ehuneko bat gaztaina pagatuko ditut.

— Oi! oi!

— Booououh!

— Prrrr!

Nork bere irrintziak jaurtiki zituen, sugurpil bateko suziriak irudi jalgi zirenak.

— Ea, amatto Vauquer, bi botila xanpaina, oihukatu zion Vautrinek.

— Kia! Bai, horixe! Zergatik etxea ere ez eskatu? Bi botila xanpaina! Hori hamabi libera gosta duzu baina! Nik ez dut, ez, hainbertze irabazten! Dena den Eugène jaunak nahi baditu ordaindu, nik kassisa eskainiko dut.

— Haren kassis horrek manak bezain ongi garbitzen ditik bada barneak, erran zuen medikuntzako ikasleak ahapetik...

— Hago isilik, Bianchon, egin zuen oihu Rastignacek, ezin diat manaz hitz egiten aditu bihoztza zertzen hasi gabe... Bai, hoa Champaigneko arnoaren bila, nik ordainduko dut, gehitu zuen ikasleak.

— Sylvie, erran zuen andere Vauquerek, ekar biskotxak eta pastiza ttikiak.

— Zure pastiza ttikiak xaharregiak dira, erran zuen Vautrinek, bixar eta guzti badute. Baina biskotxak, aldiz; ekar itzazu horiek agudo!

Istant batez Bordeleko arnoak bere ibilia hasi zuen, mahaikideak piztu ziren, eta alegrantzia berretu zen. Irri-karkara basa batzuk aditu ziren, zeinen artetik zenbait animala hotsen ihakinak lehertu baitziren. Eman ziolarik gogoak museumeko enplegatuari katu amorosaren miauaren

antzeko deiadar paristar baten egiteko, berehala zortzi ahotsek batean honako ahapaldiok orroizkatu zituzten: —Ganibetak zorrozten ditugu! —«Alpistea xori ttikientzat! —Hauxen da ona, andereak, hauxen da ona! —Toska konpon-tzen dugu! —Ontsa kudea zuen aferak! —Zafra itzazue zuen emazteak eta zuen arropak! Jantzi zaharrak, zingola zaharrak, kapela zaharrak saltzen ditugu! —Gereziak, gerezi gozoak! Palma Bianchonentzat izan zen «Euritako-saltzailea!» aldarrikatzen egin zuen sudur-mintzoagatik. Istant batzuetan buruaren hausteko gisako azantza sortu zen, solasaldi bat aldrebeskeriaz josia, egiazko opera bat Vautrinek orkestra-buru baten antzera gidatzen zuena, Eugène eta Goriot zaharra begiratzuz, ordukotz mozkorturik bide zeudenak. Bizkarra beren kadiretan pausaturik, han zeuden biak usaiaz kanpoko nahaspila haren ikusten aurpegi larriz, guti edanez; han zeuden biak afalondoan egin behar zutenaz kezkatuturik, eta ez ziren hargatik altxatzeko gai sentitzen. Vautrinek, zehar-behakoak jaurtikitzen zizkiela haien begitartearen aldaketak zaintzen zituenak, haien begiak kordoka hasi eta hertsu nahi zutela

irudi izan zuteneko unea profitatu zuen Rastignac-en belarrirat makurtu eta errateko: «Ene mutiko maitea, ez gara aski maltzurak geure aitatto Vautrinekin borrokatzeko, eta hark sobe-ra maite zaitu zeure zozokerien egitera uzteko. Zerbait deliberatua dudalarik, Jainkoa bakarrik da aski azkarra eni bidearen hesteko. Ah! nahi genuen Tailleferi gaztigatzera joan, eskolumeen hutsen egitera! Labea bero da, irina oratua, ogia palan; bihar geure buruaren gainetik papurrak zapartaraziko han ausiki eginez; eta laberatzea eragotziko genukea?... ez, ez, ogi guztia eginen da! Zenbait aladura tiki baldin baditugu, digeritzeak haizatuko ditu. Geure lo tikia egiten dugun bitartean, konde Franchessini koronelak Michel Tailleferen oinordekotza irekiko dizu bere ezpataren puntaz. Bere anaiaren etorkia beretuz, Victorinek mila eta bortzehun liberako errenta ukanen du. Argitasunak bilduak ditut, eta badakit jakin amaren oinordekotzak hirurehun milatik gora jotzen duela...»

Haiei ezin ihardetsiz aditu zituen Eugènek hitz horiek: mihia bere ahosabaiari itsatsirik atzematen zuen, eta ezin garaituzko lo-asma

baten mende kausitzen zen; jadanik halako lanbro argitsu batetik baizik ez zituen mahaia eta mahaikideen irudiak ikusten. Harrabotsa eztitu eta berehala, apopiloak banan-banan joan ziren. Gero, andere Vauquer, andere Couture, andereño Victorine, Vautrin eta Goriot zaharra baizik gelditu ez zirelarik, Rastignacek, amets egin bailuen, non ikusten duen andere Vauquer botilen biltzen ari dela hondarrak atera eta horrela botila batzuen betetzeko.

— Ah! eroak dira, gazteak dira! zioen alarguntsak.

Hori izan zen Eugènek konprenitu ahal izan zuen azken erranaldia.

— Vautrin jauna bezalakorik ez festa hauen egiteko, erran zuen Sylviek. Ea, horra Christophe zurrungaka ziba baten antzera.

— Adios, amatto, erran zuen Vautrinek. Boulevarderat noa M. Martyren mirestera *Le Mont Sauvagen*, *Solitaire*tik ateratu pieza handi batean. Nahi baduzu, harat eramanez zaitut hala nola bertze dama hauek ere.

— Eskertzen dizut, erran zuen andere Couturek.

— Zer, ene auzoa! harritu zen andere Vauquer, ez duzula ikusi nahi pieza bat *Le Solitaire* hartua, obra bat Atala de Chateaubriandek egina, eta hain atsegin handiz irakurtzen genuena, hain polita dena non azken uda honetan Élodieren madalenak irudi egiten baikenuen negar eztién azpian, hots, obra moral bat beharbada zure dama gazteari erakasteko balio izan deza-keena?

— Debekatua dugu komediarat joatea, ihardetsi zuen Victorinek.

— Ea, hauek epeldurik daude, erran zuen Vautrinek Goriot zaharraren eta Eugèneren buruak irri-eragingarriro inarrosiz.

Ikaslearen burua kadira gainean kokatzean, eroso lo egitea izan zezan, musu eman zion kopetan kartsuki, hau kantatuz:

*Egizue lo, ene amodio laztanak!
Itzarrik egonen naiz beti zuentzat.*

— Beldur naiz ez ote den eri, erran zuen Victorinek.

— Geldi zaitez haren artatzera orduan, hasi zen berriz Vautrin. Horixe da, iradoki zion belarri-rat, emakume manakor zaren aldetik duzun eginbidea. Mutil gazte honek adoratzen zaitu, eta haren emazteñoa izanen zara zu, nik iragar-tzen dizut hori. Hots, erran zuen Vautrinek, *herri guztian estimatuak izan ziren, uroski bizi izan ziren, eta anitz haur ukan zituzten*. Horra nola bukatzen diren maitasun-eleberri guztiak. Ea, amatto erran zuen andere Vauquerenganat itzuli eta hura besarkatzen zuela, jantz ezazu kape-la, soineko eder loreekikoa, kondesaren echar-pea. Kotxe baten xerka noatzu, ni nerau. Eta kantuz joan zen:

*Eguzki, eguzki, eguzki dibinoa,
Kuiak ontzen dituzun hori...*

— Jainkoa! aizu, andere Couture, gizon honek zoriontsu bizi-araziko ninduke zubi baten azpian ere. Ea, erran zuen fideogileaganat itzultzen zela, horra Goriot xaharra epel-epel egina. Agure fardel honi sekula ere ez zaio ene *inorat* erama-tea bururatu. Baina ederki damutuko zaio, Jain-

koarren! Ahalkegarria da adineko gizon batek burua gal dezan! Erranen didazu batek ezin duela inondik ere galdu ez daukana, Sylvie, igan ezazu bada bere gelarat.

Sylviek gizagaixoa besapetik hartu zuen, ibilarazi, eta fardel bat bezala arropak erantzi gabe bota bere ohean zeharka.

— Gaixo mutil gaztea, zioen andere Couturek begietarat erortzen zitzaizkion Eugèneren biloak aldaratuz, neskatila gazte bat irudia da, ez daki zer den gehiegikeria.

— Ah! erran dezaket, bai, neure pentsioa azken hogeita hamaika urte honetan ukan ondolan, erran zuen andere Vauquerek, gazte-jendea franko pasatua dela ene eskuetatik, erraten den bezala, baina egundo ez dut Eugène jauna bezain mutil gisakorik, bezain mutil ongi-ikasirik ikusi. Ederra da zinez lo dagoela! Har iezaiozu beraz burua zeure sorbaldan, andere Couture. Bah! andereño Victorinerenaren gainerat erortzen da: bada jainko bat haurrentzat. Pixka bat gehiago, eta burua kadirako sagarraren kontra hautsiko zuen. Bikote eder-ederra eginen lukete bien artean.

— Ene auzoa, isil zaitez gero, egin zuen oihu andere Coututek, ah zer gauzak erraten dituzun...

— Bah! egin zuen andere Vauquerek, ez du aditzen. Ea Sylvie, hator ene janztera. Neure gerruntze handia jantziko dut.

— Hara! zeure gerruntze handia, afaldu eta gero, anderea, erran zuen Sylviek. Ez, bila ezazu norbait zure hertsatzeko, ni bederen ez naiz zure hiltzailea izanen. Bizitzarekin ordaintzeko gisako zentzugabekeria eginen zenuke hola.

— Berdin zait, ohore egin behar zaio Vautrin jaunari.

— Egiatan maite ote dituzu zeure oinordekoak hortaz?

— Ea, Sylvie, estakururik ez, erran zuen alarguntsak handik joanez.

— Bere adinean, erran zuen kuzinersak bere etxekanderea Victorineri erakusten ziola.

Andere Couture eta haren umezurtza, zeinaren sorbalda gainean Eugène lo baitzegoen, bakarrik gelditu ziren jangelan. Christopheren zurrungak etxe isilean burrunbatzen zuren, eta nabariarazten Eugèneren lo baketsua, zeina

haur bat bezain grazioski lo baitzegoen. Zoriontsu egiten ahal zuelakotz karitate-ekintza horietako bat zeinaren medioz emakumearen sentimendu guztiek barnea husten baitute, eta zeinak hobetik gabe mutil gaztearen bihotza berean taupaka sentiarazten baitzion, Victorinek bazuen begitartean zerbait amak legez babes ematera bultzatu eta harroarazten zuena. Bihotzean gora zihoazkion mila pentsamenduak gaindi, boluptuositatezko olde asaldagarri bat sartzen zen, halako berotasun gazte eta garbieraren elkarri emateak sustatzen zuena.

— Gaixo neskatila maitea! erran zuen andere Couturek eskua tinkatzen ziola.

Dama zaharrak aurpegi tolesgabe eta oinazedun hori zuen miresten, gainerat zorientasunaren koroa jaitsia zuena. Victorinek Erdi Aroko pintura laño horietako baten eitea zuen, zeinetan artistaren pintzel jabal eta harroaren magia guztia, koadroko gainerako elementu guztiez axolakabeturik, gorde baita aurpegiarentzat, tonu horixtako bera eta zeinetan iduri baitu zeruko printza urrekarak islatzen direla.

— Ez du alabaina bi baso baino gehiago edan, ama, erran zuen Victorinek bere eriak Eugèneren adatsen pasatuz.

— Baina mozkor zirtzil bat balitz, ene alaba, arnoa bertze guztiek bezala eramane zuen. Bere mozkorak berak laudatzen du.

Kotxe baten hotsak karrikan burrunbatu zuen.

— Ama, erran zuen neskatila gazteak, horra Vautrin jauna. Har ezazu beraz Eugène jauna. Ez nuke nahi gizon horrek ene honela ikusterik, erranmolde batzuk baditu arima lohitzen dutenak, eta behako batzuk emakume bat biluztuko balute bezala minberatzen dutenak.

— Ez, erran zuen andere Couturek, oker zara! Vautrin jauna gizon ona da, apur bat Couture jaun zenaren tankerakoa, zakarra, baina zintzoa, bihotz oneko trauskil bat.

Une hartan Vautrin sartu zen emeki-emeki, eta so egin zion lanpararen argiak laztanduak irudi zuten bi haur horiek osatu taulari.

— Hara! erran zuen besoak gurutzatuz, horra ikuskari bat gure Bernardin de Saint-Pierre onari, *Paul eta Virginieren* egileari, borren orrialde ede-

rrak iradokiko zizkiotenetarik. Gaztetasuna ederra da oso, andere Couture. Gaixo mutikoa, egizu lo, erran zuen Eugèneri so, ongia lo gaudela etortzen da zenbaitetan. Anderea, segitu zuen alarguntsari mintzatuz, mutil gazte honi lotzen nauena, hunkiarazten nauena, arimaren edertasuna aurpegiaren edertasunarekin armonian duela jakitea da. Ikus ezazu, ez dea bada kerubin bat aingeru baten sorbalda gainean pausatua? maitagarria da, maitagarria denaz! Emakumea banintz, hil (ez, ez hain ergela!), bizi izan nahi nuke harengatik. Honela miresten ditudala, anderea, erran zuen ahapetik eta alarguntsaren belarrirat makurtuz, Jainkoak bata bertzearentzat egin dituela behar dut baitezpada pentsatu. Probidentziak bide ongi gordeak ditu, gogo-bihotzak ikertzen ditu, erran zuen goraki. Bat eginik ikusten zaituztedala, ene haurrak, garbitasun berak, giza sentimendu guztiek bat eginik, neure baitan diot ezinezkoa dela zuek sekula banantzea etorkizunean. Jainkoa zuzena da. Baina, erran zion neskabila gazteari, nago joritasunaren marrak ikusi ote ditudan zuregan. Emadazu zeure eskua, andereño Victorine? aditua naiz

kiromantzian, maiz erran izan dut zorte ona. Ea, ez ezazu beldurrik izan. Oi! zer ikusten dut? Ala gizon prestuaren fedea, luze gabe Pariseko primarik aberatsenetako bat izanen zara. Zorionez mukuru beteko duzu maite zaituena. Aitak bere ondorat deitzen zaitu. Gizon tituludun, gazte, eder, adoratzeko zaituen batekin ezkonduko zara.

Une hartan, behera zetorren alarguntsa lakrikunaren urrats astunek Vautrinek igarkuntzak eten zituzten.

— Horra amatto Vauquerre izar bat bezain eder, azenario bat irudi estekaturik. Ez garea bada pixka bat itotzen? erran zion eskua balenbizarren gainaldean ezarriz; bihotz-aitzinekoak ongi tinkaturik daude, amatto. Negar eginez geroz, leherketa izanen dugu, baina zaharki-zale baten artaz bilduko ditut hondakinak.

— Frantzes-jendetasunaren lengoaia badaki honek, gero! erran zuen alarguntsak andere Coutureren belarrirat makurtuz.

— Adios, haurrak, gehitu zuen Vautrinek Eugène eta Victorinerenganat itzulirik. Benedikatzen zaituztet, erran zien eskuak buru gainean ezartzen zizkiela. Sinets iezadazu, andereño, ez

dira edozer gauza jaun prestu baten desirak, zoriona behar dute ekarri, Jainkoak aditzen ditu.

— Adios, ene adiskide maitea, erran zion andere Vauquerek bere apopiloari. Uste duzua, erantsi zuen ahapetik, Vautrin jaunak enekiko asmorik ba ote duen?

— He! He!

— Ah! ene ama maitea, erran zuen Victorinek hasperen eginez eta bere eskuei behatuz, bi emakumeak bakarrik egon zirelarik, Vautrin jaun on horrek egia balio!

— Gauza bat baizik ez da behar horretakotzat baina, erantzun zuen dama zaharrak, zure anaia anker hori zalditik erortzea bakarrik.

— Ah! ama.

— Jainkoa, badaiteke bekatua den nork bere etsaiari gaizkiaren desiratzea, hasi zen berriz alarguntsa. Ongi da! penitentzia eginen dut hartaz. Egia erran, gogotsu eramanez nituzke loreak haren hilobirat. Bihotz gaiztokoa! ez du bere amaren alde mintzatzeko adorerik, eta zure kaltez haren ondasunak atxikitzen ditu azpikerien bidez. Ene lehengusinak fortuna eder bat

zeukan. Zure zorigaitzeko, sekula ez da haren ekarriaz hitz egiterik izan hitzarmenean.

— Nekeza izan lekidake maiz neure zoriona eramaten, norbaiti bere bizitza gusta balekio, erran zuen Victorinek. Eta beharrezkoa balitz, zoriontsua izateko, ene anaia suntsi ledin, nahia-go nuke zinez hemen egon beti.

— Jainkoa, Vautrin jaun on horrek dioen bezala, zeina, ikusten duzu, erlijioz betea baita, hasi zen berriz andere Couture, atseginez jakin dut hura ez dela sinesgogorra bertzeak bezala, Jainkoaz deabruaz baino are begirune gutiagorekin mintzatzen baitira. Nork dakike bada zer bidetik eraman gogo gaituen Probidentziak?

Sylviek lagunduak, bi emakumeek hondarrean Eugène bere ganbararat eraman zuten, bere ohe gainean etzan, eta kuzinersak jantziak laxatu zizkion eroso egon zedin. Joan aitzin, bere babesleak bizkarra eman ziolarik, Victorinek musu bat pausatu zuen Eugèneren bekokian ebaskeria anker horrek sorrarazi behar zion loria guztiaz. Mutilaren ganbarari so egin zion, hala erratekotz pentsamendu bakar batean egun hartako mila zoriontasunak bildu, haiekin taula bat

—luzaz behatu ziona— egin, eta Pariseko kreaturarik urosena zela lo hartu zuen. Vautrinek Eugèneri eta Goriot zaharrari arno narkotizatuaren edanarazteko baliarazi zuen ospakizunak gizon honen galtzapena ebatzi zuen. Bianchonek, erdi moxkorturik, ahortzi zuen Trompe-la-Mortez galde egitea andereño Michonneauri. Izen hori erran balu, ernaraziko zuen inolaz ere Vautrinen, edo, haren egiazko izenaren emateagatik, Jacques Collinen, espetxeetako gizandietako baten zuhurtzia. Ondoan *Venus Père-Lachaise*ko gaitzizenak deliberarazi zuen andereño Michonneau galerianoaren entregatzera noiz eta ere, Collinen eskuzabaltasunari fidaturik, bere kontuak ateratzen ari baitzen ez ote zen hobe haren jakinean ezarri eta gauez ihes egitera laguntzea. Etxetik jalgi berria zen, Poiretek lagundurik, sùreté-ko poliziburu famatuaren bila, Sainte-Anne karrika tikirat, Gondureau izeneko goienplegatu batekin tratuan ari zelakoan artean ere. Polizia Judizialaren zuzendariak atseginez hartu zuen. Gero, dena zehaztu zuten solasaldi baten ondoan, andereño Michonneauk markaren egiaztatzeko erabili behar zuen edabea eskatu

zuen. Sainte-Anne karrika tikiko gizon handiak egin zuen bozkario-zeinua ikusirik, bulegoko tiraderan potto baten bilatzean, andereño Michonneau ohartu zen ezen bazela atzemate horretan galeriano soil baten atxilotzea baino zer bait inportantagoa. Buruaren hautsiaren hautsiz, susmatu zuen ezen poliziak, espetxeetako traidoreek eginikako zenbait salaketaren arabera, garaiz heltzea espero zuela balore handi batzuen atzemateko. Bere aieruak azeri horri agertu zizkiolarik, poliziburuak irribarretsu agertu eta neskazaharraren susmoak alboratu nahi izan zituen.

— Oker zara, erantzun zuen poliziburuak. Ohoinen aldean inoiz kausitu den *sorbonnerik* galgarriena da Collin. Hori da dena. Bilauk ongi dakite hori; haien bandera da, haien sostengua, haien Bonaparte hitz batean; denek maite dute. Birigarro horrek ez digu inoiz bere *kaskoa* Grèveko plazan utziko.

Andereño Michonneauk konprenitu ez zituela eta, Gondureauk aditzera eman zion erabili zituen bi argot-hitzen erra nahia. *Sorbonne* eta *kaskoa* ohoinen hizkerako bi adierazmolde bipil

dira, ohoinak izan baitira, lehenak izan ere, giza burua bi alderdiren pean ikusi beharra atzeman dutenak. *Sorbonne* gizon biziaren burua da, haren aholkua, haren pentsamendua. *Kaskoa* da erdeinuzko hitz bat burua moztua delarik zeinen gauza guti bilakatzen den agertzea xede duena.

— Collin gutaz trufatzen da. *Ingeles* moldera suberatu altzairua bezalako gizon horiek topatzen ditugularik, badugu haien hiltzeko baliabidea baldin eta, haien atxilotzerakoan, den-mendreneko jazargoaren egitea bururatzen bazaie. Hainbat jokamolde baditugu Collinen hiltzeko bihar goizean. Horrela alde baterat utziko ditugu prozesua, zaintze-gastuak, elikadura, eta horrek gizartea lasaitzen du. Prozedurak, lekukoen sariak, haien ordainak, urkabea; zardaipazka horiek legea gordez hastanarazi nahi izanez geroz, zuk eskuratuko dituzun mila ezkutuetatik gora eginen liguke. Denbora ekonomizatzen da. Trompela-Morten urdailean baioneta-ukaldi on bat mariez, ehunka krimen eragotziko ditugu, eta berrogeita hamar lagun gaizto zuhurtasun handiz tribunal korrekzionaletik kanpo egonen direnak usteltzetik begiratuko. Horra polizi lana

taiuz egina. Egiazko filantropoen arabera, hala jokatzea krimenei aitzin hartzea da.

— Nork bere herriaren zerbitzatzea gero, erran zuen Poiretek.

— Hara! ihardetsi zuen nagusiak, zinez gauza zentzudunak erraten dituzu egun arratsean. Bai, izan ere guk herria zerbitzitzen dugu. Beraz, mundua oso bidegabea da gurekin. Ezezagunak diren zerbitzu handi-handiak egiten dizkiogu guk gizarteari. Tira, goi-mailako gizonarena da aitzin-iritzien gainean jartzea, eta kristauarena ongiak bere ondotik dakartzan zorigaitzen hartzea errezibiturikako pentsamoldeari jarraiki jokatzen ez denean. Paris Paris da, ikusten duzu? Hitz horrek esplikatzen du ene bizitza. Zure agurtzeko ohore dut, andereño. Neure lagunekin izanen naiz bihar Erregeren jardinean. Bidal ezazu Christophe Buffon karrikarat, Gondureau jaunarenerat, ni nengoen etxerat. Jauna, zure zerbitzaria naiz. Inoiz zerbait ebatsiko baldin balizute, jo ezazu eneganat hori aurki diezazugun, zeure zerbitzuko nauzu.

— Hara! erran zion Poiretek andereño Michonneauri, ergelak badira horregatik polizia

hitzaren entzute hutsak guztiz larriarazten dituenak. Jaun hori gisakoa da oso, erraza baino errazagoa eskatzen dizuna.

Biharamuneko egunak bere tokia behar zuen hartu MaisonVauquereko kondairaren egunik gogoangarrienen artean. Bizitza baketsu horren ordudainoko gertakaririk nabarmengarriena l'Ambermesnileko kondesa faltsuaren agerraldi meteorikoa izan zen. Oro zurbilduko zen ordea egun handi hartako, andere Vauqueren solasaldiek hizpide betiereko izanen zuteneko gorabeheren aitzinean. Lehen-lehenik Goriotek eta Eugène de Rastignacek hamaikak arte lo egin zuten. Andere Vauquer, la Gaîté-tik gauerdian etxeratua, hamarrak eta erdiak arte egon zen ohean. Christophe, Vautrinek eskaini arnoa bukatu zuenak, lo luzea egin zuen eta horrek zenbait luzamendu eragin zituen etxeko zerbitzuan. Poiret eta andereño Michonneau ez ziren kexatu gosaria gibelatzen zelakotz. Victorinez eta andere Couturez denaz bezainbatean, goiz osoa eman zuten lotan. Vautrin zortziak baino lehen jalgi, eta gosaria zerbitzatu zuteneantxe itzuli zen. Inork ez zuen deus erran beraz, hamai-

kak eta laurden irian, Sylvie eta Christophe ate guztietan jotzera joan zirenean, gosaria begira zeukatela erratera. Sylvie eta mutila lekutu zirelarik, andereño Michonneauk, lehena jaitsirik, edari bizia Vautrinen zilarrezko godaleterat isuri zuen, non haren kafeko esnegaina bainu-marian ari baitzen berotzen, bertze guztien artean. Neskazaharrak berezitasun hori izan zuen kontutan bere kolpearen emateko. Neke bada neke, azkenekotz zazpi apopiloak egon ziren bildurik. Eugène, nagiak ateratzen ari zena, denetan azkena jaisten zelarik, mezulari batek Nucingeneko anderearen gutun bat eskutaratu zion. Gutun horrek honela zioen:

«Ez dut ez gezurrezko banitaterik eta ez samurgorik zurekin, ene adiskidea. Gauerdiko bi orenak arte iguriki zaitut. Maite duzun izaki bat iguriki! Tormentu hori ezagutu duenak ez dio inori ere halakorik jasanarazten. Ikusten dut, bai, lehen aldikotz maite duzula. Zer agitu da bada? Bere mende nauka arrangurak. Neure bihotzeko sekretuen ezagutarazteaz beldur izan ez banintz, jakitera joanen ninduzun zer zorion edo

zer zorigaitz gertatzen zitzaizun. Baina ordu horretan jalgitzea, izan dadin oinez, izan dadin kotxez, ez zatekeen bada galtzea? Emakume izatearen malurra sentitu dut. Segurta nazazu, esplika iezadazu zergatik ez zaren etorri, aitik erran dizunaren ondoan. Samurtuko naiz, baina barkatuko dizut. Eri zarea? zergatik bizi izan horren urrun? Ongi-nahizko hitz bat. Sarri arte, ez da hala? Aski izanen dut hitz bat okupaturik bazaude? Errazu: Banoa, oinazetan nago bertzenaz. Baina osagarri txarrez bazina, aita horren erratera etorriko zitzaidan! Zer agitu da bada?...»

— Bai, zer agitu da? oihu egin zuen Eugènek, jangelarat heriosuhar joan zenak gutuna maspilduz irakurtzen bukatu gabe. Zer tenore da?

— Hamaikak eta erdiak, erran zuen Vautrinek bere kafeari azukrea erantsiz.

Galeriano ihes eginak behako hozkiro liluragarri bat jaurtiki Zion Eugèneri, zenbait gizon funtsean magnetikok egozteko dohaina ukan eta alienatuen etxeetan ero oldarkorrak jabaltzen omen dituen bera. Eugèneri gorputz-adar guz-

tiak ikaratu zitzaizkion. Kotxe baten hotsa aditu zen karrigan, eta mutil bat, Taillefer jaunaren jantzia zeraman eta andere Couturek bertan ezagutu zuena, tarrapataka sartu zen izitua irudi.

— Andereño, erran zuen, zure aita jaunak zutaz galdetzen du. Zorigaitz handi bat gertatu da. Frédéric jauna dueluan borrokatu da, ezpataukaldi bat hartu du kopetan, medikuek etsi dute haren salbatzeaz; doi-doia hari adios errateko astia izanen duzu, zentzua galdua du dagoeneko.

— Gaixo mutil gaztea! oihu egin zuen Vautri-
nek. Nolaz ibil daiteke mokoka hogeita hamar mila liberako errenta ukanik? Deblauki gazteriak ez daki bere buruaren gobernatzeko.

— Jauna! oihukatu zion Eugènek.

— Zer, bada, ume handi hori? erran zuen Vautrinek bere kafearen lasaiki edaten bukatuz. Andereño Michonneauk begiaz sobera arta handirekin zaintzen zuen egintza hori mundu guztia sor eta lor uzten zuen gertakari ohiz kanpoko hartaz hunkitzeko. Ez dea bada goiz oro duelurik izaten Parisen?

— Zurekin noa, Victorine, erran zuen andere Couturek.

Eta bi emakume horiek xalik eta kapelarik gabe aienatu ziren. Handik joan aitzin, Victorinek, begiak malkotan, honela ziotsan behako bat jaurtiki zuen Eugènerenganat: Ez nuen uste gure zorionak negarrik eginaraziko zidanik.

— Hara! profeta zara beraz, Vautrin jauna? erran zuen andere Vauquerek.

— Oro naiz ni, erran zuen Jacques Collinek.

— Bitxia da gero! segitu zuen andere Vauquerek gertakari horren ganean funtsik gabeko ele parrasta bat lerrokatuz. Heriotzak galdetu gabe atzematen gaitu. Gazteak zaharrak baino lehen joaten dira maiz. Gu, emakumeak, uros gara dueluen menpeko ez egonez; baina guk baditugu bertze eritasun batzuk gizonezkoek ez dituztenak. Haurrak egiten ditugu, eta amaren gaitzak luzaz irauten! Hau eskualdia Victorinere-na! Haren aita alabatzat hartzera bortxatua da.

— Hor duzu! erran zuen Vautrinek Eugèneri beha, atzo sosik ere ez zuen, egun goizean hainbat milioiren jabe duzu.

— Errazu, Eugène jauna, erran zuen andere Vauquerek, eskua behar zen tokian ezarri duzu.

Iruzkina horren aditzean, Goriot zaharrak ikasleari behatu eta gutun maspildua ikusi zion eskuan.

— Ez duzu bukatu! zer nahi du horrek erran? bertzeak bezalakoak ote zu ere? galdetu zion.

— Anderea, sekula ez naiz andereño Victorinerekin esposatuko, erran zuen Eugènek andere Vauqueri zuzenduz han zeudenak harritu zituen narda eta higuinezko sentimendu batekin.

Goriot zaharrak ikaslearen eskua hartu eta tinkatu zion. muinkatu nahi izanen zuen.

— Oi! oi! egin zuen Vautrinek. Italiarrek badute erranmolde on bat: *col tempo!*

— Erantzunaren begira nago, erran zion Rastignaci Nucingeneko anderearen mezulariak.

— Errozu joanen naizela.

Gizona joan zen. Eugènek haserrealdi bortitz bat zuen, eta horrek ez zuen uzten zentzudun izatera. —Zer egin! zioen goraki, bere baitan hitz eginez. Bat ere frogarik ez duk!

Vautrin irribarre egiten hasi zen. Une hartan lanean hasi zen estomakak hurrupatu zuen eda-

bea. Hala ere galerianoa hain zen sendoa non jaiki, Rastignaci behatu, eta ahots sakon batez erran baitzion: —Gazte, ongia lo gaudela etortzen zaiguk.

Eta zerraldo erori zen.

— Bada beraz justizia bat Jainkoarena, erran zuen Eugènek.

— Hara! Zer du bada, Vautrin jaun maite gaixo honek?

— Apoplexia bat, oihukatu zuen andereño Michonneauk.

— Sylvie, ea, laztana, joan hadi medikuaren bila, erran zuen alarguntsak. Ah! Rastignac jauna, joan zaitez bada fite Bianchon jaunarenerat; badaiteke Sylviek medikua, Gimple jauna, aurkituko ez duen.

Rastignac, kontent kobazulo izigarri hartatik urruntzeko estakuru bat bazuelakotz, lasterka alde egin zuen handik.

— Christophe, ea, hoa ziztuan botikarioarenerat apoplexiaren kontrako zerbaiten eske.

Christophe jalgi zen.

— Baina, Goriot, lagun gaitzazu bada haren gora eramatera, bere gelarat.

Vautrin hartu zuten, eskaileran goiti eraman eta bere ohe gainean ezarri.

— Ez zaituztet deusetan laguntzen ahal, alabaren ikustera noa, erran zuen Goriot jaunak.

— Agure zahar heurekaia! egin zuen oihu andere Vauquerek, zakur bat bezala hilen ahal haiz!

— Zoaz bada eterrik baduzun ikustera, erran zion Andere Vauqueri andereño Michonneauk zeinak, Poiretek lagundua, Vautrinen jantziak laxatuak baitzituen.

Andere Vauquer bere gelarat jaitsi eta andereño Michonneau utzi zuen jaun eta jabe gudu-zelaian.

— Ea, ken iezaiozu bada atorra eta para ezazu fite ahozpez! Egin behingoz zerbait probetxuzkoa biluztasunak ene bistatik aldaratuz, erran zion Poireti. Baba bezala zaude hor geldirik.

Behin Vautrin ahozpez ezarririk, andereño Michonneauk zaflako gogor bat eman zuen eria-
ren bizkarrean eta ondikoako bi hizkiak berrager-
tu ziren inguru gorriaren erdian zuri.

— To, zinez aise irabazi duzu hirur mila libe-
rako saria, erran zuen Poiretek Vautrin zutik atxi-
kirik, andereño Michonneauk atorra berriz ere
janzten zion bitartean. —Ufa! astuna da, gehitu
zuen Poiretek etzaten zuela.

— Zaude isilik. Diru-kutxa bat balitz hemen?
erran zuen bizi-bizia neskazaharrak paretak
zulatu nahi bide zituzten begi batzuekin, hain-
bertzeterainoko irritiaz miatzen baitzituen gan-
barako altzaririk tikienak ere. —Izkiriamahai hau
ireki ahal bageneza, edozein estakururekin!
segitu zuen.

— Hori gaizki litzateke agian, erantzun zuen
Poiretek.

— Ez. Diru ebatsia, mundu guztiarena izan
eta, inorena ez da orain. Denbora eskas dugu
baina, erantzun zuen emakumeak. Andere Vau-
quer entzuten dut.

— Hemen da eterra, erran zuen andere Vau-
querek.

— Abenturen eguna da egun! Jainkoa! gizon
hau ez daiteke eri izan, irina bezain zuri dago.

— Irma bezain zuri? errepikatu zuen Poiretek.

— Bihotza ohi bezala ari du taupaka, erran zuen alarguntsak eskua bihotzean pausatzen ziola.

— Ohi bezala? erran zuen Poiretek harriturik.

— Oso ongi dago.

— Hala uste duzu? galdetu zuen Poiretek?

— Hau da hau! lo dagoela irudi du. Sylvie mediku baten bila joan da. Aizu, andereño Michonneau, eterra usnatzen ari da. Bah! *sepasmo* (espasmo) bat da. Pultsua ona du. Idia baino sendoagoa da. Ikus ezazu beraz, andereño, zer larruzko estalkia duen estomakaren gainean; gizon hau ehun urtez biziko da! Ileordeak ongi atxikitzen dio alta. To, itsatsirik dago, gezurrezko ilea du, gogo eman gorria dela. Denak onak edo denak txarrak omen dira kaskagorriak! Ona ote beraz honako hau?

— Zintzilikatzeke ona, erran zuen Poiretek.

— Emakume polit baten lepotik nahi duzu erran, oi hu zuen bizi-bizia andereño Michonneauk. Joan zaitez bada, Poiret jauna. Guri, emakumeei dagokigu zuen artatzea eri zaretenean. Bertzalde, zertako balio duzun ikusi eta, bazoazke lasai hor barna egurastera, gehitu zuen ema-

kumeak. Andere Vauquerek eta biek behar bezala begiratuko dugu Vautrin jaun maite hau.

Poiret poliki-poliki eta murmurikatu gabe joan zen, nagusiak ostiko bat eman dion zakurraren antzera. Rastignac handik jalgia zen ibiltzeko, airearen hartzeko, giroa itogarria zen. Tenore jakinean eginikako krimen hori, bezperan nahi izan zuen eragotzi. Zer gertatu zen? Zer behar zuen egin? Ikara batean zen horretan erkide izan beldurrez. Artean ere Vautrinen odol-hotzak lotsarazten zuen.

— Bizkitartean Vautrin hitz egin gabe hil bale-
di, zioen bere baitan Rastignacek.

Luxemburgeko ibiltokiak gaindi zihoan, zakur-saldo batek lasterkatu balu bezala, eta haien saingak aditzen zituela iruditzen zitzaion.

— Eta? oihukatu zion Bianchonek, irakurri
duka *Le Pilote*?

Le Pilote zen orri erradikal bat Tissot jaunak zuzendua, eta probintzietarako, goizeko egunka-
riek baino ordu batzuk geroago, edizio bar argi-
taratzen zuena non eguneko berriak kausitzen
baitziren, orduan, departamentuetan, bertze

orriak baino hogeita lau ordu lehenago karrikaritzen zirenak.

— Berebiziko istorio bat zakarrek, erran zuen Cochin ospitaleko barnekoak. Taillefer semea dueluan borrokatu omen duk guardia zaharreko Franchessini kondearekin, zeinak bi ontzako sakonerako zauria egin baitio kopetan. Hor duk orain Victorine ttikia Pariseko anderegairik aberatsenatarik bilakatua. Hori jakin izan bagenu, ezta? Hau zoripeko jokoa heriotza! Egia dea Victorinek begi onez behatzen diala?

— Isil hadi, Bianchon, sekula ez nauk harekin esposatuko. Emakume zoragarri bat maite diat, hark maite naik, nik...

— Infidel ez izateko debaldetako eginahaletan ari baihintzan diok hori. Erakuts iezadak bada emakume bat Taillefer jaunaren fortunaren sakrifikatzeko adina balio duena.

— Deabru guztiak ote ditut bada neure ondotik? egin zuen oihu Rastignacek.

— Noren ondotik dituk bada hik? burutik ote hago? Emadak bada eskua, erran zuen Bianchonek, pultsua hartuko diat. Sukarra duk.

— Hoa bada ama Vauquerenerat, erran zion Eugènek, Vautrin gizatxar hori hilik bezala erori berria duk.

— Ah! erran zuen Bianchonek, Rastignac bakarrik utzi zuenak, egiaztatzeraz joan nahi dudan susmo batzuk baieztatzen dizkidak.

— Zuzenbideko ikaslearen ibilaldi luzea ondore handikoa izan zen. Nolazpait ere bere kontzientziaren itzulia egin zuen. Baldin eta kordokatu bazen, aztertu bazuen, ezbaian egon bazen, haren zuzentasuna behinik behin entsegu guztiak gainditu dituen burdin haga bat bezala jalgi zen eztabaida garratz eta ikaragarri horretatik. Gogorat etorri zitzaizkion Goriot zaharrak bezperan egin konfidentziak, gogorat ekarri zuen Delphinegandik hurbil, d'Artois karrikan, harentzat hautatu apartamentua; haren gutuna hartu zuen berriz, hartzara irakurri zuen, musu eman zion. —Ene salbabidea duk honelako amodio bat, erran zuen bere baitan. Agure gaixo honek franko sufritu dik bihotzagatik. Ez dik fitsik erraten bere xangrinez, baina nork ez lituzke horiek igarriko! Ongi duk! aita bat bezala artatuko diat, mila atsegin emanen zizkioat. Delphinek

maite banau, maiz etorriko duk ene etxerat egunaren haren ondoan ematera. Restaudeko kondesa handi-mandi honi purtzil hutsa duk, aita atezain eginen likek. Delphine maitea! hobea duk hura gizagaixoarentzat, maitagarria duk! Ah! egun arratsean zoriontsu izanen nauk beraz! Erlojua atera zuen, miretsi zuen. —Dena ongi heldu izan zaidak! Elkar zinez betiko maite dutenek, elkar lagun zezaketek, onar zezakeat hau. Gainera aberats eginen nauk, bai, eta bateko ehun itzultzen ahalko diat dena. Ez duk harreman honetan ez gaiztakeriarik, ez deusik bertuterik zorrotzenari bekaina zimurraraz diezaiokeenik. Hamaika jende onestek egiten ditek honelako elkarretaratzerik! Guk ez diagu inor engainatzen; eta gezurra duk zitaltzen gaituena. Gezur erratea, ez ote da uko egitea? Aspaldidanik zagok bere senarragandik bereizia. Bertalde, erranen zioat bada nik Alsaziar horri eni uzteko berak zoriontsu egin ezin duen emakumea.

Luzaz iraun zuen Rastignacen gudukak. Nahiz garaitiak gaztetasunaren bertuteentzat gelditu behar izan zuen, ezin garaituzko jakin-min batek eramana izan zen hala ere laurak eta

erdian inguruan, ilunabarrean, Maison-Vauquerantz, bere buruari betikotz utzi behar zuela zin egiten zionerantz. Vautrin hila zenetz nahi zuen jakin. Hari okarazle baten ematea bururatu ondoan, Bianchonek bere ospitalerat eramana-razi zituen Vautrinen gonbitoak, kimikoki aztertzeke xedearekin. Ikusirik eta Andereño Michonneauk zein hisiatuki nahi izan zituen botarazi, goganbeharrak sendotu zitzaizkion. Bertzalde ere Vautrin lasterregi suspertua zen Bianchonek pentsioko jostalari alegeraren kontrako konploten bat susma ez zezan. Rastignac arribatu zen tenorean, Vautrin zutik zegoen beraz sutontzitik hurbil jangelan. Taillefer semearen dueluaren berriak usaian baino lasterrago erakarriak, apopiloak, aferaren xehetasunen eta horrek Victorinereen etorkizunean izan zuen eraginaren jakiteko irrikatzen, Goriot zaharra ez bertze guztiak bildurik zeuden, eta gertakari horretaz eleketan ari ziren. Eugène sartu zelarik, haren begiek buruz buru egin zuten Vautrin izikaitzarenekin, eta haren behakoa hain zitzaion barna sartu bihotzean eta hain zizkion azkarki inarrosi hango soka gaizto batzuk, non ikaratu baitzen.

— Ongi duk! haur maitea, erran zion galeriano ihes eginak, Dama zuriak jai izanen dik luzaz enekin. Dama hauek diotenaz, idi baten akabatzeko gisako odol-kolpe bati gailendu omen natzaio.

— Ah! zezen bat ere erran dezakezu, bai; oihi egin zuen Vauquer alarguntsak.

— Haserre ote zara ene bizirik ikusteaz? erran zuen Vautrinek Rastignacen belarrirat, ikasleari pentsamenduak asmatzen zizkiola uste izan zuelarik. Gizon azkar arraio baten seinale litzateke hori.

— Ah! ala ene fedea, erran zuen Bianchonek, andereño Michonneauk *Trompe-la-Mort* izeneko gizon batez mintzatzen ari zen herenegun; izen hori ongi joanen litzaizuke.

Hitz horrek haize-gaiztoaren eragina izan zuen Vautrinengan: zurbildu eta durduzatu egin zen, haren so magnetikoa eguzki-errainu bat irudi erori zen andereño Michonneauren gainerrat, zeina ausartziazko oldar horrek lur joa utzi baitzuen. Neskazarra kadira batean hondatuz joan zen. Poiretek bipilki jo zuen aitzinerat haren eta Vautrinen artean, andereño Michonneau

arriskuan zela ohartuz, hainbertzetarainoko itxura beldurgarria baitzuen hartu galerianoaren aurpegiak egiazko izaera ezkututzen zion onbera-mozorroa edeki zuenean. Artean ere drama horretaz deus konprenitzen ez zutela, apopilo guztiak zur eta lur gelditu ziren. Une hartan, gizon batzuen pausoa aditu zen, bai eta soldadu batzuek karrikako lauzatuan atera zuten zenbait fusilena ere. Collin leiho eta hornei so eginez oharkabetarik aterabide bat bilatzen zuela, laur gizon agertu ziren saloiko aterat. Lehenbizikoa sûreté-ko poliziburua zen, bertze hirurak bake-ofizialak ziren.

— Legearen eta erregeren izenean, erran zuten ofizialetako batek haren hitzaldia harrialdurazko marmar batek ito zuelarik.

Laster isiltasuna izan zen jaun eta jabe jangelan, apopiloek bazterrerat egin zuten gizon horietako hirur iragaitera uzteko, han baitziren denak eskua saihetseko sakela barnean nor bere pistolarekin tiro egiteko prest. Agenteen ondotik heldu ziren bi jendarmek saloiko atea hartu zuten, eta bertze bi jendarme eskaileratik ateratzen zen aterat agertu ziren. Soldadu batzuen

pausoaren eta fusilen hotsa aditu zuten fatxadaren parean zihoan galtzada harriztatuan. Ihes egiteko esperantza guztiak galarazi zizkioten beraz Trompe-la-Morti, zeinarengan behako guztiak finkatu baitziren ezin-menperatuzko oldearekin. Nagusia zuzenean harenganat joan zen, hastekotz hain zartako bortitz bat eman zion buru gainean non ileordea saltarazi baitzuen eta bere laztura guztia eman Collinen buruari. Maltzurkeriaz nahasirikako itxura sendo beldurgarria ematen zieten ile gorri-nabar eta motzez hornituak, buru hori eta begitarte hori, soinarekin bat zetozenak, ernaiki argiztatuak izan ziren infernuko sugarrek argi eman bailieten. Vautrin guztia bildu zuten sugar guztiek, haren iragana, haren oraina, haren geroa, haren dotrina urrikalgaitzak, haren plazer onaren erlijioa, bere pentsamenduen, bere egitateen zinismoak, eta orotara ohitu organizazio baten indarrak ematen zioten erregetasuna. Odola aurpegirat igan zitzaion, eta begiek basakatu batenek irudi distiratu zioten. Airean itzultzen zela hain indar basatiaz beterikako mugimendu batez egin zuen jauzi, hain ongi egin zuen orro non izialdurazko

heia gorak atera baitzizkien apopilo guztiei. Lehoi-zeinu horren ikustearekin, eta harramantza orokorraz baliaturik, agenteek tiro egin zuten beren pistolekin. Collin arma guztien zakurraren distira ikusiz galzorian zela ohartu zen, eta bat-batean giza ahalmenik garaienaren froga eman zuen. Ikuskizunaren latz eta handia! haren begitarteak fenomeno bat erakutsi zuen lurrunez beterikako galdara bati baizik konpara ezin daitekeena, zeinaren indarra mendien altxatzekoa adinakoa izanik ere, ur tanto hotz batek berehalaxe deuseztatzen baitu. Gogoeta bat oinaztura bezain zalua izan zen haren errabia hoztu zuen ur tantoa. Irribarrez hasi zen eta bere ileordeari behatu.

— Egun ez duk jendetasun handiegirik erakusten, erran zion poliziburuari. Eta jendarmeei bere eskuak luzatu zizkien buru-keinu batez dei egiten ziela. Jaun jendarmeak, ezariez azkidazue eskuburdina edo erpurukoak. Hemen diren lagunak hartzen ditut lekuko gogor eginen ez dudala. Mirespenezko marmar batek, labak eta suak giza sumendi horretan jalgi eta sartzean erakutsi zalutasunak jaulkiaraziak, burrunbatu zuen sala

barnean. —Mututurik utzi haut, jaun hornitzailea, segitu zuen galerianoak polizia judizialaren zuzendari ospetsuari behatzen ziola, orain ezin burutuko duk egin asmo huena.

— Ea, has hadi biluzten, erran zion Sainte-Anne karrika tikiko gizonak destainaz beterik.

— Nolatan! erran zuen Collinek, damak daude hemen. Ez dut deus ukatzen, eta entregu naiz.

Eten bat egin zuen, eta gauza harrigarrien erratera doan hizlari baten antzera so egin zion biltzarrari.

— Izkiria ezazu, Lachapelle jauna, erran zuen agure tiki ilezuri bati mintzo zeina mahaiaren muturrean jarria baitzen diruzorro batetik atxilotaren ahozko prozedura atera eta gero. Aitor-tzen dut Jacques Collin naizela, Trompe-la-Mort deritzadana, hogeituro urtetako espetxerat kondetatu; eta frogatu berria naiz ez dudala ebatsi neure izengoitia. Eskua altxatu bertzerik egin ez banu, erran zien apopiloiei, hirur salatari hauek ene *zuku* guztia isuria zuten amatto Vauqueren etxeko *gamioaren* gainean. Hasiak ez dira, bada, ihizi hauek segaden apailatzen!

Andere Vauquer gaizki sentitu zen hitz horien aditzearekin.

— Jainkoa! eritzeko gisakoa da; atzo berean la Gaîté-n nintzen harekin, erran zion Sylvieri.

— Filosofia, amatto, hasi zen berriz Collin. Zorigaitz bat ote da atzo ene gelarat, la Gaîté-rat, joan izana? erran zuen bizi-bizia. Gu baino hobe ote zara zu? Txarkeria gutiago dugu guk bizkarrean zuek, gizarte usteldu bateko kide antsikabe horiek, bihotzean duzuen baino: zuen arteko hoberena ere ez liteke eni konpara. Haren begiak Rastignacen baitan gelditu ziren, zeinari igorri baitzion irriño grazios bat bitxiki kontrastatzen zena haren aurpegiaren itxura zakarrarekin. —Gure tratuak zutik dirau, ene aingerua, onartzez gerotan, beti ere! Badakizu? Kantuz hasi zen:

*Ene Fanchette xarmangarria da
Bere lañotasunean.*

Ez zaitez asalda, segitu zuen, nik badakit neure kobrantzen egiten. Jendeek sobera beldur handia didate eni marro egiteko!

Espetxea bere azturekin eta bere mintzairarekin, jostagarritik beldurgarriranzko bere itsumustuko iragaiteekin, bere handitasun lotsagarriarekin, bere trebantziarekin, bere ttipikeriarekin, izan zen bat-batean agerrarazia iruzkin horretan eta gizon horrek medio, zeina ez baitzen gehiago gizon bat izan, baina nazio endekatu oso baten, populu basa eta logiko, anker eta leun baten eredia. Une baten ondoan Collin poema infernutar bat bilakatu zen non giza sentimendu guztiak, bat ez bertze, urrikiarena, agertu baitziren. Behakoa oraindik ere gerla nahi duen arkanjelu eroriarena zuen. Rastignacek begiak apaldu zituen bere pentsamendu gaiztoen ordaintzat onartuz gaizkidetzat hartze hori.

— Nork saldu nau? erran zuen Collinek bere so beldurgarria biltzarraren gainean ibiliz. Eta hura andereño Michonneaurengan finkatu zuelarik: Zu zara, erran zion, atso usainkaria, gezurrezko odol-kolpe bat eman didazu, begiluze horrek! Bi hitz erranik, lepoa zerraraz niezazuke zortzi egunetan. Barkatzen dizut, kristaua naiz. Zu ez zara gainera saldu nauzuna. Nork baina? Ah! ah! hor goian miatzen duzue, egin zuen oihu

polizia judizialaren ofizialen aditzean, hauek haren armairuak ireki eta haren puskez jabetzen ari zirela. Txoriek habia hustu dute, atzo hegaldatu ziren. Eta ez duzue deus jakinen. Hemen dira ene merkatalgo-liburuak, erran zuen bere kopeta joz. Orain badakit nork saldu nauen. Fil-de-Soie zital hori baizik ez daiteke izan. Ez da hala, aita atzemailea, erran zion poliziburuari. Sobera ongi egokitzen da hori gure billeteen hor goian egotearekin. Bertzerik ez, ene salatari tti-kiak. Fil-de-Soiez denaz bezainbatean, hama-bortz egun gabe izanen da *garbitua*, baita zeure jendarmeria guztiarekin zain bazeneza ere. — Zer eman diozue Michonnette horri? erran zien poliziako jendeei, mila eskutu nonbait han? Hori baino ere gehiago balio nuen nik, Ninon herdoil-dua, Pompadour zarpazua, Venus Père-Lachaise-ko. Jakinean ezarri baninduzu, sei mila libera ukanen zenituen. Ah! ez zenuen hori susmatzen, atso haragi-saltzailea, bertzenaz eni hobetsiko zenidan. Emanen nituen, bai, gaitzitzen zaidan eta dirua galarazten didan bidaia bati itzuri egi-teko, zioen eskuburdinak ezartzen zizkioten bidenabar. Gozatu ederra hartuko dute, bai,

jende hauek amaigabeko denbora batez enekin jostatuz ni *txorabiltzeko*. Berehala espetxerat eramanez banindute, laster nintzateke berriz neure lanetan hasia, quai des Orfèvres-eko gure zozoilo ttikiak gorabehera. Han, leherrenak eta bi eginen dituzte denek beren jeneralari, Trompe-la-Mort zintzo honi, ihes eginarazteko! Bada zuetako bat, nik bezala, hamar mila haurridez goiti dituen zuregatik oro egiteko prest? galde-tu zuen harrotasunez. Bada, bai, onik hemen; erran zuen bere bihotza joz; sekula ez dut inor traditu! Beha, usainkari horrek, ikus itzazu, erran zuen neskaharrari mintzo. Ikaraz behatzen didate, baina zuk bihotza nardaz ateratzen diezu. Bit itzazu zeure mozkinak. Eten bat egin zuen apopiloiei behatzen ziela. —Zozoak alae-nak! inoiz ez duzuea galeriano bat ikusi? Colli-nen, aitzinean duzuenaren, trenpuko galeriano bat da gizon bat bertzeak bezain lazoa ez dena, eta hitzarmen sozialaren engainamendu sako-nen kontra protestatzen duena, Jean-Jacquesek dioen bezala, harro bainaiz haren ikasle izateaz. Hots, bakarrik nago gobernamentuaren kontra

bere tribunal, jendarme, buxet andanarekin, eta ziria sartzen diet.

— Futxo! erran zuen pintoreak, gogorki ederra da marrazteko.

— Erradak, monsinore borreroaren menino horrek, Alarguntsaren (izen poesia lazgarriz betea, galerianoek gillotinari ematen diotena) gobernadore horrek, gehitu zuen sùreté-ko poliziburuarenganat itzultzen zela, izan hadi haur zintzoa, erradak Fil-de-Soiek saldu nauenez! Ez nitek nahi bertze batengatik ordain lezan, ez huke bidezkoa izanen.

Une hartan haren ganbaran dena ireki eta dena inbentariatu zuten agenteak sartu ziren eta ahapetik hitz egin zioten espedizioko nagusiari. Ahozko prozedura bururaturik zegoen.

— Jaunak, erran zuen Collinek apopiloei zuzenduz, ene eramatera doaz. Denak oso gisakoak izan zarete enekin hemen egon naizen bitartean, eskerroneko izanen nauzue beti. Har itzatzue ene agurrak. Zuen baimenarekin Pro-bentzako pikuak igorriko dizkizuet. Pauso batzuk eman zituen, eta Rastignaci so egiteko bihurtu. Adios, Eugène, erran zuen ahots ezti eta triste

batez zeina haren hitzaldien doinu zakarrarekin kontrastatzen baitzen bereziki. Gogaiturik baldin bazeunden, adiskide atxiki bat utzi dizut. Bere eskuburdinengatik ere, guardian ahal izan zen jarri, arma-maisuaren dei bat egin, eta oihukatu zuen: Bat, bi! eta zangoa aitzinatu zuen. Maku- rrik izanez geroz, jo ezazu harat. Gizonak eta sosak, oro ukan dezakezu.

— Pertsonaia berezi honek behar bezainbat narrita ezarri zuen hondar hitz horietan haiek Rastignacek eta berak baizik ez konprenitu ahal izateko. Jendarmeeak, soldaduek eta polizi agenteek etxea hustu zutelarik, Sylviek, bere etxe- kanderearen lokiak ozpinez igortzen zituenak, apopilo harrituei behatu zien.

— Ongi da! erran zuen, gizon on bat zen alta.

— Erranaldi honek ikuskari horrek piztu sentimenduen jarioak eta desberdinak denen baitan sorrarazten zuten zoramena hautsi zuen. Une hartan, apopiloek, elkarren aztertzen arizan ondoan, denek batean andereño Michonneau ikusi zuten momia bat bezain zurrun, eihar eta hotz, sutontziaren ondoan kuzkurtua, begiak apalduarik, beldur izan balitz-edo bere argimalda-

ren itzala aski indartsua izan ez zedin bere beha-koen trakaren gordetzeko. Aurpegi hori, hain aspalditik bat ere begikoa ez zutena, bat-batean eman zen aditzera. Marmar batek, zeinak, bere soinu-batasun ezin hobeagatik, ahobatezko higuin bat salatzen baitzuen, burrunbada sor bat atera zuen. Andereño Michonneauk hori aditu eta hantxe gelditu zen. Bianchon, lehena, alboan zuenarenganat makurtu zen.

— Ni banoa atso honek gurekin jaten segi behar badu, erran zuen erdi-ahapetik.

Begiaren hets-ireki batez denek, Poiretek salbu, onartu zuten medikuntzako ikaslearen proposamena, zeinak, denen atxikimenduak babesturik, apopilo zaharrarenganat jo baitzuen.

— Andereño Michonneauri partikulari loturik zauden horrek, erran zion, hitz egiozu, emaiozu aditzera oraintxe berean behar duela hemendik joan.

— Oraintxe berean? errepikatu zuen Poiretek harriturik. Gero atsoarenganat ondoratu zen, eta hitz batzuk erran zizkion belarrirat.

— Baina neure egonaldia ordaindurik dago; denak bezala, ni ere neure diruagatik nago

hemen, erran zuen neskazaharrak sugedorri baten soa jaurtikiz apopiloen gainerat.

— Ez dadila hori estakuru izan, denek hainbana eginen dugu horren zuri bihurtzeko, erran zuen Rastignacek.

— Collinen jaun sustengatzailea, ihardetsi zuen andereño Michonneauk ikasleari so pozotsu eta itaunkor bat jaurtikitzen ziola, ez da zaila jakiten zergatik.

— Hitz hori aditurik, Eugènek neskazaharrrenganat oldartu eta haren itotzeko gisan egin zuen jauzi. Behako horrek, zeinaren saldukeriak konprenituak baitzituen, argi lasgarri bat jaurtiki berria zuen haren arimarat.

— Utzazu bada, oihu egin zuten apopiloek. Rastignacek besoak gurutzatu zituen eta mutu gelditu.

— Konpon dezagun behingoz andereño Judasena, erran zuen pintoreak andere Vauqueri zuzenduz. Anderea, Michonneau etxetik botatzen ez baduzu, denek utziko dugu zure etxekondoa, eta denetan erranen hemen espioiak eta galerianoak bertzerik ez dagoela. Botatzen baduzu, denak isilduko gara gertakari honen gai-

nean, bada, ororen buru, hori gizarterik hobere-
netan ere gerta liteke, harik eta galerianoak
kopetan markatu, eta Pariseko burgesez mozo-
rrotzea, bai eta hauek bezain fartsant burugabe
bihurtzea ere, horixe bertzerik ez baitira denak,
debekatzen diegun arte.

Hitzaldi horren aditzearekin, andere Vauquer
mirakuloski sendatu zen, zutitu, besoak gurutzatu,
bere begi argi eta negar arrastorik gabeak
ireki.

— Baina, ene jaun maitea, ene etxearen hon-
damena nahi ote duzu? Horra Vautrin jauna... Oi!
Jainkoa, erran zuen bere baitan bere solasa ete-
ten zuela, ezin diot neure buruari galarazi hari
bere gizon prestuaren izenarekin deitzea! Horra,
segitu zuen, apartamentu bat hutsik, eta nahi
duzua bertze bi ere ukan ditzadala alokatzeko,
mundu guztia hitz emanik dagoen sasoi hone-
tan.

—Jaunak, har ditzagun geure kapelak, eta
goazen afaltzera Sorbonneko plazarat, Flico-
teaux-enerat, erran zuen Bianchon.

Andere Vauquerek begi-zizta bakarrez hautesman zuen alderdirik abantailosena, eta andereño Michonneaurenganaino joan zen lasterka.

— Ea, ene maiteño pollit hori, zuk ez duzu ene pentsioaren heriotza nahi, ezta? Ikusten duzu zer pondutaraino hertsatzen nauten jaun hauek; igan zeure ganbararat gau honetakotz.

— Ezta pentsatu ere, oihukatu zuten apopiloek, oraintxet joatea nahi dugu.

— Afaldu gabe dago baina, andereño gaixo honek, erran zuen Poiretek doinu urrikalgarri batez.

— Nahi duen tokirat joanen da afaltzera, oihukatu zuten ahots batzuek.

— Kanporat, atso salataria!

— Kanporat, salatari guztiak!

—Jaunak, egin zuen oihu Poiretek, amodioak otzanei ematen dien kuraiaren heinerat bat-batean goratu zenak, errespeta ezazue bertze sexuko pertsona bat.

— Salatariak ez dira inongo sexutakoak, erran zuen pintoreak.

— Zorioneko sexorama!

— Kanporamarat!

— Jaunak, hau ahalkaizungarria da. Norbait bidali nahi izaten denean, moldeak behar dira zaindu. Ordaindu dugu, geldituko gara, erran zuen Poiretek burua bere kasketaz estali eta kadira batean jartzen zela andereño Michonneauren ondoan, zeina andere Vauquer limurtu nahian ari baitzen.

— Zirtzila, erran zion pintoreak irri-eragingarriro, zirtzil ziztrina, alde!

— Ea, zuek ez bazoazte, guhaur joanen gara, erran zuen Bianchonek.

Eta apopilo guztiek osteka saloi alderat egin zuten.

— Zer nahi duzu bada, andereño? egin zuen oihu andere Vauquerek, errekan nago. Ez zaitezke hemen geldi, bortxakeriazko zerbait eginen dute azkenean.

Andereño Michonneau jaiki zen.

— Joanen da! —Ez da joanen! —Joanen da! —Ez da joanen! Aldizka erranikako hitz horiek, eta harenganat erakusten hasiak ziren egin-asmoen etsaigoak, handik partizera behartu zuten andereño Michonneau, ostalersarekin ahapetik egin zenbait itunen ondoan.

— Andere Buneaudenerat joanen naiz, erran
zuen mehatxukor.

— Zoaz nahi duzun tokirat, andereño, erran
zuen andere Vauquerek, zeinak irain krudel bat
ikusi baitzuen andereño Michonneauk egiten
zuen hautuan, etxe horrekin zeingehiagoka ari
baitzen eta horren ondorioz gorrotagarria baitzi-
tzaion. Zoaz Buneaudenerat, ahuntzen dantza-
razteko gisako arnoa izanen duzu, bai eta purtxi-
leroari erosi azpilak ere.

Apopiloak bi lerrotan jarri ziren isiltasunik
handiengan. Poiretek hain zion samurkiro beha-
tu andereño Michonneauri, hain zen lañoki ager-
tu ez norat-ez harat, non apopiloek, kontent
andereño Michonneau bazihoalakotz, irriz hasi
baitziren elkarri behatuz.

— Xi, xi, xi, Poiret, oihukatu zion pintoreak.
Ea, upa! eupa! Museumeko enplegatua irri-era-
gingarriro hasi zen kantatzen erromantza eza-
gun baten hastapen hau:

*Syriarat partiturik,
Dunois gazte eta ederra...*

Zoaz bada, inbidia akabatzen zaude, *trahit sua quemque voluptas*, erran zuen Bianchonek.

— Ar bakoitza bere emeari jarraiki zaio, Virgilioren itzulpen libroa, erran zuen errepikatzaileak.

Andereño Michonneauk Poireti behatuz haren besoaren hartzeko keinua egin zuelarik, agureak ez zuen dei horri jazartzerik ukan, eta atsoari bere sostenguaren ematera etorri zen. Esku zarta batzuk lehertu ziren, eta irri-leherketa bat izan zen. —Biba hi, Poiret! —Poiret xahar hau! —Poiret-Apolo. —Poiret-Martitz. —Poiret kemen-tsua!

Une hartan, mezulari bat sartu zen, gutun bat eman zion andere Vauqueri, zeina bere kadiran hondatuz joan baitzen, hura irakurri eta gero.

— Ene etxeari su ematea bertzerik ez da gelditzen baina, ortzantza eroria da hemen. Taillefer semea hiruretan hil omen da. Ontsa gaztigaturik nago dama horiei ongiaren desiratu izanaz mutil gazte horren kaltetan. Andere Couturek eta Victorinek beren gauzak eskatzen dizkirate, eta neskatoaren aitarenerat doaz bizitzera. Taillefer jaunak baimena ematen dio bere alabari

Couture alarguntsa konpainiako andereño gisa hartzeko. Laur apartamentu hutsik, bortz apopilo gutiago! Andere Vauquer jarri eta negar egitear egon bide zen. —Zorigaitza sartu zait etxerat, egin zuen oihu.

Gelditzen ari zen kotxe baten gurpil-hotsak burrunbatu zuen karrikan brastakoan.

— Bertze makurren bat, erran zuen Sylviek.

Goriotek supituki begitarte distirant eta zorionez arraitua erakutsi zuen, biziberritzen ari zela pentsaraz zezakeena.

— Goriot kotxean, erran zuten apopiloek, munduaren azkena etorria da.

Gizagaixoa zuzen Eugènerenganat joan zen, zeina zoko batean pentsakor baitzegoen, eta besotik hartu zuen: —Zatoz, erran zion alegera-ki.

— Ez ote dakizu baina zer gertatzen den? erran zion Eugènek. Vautrin oxtion atxilotu duten galeriano bat zen, eta Taillefer semea hil da.

— Eta! zer axola digu horrek? erantzun zuen Goriot zaharrak. Neure alabarekin afaltzekoa

naiz, zure etxean, aditzen duzua? Zure begira dago, zatoz!

Hain bortizki tira egin zuen Rastignacengandik, non halabeharrez ibilarazi baitzuen, eta irudiz bere amorantea izan bailuen altxatu zuen.

— Afal gaitezen, oihukatu zuen pintoreak.

Istant batez denek beren kadirak hartu eta mahairat jarri ziren.

— Errate batera, erran zuen Sylvie Iodiak, zorigaitza bertzerik ez dugu egun, ene bildots gisatua erre egin da. Bah! errea jan beharko duzue!

Andere Vauquerek hitz baten ere errateko adorerik ez zuen izan hamazortzi beharrean hamar lagun baizik ikusten ez zituelarik bere mahaiaren inguruan: baina denak entseatu ziren haren kontsolatzera eta haren alegeratzera. Lehenbizian kanpokoek Vautrin eta eguneko gertakariak ibili bazituzten hizpide, laster egin zioten men beren solasaldiaren ibilgoaren sigisagari, eta dueluez, espetxeaz, justiziaz, berregin beharreko legeez, presondegiez, mintzatu ziren. Gero Jacques Collin, Victorine eta haren anaiagandik mila lekoatarat kausitu ziren.

Hamar baizik ez izanik ere, hogeiren pare egin zuten oihu, eta irudi zuten usaian baino anitz gehiago zirela; horra afari honen eta bezperakoaren artean izan zen alde guztia. Mundu berekoi horrek, biharamunean Pariseko egunoroko gertakarietan irensteko bertze harrapakin bat aurkituko zuenak, ohi zuen ezaxolkeria nagusitu zen berriz, eta andere Vauquer bera ere baretu zen Sylvie Iodiaren ahotsak zabaldu zuen esperantzarekin.

Egun horrek fantasmagoria bat behar zuen izan arratsera arte Eugènerentzat, zeinak, bere izaeraren indarra eta bere buruaren ontasunagatik, bere ideiak nola sailka ez baitzekien, noiz eta ere kotxean Goriot zaharraren aldean gertatu baitzen, zeinaren kalamatikek halako ohiz kanpoko bozkarioa salatzen baitzuten, eta, hainbertze bihotz-hunkiduraren ondoan, ametsetan aditzen ditugun hitzek bezalako hotsa ateratzen baitzuten haren belarrian.

— Fini goiz honetatik goiti. Hirurak elkarrekin afalduko gara, elkarrekin! Konprenitzen duzua? Laur urte badira ez naizela afaldu neure Delphinerekin, neure Delphine ttikiarekin. Behingoz

neuretzat edukiko dut arrats osoan. Zeure etxean gara goiz honetatik. Peoi batek bezalaxe egin dut lan, mahuka motzetan. Altzarien erama-tera laguntzen nuen. Ah! ah! ez dakizu zein gisa-koa den mahaian, ene arta hartuko du: «Hartu, aitatto, jan ezazu bada honetarik, gozoa da eta.» Eta orduan nik ezin jan. Oi! badu aspaldi ez nai-zela harekin lasai izan orain izanen garen beza-la!

— Baina, erran zion Eugènek, mundua uzka-
lia ote dago beraz?

— Uzkaillia? erran zion Goriot zaharrak. Ezein denboratan ez da mundua hain ongi izan gero. Aurpegi alegerak baizik ez ditut ikusten karri-
tan, eskuak elkarri eman eta batzuek bertzeak besarkatzen dituzten jendeak: jende zoriontsuak denak beren alabenerat afaltzera joanen bailiran afari ttiki eder batez, ene aitzinean des Anglois kafeko chef-ari manatu dionaz, *sabelaren bete-
tzera*. Baina bah! haren ondoan lerdamina ez-tia bezain gozoa litzateke.

— Bizitzarat itzultzen naizela uste dut, erran zuen Rastignacek.

— Baina laster ibil zaitez, karrozaina, oihukatu zuen Goriot zaharrak aitzineko kristala irekiz. Zoaz bada lasterrago, ehun sos emanen dizkizut eskupekotzat hamar minutuan zuk dakizun tokirat eramaten banauzu. Agintza hori aditurik, karrozainak Paris oinazturaren zalutasunaz iragan zuen.

— Karrozain han geldirik dago, zioen Goriot zaharrak.

— Baina norat naramazu bada? galdetu zion Rastignacek.

— Zeurerat, erran zuen Goriot zaharrak.

Kotxea d'Artois karrikan gelditu zen. Gizagai-xoa lehena jaitsi zen eta hamar libera jautiki karrozainari, bere gozamenaren paroxismoan deusi kasurik egiten ez dion gizon alargun baten eskuzabaltasunaz.

— Ea, igan gaitezen, erran zion Rastignaci baila bat iraganarazten ziola eta berekin zera-mala hirugarren solairuan zegoen apartamentu bateko aterat, etxe berri eta itxura ederreko baten gibelaldean. Goriot zaharrak ez zuen hots egin beharrik izan. Thérèsek, Nucingeneko anderearen andere ganbarazainak, atea ireki zien.

Eugène mutilentzako apartamentu zoragarri batean suertatu zen, aitzinganbara batek, saloi tiki batek, logela batek eta jardín baten gainerat ematen zuen kabinet batek osaturikakoan. Saloi tikian, zeinaren altzariak eta apaingailuak ezbairik gabe zen politenari, zen graziosenari konpara baitzitezkeen, Delphine ikusi zuen kandelen argirat, supazter ondoko zizailu batetik jaiki, bere babesgailua tximinia gainean ezarri, eta samurtasunez beterikako ahots-intonazio batez erranziona: —Zure bila behar izan dugu joan beraz, jaun fisik konprenitzen ez duzun hori.

Thérèse jalgi zen. Ikasleak Delphine bere besoetan hartu zuen, bizi-bizia besarkatu eta bozkarioz egin zuen negar. Ikusten zuenaren eta ikusi berria zenaren arteko alde bortitz horrek, hainbertze sumindurak bihotza eta burua unatu zizkioten egun batean, sentikortasun-esetsaldi nerbios bat sorrarazi zuen Rastignacen baitan.

— Banekien, bai, nik maite zintuela, erranzion isil-isila Goriot zaharrak bere alabari Eugène lur joa zizailuan zetzan bitartean hitzik ere ezin erranez eta artean ere ezin hautemanez nola agitua zen hondar sorgindura hori.

— Baina zatoz bada ikustera, erran zion Nucingeneko andereak eskutik hartu eta bertze ganbara baterat eramanez zeinaren tapizek, altzariek eta xehetasunik ñimiñoenek, hein tikiagoetan, Delphinerena oroitarazi baitzioten.

— Ohe bat eskas du, erran zuen Rastignacek.

— Bai, jauna, erran zuen Delphinek ahalke-tzen zela eta eskua tinkatzen ziola.

Eugènek so egin zion, eta, artean ere gazte, maite duen emakume baten bihotzean egiazko ahalketik zen guztia konprenitu zuen.

— Beti ere adoratu beharreko kreatura horie-tarik zara, erran zion belarrirat. Bai, ausartzen naiz zuri horren erratera, elkar honen ongi adi-tzen dugunaz geroz: zenbat eta bizi eta zintzoa-goia baita amodioa, hainbat eta estaliagoa, hainbat eta misteriosagoa behar du izan. Ez diezaio-gun geure sekretua inori eman.

— Oi! ni ez naiz nornahi izanen, erran zuen Goriot zaharrak marmarka.

— Ongi dakizu zu *gu* zarela, zu...

— Ah! horixe nahi nuen nik. Ez duzue nitaz konturik egingen, ezta? Joan eta etorri ibiliko naiz,

orotan den eta hura ikusi gabe han dela badakigun izpiritu on bat bezala. Ongi da!

Delphinette, Ninette, Dedel! ez ote dut arrazoirik ukan zuri errateko: «Bada apartamentu polit bat d'Artois karrikan, jantz dezagun haren-tzat!» Zuk ez zenuen nahi. Ah! ni naiz zure boz-karioaren egile, zure egunen egile naizen beza-la. Gurasoek beti ere behar dute eman zorion-tsuak izateko. Ematea beti, horrexek du aita iza-tea egiten.

— Nola? erran zuen Eugènek.

— Bai, hark ez zuen nahi, beldur zen jendeek tontakeriak erranen ote zituzten, munduak zorio-na balioko balu bezala! Baina emakume guztiek amesten dute hark egiten duenaren egitea.

Goriot zaharra bera bakarrik mintzo zen, Nucingeneko andereak Rastignac kabineterat eramana zuen non musu baten hotsa aditu bai-tzen, nahi den bezain azaletik hartua izan bazen ere. Gela hori bat zetorren apartamentuaren, bertzalde deusen eskasik ez zuenaren, sotiltasun-arekin.

— Ongi asmatu ditugua zure gustuak? erran zuen Delphinek saloitik itzultzen zela mahaian jartzeko.

— Bai, erran zuen Eugènek, sobera ongi. Ondikotz! luxu hain erabateko hau, amets eder egia bilakaturikako hauek, bizitza gazte, sotil baten poesia guztiak, gehiegi estimatzen ditudaien merezient ez izateko; baina ez ditzaket zugandik onets, eta oraindik sobera pobrea naiz...

— Ah! ah! hasia zara eni gogor egiten, erran zuen Delphinek halakoxe larderia jostagarriarekin haren hobeki uxatzekotz kezka batez trufatu nahi dutenean emakume guztiek egiten duten sino-mino polit horietako bat eginez.

Eugène sobera handikiro egona zen bere buruarekin egun horretan, eta Vautrinen atxilotak, amiltzeko zorian izan zen leizearen sakontasuna erakusten ziola, sobera ongi frogatu berriak zituen bai haren sentimendu prestuak eta bai haren urguritasuna bere asmo jenerosen arbuiapen ferekagarri horri men egin ziezaion. Tristura sakon bat jabetu zen ikasleaz.

— Nola! erran zuen Nucingeneko andereak, ezetz erran zenezakea? Badakizua zer nahi duen erran halako ezetz batek? Zalantzak dituzu geroaz, ez zara ausartzen eni lotzera. Beldur ote zara bada ene maitasunari traizio egiteaz? Maite baldin banauzu, maite... baldin bazaitut, zertaz egiten duzu gibelerat hain eginbide arinen aitzinean? Jakin bazeneki izan dudan atsegina mutilentzako ostilamendu honetaz guztiaz artatzen, zalantzarik izan ez eta barkazioa eskatuko zenidake. Zure dirua baneukan, eta ongi erabili dut, hori da dena. Handia zarela uste duzu, eta tikia zara. Oraindik gehiago eskatzen... (Ah! erran zuen Eugènerengan behako suhar bat atzemanetz) eta fazoinak egiten zozokeria batzuengatik. Ez baldin banauzu bat ere maite, oi! bai, ez ezazu onar. Ene zortea hitz batean dago. Mintza zaitetz! Baina, aita, errozuz bada zenbait arrazoi on, gehitu zuen aitaren alderat itzuliz eten baten ondoan. Zer uste ote du, ez naizela bera bezain minberakorra gure ohoreaz?

Goriot zaharrak triaka baten irriño aldaezina zuen eztabaida pollit horren ikustean, entzutean.

— Ume! bizitzaren sarreran zara, segitu zuen Delphinek Eugèneren eskua hartuz, hesi bat anitz jenderentzat ezin-gaindituzkoa topatzen, emakume baten eskuak irekitzen, eta gibelerat egiten! Baina ongi helduko zara, fortuna distirant bat eginen duzu, arrakasta izkiriaturik daukazu zeure bekoki ederrean. Ez didazu orduan errendatu ahal izanen egun maileguz ematen dizudana? Behiala ez ote zizkieten bada damek beren zaldunei ematen armadurak, ezpatak, kaskoak, kota-mailazkoak, zaldiak, zaldunguduetan haien izenean gudukatzera joan ahal izan zitezten? Entzun bada, Eugène! nik eskaintzen dizkizudan gauzak garai honetako armak dira, zerbait izan nahi duenak beharrezko dituen lanabesak. Polita da, bai, zure sabaia, badu gainera aitaren ganbararen eiterik. Zer bada, ez garaia afalduko? Tristatu nahi nauzua? Erantzun ezazu beraz! erran zuen eskua inarrostean ziola. Jainkoa, aitatto, deliberaraz ezazu bada, edo banoa eta sekula ez dut berriz ikusiko.

— Deliberaraziko zaitut, erran zuen Goriot zaharrak bere estasitik jalgirik. Ene Eugène jaun

maitea, juduenganat joaten zara diru mailegatzera, ezta?

— Beharko joan, bai; erran zuen ikasleak.

— Ongi da, nik mantenduko zaitut, segitu zuen gizagaixoak larruzko diruzorro ziztrin arrunt higatu bat ateraiaz. judu egin naiz, faktura guztiak ordaindu ditut, hementxe dituzu. Xentimo bat ere ez duzu zor hemen dagoen guztiagatik. Ez du dirutza handirik egiten, bortz mila libera gehienaz ere. Maileguz ematen dizkizut nik. Ez didazu errefusatuko, ni ez naiz emakume. Onartze-agiri bat eginen didazu paper-pusketa batean, eta gero bihurtuko dizkidazu.

Negar batzuk isuri ziren batean Eugèneren eta Delphineren begoetan, zeinek harriturik elkarri behatu baitzioten. Rastignacek eskua gizagaixoari luzatu eta tinkatu zion.

— Eta? Zer, ez zaretea bada ene haurrak? erran zuen Goriotek.

— Baina, aita gaixoa, erran zuen Nucingeneko andereak, nola egin duzu bada?

— Ah! helduak gara horretarat, erantzun zuen aitak. Haren zeure ondoan ematera deliberratua izan zaitudalarik, esposandere batentzako

bezalako gauzak erosten ikusi zaitudalakotz, erran dut neure baitan: «Arazoak izanen ditik!» Abokatuak dio ezen zure senarrari jauki beharreko prozesuak, zure fortunaren errendaraztekoak, sei hilabetetik gora iraunen duela. Ongi da. Neure bizi-guztiko errentaren mila hirurehun eta berrogeita hamar liberak saldu; hamabortz mila liberarekin, mila eta berrehun liberako bizisari ongi hipotekatuak egin, eta zuen dendariei ordaindu diet kapitalaren gainerakoarekin, ene haurrak. Nik badut hor goian ganbara bat urteko berrogeita hamar ezkututan, printze bat bezala bizi naiteke eguneko berrogei sosekin, eta sobe-rakinak ere ukanen ditut. Ez dut deus gastatzen, jantzi beharrik ere ez dut abantzu. Badu hama-bortz egun isil-gordeka irriz nabilela neure bai-tan diodala: «Zeinen zoriontsuak izanen diren!» Zer bada, ez zarete zoriontsuak?

— Oi! aitatto, aitatto! erran zuen Nucingene-ko andereak aitarenganat jauzi eginez zeinak bere belaunetan hartu baitzuen. Alabak musuz josi zuen, masailak ferekatu bere bilo horiekin, eta negar-malkoak isuri aurpegi zahar loriatu eta arraitsu horren gainerat. —Aita maitea, aita bat

zara zu! Ez, ez da zu bezalako bi aitarik zeruaren azpian. Eugènek lehendik ere maite zintuen, zer izanen da orain!

— Baina, ene haurrak, erran zuen Goriot zaharrak zeina azken hamar urtean aditu gabe egona baitzen alabaren bihotza berean taupaka, baina, Delphinette, bozkarioz nahi ote nauzu hilarazi? Ene bihotz gaixoa erdiratzen da. Ea, Eugène jauna, kito gara jadanik! Eta agureak hain besarkada basatia, hain besarkada suharra ematen Zion bere alabari non honek erran baitzuen: —Ah! min ematen didazu. —Min eman dizut! erran zuen aitak zurbiltzen zela. Gizakiaz goitiko min-aurpegiaz behatu zion alabari. Aitatasunaren Kristo honen begitartearen ongi pintatzekotz, konparazio bila behar litzateke joan paletaren printzeek gizonen Salbatzaileak jendeen onetan pairaturikako pasioaren pintatzeko asmatu dituzten irudietan. Goriot zaharrak ezti-eztia muinkatu zuen haren eriek sobera hertsaturikako gerria. —Ez, ez, ez dizut minik emanen; ez, segitu zuen irriño bat eskatzen ziola; zuk didazu min eman zeure garrasiarekin. Hori garestiagoa da, erran zuen alabaren belarrirat

belarri horri begiratuki muinkatzen ziola, baina harrapatu egin behar dugu, bertzenaz samurtuko litzateke.

Eugène harriturik zegoen gizon horren ezinagortuzko arduragatik, eta gazte-denboran fedetik datorren mirespen xalo hori zeriola so egiten zion

— Honen guztiaren dina izanen naiz, erran zuen.

— Ô ene Eugène, ederra da erran berri duzuna. Eta Nucingeneko andereak bekokian eman zion musu ikasleari.

— Andereño Tailleferi eta haren milioiei egin die uko zugatik, erran zuen Goriot zaharrak. Bai, maite zintuen neskatikoak; eta, haren anaia hilik, horra orain aberats Crésus bezala.

— Oi! zergatik erran behar? galdetu zuen Rastignacek.

— Eugene, erran zion Delphinek belarrirat. Pena dut orain arrats honengatik. Ah! maiteko zaitut, bai, nik! eta beti.

— Hauxe da ezkondu zinetenaz geroztik izan dudan egunik ederrena, erran zuen Goriot zaharrak. Plazer duen bezainbat sufriarazten ahal

nau Jainkoak, zuengatik ez den ber erranen dut neure baitan: Urte hartako otsailean, lipar batez zoriontsuagoa izan nintzen gizonak bizitza guztian izan daitezkeena baino. So egidazu, Fifine! erran zion bere alabari. Hagitz emakume ederra da, ezta? Erradazu beraz, anitz emakume aurkitu dituzua haren traka pollita eta haren masailako xiloa dutenak? Ez, ez da hala? Ni nauzu, bada, emakume maitagarri hau egin dudana. Hemen-dik aitzinerat, zuregatik zoriontsu kausitzen delarik, mila aldiz hobe bilakatuko da. Infernurat joan naiteke, ene auzoa, erran zuen, ene paradisu-zatia behar baldin baduzu, emanen dizut. Jan dezagun, jan dezagun, segitu zuen jadanik ez zekiela zer zioen, mundua gurea da.

— Aita gaixoa!

— Jakin bazeneki, ene haurra, erran zuen Goriot zaharrak jaiki eta alabarenganat zihoala, burua hartu eta txirikorden erdian musu ematen ziola, zeinen egin nazakezun zoriontsu oso prezio merkean! etor zaitez noiz edo noiz ene ikustera, hor goian egonen naiz, pauso bat baizik ez duzu eman beharrik izanen. Hitz emadazu, otoi!

— Bai, aita maitea.

— Errazu bertze behin.

— Bai, aita maitea.

— Isil zaitez, ehun aldiz erranaraziko nizuke neure buruari kasu egitera. Afal gaitzen.

Arratsa oso-osorik haurkerietan eman zuten, eta Goriot zaharra ez zen alta hiruretan burutsuena izan. Alabaren oinetan etzaten zen haien musukatzeko; luzaz behatzen zion begietarat; bere burua igurzten zuen haren soinekoaren kontra; hots, maitalerik gazte eta beratzenak egiten ahal zituenak bezalako zorakeriak egiten zituen.

— Ikusten duzu? erran zion Delphinek Eugèneri, aita gurekin denean, osoki harentzat izan behar dugu. Ontsa gogaikarria izanen da alta hori batzuetan.

Eugènek, bere baitan jadanekotz jeloskortasun-mugimendu bat baino gehiago atzemanak zituenak, ez zezakeen gaitzets hitz hori, esker-gabekeria guztien hatsarria gordetzen zuena bera.

— Eta noiz egonen da apartamentua bukatu-rik? erran zuen Eugènek ganbararen inguruan

behatzen zuela. Aldaratu beharko ote dugu beraz egun gauean?

— Bai, baina bihar enekin afaltzera etorriko zara, erran zuen Delphinek halako finezi airez. Bihar Italiarretako eguna dugu.

— Ni parterrerat joanen naiz, erran zuen Goriot zaharrak.

Gauerdia zen. Nucingeneko anderearen kotxea begira zegoen. Goriot zaharra eta ikaslea Maison-Vauquererat itzuli ziren Delphinez gero eta sutsuago solastatuz, horrek adierazmolde-guduka bitxi bat sorrarazi zuelarik bi grina bortitz horien artean. Eugènek ez ziezaiokeen gorde bere buruari ezen aitaren amodioak, inolako interes pertsonalek orbaintzen ez zuenak, bera-rena garaitzen zuela bere irauntasun eta zabal-tasunagatik. Idoloak aratz eta eder irauten zuen aitarentzat, eta haren adorazioa handitzenago zen hala iragan guztiaz nola geroaz ere. Andere Vauquer aurkitu zuten bakarrik bere sutontzia-ren zokoan, Sylvie eta Christopheren artean. Marius Cartagoko hondakinetan bezalaxe ageri zen han ostalera zaharra. Gelditu zitzaizkion bi apopilo bakarren begira zegoen, Sylvieri konta-

tuz bere atsekabeak. Nahiz Lord Byronek Tassori aski deitore ederrak eman dizkion, hagitz urrun daude horiek andere Vauquerek isurtzen zituenen egiazkotasun sakonetik.

— Hirur kikara kafe soilik egin beharko ditugu hortaz bihar goizean, Sylvie. Ene etxea hutsik, aizu! Ez dea bihotz-erdiragarria? Zer da bizitza ene apopiloak gabe? Hutsa. Horra ene etxea janzen zuten bere gizonez gabeturik. Bizitza altzarietan da. Zer egin ote diot zeruari hondamendi hauek guztiak erakartzeko? Hogeitaz eginak ditugu ilar eta lursagar hornidurak. Polizia ene etxean! Lursagarrak bertzerik ez dugu bada janen! Christophe bidaliko dut beraz!

Saboyarra, lo baitzegoen, bat-batean itzarri, eta erran zuen:

— Anderea?

— Gaixo mutikoa! Artzanor bat bezain leiala da, erran zuen Sylviek.

— Sasoi hil bat, mundu guztia kokatua dago. Nondik etorriko ote zait apopilorik? Burua galduko dut honegatik. Eta Michonneau sorgin horrek Poiret ere ebasten gainera! Zer egiten ote zion

bada xakur baten pare jarraiki zaion gizon hori berari hola lotzeko?

— Ah! Demontre! egin zuen Sylviek burua higituz, atso zahar horiek badakite, bai, amarrukerietan.

— Vautrin jaun gaixo hori galerianotzat hartu dutena, segitu zuen alarguntsak, hara! Sylviek, ni baino gogorragoa da hau, ez dut oraindik sinesten. Holako gizon alegera bat, hilabete oro hamabortz liberaren gloriak hartzen zituena, eta hondar soseraino ordaintzen zuena!

— Eta hain eskuzabala! erran zuen Christophe.

— Huts egin dute, erran zuen Sylviek.

— Inondik ere ez, berak aitortu du, hasi zen berriz andere Vauquer. Eta erratea ere gauza horiek denak ene etxean gertatu direla, katu bat bera ere pasatzen ez den auzo batean! Ala emakume onestaren fedea, ametsetan nago. Bada, ikusten duzu, ikusia dugu Louis XVI.a bere istripuaren izaten, ikusia dugu Enperadorea erortzen, ikusia dugu berriz etortzen eta berriz erortzen, hori guztia gauza posibleen artean zen; pentsio burgesentzat bat ere halako menturarik

ez den bitartean: pasa gaitezke erregerik gabe, baina egun oro jan beharra dugu; eta emakume prestu batek, sortzez de Conflans denak, hagitz jenero onarekin ematen duenean jatera, non ez datorren munduaren azkena... Baina, horixe da bada, munduaren azkena da.

— Eta pentsatzea ere andereño Michonneauk, makur hau guztia egin dizunak, orain, diotenaz, mila ezkutuko errenta bilduko duela, erran zuen Sylviek.

— Ez iezadazu hartaz hitz egin, emagaldu bat bertzerik ez da! erran zuen andere Vauquerek. Eta Buneaudenerat doa, gainera! Zernahi egiteko gauza da baina, izigarrikeriak egin izan behar ditu, hil, ebatsi egin du bere denboran. Berak behar luke espetxerat joan zorigaiztoko gizon maite horren lekuan...

Une hartan Eugènek eta Goriot zaharrak dei egin zuten.

— Ah! horra ene bi fidelak, erran zuen alarguntsak hasperen eginez.

Bi fidelek, pentsioaren hondamendiez oroitzen tiki bat baizik ez zutenek, zeremoniarik

gabe jakinarazi zioten beren ostalersari Chaus-sée-d'Antinerat bizitzera zihoazela.

— Ah! Sylvie! erran zuen alarguntsak, horra ene azken eskualdia. Heriotzaren ukaldia eman didazue! erraieran jo nau horrek. Hesi bat dut hemen. Horra egun bat buru gainean hamar urte gehiago ematen dizkidana. Erotuko naiz, ene ohorezko hitza! Zer egin ilarrekin? Ah! ongi duk, bakarrik banago hemen, bihar alde egingen duk, Christophe. Adios, jaunak, gauon.

— Zer du bada? galdetu zion Eugènek Sylvieri.

— Arraioa! mundu guztia partitua duzu kalapiten ondorioz. Horrek burua nahasi dio. Ea, negarrez aditzen dut. On egingen dio *marraka egiteak*. Lehenbiziko aldia da begiak bustitzen dituela haren zerbitzutan nagoenetik.

Biharamunean, andere Vauquer, haren erranmoldeari jarraiki, *zentzaturik* zegoen. Atsekabetu irudia izan bazuen apopilo guztiak galdu eta bizitza itzulipurdikatua zuen emakume baten gisan, burua osorik zeukan, eta egiazko mina zer zen zuen erakutsi, min barna bat, interes maskalduak, ohitura hautsiek eraginikako mina. Iza-

nez ere, gizon maiteminduak bere maitea bizi izan den lekuetarat, hauetatik aldendu behar duenean, jaurtikitzen duen behakoa ez da tristeagoa andere Vauquerek bere mahai hutsaren gainerat zuzendu zuena baino. Eugènek kontsolatu zuen ziotsala ezen Bianchon, barnetegia egun batzuen buruan bukatuko zuena, beraren ordeztorriko zela dudarik gabe; Museumeko enplegatuak maiz erakutsia zuela andere Coutureren apartamentuaren ukaiteko gogoia, eta egun guti barne betea izanen zuela pentsioa berriz.

— Oxala, ene jaun maitea! baina zorigaitza hemen da. Hamar egun gabe, herioa etorriko da, ikusiko duzu, erran zion ostalersak behako ilun bat jaurtikiz jangelarat. Nor eramaten ote du!

— Tenore ona da alda egiteko, erran zion isilisila Eugènek Goriot zaharrari.

— Anderea, erran zuen Sylviek iziturik lasterka helduz, hirur egun badira ez dudala Mistigris ikusi.

— Ah! tira, katua hil bazait, alde egin badi-gu,...

Alarguntsa gaixoak ez zuen bukatu, eskuak batu zituen eta bere besaulkiaren bizkarrerat erori, iragarpen latz horrek lur joa.

Eguerdi alderat, postariak Panthéoneko auzorat arribatzen zireneko orduan, Eugènek gutun bat hartu zuen sotilki bildua, Beauséante-ko armekin zigilatua. Barnean bazuen gonbit-agiri bat Nucingeneko jaun-andereei zuzendua hilabete batez geroz iragarririk zegoen eta bizkondesarenean egitekoa zen dantzaldi handirat joatekoa. Gonbit-agiri horrekin batean hitz labur batzuk ere baziren Eugènerentzat:

«Pentsatua dut, jauna, ezen atseginez har zenezakeela zeure esku ene sentimenduen berri ematea Nucingeneko andereari; eskatu didazun gonbit-agiria igortzen dizut, eta bozkario handia izanen da enetzat Restaudeko anderearen eza-gutzen egitea. Ekar iezadazu beraz pertsona maitagarri hori, eta eginahalak egin zure bihotz guztiaz jabe ez dadin, anitz zor didazu nik ematen dizudanaren ordainez.

«BEAUSÉANTEko Bizkondesa.»

— Baina, erran zuen bere baitan Eugènek txartel hori berriz irakurriz, Beauséanteko andereak aski garbiki erraten zidak ez duela deus jakin nahi Nucingeneko baroiarekin. Delphinere nerat joan zen zalu, kontent hari bozkario baten, dudarik gabe bere saria ekarriko zuenaren, eman ahal izateaz. Nucingeneko anderea bainuan zegoen. Rastignacek apaingelan iguriki zuen, guztiz urduri, bere maiteaz, bere desiren xedeaz gozatzeko urtebetez iguriki duen mutil maiteminduaren irrikaz. Gazteen bizitzan bitan aurkitzen ez diren bihotz-hunkidurak dira horiek. Egiazko lehen emakumea zeinari gizon bat lotzen baitzaio, erran nahi baita gizon horri Pariseko gizarteak nahi dituen edergailu guztien distirarekin agertzen zaion emakumea, horrek ez du behin ere lehiakiderik. Amodioak Parisen ez du bertze amodioen inolako antzik. Ez gizonak eta ez emakumeak dituzte han titulikatzen herabetasunez nork bere maitasun ustez desinteresatuen gainean hedatzen dituen egia arruntez apaindurikako erakuskizunekin. Herri honetan, emakume batek ez ditu soilki bihotza eta zentzuak satisfatu behar, ezin hobeki daki badituela

hagitzez ere betebehar handiagoak bizitza osatzen duten mila banokerien alderat. Han oroz gain, harro, ahalkegabe, xahutzaile, hitz-jario eta arranditsu dugu funtsean amodioa. Baldin eta Louis XIV aren gorteko emakume guztiak andereño La Vallière-ko andereñoaren inbidiatan egon baziren printze handi horri Vermandois-eko dukea munduaren jokatokian errazago sartzen laguntzeko bere gain-mahukak urratu zituenean bakoitza mila ezkutu gosta zirela ahantzarazi zion berotasun-erakustaldia zela kausa, zer eska ote daiteke gainerako gizateriari? Izan zaitezte gazteak, aberatsak eta tituludunak, izan zaitezte are hobeak ahal baduzue; zenbatenaz intsentsu-bihi gehiago ekartzen baitituzue idoloaren aitzinean erretzera, hainbatenaz aldekoago ukanen duzue emakume hori, idolorik baduzue behintzat. Amodioa erlijio bat da, eta haren jaurespenak bertze erlijio guztietakoak baino garestiagoa behar du izan; zalu iragaten da, bere pasaia bazterrak hondatuz markatzera lehiatzen den txorigalduaren gisan iragan ere. Sentimenduaren luxua sabaietako poesia da; aberastasun hori gabe, zer bilaka liteke amodioa? Pariseko kodea-

ren lege drakoniar hauek salbuespenik izanez geroz, horiek bakartasunean kausitzen dira, gizartearen dotrinei jazarriz haien aztaparretan erori ez diren arimen artean, zeinak ur garden, iheskor, baina geldigabeekiko iturbururen bate-tik hurbil bizi baitira; zeinak, leial beren itzalpe berdeei, zoriontsu amaigabetasunaren mintzai-ra, haientzat gauza guztietan izkiriatura eta beren buruetan edireten dutena, entzuten, pazientki igurikitzen baitituzte beren hegalak lurrarenez urrikaltzen direlarik. Baina Rastigna-cek, handitasunak aldeztuz aitzinetik dastatu dituz-ten gazte gehienek antzera, arma guztiekin nahi zuen munduko gudurat agertu; bat egina zen berorren suarekin, eta bazuen menturaz haren menperatzeko indarra, baina handinahi horren bideak eta xedea jakin gabe. Bizitza betetzen duen amodio garbi eta sakraturik ezear, botere-egarri hori zerbait eder bilaka daiteke; aski du interes pertsonal ororen erantzeta eta herri baten handitasunaren hartzea helburu. Baina ikaslea artean ere heldu gabe zegoen gizonak bizitzaren joaira ikus eta juja ahal dezakeen pondurat. Anartean osoki inarrosi gabe ere bazegoen pro-

bintzian hezi haurren gaztaroa halako hostaila suerte batez bezala biltzen duten ideia fresko eta leunen lilura. Taigabeko zalantzatan egona zen Rubicon paristarra iragan ez iragan. Bere jakin-min suharrak gorabehera, beti ere gorde izan zituen bere gazteluko egiazko aitonen-semeak daraman bizitza zoriontsuaren zenbait gibel-uste. Hala ere azkeneko kezka bezperan aienatu zitzaizkion, bere apartamentuan baka-rik gelditu zenean. Fortunaren abantaila materialez gozatuz, sortzeak ematen dituen abantaila moralez aspaldian gozaten zuen bezala, probintziako gizonaren larrua erantzia zuen, eta eztiki kokatua zegoen etorkizun eder bat bistaratzen zion gune batean. Horregatik, Delphineren begira zegoela, apur bat bere ere bilakatzen ari zuen apaingela polit horretan guriki jarririk, hain zuen bere burua urrun ikusten aitzineko urtean Pariserat etorririkako Rastignacengandik, non optika moraleko efektu batez hari zeharka so eginez, bere baitan galdetzen baitzuen ea bere buruaren beraren eiterik ere ba ote zuen une hartan.

— Anderea bere ganbaran da, etorri zitzaion erratera Thérèse mutil gaztea asaldaraziz.

Delphine bere zizailu tikian etzanik ediren zuen, suaren bazterrean, sasoa, pausatirik. Mousselinazko uhainen gainean itxura hartan ikusiz geroz, ezinezkoa zen haren ez konparatzea fruitua brean dakarten Indiako landare eder horiei.

— Etorri zara, hortaz! erran zuen hunkiturik.

— Asma ezazu zer dakarkizudan, erran zuen Eugènek harengandik hurbil jarri eta besoa hartzen ziola bere hartan muin emateko.

Nucingeneko andereak bozkario-mugimendu bat egin zuen gonbit-agiriaren irakurtzean. Eugènerenganat bihurtu zituen bere begi bustiak, eta besoak haren leporat jaurtiki halako satisfazio harro batek zorabiatu bereganat erakartzeko.

— Eta zuri (hiri, erran zion belarrirat; baina Thérèse ene kabinetean zagok, izan gaitezen zuhurrak!), zuri zor dizut zorientasun hau? Bai, ausartzen naiz hau zorientasun deitzera. Zuk erdietsia, ez ote da harrotasunaren garaitia bat baino gehiago? Inork ez nau gizarte honi aurkeztu nahi izan. Atzemanen nauzu beharbada une honetan tiki, txolin, arin Pariseko emakume bat

bezala; baina pentsa, ene adiskidea, prest naizela zuri oro sakrifikatzeke, eta, baldin eta sekula baino desira biziagoa badut Saint-Germain faubourgerat joateko, zu han zaudelakotz dela hori.

— Ez duzua uste, erran zuen Eugènek, Beau-séanteko andereak nahi bide digula erran ez duela Nucingeneko baroiaren ikusteko asmorik bere dantzaldian?

— Jakina, erran zuen baronesak gutuna Eugèneri bihurtuz. Emakume horiek mutiritasunaren jitea dute berez. Baina ez du axolarik, joanen naiz. Ahizpak han behar du izan, janzkera zoragarria prestatzen ari dela badakit. Eugène, segitu zuen ahapetik, susmo izigarri batzuen haizatzeko joanen da hura harat. Ez dakizkizu hari buruz dabiltzan hotsak? Nucingen etorri zait egun goizean erratera atzo Bazkunean horretaz ari zirela heraberik gabe. Non dago, Jainkoa!, emakume eta familien ohorea! Erasana, zauritua sentitu naiz neure ahizpa dohakabeagan. Zenbaitzuek diotenaz, Trailleseko jaunak ehun mila liberaren diru-agiriak sinatu omen zituzkeen, gutiz-gehienak bururatuak, eta zeinengatik behar omen baitzioten jazarri. Azken beltz horre-

tan, ahizpak judu bati saldu omen zizkiokeen bere diamantak, zuk ikusi ahal izan dizkiozun diamant eder horiek, eta Restaudeko andere amarengandik datozenak. Tira, azkeneko bi egu-nean, jendea horretaz baizik ez da mintzo. Konpreni dezaket hortaz Anastassiek soineko lamatu bat mana dezan, eta behako guztiak bereganat erakarri nahi izan Beauséanteko anderearenean, harat bere distira guztian eta bere diamantekin agertuz. Ez dut baina haren pean egon nahi. Betidanik entseatu da ene zapaltzera, sekula ez da ona izan enekin, hainbertze zerbitzu egiten nizkionarekin, hark ez zeukanean beti ere harentzako dirua edukitzen nuen honekin. Baina utz dezagun mundua, egun guztiz zoriontsua nahi dut izan.

Rastignac goizeko oren batean artean ere Nucingeneko anderearenean zen, zeinak, maitaleen agurra, agur etortzeko diren bozkarioez beterikako hori, hari eskainiz, begitarte malenkionios batekin erran baitzion; —Hain naiz izikorra, hain naiz superstiziosa, emaiezu ene gogan-beharrei nahi duzun izena, non ikaran bainago

neure zoriona hondamendi izigarriren batekin ordainduko ote dudan.

— Umea, erran zuen Eugènek.

Ai! ni naiz umea egun gauean, erran zuen Delphinek irriz.

Eugène handik biharamunean alde egiteko segurtasunaz itzuli zen Maison-Vauquererat; bidean zihoala, beraz, ezpainetan oraindik ere zorionaren gustua dutela gazte guztiek egiten dituzten amets eder horietan murgildu zen.

— Eta? erran zion Goriot zaharrak Rastignac haren ate aitzinean iragan zelarik.

— Tira! erantzun zuen Eugènek, bihar erranen dizut dena.

— Dena, ezta? oihukatu zuen gizagaixoak. Zoaz oherat. Bihar geure bizitza zoriontsua hasiko dugu.

IV AITAREN HERIOTZA

Biharamunean, Goriotek eta Rastignacek zamaketari baten etorrera baizik ez zuten igurikitzen pentsiotik joateko, noiz eta ere eguerdi alderat non eta Maison-Vauquereko atean gelditzen ari zen karroza baten soinua aditu baitzen Sainte-Geneviève berria karrikan. Nucingeneko anderea bere kotxetik jaitsi zen, bere aita artean ere pentsioan zenetz galdetu zuen. Sylviek baietz erantzunik, eskailerak igan zituen emeki-emeki. Eugène bere gelan zegoen haren auzoak jakin gabe. Gosaltzean otoi eskatu zion Goriot zaharrari bere gauzen eramateko, erraten ziola lauretan d'Artois karrikan elkartuko zirela berriz. Baina, gizagaixoa zamaketari bila joan zen bitartean, Eugène, eskolako deiari berehala ihardetsirik, inork ikusi gabe itzulia zen, kontuen egiteko andere Vauquerekin, nahi ez izanki betebeharrori Gorioten esku utzi, zeinak, bere itsutasunean, dudarik gabe harena ere ordainduko baitzuen. Ostalera jalgia zen, Eugène bere gelarat

igan zen han zerbait ahantzia ote zuen ikusteko eta burutazio horren ukan izanaz alegeratu zen mahaiko tiraderan ikusi zuenean, artean ere bete gabea, Vautrini sinatu zor-onespena, sinatu zuen egunean ezaxolki harat bota zuena. Surik ez ukanki, haren xehe-xehe egitera bazihoan noiz eta ere, Delphineren ahotsa ezaguturik, bat ere hotsik atera nahi izan ez, eta haren aditzeko gelditu baitzen, berarentzat bat ere sekreturik eduki behar ez zuelakoan. Gero lehen hitzetatik, interesgarriega iruditu zitzaion aitaren eta alabaren arteko solasaldia haren ez entzuteko.

— Ah! aita, erran zuen alabak, garaiz aski gogoratuko ahal zitzaizun ene fortunaren kontu eskatzea erreka joa izan ez nadin! Hitz egin dezaket?

— Bai, etxea hutsik dago, erran zuen Goriot zaharrak ahots asaldatuaz.

— Zer duzu bada, aita? hasi zen berriz Nucingeneko anderea.

— Aizkol ukaldi bat eman berri didazu buru gainean, erantzun zuen agureak. Jainkoak barka diezazula, ene haurra! Ez dakizu zenbat maite zaitudan; jakin bazenu, ez zenidan itsumustuka

halakorik erranen, batik bat deus ez baldin bada erremediorik gabea. Zer gertatu da bada zu honat ene bila etortzeko hemendik gutira d'Artois karrikan biltzekoak ginelarik?

— Aizu! aita, bagarea bada geure lehen mugimenduaren jabe hondamendi batean? Erotua naiz! Zure abokatuak lehentxeago ezagutarazi digu inolaz ere geroago lehertuko den zorigaitza. Zure merkatari-aztura zaharraren beharra izanen dugu eta arineketan etorria nauzu bila itotzen garenean abar bati atxikitzen gatzaizkion bezala. Derville jaunak Nucingen berari mila amarru ezartzen ikusi duelarik, prozesu batekin mehatxatu du erraten diola laster erdietsiko lukeela tribunaleko presidentaren onspena. Nucingen egun goizean etorri zait etxerat bere eta neure hondamena nahi ote nuen galdezka. Erantzuna eman diot fitsik ere ez nekiela horretaz guztiaz, fortuna bat baneukala, neure fortuna eskuratu beharra nuela, eta nahaspila honekin zerikusia zuen guztia ene abokatuaren afera zela, ez nekiela bat ere eta deus ezin adi neza-keela sujet honetaz. Ez ote da hori erratea gomendatu zenidana?

— Ongi da, erantzun zuen Goriot zaharrak.

— Ongi da, bada! hasi zen berriz Delphine, bere afera guztien berri eman dit. Bere eta ene kapital guztiak enpresa doi-doia hasi batzuetan sartu ditu, zeinetarako dirutza handiak aitzinera-tu beharra izan omen baitu. Neure ezkon saria-ren aurkeztera bortxatuko banu, zorrak ukatu beharra izanen luke; aldiz, urte batez iguriki nahi badut, bere ohoreagatik hitz ematen du enea bizpahirur halako fortuna bihurtuko didala ene kapitalak lurralde-eragiketa batzuetan ipiniz zeinen bukaeran ondasun guztien jabe izanen bai-naiz. Aita maitea, egia zioen, izitu nau. Barkazioa eskatu dit bere jokamoldeagatik, neure liberta-tea itzuli dit, neure gisara gobernatzeko baime-na eman, aferen osoki neure izenaren pean kudeatzera uztekotan. Agindu dit, bere asmo onaren frogagarri, Derville jauna nik nahi bezain-bat aldiz deituko lukeela ni jabe izendatzeko egin beharreko egintza guztiak behar bezala izkiriaturik leudekeenetz jujatzeko. Hitz batez, ene esku jarria da beso-zangoez estekaturik. Oraindik bertze bi urtez eskatzen du etxearen zuzendaritza, eta erregutu dit, zenbat ematen

didan, hori baino ardit bat gehiago ere ez gasta-
tzeko. Frogatu dit ezen itxurak zaindu bertzerik
ez zezakeela egin, bere neska-lagun dantzaria
utzia zuela, eta ekonomiarik zorrotz baina isilpe-
koenerat bortxatua izanen zela, bere espekula-
zioen bururatu ahal izatekotz bere kreditua alda-
tu gabe. Gaizki hartu dut, dena zalantzan ezarri
bere onetatik aterarazi eta gehiago jakiteagatik:
bere liburuak erakutsi dizkit, azkenean negarrez
hasi da. Sekula ez dut gizon bat halako egoeran
ikusi. Burua galdurik zegoen, bere burua hil
behar zuela zioen, eldarniatzen ari zen. Pena
eman dit.

— Eta ipuin horiek sinesten dituzua? egin
zuen oihu Goriot zaharrak. Komediante hutsa da!
Topo egina naiz alemanekin aferetan: jende
horiek fede onekoak dira kasik denak, xalotasu-
nez beteak; baina, beren zintzo eta prestu itxu-
raren pean, maltzur eta hitz-jario izaten hasten
direlarik, badakite orduan bertzeak baino mal-
tzur eta hitz-jarioago izaten ere. Senarrak ziria
sartzen dizu. Inguratua sentitzen da, hilarena
egiten du, nagusiago egon nahi du zure izenaren
pean bere izenaren pean baino. Zirkunstantzia

horretaz baliatuko da bere tratuen gorabeheretatik gerizatzeko. Anker bezain iaioa da; tipo gaiztoa da. Ez, ez, ni ez naiz Père-Lachaiserat joanen neure alabak biluzgorritan utzirik. Zerbait badakit oraindik aferen munduaz. Bere diruak, hala dio, enpresetan lotuak omen ditu, ongi da! baloreek, zor-onespenek, hitzarmenek osatzen omen dituzte haren interesak! erakuts ditzala, eta kontuak garbi zurekin. Espekulaziorik hoberenak hautatuko ditugu, arriskuak hartuko, eta ezaugarri-agiriak geure izenean ukanen: *Delphine Goriot, emazte bereizia Nucingeneko baroia-
ren ondasunei dagokienez*. Ergelak garela uste ote du horrek? Zer uste du bada, bi egunez ere jasan dezakedala zu fortuna gabe, ogirik gabe, uzteko ideia? Egun batez ere, gau batez ere, bi orduz ere, ez nezake jasan! Ideia hori egia balitz, ez nuke bizirik iraunen. Nolaz! neure bizitzako berrogei urtetan izanen naiz lan egina, bizkar gainean zakuak eramana, izerdia zurrutan atearaia, bizitza guztian xuhurki bizia zuengatik, neure aingeru horiengatik, zeinek lan oro, zama oro arin bilakarazten baitzenidaten; eta egun neure fortuna, neure bizitza kea bailiran utziko

nituzke joatera! Errabiaturik hilaraziko ninduke horrek. Lurrean eta zeruan den sakratuenagatik, hau argituko dugu, liburuak, dirukutxa, enpresak egiaztatuko! Ez dut lorik eginen, ez oherat joanen, ez mokadurik janen, harik eta zure fortuna oso-osorik bere tokian dela frogatzen arte. Beharrik Jainkoa, ondasunez bereizirik zaude; maisu Derville izanen duzu abokatutzat, gizon prestu bat zorionez. Jainkoarren! zeure milioixka eder hori, zeure berrogeita hamar mila liberako errenta ukanen duzu bizi zareino, edo alimaleko zalaparta sortuko dut Parisen, ah! ah! Ganbaretarat ere joko nuke tribunalek kalte eginen bali-gute. Diru aldetik lasai eta kontent zinela jakiteak, pentsamendu horrek arintzen zizkidan gaitz guztiak eta bihozminak ezitzen. Dirua bizitza da. Sosek dena egiten dute. Zer erraten digu bada Alsaziar kankailutzar horrek? Delphine, ez iezaiozu ardit laurden batean ere amore eman urde zoldazu horri, kateak ezarri eta dohakabe bihurtu zaituenari. Zure beharretan bada, gogorki zafratuko dugu, eta zuzen ibilaraziko. Jainkoa, burua sutan dut, erretzen nauen zerbait badut buru-hezurrean. Ene Delphine miserian! Oi! Fifi-

netto, zu! Arraioa, non dira ene eskularruak? Ea, goazen, dena ikustera nahi dut joan, liburuak, aferak, dirukutxa, gutunak berehala. Ez naiz lasaituko harik eta zure fortuna jadanik ez dela arriskuan egiaztatu eta neure begiekin ikusten dudan arte.

— Aita maitea! joka zaitez zuhurtziaz. Mendeku-nahikeriarik tikiena ere ezarriko bazenu afera honetan, eta etsaigo handiegia erakutsiko asmoetan, galdua nintzateke. Ezagutzen zaitu, hagitiz naturala atzeman du, zuk iradokirik, neure ondasunez arrangura nadin; baina, zin degizut, bere eskuetan dauzka, eta baita eduki nahi ere. Bere kapital guztiekin ihesi joan eta gure hemen uzteko gisako gizona da, gizagaiztoa halakoa! Ongi daki nik neronek ez dudala daramadan izena desohoratuko hari jazarriz. Azkarra eta ahula da aldi berean. Dena ongi aztertua dut. Bere onetik ateratzen badugu, errekan nago.

— Baina filus bat ote da beraz?

— Hara! bai, aita, erran zuen alabak kadira batean etzaten zela negarrez. Ez nizun aitortu nahi halako gizon-mota batekin ezkondu izanaren bihozmina zugandik aldaratzeagatik! Aztura

sekretuak eta kontzientzia, arima eta gorputza, dena bat dator haren baitan! izigarria da: aiherrak eta hastio. Bai, ez dezaket Nucingen doilor hori jadanik estima erran didana erran ondoan. Aipatu dizkidan merkatal antolamenduetan nahasteko gauza den gizon batek ez du denemendreneko urguritasunik, eta haren ariman ezin hobeki irakurri dudanetik, hortixe heldu dira ene beldurrak. Garbiki proposatu dit, berak, ene senarrak, libertatea, badakizua zer nahi duen horrek erran? zorigaitzik agituz geroz, tresna bat haren esku artean nahi ote nuen izan, hots, bitartekotza-lana nahi ote nion egin.

— Legeak hor dira ordea! Grève-ko plaza bat bada ordea horrelako jende —suerteentzat, egin zuen oihu Goriot zaharrak; baina nik neronek gillotinatuko nuke borrarorik ez balitz.

— Ez, aita, ez da legerik haren kontra. Entzun ezazu bi hitzez haren mintzaira, ganean ezartzen zizkion itzul-inguruetatik libratua: «Edo galdua da dena, ez daukazu arditik ere, erreka joa zara; ezen ez nezake erkidetzat zu ez bertze inor hauta; edo utziko nauzu neure enpresen portu onerat eramatera. Garbi dea? Eni lotua da orain-

dik. Ene emakume-zuentasunak sosegatzen du; badaki bere fortuna utziko diodala, eta ni neureaz kontentatuko naizela. Elkartze donge eta ohoina da onartu beharrean naizena errekarat joateko zigorraren pean. Kontzientzia erosten dit eta ni neure gogara utziz Eugèneren emaztea izatera ordaintzen du bera. «Baimena ematen dizut falten egiteko, utz nazazu krimenen egite-ra jende dohakabeak errekararaziz!» Behar bezain garbia ote da oraindik mintzaira hau? Badakizu zeri erraten dion eragiketen egitea? Lursail gorriak erosten ditu bere izenaren pean, gero han etxeak eraikiarazten ditu lastozko gizonen medioz. Gizon horiek eraikuntzetako tratuak egiten dituzte obra-hartzaile guztiekin, zeinei epe luzeko gaietan ordaintzen baitiete, eta zeinak, diru-kopuru tiki bat bitarte, prest izaten baitira ene senarraren kito uzteko; ene senarra orduan etxeen jabea da, gizon horiek krak eginez kontuak garbitzen dituztelarik lan-hartzaile bairatuekin. Nucingeneko etxearen izenak etxegile dohakabeen lilurarazteko balio izan du. Konprenitua dut hori. Konprenitua dut halaber, behar izanez geroz, dirutza eskerga batzuen

pagamenduaren frogatzeko, Nucingenek balore handi-handiak igorri dituela Amsterdamerat, Londreserat, Napoleserat, Viennerat. Nola atzeman genuke?

Eugènek Goriot zaharraren belaunen hots astuna aditu zuen, dudarik gabe bere ganbarako zolarat erortzean egina.

— Jainkoa, zer egin dizut? Ene alaba miserable horren eskuetan, zernahitarat behartuko du hala nahi izanez geroz. Barka, ene alaba! oiuhatu zuen agureak.

— Bai, leize batean banago, badaiteke zure hobena ere baden, erran zuen Delphinek. Hain dugu ezagumen urria ezkontzen garenean! Ezagutzen ote dugu mundua, aferak, gizonak, ohiturak? Gurasoek behar lukete guretzat pentsatu. Aita maitea, ez dizut deus aurpegiratzen, barka iezadazu hitz hori. Nik dut hoben guztia honetan. Ez, ez negarrik egin, aita, erran zuen alabak aitarren bekokian musu emanaz.

— Ezta zuk ere, ene Delphine ttikia. Ekar zeure begiak, musuka xukatuko baititut. Ea! neure buruhandia berreskuratuko dut, eta zure

senarrak nahastekatu duen aferamataza argituko.

— Ez, utz ezazu ene esku; jakinen dut haren maneatzen. Maite nau, ongi da, harengan dudan botereaz baliatuko naiz zenbait kapital berehala jabetzatan ene izenean ezar ditzan. Beharbada berriz erosaraziko diot neure izenaren pean Nucingen, Alsazian, estimu handitan du. Hala ere etor zaitez bihar haren liburuen, haren aferen ikertzeko. Derville jaunak ez daki fitsik merkataritzaz. Ez, ez zaitez bihar etor. Ez dut neure odola irakinarazi nahi. Beauséanteko anderearen dantzaldia etzi izanen da, nahi dut zaindu han eder, pausatua agertu, eta neure Eugène maiteari ohore egiteko! Goazen bada baten ganbararen ikustera.

Une hartan kotxe bat gelditu zen Sainte-Geneviève berria karrikan, eta Restaudeko anderearen ahotsa aditu zen, Sylvieri ziotsala:

— Ene aita hemen dea? Zorionez zirkunstantzia horrek Eugène salbatu zuen, ordukotz bere buruarekin baitzegoen ohean sartu eta lo irudi eginen ote zuen.

— Ah! aita, Anastasiez hitz egin dizutea? erran zuen Delphinek ahizparen ahotsa ezaguturik. Irudi luke gauza harrigarriak ere gertatzen direla haren ezkontzan.

— Zer diozu? erran zuen Goriot zaharrak: hori ene azkena litzateke gero. Ene buru gaixoak ezin jasanen ditu bi zorigaitz.

— Egunon, aita, erran zuen kondesak barnerat sartuz. Ah! hor zara, Delphine.

Restaudeko andereak poxelatua iruditu zuen ahizparekin topo egiteaz.

— Egunon, Nasie, erran zuen baronesak. Harrigarri atzeman duzua beraz ni hemen izatea? Egun oro ikusten dut neure aita.

— Noiztik?

— Etorriko bazina, jakinen zenuke.

— Ez nazazu kitzika, Delphine, erran zuen kondesak ahots deitoragarri batez. Zorigaiztokoa naiz oso, galdurik nago, aita gaixoa! oi! arrunt galdurik oraingoan!

— Zer duzu, Nasie? oihukatu zuen Goriot zaharrak. Erraguzu dena, ene haurra. Anastasie zurbildu zen. Delphine, ea, lagun ezazu, izan zai-

tez ona ahizparekin, oraindik gehiago maiteko zaitut, ahal badut!

— Ene Nasie gaixoa, erran zuen Nucingeneko andereak bere ahizpa jesartzen zuela, mintza zaitez. Bi lagun bakarrak gaituzu beti dena barkatzeko aski maiteko zaituztenak. Ikusten duzu, familiako maitasunak dira segurenak. Gatzak harrarazi zizkion, eta kondesa bere senerat etorri zen.

— Hilen naiz honetatik, erran zuen Goriot zaharrak. Ikus dezagun, segitu zuen bere zohikatz-sua zirikatuz, hurbil zaitezte biak. Hotzak nago. Zer duzu, Nasie? errazu fite, hiltzen nauzu...

— Ongi da! erran zuen emakume dohaka-beak, ene senarrak dena daki. Pentsa ezazu, aita, badu aspaldi, oroitzen zarea Maximeren diru-agiriaz? Ez zen lehenbizikoa alabaina. Hala-akorik anitz ordaindurik nengoen lehendik ere. Urtarril hastapen alderat, Trailleseko jauna atsekabez betea iruditzen zitzaidan. Ez zidan fitsik erraten; baina hain da erraza maite dituzun jendeen bihotzean irakurtzen, aski da doi bat; gero zantzuak ere izaten dira. Gainera inoizkorik mai-

tagarren, inoizkorik samurren ikusten nuen, gero eta zoriontsuagoa nintzen. Gaixo Maxime! bere gogoan, azken agurrak egiten zizkidan, erran zidan; tiro egin nahi zion bere buruari. Azkenean hainbertze dut pairarazi, hainbertze otoiztu, bi orduz egon naiz haren belaunetan. Ehun mila libera zor zituela erran dit! Oi! aitatto, ehun mila libera! Erotu naiz. Zuk ez zenezkan libera horiek, dena xahutua nuen...

— Ez, erran zuen Goriot zaharrak, ezin egin izanen nuen hori, non ez nintzen libera horien ebastera joanen. Baina joanen nintzen, Nasie! Joanen naiz.

Goibelki, hilurran baten karranka-hots bat irudi jaurtiki, eta ezintasunerat erturikako aita-sentimenduaren agonia salatzen zuen hitz horren entzutearekin, bi ahizpek eten bat egin zuten. Zein egoismo gelditu zatekeen soraio etsipen-aldarri hori aditurik zeinak, osin baterat jaurtiki barri batek bezala, haren sakontasuna ezagutarazten baitzuen?

— Enea ez zenaz baliatuz aurkitu ditut, aita, erran zuen kondesak negarretan urtuz.

Delphine hunkitu eta negarrari eman zion burua ahizparen lepoan ezarriz.

— Dena egia da beraz, erran zuen.

Anastasiak burua apaldu zuen, Nucingeneko andereak gorputz osoaz hartu zuen, samurkiro muinkatu, eta bere bihotz gainean pausatzen zuelarik: —Hemen, beti izanen zara maitatua jujatua izan gabe, erran zion.

Ene aingeruak, erran zuen Goriotek ahots ahul batez, zer dela eta zorigaitzak izan behar elkartu zaituztena?

Maximeren bizitzaren salbatzeagatik, hau da, neure zorion guztiaren salbatzeko, hasi zen berriz kondesa samurtasun bero eta pilpiragarri bateko lekukotasun horiek sustaturik, ezagutzen duzuen lukurrari horrenganat eramanez ditut, gizon bat infernuak egina, deusek beraztu ezin duena, Gobseck jaun hori, Restaudeko jaunak hain estimu handitan dituen familiako diaman-tak, harenak, neureak, denak, saldu egin ditut. Saldu! konprenitzen duzuea? Maxime salbatu da! Ni hila naiz baina. Restaudek dena jakin du.

— Noten bidez? Nola? Hilen dudalakotz! oihukatu zuen aitak.

— Atzo, bere ganbararat bilarazi nau. Harat joan naiz... «Anastasio, erran dit halako ahots... (oi! aski izan da haren ahotsa, dena asmatu dut), non dira zure diamantak?» Enean. «Ez, erran dit so egiten zidala, hor dituzu, ene komoda gainean.» Eta bere mokanesaz estalia zuen kutxatila erakutsi dit. «Badakizua nondik datozen?» erran dit. Haren belaunetan erori naiz... Negar egin dut, zer heriotzaz nahi ninduen hiltzen ikusi galdetu diot.

— Hori erran duzu! egin zuen oihu Goriot zaharrak. Jainkoaren izen sakratuagatik, bati ala bertzeari nork ere min egiten baitizue, ni bizi naitzeino, segur dagoke hura su motzean erreko dudala! Bai, zera bezala xehatuko dut...

Goriot zaharra isildu zen, hitzak eztatarran iraungitzen zitzaizkion.

— Hitz batez, maitea, hiltzea baino zerbait zailagoa eskatu dit egiteko. Zeruak begira ditazala emakume guztiak nik aditu dudanaren aditzetik!

— Garbituko dut gizon hori, erran zuen Goriot zaharrak lasaiki. Bizitza bakarra du ordea, eta bi

zor dizkit. Tira bada, eta? segitu zuen Anastasie-ri behatuz.

— Hara! erran zuen kondesak eten baten ondotik berriz hasirik, so egin dit: «Anastasie, erran dit, dena isiltasunean gordeko dut, elkarrekin egonen gara, haurrak ditugu. Ez dut Traillseko jauna hilen, huts egin nezake, eta haren bertze gisaz suntsiarazteko gizakien justizierekin egin nezake topo. Haren zure besoetan hiltzea, hori *haurren* desohoratzea litzateke. Baina ez zure haurren, ez haien aitaren, ez ene galtzen ez ikusteagatik, bi kondizio ezarriko dizkizut. Ihardets ezazu: ba ote dut nik haurren bat neurea?» Nik baietz erran dut. «Nor?» galdetu du. Ernest, gure seme-lehena. «Ongi da, erran du. Orain, zin egin iezadazu hemendik aitzinerat pondu bakarraren gainean obedituko didazula.» Zin egin dut. Eskatzen dizudalarik zeure ondasunen saltzea sinatuko duzu.

— Ez ezazu sina, oihukatu zuen Goriot zaharrak. Ez dezazula inoiz hori sina. Ah! ah! Restau-
deko jauna, ez dakizu zer den emakume bat zorioneko egitea, zoriona non den, harat joaten da emakumea haren bila, eta zeure ezintasun

ertzoagatik zigortzen duzu?... Hementxe nago ni, geldi hor! bere bidean topatuko nau. Nasie, zaude atsedean hartzen. Ah, axola dio bere oinordekoak! tira, tira. Semea atzemanen diot, zeina, mila deabru, ene iloba baita. Ikus dezaket mutiko hori, ez da hala? Neure hegaldian ezarrikodut, haren harta hartuko, zaude lasai. Errendaraziko dut, munstro hori, erraten diodala: Orain neurtuko ditiagu geure indarrak! Heure semea nahi baduk, bihur ene alabari bere ondasuna, eta utz bere gisara gobernatzera.

— Ene aita!

— Zeure aita, bai! Ah! egiazko aita bat naiz. Handiki sabelzuri horrek ez ditzala gaizki ekar ene alabak. Arraioa! ez dakit zer dudan zainetan. Tigre baten odola dabilkit hor, nahi nituzke irentsi bi gizon horiek. Ô ene haur horiek! honatx beraz zuen bizitza? Ene heriotza izan, ordea. Zer bilakatuko zarete bada ni hemen gehiago ez naitzanean? Seme-alabak bezainbat behar lukete gurasoek bizi. Jainkoa, bai gaizki antolatua duzula mundua! Eta ba omen duzu seme bat hartatik, erran digutenaz. Geure seme-alabengan sufritzea behar zeniguke ekidin. Hara, ene ainge-

ru maiteak! zuen minei baizik ez diet zuen presentzia zor. Zuen malkoak baizik ez dizkidazue ezagutarazten. Ongi da, bai, maite nauzue, ikusten dut. Zatozte, zatozte hemen negar egitera! bihotza handia dut, dena bil dezake. Bai, alferrik zulatuko duzue bera, pusketek are aita-bihotz gehiago sortuko dituzte. Zuen penak nahi nituzke hartu, zuengatik sufritu. Ah! tikiak zinetean, ontsa zoriontsuak zineten...

— Sasoi hori baizik ez dugu izan ona, erran zuen Delphinek. Non dira bihitegi handian zakuen gainaldetik anbilka ibiltzen gineneko garaiak?

— Aita! hori ez da dena, erran zuen Anastasiek Gorioten belarrirat zeinak jauzi bat egin baitzuen. Diamantak ez dira ehun mila liberatan salduak izan. Maxime jazarria da. Hamabi mila libera baizik ez ditugu ordaindu beharrak. Zuhurra izanen dela agindu dit, ez duela gehiago jokatuko. Haren amodioa da munduan gelditzen zaidan bakarra, eta garestiegi ordaindu dut hil ez nadin ihes eginen balit. Fortuna, ohorea, atseden, haurrak sakrifikatu dizkiot. Oi! egin ezazu bederen Maxime libro, ohoratua izan dadila,

munduan bizitzea ukan dezala non jakinen baitu toki baten egiten. Zoriona bakarrik zor dit orain, fortunarik gabe leudekeen haurrak ditugu. Dena galdua dateke Sainte-Pélagien sartzen baldin badute.

— Ez dauzkat, Nasie. Deus ez, deus gehiago ere ez daukat! Munduaren azkena da. Oi! Mundua lehertzera doa, gauza segura da. Zoazte hemendik, salba zaitetze zuek lehenik! Ah! badi-tut oraindik zilarrezko eraztun batzuk, sei mahai-tresna, neure bizitzan eduki ditudan lehenbiziko-ak. Hitz batez, mila eta berrehun liberako bizis-aria baizik ez dut...

— Zer egin duzu bada zeure bizi-guztiko errentez?

— Saldu, irabazien puska ttiki hori neure pre-mientzat gordez. Hamabi mila libera behar nituen Fiferi apartamentu baten apailatzeko.

— Zurean, Delphine? erran zion Restaudeko andereak bere ahizpari.

— Oi! zer axola du horrek! hasi zen berriz Goriot zaharra, mila eta berrehun mila liberak xahutu ziren.

— Susmatzen dut, erran zuen kondesak. Rastignaceko jaunarentzat. Ah! ene Delphine gai-xoa, zaude apur bat. Ikusazu ni non nagoen.

— Maitea, Rastignaceko jauna mutil gazte bat da bere maitalearen errekaratzeko gauza ez dena. Esker mila, Delphine. Kausitzen naizen larrialdian, zerbait hobea igurikitzen nuen zugandik; baina sekula ez nauzu maite izan.

— Bai, maite zaitu, Nasie, oihukatu zuen Goriot zaharrak, oxtion erraten zidan hori. Zutaz ari ginen, erraten zenidan zu ederra zinela eta bera polita baizik ez.

— Bera! errepikatu zuen kondesak, edertasun hotzekoa da bera.

— Hori agitu denean, erran zuen Delphinek gorrituz, nola jokatu zara zu ene alderat? Ukatu nauzu, joan gogo nuen etxe guztietako atea hertsarazi, hau da, eni min egiteko egokierarik tikiena ere ez duzu galtzera utzi. Eta ni, etorri ote naiz bada, zu bezala, aita gaixo honi, mila liberatik mila liberara, haren fortunaren edeki, eta orain dagoen estaturat egoztera? Horra zer egin duzun. Nik berriz ahal izan dudan guztietan ikusi dut neure aita, ez dut etxetik bidali, eta ez

natzaio eskuen milikatzero etorri haren beharra izan dudanean. Ez nekien ezta enetzat erabiliak zirenik ere hamabi mila libera horiek. Nik ordena badut, aizu! zuk badakizu. Bertzalde, aitattok erregaliak egin dizkidanean, behin ere ez naiz haien xerka ibili.

— Ni baino zoriontsuagoa zinen zu; Marsaye-ko jauna aberatsa zen, zer edo zer badakizu horretaz. Urrea bezain doilorra izan zara beti. Adios, ez dut ez ahizparik, ez...

— Ixo, Nasie! oihukatu zuen Goriot zaharrak.

— Zu bezalako ahizpa bat baizik ez da munduak jadanik sinesten ez duena errepika deza-keena, munstro bat zara, erran zion Delphinek.

— Ene umeak, ene umeak, isil zaitezte, edo neure burua hilen dut zuen aitzinean.

— Tira, Nasie, barkatzen dizut, erran zuen Nucingeneko andereak mintzatzen jarraiki, dohakabea zara. Ni zu baino hobea naiz baina. Eni horren erratea ere noiz eta neure burua zure laguntzeko gauza ikusten nuenean, are neure senarraren ganbaran sartzeko gauza ere, ez nukeena eginen ez nigatik ez... Bederatzi urte

honetan ene kontra egin duzun gaizki guztiaren dina da hori.

— Ene meak, ene umeak, besarka ezazue elkar! erran zuen aitak. Bi aingeru zarete.

— Ez, utz nazazu, oihukatu zuen kondesak, Goriotek besotik harturik zeukan eta aitaren besarkada inarrosi zuenak. Ene senarrak izanen lukeena baino gupida gutiago du nitaz. Ez litzateke erranen bertute guztien irudia denik.

— Are nahiago dut Marsayeko jaunari dirua zor diodalako fama bildu ezen ez Trailleseko jauna berrehun mila liberatik gora gosta zaidala aitortu, ihardetsi zuen Nucingeneko andereak.

— Delphine! oihukatu zuen kondesak haren-ganat urrats bat eman ez.

— Nik egia diotsut zuk gezurrez lohitzen nauzunean, ihardetsi zuen hoztasunez baronesak.

— Delphine! zera bertzerik ez zara...

Goriot zaharra oldartu zen, kondesari heldu eta mintzatzea galarazi zion ahoa bere eskuaz estaltzen ziola.

— Jainkoa! aita, zer egin duzu bada egun goizean? erran zion Anastasiek.

— Egia da, bai, oker naiz, erran zuen aita gai-xoak eskuak galtzetan xukatzen zituela. Baina ez nekien etorriko zinateketenik, etxez aldatzera noa.

Kontent zen alabaren kolera berarenganat desbideratzen zuen erasia baten beretu ukanaz.

— Ah! segitu zuen jartzen zela, bihotza erdiratu didazue. Nireak egin du, ene haurrak. Burua erretzen ari zait barnean sua balu bezala. Izan zaitezte beraz atseginak, maita ezazue elkar! Hilaraziko nindukezue. Delphine, Nasie, ea, zuzen zineten, oker zineten biak ala biak. Ikus dezagun, Dedel, gehitu zuen begi malkoz bete batzuk pausatuz baronesaren baitan, hamabi mila libera behar ditu, bila ditzagun. Ez iezaiozue elkarri horrela beha. Belauniko jarri zen Delphineren aitzinean. —Eska iezaiozu barkazioa eni atsegin emateko, erran zion belarrirat, hura da zorigaiztokoena, tira!

Ene Nasie gaixoa, erran zuen Delphineek oina-zeak aitaren aurpegiari eratzikitzen zion irudi basa eta eroaz lotsaturik, oker ibili naiz, besarka nazazu.

— Ah! bihotza ezitzen didazue, oihukatu zuen Goriot zaharrak. Non aurki baina hamabi mila libera? Soldadugorat ordezko joan baldin banendi?

— Ah! aita! erran zuten bi alabek inguratzen zutela, ez, ez.

— Jainkoak sariztatuko zaitu asmo horrengatik, gure bizitza ez litzateke inolaz ere aski horretako! ez da hala, Nasie? segitu zuen Delphinek.

— Eta gero, aita gaixoa, ur tanto bat litzateke hori, ohartarazi zuen kondesak.

— Baina ez daitekea beraz deus egin bat bederaren odolaz? oihukatu zuen agureak. Neure burua ematen diot zu salbatzen zaituenari, Nasie! Gizon bat hilen dut harengatik. Vautri- nek bezala eginen dut, espetxerat joanen naiz! zernahi... Haizegaiztoak jo balu bezala geldituzen. Deus gehiagorik ez! erran zuen buruko ileak ateriaz. Ebasteko norat joan baneki bederen, baina zaila ere bada taiuzko ebasketa baten aurkitzen. Eta gero jendea eta denbora behar genuke Bankaren atzemateko. Ea, hil beharra dut, hiltzea bertzerik ez zait gelditzen. Bai, ez dut deusetako balio dagoenekotz, aita ere ez naiz jada-

nik! ez. Dirua eskatzen dit, dirua behar du! eta nik, miserable honek, deusik ere ez daukat. Ah! biziariak egin dituk, agure galdu horrek, eta alabak bahituen! Baina ez dituka bada jadanekotz maite? Leher hadi, leher hadi haizen zakur horren antzera. Bai, zakur bat baino apalago nago, zakur bat ere ez litzateke honela jokatu! Oi! ene burua! danbaka ari zait!

— Baina, aitatto, oihukatu zuten bi emakume gazteek beren artean inguratzen zutela buruaz pareten kontra jotzen has ez zedin, izan zaitez bada zentzuduna.

— Hipaka ari zen. Eugènek, ikaraturik, hartu zuen Vautrini sinatu eta zigiluan diru-kopuru handiago bat izkiriatura zeraman diru-agiria; diru-kopuru hori zuzendu, hamabi mila liberako diru-agiri arauzko bat Gorioten izen-deituretan egin eta sartu zen.

— Horra zure diru guztia, anderea, erran zuen papera aitzineratuz. Lo nengoen, zuen solasaldiak iratzarri nau, Goriot jaunari zor niona jakin ahal izan dut horrela. Hementxe daukazu negozioa dezakezun agiria, aise kitatuko dut.

Kondesak, geldi-geldia, papera atxikitzen zuen.

— Delphine, erran zuen zurbil eta koleraz, haserre-gorritz, amorrazioz dardaraka, dena bar-katzen dizut, Jainkoa dut horren lekuko, honako hau baina! Nolaz, jauna hor zen, zuk bazene-kien! nitaz nahi izan duzu mendekatu doilorki uzten nauzularik hari neure sekretuen, neure bizitzaren, neure haurrenaren, neure ahalkearen, neure ohorearen jakitera ematera. Alde, deus ez zara orain enetzat, gorroto zaitut, ahal den gaizki guztia eginen dizut, edozer... Kolerak hitza eten zion, eta eztarria idortu zitzaion.

— Baina ene semea da, gure haurra, zure anaia, zure salbatzailea, oihukatzen zuen Goriot zaharrak. Besarka ezazu beraz, Nasie! Soizu, nik besarkatzen dut, segitu zuen Eugène halako amorratio-suerte batez tinkatuz. Oi! ene haurra! Aita bat baino gehiago izanen naiz zuretzat, familia bat nahi dut izan. Jainkoa nahi nuke izan, unibertsoa oinetarat jaurtikiko nizuke. Baina, emozu bada musu, Nasie! ez da gizon bat, ezpa-da aingeru bat, aingeru bat egiazkoa!

— Utz ezazu, aita, erotua dago une honetan, erran zuen Delphinek.

— Erotua! erotua! Eta zu, zer zaude zu? galdetu zuen Restaudeko andereak.

— Ene haurrak, eneak egin du hola jarraitzen baduzue, oihukatu zuen agureak bala batek kolpatua bezala eroriz bere ohean. —Ni hiltzen ari dituk! erran zuen bere baitan.

Kondesak Eugèneri behatu zion, zeina mugitu gabe baitzegoen, ikuskizun horren bortxakeriak sormututurik. —Jauna, erran Zion zeinuaz, ahotsaz eta behakoaz itauntzen ziola, kasurik egin gabe bere aitari zeinaren maripolisa zaluzalua izan baitzen Delphinek laxatua.

— Anderea, ordaindu eta isilik egonen naiz, erantzun zuen galdearen aiduru egon gabe.

— Aita hil dun, Nasie! erran zuen Delphinek agure alditxartua bere ahizpari, handik joan zenari, erakusten ziola.

— Barkatzen diot egiaz, erran zuen gizagai-xoak begiak irekiz, haren egoera izigarria da eta buru hobeak ere zoraraziko lituzke. Kotsola ezazu Nasie, izan zaitez ezta harekin, agin

iezaiozu aita gaixoari, hiltzen ari denari, eskatu zion Delphineri eskua tinkatzen ziola.

— Zer duzu baina? erran zuen alabak guztiz iziturik.

— Deus ez, deus ez, erantzun zuen aitak, pasatuko da. Badut zerbait kopeta zapaltzen didana, buruko mina-edo. Gaixo Nasie, hau etorkizuna!

Une hartan kondesa sartu zen, aitaren belau-netarat jaurtiki zen: —Barka! oihukatu zuen.

— Ea, erran zuen Goriot zaharrak, are min handiagoa ematen didazu orain.

— Jauna, erran Zion kondesak Rastignaci, begiak negarretan blai, minak injustu bilakarazi nau. Anaia bat izanen zarea enetzat? segitu zuen eskua ikaslea luzatuz.

— Nasie, erran zion Delphineek, besarkatzen zuela, ene Nasie ttikia, ahantz dezagun dena.

— Ez, erran zuen Nasiek, oroituko naiz hone-taz!

— Aingeruak, egin zuen oihu Goriot zaharrak, begien ganean nuen errezela kentzen didazue, zuen ahotsak arrapizten nau. Besarka zaitetze

bada berriz ere. Ongi da! Nasi, diru-agiri honek salbatuko zaitua?

— Hala espero dut. Errazu, aitatto, nahi duzu zeure sinadura hemen ezarri?

— Ergela naiz, gero! Nolaz ahantzi ote dut hori? Gaizki kausitu naiz baina. Nasie, ez nazazu aiher izan horregatik. Igor iezadazu norbait arazoetatik kanpo zaudela erratera. Ez, nerau joanen naiz. Ezta pentsatu ere, ez naiz joanen, ezin dut gehiago zure senarra ikusi, bertan garbituko nuke. Zure ondasunen bertzelakotzeaz denaz bezainbatean, utz hori eni. Zoaz fite, ene haurra, eta egin beharrekoa egin Maximeren zentzarazteko.

Eugène harri eta zur zegoen.

— Anastasie gaixo hau suminkorra izan da beti, erran zuen

Nucingeneko andereak, baina bihotz ona du.

— Sinadurarengatik etorri da, erran zuen Eugènek Delphineren belarrirat.

— Uste duzu?

— Nahi nuke hori ez uste izan. Mesfida zaitetz ahizpaz, erantzun zuen begiak altxatuz adieraz-

tera ausartzen ez zen pentsamenduak Jainkoari jakinarazi nahi bailizkion.

— Bai, doi bat komedianta izan da beti, eta aita gaixoak amore ematen die haren zurikeriei.

— Nola zara, ene Goriot ona? galdetu zion Rastignacek agureari.

— Lo egiteko gogoia dut, erantzun zuen hark. Eugènek oheratzera lagundu zuen Goriot. Gero, gizagaixoak Delphineren eskua atxikiz lo hartu zuenean, alaba erretiratu zen.

— Egun arratsean Italiarretarat, erran zion Eugèneri, eta erranen didazu nola doan. Bihar, etxez aldatuko duzu, jauna. Ikus dezagun zure ganbara. Oi! zer ote da hau ordea! erran zuen ganbaran sartuz. Ene aita baino are gaizkiago zeunden baina. Eugène, ongi jokatu haiz. Gehiago maiteko zintuzket hori posible balitz; baina, ene haurra, fortuna nahi baduzu egin, ez dira hola bota behar hamabi mila libera leihotik behera. Trailleseko kondea jokozalea da. Ahizpak ez du hori ikusi nahi. Urre-montoinen irabazten zein galtzen dakien tokirat joanen zen bere hamabi mila liberen bila.

Zinkurina batek Goriorenerat itzularazi zituen, zeina itxuraz lohartua ediren baitzuten; alabaina bi maitaleak ondoratu zirelarik, hitz hauek aditu zituzten: «Ez dira zoriontsuak!» Egon zedin lo zein itzarrik, ahapaldi horren doinuak hain Zion ukaldi bizia eman haren alabaren bihotzari, non aita zetzan etzauntzarat hurbildu baitzen, eta musu eman baitzion bekokian. Aitak begiak ireki zituen erranez:

— Delphine da!

— Eta? nola zara? galdetu zuen alabak.

— Ongi, erran zuen aitak. Ez zaitez kezkatua izan, jalgitzera noa. Ea, ea, ene haurrak, izan zaitzete zoriontsu.

Eugènek etxeraino lagundu zuen Delphine; baina, Goriot utzia zuen estatuaz kezkatu, ez zuen harekin afaldu nahi izan, eta Maison-Vauquererat itzuli zen. Goriot zaharra zutik eta mahaian jartzeko prest aurkitu zuen. Bianchon ere han zen fideogilearen aurpegiaren ongi aztertze moldean jarririk. Ikusi zuelarik bere ogiaren hartzen eta usnatzen zer irinez egina zen jujatzeko, ikasleak, ikusiz-eta mugimendu horretan ez zela egintzaren kontzientzia dei lite-

keenaren arrastorik ere ageri, keinu goibel bat egin zuen.

— Hator bada ene ondorat, Cochineko jaun barnekoa, erran zuen Eugènek.

Bianchon harat joan zen hainbatenaz ere gusturago non apopilo zaharrarengandik hurbil behar baitzuen egon.

— Zer du? galdetu zuen Rastignacek?

— Tronpatzen ez banaiz behintzat, lur joa zagok! zerbait ohiz kanpokoa behar izan dik gertatu haren baitan, iruditzen zaidak berehalako apoplexia serio baten pisu pean dagoela. Nahiz aurpegiaren behealdea aski bare duen, bisaiaren goiko hazpegiek bekokirat tira egiten ziotek bere gogoz kontra, ikustak! Begien egoera bereziak ere gerliak burmuina harrapatu diola salatzen dik. Erran liteke hauts mehe batez beterik daudela, ezta? Bihar goizean gehiago jakinen diat honetaz.

— Erremedioren bat balitzateke?

— Bat ere ez. Menturaz haren heriotza gibelaraz litekek soin-adarretarat, zangoetararat erreakzioren baten eragiteko bideak atzemanetz geroz; baina bihar arratseko atertzen ez baldin

badute sintomek, galdua duk gizagaixo dohaka-bea. Badakika hik zer gertakarik-edo eragin duen eritasuna? Ukaldi bortitz bat hartu dik naski eta horrek morala hautsi izanen zioan.

— Bai, erran zuen Rastignacek oroitzuz-eta bi alabek atergabe zafratua zutela aitaren bihotza.

— Bertzerik ez bada, zioen Eugènek bere baitan, Delphinek maite dik aita!

Arratsean, Italiarretan, Rastignacek zenbait neurri hartu zituen Nucingeneko anderearen gehiegi ez asaldarazteko.

— Ez ezazu arrangurarik izan, erantzun zuen andereak Eugènek erran zizkion lehen hitzen aditzearekin, ene aita indartsua da. Egun goizean apur bat inarrosi dugula, hori bertzerik ez du. Fortunak kolokan ditugu, zorigaitz honen hedaduraz ohartzen zarea. Ezin ninteke bizi izan zure maitasunak soraiotuko ez banindu oraintsu arte heriotzazko larridurak bezala behatu nukee-naren alderat. Beldur bakarra, zorigaitz bakarra baizik ez da egun enetzat, alegia bizitzearen plazera sentiarazi didan amodioaren galtzearena. Sentimendu horretaz landarat ezaxola zait dena, ez dut bertze deus maite munduan. Zu dena

zara enetzat. Aberats izatearen atsegina sentitzen baldin badut, zure gustuaren hobeki egiteko dut sentitzen. Alaba baino maitaleago naiz, neure ahalkeizungarri. Zergatik? Ez dakit. Zutan dut neure bizitza guztia. Aitak bihotz bat eman dit, baina zuk jarri duzu taupaka. Mundu guztiak gaitzets nazake, zer axola dit! baldin eta zuk, ene aiher izateko eskubiderik ez duzun horrek, menpera-ezinezko sentimendu batek eginarazten dizkidan krimenez absolbitzen banauzu. Bihotz gabeko alabatzat hartzen nauzu? oi, ez, ezinezkoa da gurea bezain aita on baten ez maitatzea. Eragotz ote nezakeen ez zitzala azkenean ikus gure ezkontza negargarrien berezko ondorioak? Zergatik ez ote ditu eragotzi? Ez ote zuen bada bere egitekoa guretzako gogoeta egitea? Egun, badakit, guk bezainbat sufritzen du; baina zer egin genezakeen guk hor? Hura kontsolatu! deusez ere ez genuke guk kontsolatuko. Gehiago atsekabetzen zuen gure etsipenak gure erasiek eta gure dolamenek min egingen baino. Badira egoerak bizitzan non dena samintasuna baita.

Eugène isilik egon zen, samurtasunez loturik sentimendu egiazko baten aditzera-emate laño-gatik. Baldin eta Pariseko emakumeak askotan faltsuak, banitatez hordiak, burukoia, lakrikuak, hotzak izaten badira, gauza segura da ezen norbait egiazki maite dutenean, bertze emakumeek baino sentimendu gehiago eskaintzen dizkietela beren irritsei; beren ttipikeria guztiez handiagotzen dira, eta sublime bilakatzen. Eugène kolpatua zen, gainera, emakumeak sentimendurik naturalenen jujatzeko erakusten duen izpiritu sakon eta zentzudunaz, maitasun abantailatu batek haietatik banandu eta aldaratzen duenean. Nucingeneko andereari gaitzitu zitzaion Eugènek gordetzen zuen isiltasuna.

— Zer duzu bada gogoan? galdetu zion.

— Erran didazuna darabilt oraindik gogoan. Maite ninduzuna baino gehiago maite zintudala pentsatu izan dut orain arte.

Andereak irribarre egin zuen eta erne jarri sentitu zuen atseginarekin kontra, solasaldia ohi-tura onek ezarririkako mugen barnean uzteko. Sekula ez zituen amodio gazte eta zintzo baten adierazpen pilpiragarriak aditu. Hitz batzuk

gehiago eta ez zen gehiago bere buruaren jabe egonen.

— Eugène, erran zuen hizpidez aldaturik, ez dakizu beraz zer gertatzen den? Paris guztia izanen da bihar Beauséanteko anderearenean. Rochefidetarrak eta Ajudako markesa elkar adi-tuak dira deusen ere ez zabaltzeko; baina Erregek bihar sinatuko du ezkontza-hitzarmena, eta zure lehengusina gaixoak ez daki fitsik oraindik. Ez du jende-hartzea bazterrerat uzterik izanen, eta markesa ez da haren dantzaldirat agertuko. Jendeak gorabehera honetaz baizik ez du ihardukitzen.

— Eta gizarteak doilorkeria batez egiten du irri, eta bere hartan nahasten. Ez dakizu beraz horrek Beauséanteko anderea hilaraziko duela?

— Ez, erran zuen Delphinek irriño bat eginez, zuk ez dituzu horrelako emakumeak ezagutzen. Baina Paris guztia etorriko da haren etxerat, eta ni han izanen naiz! Zorion hau zor dizut alta.

— Baina, erran zuen Rastignacek, ez dea bada hori Parisen hainbertzetan ibilarazten direnak bezalako zurrumurru zentzugabe horietako bat?

— Bihar jakinen dugu egia.

Eugène ez zen Maison-Vauquererat itzuli. Ezin izan zion uko egin bere apartamentu berriaz gozatzeko tirriari. Baldin eta, bezperan, gauerdiko oren batean, Delphinerengandik alde egin behartu bazitzaion, aldi honetan Delphinek zion bi orenak alderat alde egin bererat itzultzeko. Biharamunean aski berant arte lo egin zuen, eguerdi alderat Nucingeneko anderea iguriki zuen, zeina harekin bazkaltzera etorri baitzen. Gazteak hain dira horrelako zorion ttikien gose izaten, non kasik Goriot zaharra ahandzi baitzuen. Festa luze bat izan zen harentzat bere gauza sotil horietara guztietara ohitzea. Nucingeneko anderea han zen, gauza guztiei prezio berri bat emanez. Bizkitartean, laurak alderat, bi maitaleak Goriot zaharrarengan pentsatu zuten agureak etxe horretarat bizitzera etortzearekin erdiestea espero zuen zorionaz oroitu zirenean. Eugènek ohartarazi zuen beharrezkoa zela giza-gaixoaren harat lehenbailehen eramatea, eri behar baldin bazuen, eta han utzi zuen Delphine lasterka joateko Maison-Vauquererat. Ez Goriot zaharra ez Bianchon zeuden mahaian.

— Aizak! erran zion pintoreak, Goriot zaharra mainguturik zagok. Bianchon goian duk haren ondoan. Gizagaixoak bere alabetako bat ikusi dik, Restauramako kondesa. Gero jalgi nahi izan dik eta eritasuna txarragotu zaiok. Gizarteak bere apaingarri eder horietako bat galduko dik.

Rastignac eskailerarat abiatu zen habailan.

— Aizu! Eugène jauna!

— Eugène jauna! andereak deitzen zaitu, oihukatu zuen Sylviek.

— Jauna, erran zion alarguntsak, Goriot jaunak eta zuk, otsailaren hamabortzean joan beharrak zineten. Badu ja hirur egun hamabortza joana dela, hamazortzian gara, hilabete bat beharko didazue ordaindu zuregatik eta haren-gatik, baina, Goriot zaharra bermatu nahi baduzu, aski izanen zait zure hitza.

— Zergatik? ez duzu bada konfiantzarik?

— Konfiantzarik! gizagaixoak burua galdu eta hilen baldin balitz, alabek ardit bat ere ez lidakete emanen, eta haren pildatza guztiek hamar libera ere ez dute balio. Egun goizean bere hondarreko mahai-tresnak eraman ditu, ez dakit zergatik. Mutil gazteen gisan apaindua zen. Jainko-

ak barka diezadala! tindua ere emana zela uste dut, gaztetua iruditu zait.

— Dena hartzen dut neure gain, erran zuen Eugènek lazturaz dardaraka eta hondamendi bat susmatuz.

Goriot zaharrarenerat igan zen. Agurea bere ohean zetzan, eta Bianchon haren ondoan zegoen.

— Egunon, aita, erran zion Eugènek.

Gizagaixoak eztiki egin zion irribarre, eta harenganat begi histu batzuk itzuliz erantzun zuen. —Nola da Delphine?

— Ongi. Eta zu?

— Hainbertzean.

— Ez ezak unaraz, erran zuen Bianchonek Eugène ganbarako bazter baterat zeramala.

— Eta? erran zion Rastignacek.

Mirakulu batek baizik ez zezakek salba. Gerlikongestioa gertatua duk jadanik, sinapismoak baditik: sentitzen ditik zorionez, lanean ari dituk.

— Lekuz alda ahal daiteke?

— Ezinezkoa duk. Hemen behar diagu utzi, edozein mugimendu fisiko eta bihotz-hunkidura behar zizkioagu galarazi...

— Ene Bianchon ona, erran zuen Eugènek, gu bien artean artatuko diagu.

— Neure ospitaleko medikuburua etorrarazia diat.

— Eta?

— Bihar arratsean emanen dik bere iritzia. Lana bukatu ondoan etorriko dela hitz eman zidak. Zorigaitzez gizagaixo arraio honek zuhur-gabekeria bat egin dik egun goizean, baina ez dik horretaz fisik erran nahi. Mando bat bezain egoskorra duk. Hitz egiten diodalarik, ez-aditu irudi egin eta lo hartzen dik eni ez erantzuteko; edo eta, begiak zabalik edukiz geroz, zinkurina-ka hasten duk. Goiz alderat jalgi duk, oinez izan duk Parisen, ez zakiagu non. Balioko zeukan guztia eraman dik, salerospen madarikaturen baten egitera joan duk eta bere indar guztiak xahutu ditik horretan! Alabetako bat etorri duk.

— Kondesa? erran zuen Eugènek. Emakume beltzaran bat, begi bizi eta ongi taiutu, zango polit, gerri zaulikoa bera?

— Bai.

— Utz nazak bakarrik une batez harekin, erran zuen Rastignacek. Haren konfesatzera noak, dena erranen zidak eni.

— Ni afaltzera noak anartean. Dena den, eginahalak egin haren sobera ez asaldatzeko; oraindik badiagu esperantza izpi bat.

— Hago trankil.

— Bihar ederki jostatuko dira, erran zion Goriot zaharrak Eugèneri biak bakarrik izan zirenean. Dantzaldi handi baterat joatekoak dira.

— Zer egin duzu bada egun goizean, aitatto, egun arratsean horren eri izan eta ohean egon beharra ukaiteko?

— Deus ez.

— Anastasie etorri da? galdetu zuen Rastignacek.

— Bai, erantzun zuen Goriot zaharrak.

— Ez iezadazu deusik gorde! Zer gehiago eskatu dizu?

— Ah! segitu zuen bere indarrak bilduz hitz egiteko, makur handi batean zen, ea, ene haurra! Nasiek ez dauka sosik ere diamanten aferaz geroztik. Harribitxi bat bezala joan behar zaion soineko lamatu bat manatua omen zuen, dan-

tzaldi horretarako. Jostunak, ahalkegabe batek, ez dio krediturik egin nahi izan, eta andere ganbarazainak mila libera ordaindu ditu jantzien kontu abantzu gisa. Gaixo Nasie, horraino heldu beharra ere! Bihotza erdiratu dit horrek, baina andere ganbarazainak, Restaud hori Nasieri konfiantza guztia kentzen ikusirik, bere diruaren galteko beldur, jostunarekin konpondua da mila liberak bihurtuz geroz baizik soinekoaren ez emateko. Dantzaldia bihar duzu, soinekoa prest da, Nasie etsian dago. Neure mahai-tresnak nahi izan dizkit mailegatu haien bahitzeko. Senarrak dantzaldi horretarat joan dadin nahi du Paris guztiari erakusteko saldu omen dituen diaman-tak. Erran ahal diezaioke munstro horri: «Mila libera zor ditut, ordain itzazu?» Ez. Konprenitua dut hori. Ahizpa Delphine ezinago jantzi ederretan joanen da harat. Anastasiek ez du ahizpa gazteenaren pean egon behar. Bertzalde, hain da malkotan itoa, ene alaba dohakabea! Hain naiz umiliatua izan atzo hamabi mila libera ez eduki izanaz, non neure bizitza miserablearen gainerakoa eman bainukeen huts horren ordaintzeko. Aditzen duzua? oro jasateko indarra izan

dut orain arte, baina neure azken diru-eskasiak bihotza lehertu dit. Oi! oi! zirt-zart egin dut, suspertu naiz, indarrak bildu; seiehun liberaren eraztun eta mahai-tresnak saldu ditut, gero bahituran eman, urtebetekotz, neure biziari-agiria aitatto Gobsecki, eskutan ordaindurikako laurahun liberaren truke. Bah! ogia janen dut! aski izaten nuen honi gazte nintzelarik, oraindik ere joan daiteke. Festa eder bat izanen du bederen ene Nasiek. Distirant agertuko da. Hor, neure oheburuaren azpian daukat mila liberako billetea. Adore ematen dit hor buruaren azpian edukitzeak Nasie gaixoari atsegina emanen diona. Kanporat bidali ahal izanen du bere Victoire gaiztoa. Ikusi ote da inon bere nagusiarengana konfiantzarik ez duen miraberik! Bihar ongi izanen naiz, Nasie hamarretan etorriko da. Ez dut nahi eri naizela pentsa dezaten, ez lirateke inolaz ere dantzaldirat joanen, ni artatzen geldituko lirateke. Nasiek bere haurra bezala besarkatuko nau bihar, haren ferekek sendatuko naute. Tira, ez ote nituzkeen mula libera xahutu botikarioarenean? Nahiago dut diru hori eman neure Oro-Sendagarriari, neure Nasieri. Bere miserian kon-

tsolatuko dut, behinik behin. Horrek bizisaria egin izanaren hutsetik garbituko nau. Leizezuloaren zolan dago, eta ni ez naiz jadanik aski indartsua haren handik ateratzeko. Oi! merkataritzan hasiko naiz berriz. Odessarar joanen han bihien erosteko. Gariek gurean gusta direna baino hirur aldiz gutiago egiten dute han. Labore-aleen sartzea debekaturik baldin badago, legeak egiten dituzten jende prestuei ez zaie gogoratu gari horiez eginikakoen eragozte. Ei, ei!... egun goizean bururatu zait hori! Joaldi ederak eman daitezke almidoietan.

— Burutik zagok, erran zuen bere baitan Eugènek agureari so. Ea, pausa zaitez, ez ezazu hitz egin...

— Eugène afaltzeko jaitsi zen Bianchon berriz igan zenean. Gero biek ala biek eman zuten gaua eria zainduz aldizka, bat bere medikuntzaliburuen irakurtzen eta bertzea bere amari eta bere arrebei izkiriitzen. Biharamunean, eriarengan nabaritzen hasi ziren sintomak adur onekoak izan ziren Bianchonon arabera; alabaina arta etengabeak eskatu zituzten, bi ikasleek ez bertzek eman zitzaketanak eta beren kontaktetan

ezinezkoa egiten dutenak garaiko fraseologia ahalketsuaren ez konprometitzea. Gizagaixoaren gorputz ahituan ezarri izainen ondotik, kataplasmak, oin-bainuak eta bertze sendabide-suer-te batzuk etorri ziren zeinetarako bi gazteen indarra eta eginahalak behar baitziren bertzalde. Restaudeko anderea ez zen etorri; mezulari bat igorri zuen bere diruaren bila.

— Bera etorriko zela uste nuen. Ez da tristatzekoa ordea, arranguratu izanen zen, erran zuen aitak zirkunstantzia horretaz kontent irudi zuela.

— Arratseko zazpitan, Thérèse etorri zen Delphineren gutun baten ekartzera.

«Zer egiten duzu beraz, ene adiskidea? Doi-doia maitatua, bazter utzia nintzatekea jadanik? Erakutsi didazu bada, bihotzetik bihotzerat isuri konfidentzia horietan, arima bat ederregia orain sentimenduek zenbat ñabardura dituzten ikustean beti ere fidel irauten dutenetakoa izan ez nadin. *Mosé*-ren otoitza entzutean erran duzun bezala: «Batzuentzat nota bera da, bertzeentzat musikaren betierekotasuna!» Pentsa ezazu egun arratsean begira naukazula Beauséanteko ande-

rearen dantzaldirat joateko. Inolaz ere Ajudako jaunaren hitzarmena sinatua izan da egun goizean gortean, eta bizkondesa gaixoak bi orentan baizik ez du jakin... Paris guztia joanen da harenerat, herriak la Grève gainezkatzen bezala bere hartan exekuzioren bat izan behar denean. Ez dea izigarria ikustera joatea emakume horrek bere mina gordeko duenetz, ongi hiltzen jakinen duenetz? Ni ez nintzateke eiki joanen, ene adiskidea, jadanik haren etxean izana banintz; baina ez du dudarik gabe gehiago errezibituko, eta egin ditudan eginahal guztiak alferrikakoak lirarteke. Ene egoera desberdina da oso bertze emakumeenaz. Bertzalde, zugatik ere joatekoa naiz harat. Zeure aiduru naukazu. Bi ordu barne enegandik hurbil ez bazintez, ez dakit saldukeria hori barka niezazukeen.»

Rastignacek luma bat hartu eta honela erantzun zuen:

«Mediku baten begira nago zure aitak oraindik bizirik segitu behar duen jakiteko. Hilzorian da. Joanen naiz zuri manuaren eramatera, eta

beldur naiz ez ote den heriotza manu bat izanen. Zuk ikusiko duzu dantzaldirat joan zaitezkeenetz. Mila laztan.»

Medikua zortziak eta erdietan etorri zen, eta, aldeko abururik eman gabe, ez zion iritzi heriotzak berehalakoa behar zuenik. Aldizkako hobekuntzak eta erorialdiak gaztigatu zituen, gizagai-xoaren bizitza eta ezagumenaren geroa erabakiko zutenak.

— Hobeko luke lehenbailehen hilen balitz, izan zen doktorearen azken hitza.

Eugènek Goriot zaharra Bianchonon arten gomendio utzi, eta handik joan zen Nucingeneko andereari berri triste, bere izpiritu artean ere familiako eginbideez beterikakoan, edozein alegrantzia bertan etenarazi behar zutenen eramatera.

— Errozu diberti dadila hala ere, oihukatu zion Goriot zaharrak zeinak modorratua irudi baitzuen, baina zeina ohean altxatu baitzen Rastignac jalgi zenean..

Mutil gaztea minez erdiraturik agertu zitzaion Delphineri, eta ediren zuen orrazturik, galtzatu-

rik, bere dantza-jantzia baizik gelditzen ez zitzaiola janzteko. Baina, pintoreek beren taulen bururatzeko ematen dituzten azken pintzelaldiak irudiak, hondar apainketek denbora gehiago behar zuten ehunaren barneak berak eskatzen ez zuena baino.

— Zer, ez zaude bada jantzirik? erran zuen Delphineek?

— Baina, anderea, zure aita...

— Ene aita berriz, egin zuen oihu Delphinek ikasleari etenik. Zuk ez didazu gero erakutsiko neure aitari zor diodana. Aspalditik ezagutzen dut neure aita. Hitzik ere ez, Eugène. Apaindurik egonen zarenean baizik ez zaitut entzunen. Thérèsek dena prestatu du zure etxean: ene kotxea prest da, har ezazu; etor berriz honat. Dantzaldirat goazela mintzatuko gara neure aitaz. Tenore onez behar dugu abiatu; kotxeen lerrokadak harrapatzen baldin bagaitu, biziki kontent izanen gara hamaiketan sartzen bagara.

— Anderea!

— Zoaz! hitzik ere ez, erran zuen andereak bere apaingelaratz lasterka zihoala han lepoko baten hartzeko.

— Baina zoaz bada, Eugène jauna, anderea haserretuko duzu, erran zuen Thérèsek parrizidiodio sotil horretaz lotsaturikako mutil gazteari bultza eginez.

Gogoetarik hitsenak, etsigarrienak eginez joan zen janztera. Mundua ikusten zuen lohizko itsasandi bat bezala non gizon bat leporaino hondatzen baitzen, bere hartan zangoa sartuz geroz. —Krimen zikoitzak baizik ez ditiztek hemen egiten! erran zuen bere baitan. Vautrin handiagoa duk. Gizartearen hirur agertzapen handiak ikusiak zituen: Obedientzia, Borroka eta Errebolta: Familia, Mundua eta Vautrin. Eta ez zen alderdirik hartzera ausartzen. Obedientzia enoagarria zen, Errebolta ezinezkoa, eta Borroka zalantzazkoa. Pentsamenduak bere familiarenganat eramane zuen. Bizitza jabal haren bihotz-hunkidura garbiez oroitu zen, maite zuten izakien artean iragan egunak gomutatu zituen. Familiaren etxeko lege naturalei askietsirik, kreatura maite horiek zorion betea, jarraikia,

larridurarik gabea edireten zuten han. Bere pentsamendu onengatik ere, ez zuen kuraiarik atzeman Delphinerenganat arima garbien fedea aitortzera etortzeko, Amodioaren izenean Bertutea manatzen ziola. Hasirikako bere hezkuntza bere fruituak ekarria zen jadanik. Berekoiki maite zuen jadanik. Bere antzeak Delphineren bihotzaren izaera ezagutzeko bide eman zion. Susmatzen zuen hura gauza zela aitaren gorputzaren gainetik iragatekotz dantzaldirat joateagatik, eta ez zuen ez zentzarazle-lanetan hasteko indarrik, ez hari atsegin ez emateko adorerik, ez haren kitatzeko bertuterik. «Sekula ez lidakek barkatuko zirkunstantzia honetan arrazoi ukan izana beraren kontra», erran zuen bere baitan. Gero medikuen hitzak aztertu zituen, laketu zen pentsatuz-eta Goriot zaharra ez zela uste zuen bezain galgarriri eri; hitz batez, arrazonamendu min-emangarriak metatu zituen Delphineren zuritzeko. Ez zekien aita zer estatutan zegoen. Gizagaixoak berak lezake dantzaldirat igor, ikustertera joan balekio. Usu gizartearen legeak, urri-kalgabe bere formulatzen, kondentatzen du non eta ageriko krimena izaera diferentek, interes eta

egoera desberdinek familien baitan eragiten dituzten ezin konta ahalako aldakuntzek desenkusaturik ageri den lekuan. Eugènek berak bakarrik nahi zuen tronpatu, prest zen bere maitaleari bere kontzientziaren sakrifikatzeak. Bi egunez geroztik, dena aldatua zen haren bizitzan. Emakumeak harat egotziak zituen bere desordenak, familia zurbilarazia zuen, dena bere onetan bahitua. Rastignacek eta Delphinek, bata bertzearen medioz gozamenik bizienez dastatzeko beharrezko kondizioetan zuten elkar topatu. Ontsa prestaturikako beren grina, grinak hiltzen dituenaz, gozamenaz, handitua zuten. Emakume haren jabe izanik, Eugène ohartu zen ezen ordura arte desiratu baizik ez zuela, zorionaren biharamunean baizik ez zuen maite izan; amodioa plazeraren ezagutza baizik ez izaki menturaz. Zital ala sublime, itsuki maite zuen emakume hori bai ezkon saritan hari ekarri zizkion boluptuositateengatik, eta bai harengandik erre-zibituak zituen guztiengatik; hala nola Delphinek Rastignac maite zuen hainbat nola Tantalok mate izanen zuen bere gosearen asetzera, edo

bere eztarri idortuko egarriaren jabaltzera, etorri izanen zitzaion aingerua.

— Ongi da! nola da ene aita? erran zion Nucingeneko andereak, ikaslea itzuli eta dantzajantzitan agertu zenean.

— Ezinago gaizki, erantzun zuen Rastignacek, zeure maitasunaren froga bat eman nahi baldin badidazu, goazen zalu haren ikustera.

— Ongi da, bai, erran zuen andereak, baina dantzalditik lekorat. Ene Eugène ona, izan zaitez gisakoa, ez zakizkit erasiaka has, zatoz.

Handik joan ziren biak. Eugène isilik egon zen bidearen zati batean.

— Zer duzu beraz? erran zuen Delphinek.

— Zure aitaren karranka aditzen dut, iharde-tsi zuen Eugènek samurgoaren doinuaz. Eta han hasi zen kontatzen gaztetasunaren mintzo-eder suharraz Restaudeko andereak banitateak bul-tzaturik burutu egitate latza, aitaren azken sakri-fizioak ekarri heriozko larrialdia, eta Anastasie-ren soineko lamatua gostako litzatekeena. Delp-hine negarrez zegoen.

— Itsusi egonen naiz, pentsatu zuen. Malkoak idortu zitzaizkion. Aitaren zaintzera joanen naiz, ez naiz haren oheburutik lekutuko, segitu zuen.

— Ah! holaxet nahi zintudan, erran zuen Rastignacek bizibizia.

Bortzehun kotxeren argiek argitzen zituzten Beauséant Jauregiko sargiak. Ate argizatuaren alde bakoitzean jendarme bat arrandiatzen zen. Handikiak hain ziren ugari heldu, eta denek ere hain zuten lehia handia erakusten emakume handi horren erortzen ikusteko, non apartamentuak, etxearen beheko aldean zeudenak, jadanik beterik baitzeuden Nucingeneko anderea eta Rastignac han agertu zirenean. Gorte guztia Louis XIVak amorantea brast kentzen zion Andreño handiarenerat oldarka joan zenetik, ezein bihotz-hondamendi ez zen Beauséanteko anderearena baino asaldagarriagoa izan. Zirkunstantzia honetan, Bourgogneko etxe abantzu errege-tiarraren azken alaba bere gaitza baino indartsuago agertu zen, eta azken unera arte eduki zuen bere mende mundu hura zeinaren banitateak bere irritsaren garaitiaren zerbitzarazteko baizik ez baitzituen onartu. Pariseko emakume-

rik ederrenek animatzen zituzten saloiak beren jantziez eta beren irriñoiez. Gorteko gizonik gailenenak, enbaxadoreak, ministroak, edozertariko jende argiak, gurutzez, plakaz, xingola koloreztatuez leporaino apainduak, lehia bizian ageri ziren bizkondesaren inguruan. Orkestra bere musikaren doinuak jotzen ari zen jauregi horretako, bere erreginentzat mortu ageri zeneko, tronadura apainduen azpian. Beauséanteko anderea zutik zegoen bere lehen saloiaren aitzinean adiskide ustezkoen errezibitzeko. Zuriz jantzia, bere bilo trentzatu soiletan inolako apaingarririk gabe, lasai irudi zuen, eta ez zuen adierazten ez oinazerik, ez fiertasunik, ez gezurrezko bozkariorik. Inork ez zezakeen haren ariman irakur. Marmolezko Niobe bat, erranen zenuten zuek. Irriño trufaria egin zien batzuetan bere adiskide minei; alabaina betiko Beauséanteko anderea iruditu zitzaien denei, eta hain zen ongi agertu egiaz zer zen zorionak bere errainuez edertzen zuenean, non denetan soraioenek ere miretsi baitzuten, Erromano gazteek azken hatsaren ematean irribarre egiten zekien gladiadorea txalotzen zuten antzera. Bere erreginetat-

ko bati adios errateko edertua irudi zuen munduak.

— Ikaran nintzen etor ez zintezan beldurrez, erran Zion Rastignaci. Anderea, erantzun zuen halako ahots hunkituaz hitz hori erasiatzat hartuz, azkena gelditzeko etorri naiz.

— Ongi da, erran zuen andereak eskua hartzen ziola. Menturaz zu zara hemen fida nahiokien bakarra. Ene adiskidea, beti ere malta dezakezun emakume bat maita ezazu. Ez ezazu bazter utz emakumerik bat ere.

Rastignacen besoa hartu eta kanape baterat eramane zuen, jendea jostetan zebilen saloian.

— Joan zaitez, erran zion andereak, markesarenerat. Jacques ene lekaio ganbarazainak eramane zaitu harat eta harentzako gutun bat emanen. Neure korrespondentzia eskatzen diot. Oso-osorik emanen dizu, atsegin dut hari sinestea. Ene gutunak eskuratzen badituzu, igan zaitez ene ganbararat. Jakinean ezarriko naute.

Jaiki zen Langeaiseko dukesaren, bere adiskiderik hoberenaren aitzinerat joateko, hura ere heldu baitzen. Rastignac jalgi zen, Ajudako markesaren galdea egin zuen Rochefidetarren jaure-

gian, hantxe behar baitzuen gaua eman, eta hantxe baitzuen aurkitu. Markesak bere etxerat eramane zuen, ikasleari kaxa bat eman, eta errantzion: «Hor daude denak.» Mintzatu nahi izan bidezion Eugèneri, dela dantzaldiko gertakariengain eta bizkondesari buruz galdetzeko, dela hari aitortzeko ezen jadanik beharbada urrikiturik zegoela bere ezkontzaz, gerora egon zen bezala; baina harrotasunezko argi batek distiratu zuen haren begietan, eta bere sentimendurik prestuenei buruzko sekretuaren gordetzeko kuraia deitoragarria izan zuen. «Ez iezaiozu nitaz fitsik erran, ene Eugène maitea.» Rastignaceneskua tinkatu zuen mugimendu amultsuki triste batez, eta joateko keinua egin zion. Eugène Beauséantenekorat itzuli zen, eta bizkondesarenganbararat izan zen eramana, non partitze baten apailamenduak ikusi baitzituen. Suaren ondoan jarri zen, zedrozko kutxatilarri behatu zion, eta malenkonia sakon batek bereganatu zuen. Harentzat, *Iliadako* jainkosen parekoa zen Beauséanteko anderea.

— Ah! ene adiskidea, erran zuen bizkondesak sartu eta eskua Rastignacen bizkar gainean pausatzen zuela.

Ikasleak negarrez ikusi zuen bere lehengusina, begiak altxatuak, esku bat dardaraka, bertzea goratua. Bat-batean andereak kaxa hartu, suan ezarri eta erretzen ikusi zuen.

— Dantzan ari dira! tenore-tenorez etorri dira denak, heriotza aldiz berant etorriko delarik. Ixo! ene adiskidea, erran zuen bizkondesak eri bat ipiniz mintzatzeko prest zen Rastignacen ahoaren gainean. Ez dut sekula berriz ikusiko ez Paris eta ez mundua. Goizeko bortzetan, partitzera noa Normandiaren peko zolan ehorztera joateko. Hainbat gauza egin behartu zaizkit arratsaldeko hirur orenez geroztik: neure prestakizunak egin, aktak sina, afera batzuez ardura; inor ez neza-keen igor zerarenerat... Anderea isildu zen. Gauza segura zen aurkituko luketela zerarenean... Hartzara isildu zen, oinazeak azpiraturik. Une horietan oro da oinaze, eta ezin-erranezkoak zenbait hitz. —Tira, hasi zen berriz, zuri nengokizun egun arratsean azken zerbitzu honen egiteko. Neure adiskidantzaren froga bat nahi

nizuke eman. Maiz izanen zaitut gogoan, on eta zintzo, gazte eta laño begitandu zatzaizkidan hori kualitate horiek hain bakanak diren mundu honen erdian. Nitaz oroituko ahal zara inoiz edo behin. Har ezazu, erran zuen begiak bere buruarren inguruan itzulikatuz, honatx neure eskularruak sartzen nituen kutxatila. Dantzaldirat edo ikusgarrietarat joan aitzin hartu dudan aldioro, eder sentitzen nintzen, zorientzua nintzelakotz, eta bere hartan pentsamendu grazios zenbaiten uzteko baizik ez nuen ukitzen; nitarik anitz bada hemen barnean, suntsitua da hemen dagoen Beauséanteko anderea. Onets ezazu. Arduratu-ko naiz zure etxerat, d'Artois karrikarat, eraman dezaten. Nucingeneko anderea biziki ongi da arrats honetan, maita ezazu zinez. Elkar berriz ikusten ez badugu, ene adiskidea, izan zaitez segur desirarik hoberenak izanen ditudala zuretzat, enetzar zintzo izan zaren horrentzat. Jaits gaitezen, ez dut nahi negarrez nagoela pentsa dezaten. Eternitatea dut neure aitzinean, baka-rrik egonen naiz han, eta inork ere ez dit han neure malkoen konturik eskatuko. Bertze beha-ko bat ganbara honi. Isildu zen. Gero, une batez

begiak bere eskuaz ezkutatu ondoan, begi horiek xukatu zituen, ut freskoz busti, eta ikaslearen besoa hartu. —Goazen! erran zuen.

Rastignacek ez zuen sekula sentitu hain bihotz-zarrasta bortitzik nola izan baitzen oinaze hain sotilki atxiki horrekiko kontaktua. Dantzaldirat sartzean, Eugènek Beauséanteko anderearekin egin zuen hango itzulia, emakume grazios horren azken eta adeitasunezko arta bera. Bi ahizpak ikusi zituen berehala, Restaudeko anderea eta Nucingeneko anderea. Kondesa ezin ederrago zegoen bere diamant guztiak agerian, zeinek, harentzat, erregarriak behar baitzuten inolaz ere, azken aldikotz zeramatzan. Haren urgulua eta haren amodioa nahi den bezain indartsuak izan zitezen ere, ez zituen ongi jasaten senarraren behakoak. Ikuskizun hori ez zen Rastignacen burutazioen alegerarazteko gisakoa. Orduan, bi ahizpen diamanten azpian, Goriot zaharra zetzan etzauntza ikusi zuen. Haren jarre-ra malenkoniosak bizkondesa tronpatu zuelarik, honek bere besoa kendu zion.

— Zoaz! ez dizut plazer bat gusta nahi, erran zuen andereak.

Eugène laster izan zen Delphineek bereganat bildua, zoriontsu sorrarazten zuen eraginaz, eta jeloskor ikaslearen oinetan mundu horretan, non adoptatua izatea espero baitzuen, biltzen zituen begiramenduen ezartzeaz

— Nola atzematen duzu Nasie? erran zion.

— Bere aitaren heriotza ere du bahitu, erran zuen Rastignacek.

Goizeko laurak alderat, saloietako ostea bakantzen hasia zen. Laster musika-soinuak isildu ziren. Langeaiseko dukesa eta Rastignac bakarrik gertatu ziren saloi handian. Bizkondesa, han ikaslea baizik edirenen ez zuelakoan, bere hartarat etorri zen Beauséanteko jaunari adios erran ondoan, zeina lo egitera joan baitzen errepikatzen ziola: «Tronpatzen zara, maitea, zeure adinean barrolatzera joateaz! Geldi zaitez beraz gurekin.»

Dukesaren ikustean, Beauséanteko andereak ezin izan zuen hasperen bat atxiki.

— Asmatu dizut, Clara, erran zuen Langeaiseko andereak. Berriz ez itzultzeko partitzen zara; baina ez zara joanen aitzinetik ni entzun eta elkar aditu gabe. Besotik hartu zuen bere adiski-

dea, aldameneko saloirat eraman, eta han, begiak malkotan so egiten ziola, bere besoetan tinkatu zuen eta musu eman zion masailetan. — Ez zaitut hozkiro utzi nahi, maitea, bihotz-zimiko bat astunegia litzateke. Zeure buruaz bezalaxe fidatu ahal zaitezke nitaz ere. Handia izan zara gau honetan, zure dina sentitua naiz, eta horixe nahi dizut frogatu. Hutsak egin ditut zure alde-
rat, ez naiz beti ontsa jokatu, barka iezadazu, maitea: gaitzesten dut zauritu ahal izan zaituen guztia, zuzendu nahi nituzke neure hitzak. Oina-
ze berak batu ditu gure arimak, eta ez dakit gutarik nor izanen den zorigaiztokoena. Montri-
veauko jauna ez zen hemen gau honetan, kon-
prenitzen duzua? Nork ere ikusi baitzaitu dan-
tzaldi honetan, Clara, hark ez zaitu sekula ahan-
tziko. Azken eginahal bat egingen dut nik. Porrot
egiten badut, komentu baterat joanen naiz.
Norat zoaz zu?

— Normandiarat. Courcelles-erat, maitatzera,
otoitz egitera, Jainkoak mundu honetatik erama-
ten nauen arte.

— Etor zaitez, Rastignaceko jauna, erran
zuen bizkondesak ahots hunkitu batez, ustez-eta

mutil gazte hori begira zegoela. Ikasleak belau-
na makurtu zuen, lehengusinareen eskua hartu
eta muinkatu. —Antoinette, adios! hasi zen
berriz Beauséanteko anderea, izan zaitez zorion-
tsua. Zutaz denaz bezainbatean, zu bazara
zoriontsua, gaztea zara, zerbaiti sinets dezake-
zu, erran Zion ikasleari. Mundu honetatik joaten
naizenean, zenbait hilurran abantailaturen
antzera, bihotz-hunkidura erlijiosak, zintzoak
ukan izanen ditut neure inguruan!

Rastignacek bortzak irian alde egin zuen,
Beauséanteko anderea bere bidaietako berlinan
ikusi eta gero, haren azken agur negar-malkoez
bustia errezibitu eta gero, negar-malko horiek
frogatzen baitzuten ezen pertsonarik garaiena
ez daudela bihotzaren legetik kanpo eta ez dire-
la bihozminik gabe bizi, herriaren zenbait lau-
sengarik sinetsarazi nahi luketen gisan. Eugene
oinez itzuli zen Maison-Vauquererat, aro heze
eta hotz batekin. Hezkuntza bururatzeaz zuen.

— Ez diagu Goriot zahar dohakabea salbatu-
ko, erran zion Bianchonek Rastignac bere auzoa-
ren gelan sartu zenean.

— Adiskidea, erran zion Eugènek agure lohartuari behatu ondoan, hoa, jarrai hadi heure desirak mugatzen dituen xede apalaren ondotik. Ni infernuan nagok, eta hantxet gelditu beharra diat. Sinets ezak munduaz erraten diaten edozein gaiztakeria! Ez duk Juvénalik urrez eta harribitxiz estalirikako haren izigarrikeria agertaraz dezakeenik.

Biharamunean, Rastignac arratsaldeko bi orenak alderat izan zen Bianchonek iratzarria, zeinak, jalgitzera behartua, Goriot zaharraren zaintzeko erregutu baitzion, haren estatuak nabarmenki txarrerat egina baitzuen goizean barna.

— Bi egun ez dik iraunen gizagaixoak, sei orduko bizitzarik ere ez dik beharbada, erran zuen medikuntzako ikasleak, eta gu ez gaituk bizkitartean gaitzaren gudukatzetik gelditzen ahal. Arta garestiak eman beharko zaizkiok. Haren eri-zainak izanen gaituk atseginez; baina nik ez zauzkat sosak. Sakelak irauli zizkioat, armairuak arakatu: hutsa denetan. Bere baitan zegoen une batean galdetu zioat, ardit bat ere ez daukala erran zidak. Zenbat daukak hik?

— Hogei libera gelditzen zaizkidak, erantzun zuen Rastignacek, baina haien jokatzera joanen nauk, irabaziko diat.

— Eta galtzen baduk?

— Dirua eskatuko zieat haren suhi eta alabei.

— Eta ez baditek ematen? segitu zuen Bianchonek. Premiazkoena orain ez duk diruaren aurkitzea, sinapismo irakin batez bildu beharra diagu gizagaixoa zangoetarik hasi eta izterren erdiraino. Garrasika hasten bada, izanen duk zer eginik. Badakik hori nola konpontzen den. Bertalde ere, Christophek lagunduko han. Ni botikarioarenetik pasatuko nauk han hartuko ditugun sendagai guztien berme ematera. Zorte txarra duk gizagaixoa gure zahartegirat eramateko gisan egon ez izana, han hobeki izanen huen. Goazen, erranen diat zer behar duan egin, eta ez ezak bakarrik utz ni itzuli arte.

Bi gazteak agurea zetzan ganbaran sartu ziren. Eugène aurpegi dardaratsu, zuri eta ezinago ahul horrek izan aldaketaz izitu zen.

— Eta, ontsa zaudea? erran zion etzauntza gainerat makurtzen zela.

Goriotek begi hits batzuk goititu zituen Eugènerenganat eta arta handi-handirekin so egin zion ezagutu gabe. Ikasleak ez zuen ikuskizun hori jasan, negar batzuek begiak busti zizkioten.

— Bianchon, ez litzateke errezelik behar leiho horietan!

— Ez. Aroaren gorabeherak ez ditek jadanik eraginik harengan. Sobera zorte ona izanen huke hotza edo beroa izanen balu. Dena den sua behar diagu tisanen egin eta makina bat gauzaren prestatzeko. Arbazta-azau batzuk igorriko ditiat egurra eduki arte balioko digutenak. Atzo eta barda hirea eta gizagaixoaren zohikatz guztiak erre ditiat. Bustigiro handia huen, hormak izerdi zeudean. Nekez ahal izan diat ganbara xukatu. Christophek erratza pasatu dik, zerritegi bat egina zegoan. Orrea erre diat, sobera urrintzen zian.

— Jainkoa! erran zuen Rastignacek, baina haren alabak!

— To, edateko eskatzen baldin badu, honetatik emanen diok, erran zuen barnekoak Rastignaci poto zuri handi bat erakusten ziola. Dola-menka hasi eta sabela bero eta gogorra baldin

badu, laguntzeko erranen diok Christopheri zera emateko... badakik. Izanen balu, menturaz, buruberotasun bat handia, hitz asko eginen balu, finean burua doi bat nahasiko balitzaio, utzak bere gisara. Hori ez duk seinale txarra izanen. Baina igor Christophe Cochin zahartegirat. Gure medikua, ene laguna edo ni etorriko gintuzkek hari moxen ezartzera. Egun goizean, lo hengoen bitartean, kontsultazio handi bat egin diagu doktore Gillen ikasle batekin, Hôtel-Dieu-ko medikuburu batekin eta geurearekin. Jaun horiek sintoma kurios batzuk hauteman uste izan ditiztek, eta guk eritasunaren aitzinamendua zainduko diagu, pondu zientifiko aski inportant batzuen argitzeagatik. Jaun horietako batek erraten dik ezen gerliaren presioak, organo batean bertze batean baino gehiago sakatuko balu, ondorio berezi batzuk eragin litzakeela. Entzun ezak ongi beraz, mintzatzen hasiko balitz, haren hitzak zer ideia klasetakoak diren ikusteagatik: oroimen, aditze, ezagumen heinekoak diren; materialitatez edo sentimenduez diharduen; konduak ateratzen dituen, iraganerat itzultzen den; hots, izan hadi guri txosten zehatz baten egiteko

gisan. Bazitekek inbasioa dena behingoan gerta-
tzea; orain dagoen bezalaxe hilen duk: zozoturik.
Dena arras bitxia duk holako eritasun-suertee-
tan! Bonba hemendik leher baledi, erran zuen
Bianchonek eriaren garondoa erakutsiz, badituk
fenomeno bakan batzuen etsenpluak: burmui-
nak bere fakultateren batzuk berreskuratzen
ditik, eta heriotza emekiago etortzen duk. Sero-
sitateak burmuinetik saihets zitezkek, bide
batzuk har zeinen ibilia autopsiaz baizik ezin
jakin baitaiteke. Baduk Incurables-etan agure
zahar bat isuria haren baitan bizkar-hezurrarri
jarraitu baitzaio: izigarrizko oinazeak ditik, baina
bizi duk.

— Anitz dibertitu direa? erran zuen Goriot
zaharrak, Eugène ezagutu baitzuen.

— Oi! alabak soilik zerabiltzak gogoan, erran
zuen Bianchonek. Ehun aldiz baino gehiago
erran zidak barda: «Dantzan ari dira! badu bere
soinekoa.» Beren izenez deitzen zitian. Negargu-
ra ematen zidaan, deabruak eraman nazala!
bere deiadarrekin: «Delphine! ene Delphine tti-
kia! Nasie!» Ene ohorezko hitza, erran zuen

medikuntzako ikasleak, negarretan urtzekoa huen.

— Delphine, erran zuen agureak! han dea, ez da hala? Banekien bada nik. Eta haren begiak eromenezko jardunean hasi ziren berriz, hornei eta ateari behatzeko.

— Behera noak Sylvieri kataplasmen prestatzeko erratera, oihukatu zuen Bianchonek, tenorea egokia duk.

Rastignac bakarrik gelditu zen agureagandik hurbil, ohearen buruan jarririk, begiak buru lazarri eta ikusten mingarri horretan finkaturik.

— Beauséanteko andereak ihes egiten dik, hau hiltzen ari duk, erran zuen. Arima garbiak ez dituk luzaz gelditzen ahal mundu honetan. Izan ere, nolaz egin lezakete bat sentimendu handiek gizarte zikoitz, ziztrin, hutsal batekin?

Joana zen festaren irudiak haren gogoan agertu ziren eta heriotzazko ohe horren ikuskizunarekin kontrastatu. Bianchon supituki agertu zen berriz.

— Aizak, Eugène, geure medikuburua ikusi berri diat, eta lasterka itzuli nauk. Ezagumen-sintomak agertuz geroz, hitz egiten badu, etzan

ezak sinapismo luze baten gainean, garondotik hasi eta ipur-konkorreraino ziapez estaltzeko moldean, eta hots eginiezaguk.

— Bianchon maitea, erran zuen Eugènek.

— Oi! egitate zientifiko bat duk, segitu zuen medikuntzako ikasleak hasberri baten suhartasun guztiarekin.

— Arraioa, erran zuen Eugènek, ni izanen nauk hortaz agure dohakabe hau maitasunez artatuko dudan bakarra.

— Egun goizean ikusi baldin baninduan, ez huke hori erranen, segitu zuen Bianchonek hitz horiengatik haserretu gabe. Lanean zaildurikako medikuek ez ditek eritasuna baizik ikusten; nik aldiz eria ikusten diat oraindik, ene mutil maitea.

Bianchon joan zen, Eugène bakarrik utziz agurearekin, eta luze gabe agertu zen larrialdi baten beldur.

— Ah! zu zara, ene haur maitea, erran zuen Goriot zaharrak Eugène ezaguturik.

— Hobeki zara? galdetu zuen ikasleak eskua hartzen ziola.

— Bai, burua hertsaturik neukan halako tornu batean bezala, baina ari da libratzen. Ene alabak

ikusi dituzua? Hemen dira berehala, arineketan etorriko dira cri naizela jakin bezain sarri, hainbertze artatu naute la Jussiene-ko karrikan! Jainkoa! nahi nuke ene ganbara garbi izan ledin haien errezibitzeko. Bada mutil gazte bat zohikatuz guztiak erre dizkidana.

— Christophe aditzen dut, erran zion Eugènek, mutil gazte honek igortzen dizun egurra dakarkizu honat.

— Zera! nola ordain egurra baina? sosik ez daukat, ene haurra. Dena eman dut, dena. Karitatearen pentzutan nago. Soineko lamatua ederra zena bederen? (Ah! oinazetan nago!) Mila esker, Christophe, Jainkoak sariztatuko zaitu, ene mutila; deus ez daukat nik jadanik.

— Ongi ordainduko diat, hiri eta Sylvieri, erran zuen Eugènek mutilaren belarrirat.

— Etorriko zirela erran dizute ene alabek, ez da hala, Christophe? Hoa harat berriz, ehun sos emanen dizkiat. Erran iezaiek ez naizela ongi sentitzen, nahi nituzkeela besarkatu, bertze aldi batez ikusi hil baino lehenago. Erraiek hori, baina sobera iziarazi gabe.

Christophe Rastignacen keinu batez abiatu zen.

— Etorriko dira, hasi zen berriz agurea. Eza gutzen ditut. Delphine on horri, hiltzen banaiz, zer bihozmina emanen diodan! Baita Nasieri ere. Ez nuke hil nahi, haiei negar ez eragiteagatik. Hiltzea, ene Eugène ona, haien berriz ez ikustea da. Ederki aspertuko naiz hemendik joaten garen tokian. Aita batentzat, infernua haurrik gabe egotea da, eta ongixko ikasia naiz hori ezkondu zirenaz geroztik. La Jussienneko karrikan nuen nik paradisua. Errazu, paradisurat joaten banaiz, lurrerat itzuli ahal izanen naiz izpiritu gisa haien ingururat. Badut horrelako gauzen aditzea. Egiazkoak ote dira? Haiek ikusi uste ditut une honetan la Jussienneko karrikan ziren bezalaxe. Goizean jaisten ziren. Egunon, aitatto, erraten zuten. Belaunen gainean hartzen nituen, mila kitzikaldi, ñika batzuk egiten nizkien. Haiek xotilki ferekatzen ninduten. Goiz oro elkarrekin gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen ginen, hots, aita nintzen, neure hurrekin gozatzen nuen. La Jussienneko karrikan zirelarik, ez zuten arrazonatzen, ez zekiten deus munduaz, egiazki maite

ninduten. Jainkoa! Zergatik ez ziren beti tiki gelditu! Oi! oinazetan nago, buruak tenk egiten dit. Ah! ah! barka, ene haurrak! oinaze izigarriak ditut, eta behar du min bat egiazkoa izan dadin, hagitz gogortu bainauzue zuek gaitzarekiko. Jainkoa! haien eskuak neuretan edukiko banitu bederen, ez nuke neure gaitza sentituko. Bada-tozela uste duzea? Christophe hain da tontoa! Neronek beharko nuen joan. Hark ikusiko ditu. Zu ordea dantzaldian izan zinen atzo. Erradazu beraz nola zeuden? Ez zekiten deus ene eritasunaz, ezta? Ez ziratekeen dantzan ariko, gaixo neskatikoak! Oi! ez dut gehiago eri izan nahi. Ene premia handia dute oraindik. Fortunak arriskuan dauzkate. Eta ah zer senarrei lotu diren gainera! Senda nazazue, senda nazazue! (Oi! hauek oinazeak hauek! Ai! ai! ai!) Ikusten duzue, sendatu beharra dut, dirua behar dutelakotz, eta nik badakit norat joan haren irabaztera. Odessarat joanen naiz almidoi-orratzen egitera. Azeri zaharra naiz ni, milioiak irabaziko ditut. (Oi! izigarri sufritzen dut!)

Goriot isilean egon zen une batez, eginahal guztiak eta bi egiten bide zituela bere indarren biltzekotz minaren jasateagatik.

— Hemen balira, ez nintzateke kexatuko, erran zuen. Zergatik bada kexa?

Brastakoan losuma arin bat etorri eta luzaz iraun zuen. Christophe itzuli zen. Rastignacek, Goriot zaharra lo zegoela uste zuenak, mutila bere mezuaren goratik kontu ematera utzi zuen.

—Jauna, erran zuen, lehendabizi andere kon-desarenerat joan naiz, zeinarekin ezinezkoa izan baitzait solas egitea, afera handiak omen zera-biltzan bere senarrarekin. Tematu bainaiz, Restaudeko jauna bera etorri da, eta honela erran dit: «Goriot jauna hiltzen ari dela? horratx egin dezakeen hoberena. Restaudeko anderearen beharra dut egiteko inportant batzuen bururatzeko, dena bukatua denean joanen da.» Gizon horrek haserre irudi zuen. Banindoan kanporat, noiz eta ere anderea sartu baita aitzinganbararat nik ikusten ez nuen ate batetik, eta erran dit: «Christophe, erran iezaiok ene aitari eztabaidan ari naizela neure senarrarekin, ezin dut utzi; ene_haurren bizitza edo heriotza dago kolokan;

baina dena bukatu bezain laster, joanen naiz.» Andere baronesaz denaz bezainbatean, bertze ixtorio bat! ez dut ikusi, eta ezin izan diot hitz egin. «Ah! erraten dit andere ganbarazainak, anderea bortzak eta laurdenean itzuli da dantzalditik, lotan dago; eguerdia baino lehen irartzartzen badut, erasiatuko nau. Aita gaizkiagotzen ari duela erranen diot hots egiten didanenan. Berri txar batentzat, beti izaten da betarik horren hari errateko.» Alferrik erregutu dut! Ah! Jaun baroiarekin solas egiteko eskatu dut, jalgia omen zen.

— Alabetarik ezein ez da etorriko! egin zuen oihu Rastignacek. Biei izkiriaturko diet.

— Ezein ere ez, erantzun zuen agureak ohean jarririk. Egitekoak dituzte, lo daude, ez dira etorriko. Banekien. Beharrezkoa da hiltzea haurrak zer diren jakiteko. Ai! ene adiskidea, ez zaitetz ezkon, ez ezazu haurrik izan! Zuk bizitza ematen diezu, haiek heriotza ematen dizute. Zuk haiek mundurat sartzen, haiek zu handik ohiltzen. Ez, ez dira etorriko! Jakin dut hori joan deneko hamar urtean. Neure baitan erraten

nuen zenbait aldiz, baina ez nintzen horren sinestera ausartzen.

Negar bana isuri zen haren bi begietan, ertz gorriaren gainean, handik erori gabe.

— Ai! aberats banintz, neure fortuna gorde banu, haiei ez banie eman, hemen lirateke orain, masailak milikatuko lizkidakete beren musuekin! jauregi handi batean bizi ninteke, ganbara ederrak, sehiak, neure sua ukanen nuke; eta haiek negartetan blai lirateke, beren senarrekin, beren hurrekin. Hori guztia ukanen nuke. Deusik ez, ordea. Diruak oro ematen du, are alabak ere. Oi! ene dirua, non da? Altxorak baldin baneuzka uzteko, zainduko nindukete, artatuko nindukete; entzunen nituzke, ikusiko nituzke. Ai! ene haur maitea, ene haur bakarra, nahiago dut neure abandonua eta neure miseria! Bederen, zorigaiztoko bat maitatua delarik, bat ere dudarik ez da maitatua dela. Ez, aberats nahi nuke izan, ikusiko nituzke orduan. Nork daki, ala fedea? Harrizko bihotzak dituzte biek. Sobera maite nituen haiek maite izan nintzaten. Aita batek beti behar du aberats izan, bridetatik behar ditu haurrak atxiki zaldi bihurriak bailiran. Eta belauniko ego-

ten nintzen haien aitzinean. Miserableak! gisazko bukaera eman behar diote joan den hamar urtean ene alderat erakutsi duten jokamoldeari. Bazeneki zer nolako mainak egiten zizkidaten ezkondu ondoko lehen denboretan! (Oi! martirio krudel bat ari naiz sufritzen!) Zortziehun mila libera inguru eman berria nintzen bakoitzari, ez zitezkeen, ezta haien senarrak ere, gordinak izan enekin. Beren etxeetan hartzen ninduten: «Ene aita, hemendik; ene aita maitea, handik.» Platera beti prest izaten nuen haienean. Hitz batez haien senarrekin jaten nuen, zeinek begiramenduz hartzen baininduten. Artean banuen zerbait ukaitearen itxura. Zergatik hori? Fitsik erran gabe nengoen neure aferez. Bere bi alabei zortziehuna mila libera ematen dizkion gizon bat begiratu beharreko gizona zen. Eta ez titan edukitzen ninduten, baina ene diruagatik. Mundua ez da garbia. Ikusia dut bada nik hori! Kotxez eramaten ninduten ikusgarrietarat, eta nahi nuen gisan gelditzen nintzen festetan. Hitz batez ene alabak zirela erraten zuten, eta ni beren aitatzat aitortzen. Fina naiz ni oraindik, hara, eta deusik ez zait eskapatzen. Dena haientzat izan

da eta bihotza erdiratu dit. Garbiki ikusten nuen dena itxurakeria zela; baina gaitza erremediogabea zen. Ez nintzen haien etxean beheko mahaian bezain gustura egoten. Ez nekien deusen erraten. Horregatik munduko jende horietako zenbaitzuek galdetzen zutelarik ene suhien belarran: —Nor da jaun hori? —Sosen tipoa, aberatsa da oso. —Ah, futxo! erraten zuten, eta ezkutuek hartze duten begiruneaz so egiten zidaten. Baina inoiz edo behin apur bat poxelatzan banituen, ederki ordaintzen nituen neure hutsak! Bertzalde, nor da beraz perfektua? (Dena zauri dut burua!) Hiltzeko sufritu behar dena ari naiz une honetan sufritzen, ene Eugène jaun ona, eta zer? hori ez da deus konparatuz geroz Anastasiek, behin, astakeria harentzat umiliagarri bat erran berria nuela konpreniarazteko jaurtiki zidan lehen behakoak eman zidan minan: zain guztiak ireki dizkit bere behakoaz. Dena nahi izanen nuen jakin, baina ongi jakin dudana lurrean soberan nengoela izan da. Biharamunean Delphinerenerat joan naiz neure buruaren kontsolatzeko, eta hara non zozokeria bat egiten dudan hura sutan jarri duena. Erotu

bezala egin naiz. Zortzi egunez egon naiz zer egin ez nekiela. Ez naiz ausartu haien ikustera joatera, haien erasien beldur. Eta hementxe nago ni alabek etxetik egotzirik. Ô Jainkoa, eza-gunak baitituzu pairatu ditudan miseriak, oina-zeak; kontatuak bildu ditudan puñal-ukaldiak zahartu, aldatu, hil, urdindu nauen denbora honetan, zergatik bada sufriarazten nauzu egun? Ontsa ordaindua naiz haien sobera maite izanaren bekatua. Ontsa mendekatuak dira ene maitasunaz, borreroak bailiran toleatu naute. Hara, bada! gurasoak hain dira tontoak! hainbertze nituen maite non jokolari bat jokorat bezala itzuli bainaiz haienganat. Ene bizioa ziren ene alabak; ene amoranteak; oro, hitz batez! Biek ala biek izaten zuten zerbaiten, edergailuen beharra; andere ganbarazainek erraten zidaten, eta nik haiei ematen nien ontsa errezibitua izateko! Alabaina erakaspn tiki batzuk eman dizkidate neure jendartean ibiltzeko moldeaz. Oi! ez dute biharamun arte iguriki. Nitaz ahalketzen hasiak ziren. Horra zer den nork bere haurren ongi hezte-a. Neure adinean ez nintekeen ordea eskolarat joan. (Oinaze izigarriak ditut, Jainkoa! medikuak!

medikuak! Burua irekiko balidate, gutiago sufri-
tuko nuke.) Alaba neureak, alaba neureak, Anas-
tasie, Delphine! nahi ditut ikusi. Igor jendarmeria
haien bila, bortxaz! justizia alde dut, oro dut
alde; naturaleza, kode zibila. Protesta egiten dut.
Sorterria hilen da gurasoak zangopilatuak baldin
badira. Hori argi da. Gizarteak, munduak aitata-
suna dute oinarri, dena amiltzen da haurrek
beren gurasoak maite ez badituzte. Oi! haien
ikustea, haien entzutea, ez du axolarik zer erra-
nen didaten, haien ahotsak aditzen ditudan ber,
horrek ene oinazeak eztituko ditu, Delphinek
oroz gain. Erraiezu baina, hemen izanen dire-
nean, ez diezadatela, egiten ohi duten bezala,
hozkiro beha. Ah! ene adiskide ona, Eugène
jauna, zuk ez dakizu zer den behakoaren urrea
bat-batean berun grisa bilakatua ediretea. Haien
begiek nitan berriz distiratu ez duten egunaz
geroztik, neguan egon naiz beti hemen; xangri-
nak bertzerik ez dut jateko ukan, eta jan ditut!
Umiliatua, iraindua izateko naiz bizi izan. Hain-
bertze ditut maite, non haien afrontu guztiak,
bozkario ziztrin ahalkegarri baten saltzeko egi-
ten zizkidatenak, irensten baintuen. Aita bat

kukutzea bere alaben ikusteko! Neure bizitza eman diet nik, haiek ordu bat ere ez didate egun emanen! Egarrri naiz, goseak nago, bihotzak erretzen nau, ez dira ene agoniaren freskatzera etorriko, ezen eneak egin du, usnatzen dut. Baina ez dakite alta zer den nor bere aitaren gorpu gainean ibiltzea! Bada Jainko bat zeruetan, hark mendekatzen gaitu gu, gu aitak, gora-behera. Oi! etorriko dira! Zatozte, ene maiteak, zatozte bertze musu bat matera, hondar musu bat, zuen aitaren biatikoa, eta Jainkoa zuen alde otoiztuko dut, alaba onak izan zaretela erranen diot, zuen alde mintzatuko natzaio! Hobengabeak zarete, ororen buru. Hobengabeak dira, ene adiskidea! Erraiezu argi denei, bakean utz ditzatela ene kariatara. Ene hobenagatik da dena. Nik usatu ditut ene zangopilatzera. Hori atsegin nuen nik. Honek ez dio inori axola, ez gizakien justiziari, ez Jainkoaren justiziari. Jainkoa zuzengabea liteke enegatik kondena balitza. Ez dut jokutzen jakin, tontakeria bat egin dut neure eskubideei uko eginez. Haiengatik zirtzildua nintzatekeen! Zer nahi duzu! naturalezarik ederrenak, arimarik hoberenek men egin zioke-

ten aiten etorkortasun horren usteldurari. Miserable bat naiz, merezi dut zigor hau. Nik bakarrik ditut neure alaben desordenuak ekarri, nik ditut galdu. Egun plazera nahi dute, bertzorduz gozokiak nahi zituzten bezala. Beti utzi izan ditut beren neskabila gazteen gutizien satisfatzera. Hamabortz urtetan, bazuten kotxea! Deusetan ez zaie gogor egin. Ni bakarrik naiz hobendun, baina haien maitatzeaz hobendun. Bihotza zabaltzen zidaten beren ahotsaz. Aditzen ditut, badatoz. Oi! bai, etorriko dira. Legeak manatzen du norbere aitaren hiltzen ikustera etorri beharra dela, legea ene fagore mintzo da. Gainera kurtsa bat baizik ez da gostako. Nik ordainduko dut. Izkiria iezaiezu milioiak dauzkadala haiei uzteko! Ohorezko hitza. Odessarat joanen naiz Italiako pasten egitera. Badakit nola. Milioiak irabaz daitezke ene egitasmoarekin. Inork ez du horretan pentsatu. Bihirik ez da garraioan galduko gari edo irinarekin bezala. Bai, bai, almidoia? milioiak dirateke hor! Ez duzu gezurrik erranen, milioiak erran iezaiezu, eta bertzerik ez bada zikoizkeriaz etorriko dira, nahiago dut tronpatua izatea, ikusiko ditut. Neure alabak nahi ditut! Nik egin

ditut! eneak dira! erran zuen ohean jartzen zela, Eugèneri erakusten ziola buru bat zeinaren ile zuriak barreiatu baitzeuden eta mehatxu egiten baitzuen mehatxua adieraz zezakeen guztiaz.

— Ea, erran zion Eugènek, etzan zaitez berriz, ene aita Goirot ona, izkiriaturko diet. Bianchon itzuli bezain sarri, ni joanen naiz haiek heldu ez badira.

— Haiek heldu ez badira! errepikatu zuen agureak hipaka. Hila egonen naiz ordea; hila amorrazioak joa! Amorrazioa nitaz jabetzen arida! Neure bizitza osoa ikusten dut orain. Ergel bat naiz! Ez naute maite, sekula ez naute maite izan! hori argi da. Etorri ez baldin badira, ez dira etorriko. Zenbat eta gehiago luzatu izanen diren, hainbat eta nekezago deliberaturko dira eni bozkario honen ematera. Ezagutzen ditut. Sekula ez dute deus susmatzen jakin ene xangrinez, ene oinazeez, ene premiez, ene heriotza ere ez dute susmatuko; ene bihotz-beratasunaren sekretuaren berri ere ez dakite: Bai, ikusten ditut, haienztzat, eni erraien ateratzeko ohiturak munta kendu die egiten nuen guztiari. Ene begien zula-

tzeko eskatu balidate, erranen niekeen: «Zula itzazue!» Zozeogia naiz. Aita guztiak haiena bezalako delate uste dute. Nork bere burua behar du beti errespetarazi. Haien haurrek mendekaturako naute. Komeni zaie baina honat etortzea. Jakinaraz iezaiezu beraz beren agonia konprometitzen ari direla. Krimen guztiak bakar batean eginen dituzte. Baina zoaz beraz, erraiezu bada ezen, ez etortzea, parrizidio bat delate! Krimenik aski egin dute hau emendatu gabe ere. Oihuka ezazu beraz nik bezalate: «Aizu, Nasie! aizu, Delphine! zatozte zuen aitarenganatu zuekin hain onate izan baitate eta orain oinazetan baitagote!» deus ez, inor ez. Zakur baten pare hilen naiz bada? Horra ene ordainsaria, zapuztua izateate. Zital batzuk dira, emagaizto batzuk; hastio ditut, madarikatzen ditut; jaikiko naiz, gauez, neure hilkutxatik haien berriz madarikatzeke, ezen, azken finean, ene adiskideak, oker ote naiz? bidegabe oso ari dira jokaten! ez da hala? Zer diote? Ez didazue erran Delphine hemen delate? Bietarik hoberena da. Neure semeate zaitut, Eugene! Maite izan ezazu, izan zaitetz aitate bat harentzat. Bertzeate hagitz malerusa da. Ete haien fortunak! Ai, ene

Jainkoa! Eneak egin du, soberasko sufritzen dut!
Ebak iezadazue burua, utz bihotza bakarrik.

— Christophe, zoaz Bianchonen bila, egin zuen oihu Eugènek agurearen aihen eta heiagorak hartzen hasiak ziren jiteaz lotsaturik, eta ekar iezadazu cabriolet bat.

— Zure alaben bilatzera noa, ene Goriot ona, honat ekarriko dizkizut.

— Bortxaz, bortxaz! Dei egiozue guardiari, infanteriari, denei! denei, erran zuen Eugèneri hondar behako bat jaurtikiz non ezagumenak distiratu baitzuen. Errozu gobernamentuari, erregeren abokatuari, ekar diezazkidatela, hemen nahi ditut!

— Madarikatu dituzu ordea.

— Nork erran du hori? ihardetsi zuen agureak harri eta zur eginik. Ongi dakizu maite ditudala, itsuki maite ditut! Sendatua naiz ikusten badi-tut... Zoaz, ene auzo ona, ene haur oniritzia,, zoaz, zu ona zara, eskerrak nahi nizkizuke eman, baina hilurran baten benedikazioak baizik ez ditut zuri emateko. Ai! gutienaz ere Delphine nahi nuke ikusi zurekiko dudan zorra kita dezan hari errateko. Bertzeak ezin badu, ekar iezadazu

hura. Errozu ez duzula gehiago maiteko etorri nahi ez badu. Hain zaitu maite non etorriko baita. Eman edatera, erraiak sutan ditud! Ezariezadazu zerbait buru gainean. Ene alaben eskua, horrek salba nintzake, sentitzen dut... Jainkoa! nork berreginen ditu haien fortunak ni hemendik banoa? Odessarat nahi dut joan haiengatik, Odessarat, han pasten egitera.

— Edan ezazu hau, erran zuen Eugènek hilurran altxatu eta bere ezker besoan hartuz bertzean kikara bat tisanaz betea zeukan bitartean.

— Behar dituzu zeure aita t'amak maitatu! erran zuen agureak bere esku indargeekin Eugèneren eskua tinkatuz. Ohartzen zarea haiek, neure alabak ikusi gabe hiltzera noala? Beti egarri izan, eta sekula edan ez, horra nola bizi izan naizen joan deneko hamar urtean... Suhiek alabak hil dizkirate. Bai, ez dut gehiago alabarik ukan ezkondu zirenaz geroztik. Gurasoak, erran iezaiezue Ganbarei ezkontzaren gaineko lege baten egiteko! Hots, ez itzazue alabak ezkon maite badituzue. Suhia da gizatxar bat dena suntsitzen duena alaba batengan, dena likisten du. Aski da ezkontzarik! Horrexek dizkigu alabak

kentzen, eta haiek gabe gertatzen gara hiltzen garenean. Egin ezazu lege bat gurasoen heriotzaren gainean. Hau lotsagarria da! Mendekua! Suhiek diete honat etortzea eragozten. Hil itzazu! Heriotza Restaudi, heriotza Alsaziarrari, ene eraileak dira! Heriotza edo alabak! Ah! bukatu da, haiek gabe naiz hilen! Haiek! Nasie, Fifine, ea, zatozte bada! Zuen aitatto....

— Ene Goriot ona, sosega zaitez, ea bada, zaude lasai, ez urduri egon, ez gogoari eragin.

— Haien ez ikustea, hori da agonia!

— Ikusiko dituzu.

— Egia! oihukatu zuen agure asaldatuak. Oi! haien ikustea! haien ikustera noa, haien ahotsen entzutera. Zoriontsu hilen naiz. Ongi da! bai, ez dut gehiago bizitzeko eskatzen, ezin nuen gehiago, nekeak gero eta handiagoak ziren. Baina haien ikustea, haien soinekoen ukitzea, ah! haien soinekoak soilki, arras guti da hori; baina senti dezadala haien zerbait! Emazkidazu biloak... otoi...

Burua burkoaren gainerat eraitsi zuen halako mailu-ukaldi bat hartuko balu bezala. Haren

eskuak ohe-estalkiaren gainean durduzatu ziren bere alaben biloak hartu nahiz-edo.

— Benedikatzen ditut, erran zuen eginahal bat eginez, benedikatzen ditut. Zerraldo erori zen bat-batean. Une hartan Bianchon sartu zen.

— Christophe aurkitu diat, erran zuen, kotxe bat ekarriko dik. Gero eriarri behatu zion, betazalak indarka altxatu, eta begi bat berotasunik gabea eta hitsa ikusi zioten bi ikasleek. —Ez duk bereoneratuko, erran zuen Bianchonek, ez diat uste. Pultsua hartu zion, haztatu, eskua gizagai-xoaren bihotz gainean ezarri zuen.

— Makina bazabilek oraindik; baina, haren egoeran, makur bat duk hori, hobeko liake hilen balitz!

— Bai, alafede, erran zuen Rastignacek.

— Zer duk bada hik? zurbil hago herioa bezala.

— Ene adiskidea, heiagorak eta auhenak aditu berria nauk. Baduk Jainkorik! Oi! bai! baduk Jainkorik, eta edo egin ziguk mundu bat hobe, edo gure lurra zentzugabekeria bat duk. Hau honen lazgarria izan ez balira, negarretan

urtuko nindukek, baina itsuski hertsaturik zauzkaat bihotza eta estomaka.

— Errak, gauza andana bat beharko ditiagu; non erdiets dirua!

Rastignacek bere erlojua atera zuen.

— To, ezar ezak laster bahituran. Ez diat bidean gelditu nahi, minutu bat ere ez baitut galdu nahi, eta Christopheren begira nagok. Arditik ere ez zaukaat, itzultzean ordaindu beharko zioagu kotxezainari.

Rastignac eskailerarat joan zen arrapaladan, eta etxetik jalgi Helder-eko karrikarat Restaudeko anderearenerat joateko. Bidean zihoala, irudimenak, haren begi-aitzinean gertaturikako ikuskizun izigarriak kolpaturik, haren sumindura berotu zuen. Aitzinganbararat heldu eta Restau-deko anderearen galdea egin zuelarik, ikusteko moldean ez zegoela erantzun zioten.

— Baina, erran zion lekaio ganbarazainari, hiltzen ari den haren aitaren partez nator.

— Jauna, jaun kondeak manurik zorrotzenak eman dizkigu.

— Restaudeko jauna hemen bada, erran iezaiozu zer trantzetan kausitzen den haren aita-

ginarreba eta jakinaraz oraintxetan behar diodala hitz egin.

Eugènek luzaz iguriki zuen.

— Une honetantxe hilen duk menturaz, pentsatzen zuen.

Lekaio ganbarazainak lehen salarat eraman zuen non Restaudeko jaunak ikaslea zutik hartu baitzuen, jartzeko erran gabe, surik ez zuen supazter baten aitzinean.

— Jaun kondea, erran zion Rastignacek, zeure aitagarreba jauna azken hatsetan duzu une honetan zulo doilor batean, egur ukaiteko arditik ere gabe; hiltzeko mene-menean dago eta bere alaba ikusi nahi du...

— Jauna, ihardetsi zion idorki Restaudeko kondeak, ohartu ahal izan zara zinez bihotz-beratasun guti dudala Goriot jaunarentzat. Bere izaera eman dio Restaudeko andereari, zorigaitza ekarri ene bizitzari, neure bakearen etsaia ikusten dut haren baitan. Hil edo bizi dadin, bortz axola dit orok eni. Horra nolako sentimenduak ditudan haren alderat. Munduak gaitzets nazake, iritzia mesprezatzen dut. Baditut orain gauza inportantagoak egiteko ergelek ala axola-

gabeek nitaz zer pentsatuko duten goganbehartzea baino. Restaudeko andereaz denaz bezainbatean, ez da inora jalgitzeko moldean. Ez dut nahi, gainera, bere etxetik joan dadin. Errozu haren aitari ezen ene alderateko, ene haurraren alderateko eginbideak betetzen dituen bezain sarri haren ikustera joanen dela. Aita maite badu, libro izan daiteke istant batzuen buruan..

—Jaun kondea, ez da eni dagokidana zure jokamoldearen jujatzea, zeure emaztearen nagusia zara; baina fida naiteke zure leialtasunari? ongi da! hitz emadazu soilki erratea haren aitari egun bateko bizitza ere ez zaiola gelditzen, eta dagoenekotz madarikatu duela bere oheburuan ez ikustean!

— Errozu zerorrek, ihardetsi zuen Restaudeko jaunak Eugèneren mintzamoldeak salatzen zituen sumindura-sentimenduek kolpaturik.

Rastignac sartu zen, kondeak gidaturik, kondesa egoten ohi zen saloian: han ediren zuen negarretan itoa, eta besaulki batean hondoratua hil nahirik dagoen emakume bat irudi. Pena eman zion ikasleari. Rastignaci so egin aitzin, behako izibera batzuk jaurtiki zituen senar gai-

nerat, bere indar tirania moral eta fisiko batek zapalduak erabat ahiturik zeuzkala gaztigitzen zutenak. Kondeak burua higitu zuen, anderea mintzatzera sustatua sentitu zen.

— Jauna, dena aditu dut. Errozu ene aitari ezen baleki nagoen egoeraren berri, barkatuko lidakeela. Ez nuen pairamen han espero, ene indarrak baino gogorragoa da, jauna, baina bururaino eramanez dut, erran zion bere senarrari. Ama naiz. Errozu ene aitari, itxurak itxura, ez dela eni zer egotz berari dagokionaz, oihukatu zion etsipenez ikasleari.

Eugènek bi ezkontideak agurtu zituen, emakumea zegoen ateka latza hautemanik, eta harri eta zur eginik joan zen. Restaudeko jaunaren doinuak bere urratsaren alferra erakutsi zion, eta Anastasie ez zela jadanik libro konprenitu zuen. Nucingeneko andearenerat joan zen lasterka, eta ohean aurkitu zuen.

— Eri naiz, ene adiskide gaixoa, erran zion andearek. Hotza hartu dut dantzalditik jalgitzean, beldur naiz bularreko hantura bat ote dudan, medikuaren begira nago...

— Heriotza zangoetan izan bazeneza ere, erran zion Eugènek eteten ziola, aitaren ondorat eramán beharra zaitugu. Zuri deika ari da! Haren garrasirik tikiena entzun ahal bazeneza, ez zintezke eri senti.

— Eugène, ene aita ez da menturaz zuk diotzun bezain eri; baina etsian nengoke hobenik tikiena izanen banu zure irudiz, eta zuk nahi duzun bezala jokatuko naiz. Hura, badakit nik, bihozminez hil liteke ene eritasuna hilgarri bila-ka baledi jalgialdi honen ondorioz. Ongi da! joanen naiz ene medikua etorri bezain sarri. Ah! zergatik ez daukazu jadanik zeure erlojua? erran zuen katea jadanik ikusten ez zuela. Eugène ahalketu zen. Eugène! Eugène, saldua, galdua bazenu jadanekotz... Oi! gauza txarra litzateke zinez.

Ikaslea Delphineren ohe gainerat makurtu, eta belarrirat erran zion: —Nahi duzua jakin? jakin ezazu, bada! Zure aitak ez du zerekin eros egun arratsean jantziko dioten hil-oihala. Zure erlojua bahian dago, hori bertzerik ez neukan.

Delphineek brastakoan ohetik jauzi egin, lasterka joan zen bere izkiriamahairat, han bere

moltsa hartu eta Rastignaci eman zion. Hots egin eta oihukatu zuen: «Banoa, banoa, Eugène. Utz nazazu janztera; munstro bat nintzateke baina! Zoaz, zu baino lehen helduko naiz! Thérèse, oihukatu zion bere andere ganbarazainari, errozu Nucingeneko jaunari oraintxetan igaiteko enekin mintzatzera.»

Eugène, kontent hilurranari alabetako baten presentziaren berri eman ahal izateaz, abantzu alegera arribatu zen Sainte-Geneviève berria karrikarat. Moitsan arakatu zuen karrozainari berehala ordaindu ahal izateko. Emakume gazte, hain aberats, hain sotil horren moltsak hirurogeita hamar libera zeuzkan barnean. Eskailera goienorat etorririk, Goriot zaharra ediren zuen Bianchonek atxikia, eta ospitaleko kirurgilariak operatua, medikuaren begien pean. Bizkarra moxez erretzen zioten, zientziaren azken erremedioa, alferrikako erremedioa, omen zenaz.

— Nabaritzen dituzua? galdetzen zuen medikuak. Goriot zaharrak, ikaslea erdi ikusirik, erantzun zuen:

— Badatoz, ezta?

— Ilki daiteke honetatik, erran zuen kirurgilariak, hizketan ari da.

— Bai, erantzun zuen Eugènek, Delphine ene ondotik dator.

— Ea! erran zuen Bianchonek, bere alabez ari zen, haien eske oihu egiten baitu paldoan dagoen gizon batek ur eske oihu egiten omen duen bezala.

— Geldi zaitez, erran zion medikuak kirurgilariari, ez daiteke bertzerik egin jadanik, ez dugu salbatuko.

Bianchonek eta kirurgilariak hilurrana bere etzauntza likitsean etzan zuten berriz.

— Behar genizkioke alta mihiseak aldatu, erran zuen medikuak. Inolako esperantzarik ez bada ere, behar da haren baitan gizatasuna errespetatu. Itzuliko naiz, Bianchon, erran zion ikasleari. Oraindik ere kexatuko balitz eman iezaiozu opioa diafragma gainean.

Kirurgilaria eta medikua jalgi ziren.

— Ea, Eugène, izan kuraia, mutikoa! erran zion Bianchonek Rastignaci biak bakarrik izan zirenean, agureari atorra zuri bat paratu eta ohea aldatu, horra zer behar dugun egin. Hoa

Sylvieri erratera maindire batzuen igaiteko eta gure laguntzera etortzeko.

Eugène jaitsi zen eta andere Vauquer mahaitresnen ezartzen Sylvierekin aurkitu zuen. Rastignacen lehen hitzak entzun ordukotz, alarguntsa harenganat hurbildu zen, andere saltzaile irudikor baten, ez bere dirua galdu eta ez kontsumitzailea haserrarazi nahi lukeenaren, eite minkorki milikaria hartuz.

—Ene Eugène jaun maitea, erantzun zuen ostalersak, nik bezalaxe dakizu Goriot zaharra arditik gabe dagoela. Kuku egitear dagoen gizon bati maindire batzuen ematea, maindire horien galtzea da, inondik ere bat hil-oihaletako behar-ko baita alferrik galdu. Hala, ehun eta berrogeita lau libera zor dizkidazu ja, gehi itzazu berrogei libera maindire, eta bertze zenbait gauza ttiki, Sylviek emanen dizun kandela, horrek guztiak berrehun libera egiten du gutienaz, ni bezalako alarguntsa gaixo batek galdu ezin dituenak. Arraioa! izan zaitez adikorra, Eugène jauna, aski eta sobera galdu dut balbeak enean ostatu hartu duen bortz egun honetan. Hamar ezkutu emanen nituen gizagaixo honek egun hauetan alde

egin zezan, zuk erraten zenuen bezala. Horrek apopiloak hunkitzen dizkit. Huskeria batengatik, nik ospitalerat eramanen nuke. Tira, jar zaitez ene tokian. Ene ostatua ororen aitzinean, neure bizitza dut bera.

Eugène berriz Goriot zaharrarenganat igan zen zalu.

— Bianchon, erlojuaren dirua?

— Mahai gainean duk, hirurehun eta hirurogeitik gora libera gelditzen dituk. Zor genuen guztia ordaindu diat eman didatenaren kontu. Bahitura Etxearen zor-onespena diruaren pean zagok.

— Har ezazu, anderea, erran zuen Rastignacek eskailera iziturik anbilka jaitsi ondoan, garbi itzazu gure kontuak. Goriot jauna ez da luzaz geldituko zure etxean, eta ni...

— Bai, zangoak aitzinetik ilkiko da hemendik, gaixo gizonttoa, erran zuen andere Vauquerek berrehun libera kontatzen zituela, erdi alegera, erdi malenkonios.

— Buka dezagun, erran zuen Eugènek.

— Sylvie, ekar itzazu maindireak, eta segi gora jaun hauen laguntzera.

— Ez duzu Sylvie ahantziko, erran zuen ande-
re Vauquerek Eugèneren belarrirat, bi gau badi-
ra beilan dagoela.

Eugènek bizkarra bihurtu ordukotz, atsoa
bere kuzinersarenganat joan zen lasterka: —Har-
itzan maindire adabakituak, zazpi zenbakidunak.
Jainkoarren, balioko dute beti ere hil batentzat,
erran zion belarrirat.

Eugènek, ordukotz eskailerako maila batzuk
igana baitzen, ez zituen ostalera zaharraren
hitzak aditu.

— Ea, erran zion Bianchonek, jantz diezaio-
gun atorra. Eduki ezak zuzen.

Eugène ohearen buruan jarri zen eta hilurra-
na atxiki zuen, zeinari Bianchonek atorra erantzi
baitzion, eta gizagaixoak jestu bat egin zuen
bere bularrean zerbait gorde nahi bailuen, eta
halako oihi zinkurinatsu eta artikulatugabeak
jaurtiki, oinaze handi bat adierazi beharra duten
animalien antzera.

Oi! oi! erran zuen Bianchonek, oxtion moxen
ezartzeko kendu dizkiogun bilo-kate eta medailoi
tikia nahi ditik. Gaixo gizona! Berriz paratu behar
zioagu. Supazter gainean zagok.

Eugene bilo hori hauskarez, dudarik gabe andere Goriotenak izanikakoez, txirikordatu kate baten hartzera joan zen. Medailoiaren alde batean irakurri zuen: Anastasie, eta bertzean: Delphine. Haren bihotzaren irudia bera, beti ere haren bihotzean pausatzen zena. Barnean zeuzkan bilo kroskoilak hain ziren finak non bi alaben lehen haurtzaroan hartuak behar baitzuten. Medailoiak bularra ukitu ziolarik agureak *aiei* luze bat egin zuen, satisfazio bat ikusten izigarria iragartzen zuena. Haren sentiberatasunaren, gure begikotasunen abiapondurik eta helmuga den erdigune ezezagunerat zokoratzen bide zenaren azken oihartzunetako bat zen hori. Haren aurpegi asaldatuak bozkario erikor baten eitea hartu zuen. Bi ikasleek, adimenduak baino gehiago irauten zuen sentimenduzko indar baten leherketa ikaragarri horrek kolpaturik, malko bero batzuk utzi zituzten biek ere erortzera hilurraren gainerat zeinak atseginezko aldarri zorrotz bat jaurtiki baitzuen.

— Nasie! Fifine! erran zuen.

— Bizi duk oraindik, erran zuen Bianchonek.

— Zertako balio dio horrek? erran zuen Sylviek.

— Sufritzeko, ihardetsi zuen Rastignacek.

Bere lagunari zeinu bat egin ondoan berak bezala egin zezan, Bianchon belauniko jarri zen bere besoak eriaren iztazainen azpitik pasatzeko, Rastignacek ohearen bertze aldetik bertze hainbertze egiten zuen bitartean eskuak bizkarraren azpitik pasatzeagatik. Sylvie han zen, maindireen kentzeko prest hilurrana altxatua izanen zenean, haien orde z berak zekartzanen ezartzeko xedearekin. Negar-malkoek tronpaturik inondik ere, Goriotek eskuen hedatzeko erabili zituen bere hondar indarrak, ohearen alde banatan ikasleen buruak aurkitu, ileetatik bortizki hartu, eta ahots ahulez aditu zen: «Ai! ene aingeruak!» Bi hitz, bi marmar ele horrekin batean hegaldatu zen arimak indartuak.

— Gaixo gizon maitea, erran zuen Sylviek hitz hunkigarri horiek bihotz-beraturik; izan ere beraietan sentimendu garai bat agertu zen, gezurrik izigarrienak ere, gezurrik gogoz bertze-koenak ere, hondar aldi batez goresten zuena.

Aita honen azken hasperenak alegrantziazko hasperen bat behar zuen izan. Hasperen hori haren bizitza guztiaren agerpena izan zen, ber-tze behin ere tronpatzen zen. Goriot zaharra har-tzara bere etzauntzan ezarria izan zen begiru-nez. Une hartatik aitzinerat haren begitarteak gudu baten marka mingarria eraman zuen, hots, gizakiaren baitan plazeraren eta oinazearen sen-timendua sortzen duen buru-kontzientzi suerte hori jadanik ez zuen makina batean heriotzaren eta bizitzaren artean iragaten ari zen guduaren marka mingarria. Denboraren afera baizik ez zen jadanik haren suntsitzea.

— Ordu batzuetan egonen da hola, eta gu ohartu gabe hilen da, korrokarik ere ez du egi-nen. Burmuinak osoki harrapatua behar du egon.

Une hartan emakume gazte hatsantu baten pausoa aditu zen eskaileran.

— Berantegi heldu duk, erran zuen Rastigna-cek.

Ez zen Delphine, baina Thérèse, haren ande-re ganbarazaina.

— Eugène jauna, erran zuen, aharraldi bortitz bat piztu da jaunaren eta anderearen artean,

andere dohakabe honek bere aitarentzat eskatzen zuen diruaren kariatara. Zentzua galdu du, medikua etorri da, odola behar izan diote atera, oihuka ari zen: «Ene aita hiltzen ari da, aitatto ikusi nahi dut!» Hots, bihotza erdiratu beharreko garrasiak.

— Aski, Thérèse. Alferrik litzateke orain baletorke ere, Goriot jaunak ezagumena galdua du jadanik.

— Gaixo jaun maitea, hain dago gaizki! erran zuen Thérèsek.

— Ez nauzue gehiago behar hemen, neure otorduarekin segi beharra dut, laurak eta erdiak dira, erran zuen Sylviek tupust egitekotan egon baitzen eskailera goiengan Restaudeko anderea-ekin.

Agerraldi larri eta latza izan zen kondesarena. Heriotza oheari, kandela bakarrak gaizki argitzen zuenari, behatu, eta negar batzuk isuri zituen aitaren aurpegiaren ikustearekin non artean ere taupaka ari baitziren bizitzaren azken dardarak. Bianchon begirunez lekoratu zen.

— Ez dut aski garaiz ihes egin, erran zion kondesak Rastignaci.

Ikasleak baiezko keinu bat tristeziaz bete egin zuen buruaz. Restaudeko andereak aitaren eskua hartu zuen, muin eman zion.

— Barka iezadazu, aita! Erraten zenuen ene ahotsak hilobitik aterako zintuela; itzul zaitez, beraz, lipar batez bizitzarat zeure alaba urriki-tuaren benedikatzeko. Entzun nazazu. Hau izigarrria da! zurea da hemen behean hemendik aitzinerat har dezakedan benedikazio bakarra. Mundu guztiak gorroto nau, zuk bakarrik maite nauzu. Neure hurrek berek gorrotatuko naute. Eraman nazazu zeurekin, maiteko zaitut, artatuko zaitut. Ez du entzuten jadanik, eroturik nago. Bere belaunen gainean erori zen, eta burutik joanaren aurpegiaz so egin zion giza hondakin horri. Ene zorigaitza erabatekoa da, erran zuen Eugèneri beha. Trailleseko jauna partitua da, zor handi-handiak utzirik hemen, eta engainatzen ninduela jakin dut. Senarrak ez dit sekula barkatuko, eta neure fortunaren jabegoa utzi diot. Neure ilusio guztiak galdu ditut. Aiei! norengatik traditu ote dut adoratzen ninduen bihotz bakarra (bere aita seinalatu zuen)! Gutietsi dut, ukatu

dut, mila laido eta ez-ikusi egin dizkiot, bai zitala naizela!

— Berak bazekien, erran zuen Rastignacek.

Une hartan Goriot zaharrak begiak zabaldu zituen, baina gorputz-ikara baten eraginez. Kondesaren esperantza agerrarazten zuen jestua ez zen hilurranaren begia baino gozoago izan ikusteko.

— Entzuten ote nau? oihukatu zuen kondesak. Ez, erran zuen bere baitan haren ondoan jarriz.

Restaudeko andereak bere aitaren zaindu nahia adierazirik, Eugène behera jaitsi zen jateko zerbaiten hartzeko. Apopiloak bildurik zeuden jadanekotz.

— Hortaz, erran Zion pintoreak, irudi dik hilaramaxkaren bat izanen dugula hor goian, ezta?

— Charles, erran zion Eugènek, iruditzen zaidak gai alegeragoren batez behar zenukeela nausa egin.

— Zer bada, ezinen dugu jadanik irri egin hemen? hasi zen berriz pintorea. Zer inporta du horrek, zeren Bianchonek dioenaz gizagaixoak bere ezagumena galdua baitu ja?

— Ongi da! hasi zen berriz Museumeko enplegatua, bizi izan den bezalaxe izanen da hila.

— Ene aita hil da! oihukatu zuen kondesak.

Garrasi lazgarri borren entzutearekin, Sylvie, Rastignac eta Bianchon gora igan ziren, eta Restaudeko anderea zentzua galdurik ediren zuten. Bere baitarat etorrarazi ondoan, haren begira zegoen kotxerat eramán zuten. Eugènek Thérèseren gomendio ezarri zuen, Nucingeneko anderearenerat eramán zezala manatzen ziola.

— Oi, zerraldo dago, erran zuen Bianchonek behera jaitsiz.

— Ea, jaunak, mahairat, erran zuen andere Vauquerek, zopa hoztuko da bertzenaz.

Bi ikasleak bata bertzearen ondoan jarri ziren.

— Zer behar da orain egin? erran zion Eugènek Bianchoni.

— Begiak hertsu zizkioat baina, baita behar den gisan prestatu ere. Herriko Etxeko medikuak egiaztatua izanen duelarik deklaratzera joanen garen heriotza, hil-oihal batean sartu eta lur

emanen zioagu. Zer nahi duk bada harekin egi-tea?

— Ez du bere ogia hola usnatuko berriz, erran zuen apopilo batek gizagaixoaren jestua ihakin-datuz.

— Demontre, jaunak, erran zuen erakasleordeak, utzazue bada Goriot zaharra, eta ez diezaguzuela gehiago hitz eginaraz hartaz, jorraldi ederra eman baitiogu azkeneko ordu honetan. Pariseko hiri onaren abantailetakoa bat, da posible dela hemen sortzea, bizitzea, eta hiltzea inork zuri konturik egin gabe. Profita ditzagun beraz zibilizazioaren abantailak. Badira hirurogei hil egun, Pariseko hekatonbeez urrikalarazi nahi ote gaituzue bada? Goriot zaharra lehertua dela, hainbat hobe berarentzat! Itsuki maite baduzue, joan haren zaintzera, eta utz gaitzazue gu lasai jatera.

— Oi! bai, erran zuen alarguntsak, hainbat hobe berarentzat hilik badago! Irudi duenez, dohakabeak atsekabea franko izan zuen bere bizitzan.

Horra hor hil-otoitz bakarra Eugènerentzat Aitatasuna agerrarazten zuen izakiak izan

zuena. Hamabortz apopiloak eleketan hasi ziren
usaian bezala. Eugènek eta Bianchonek jaten
bukatu zutenean, sardexka eta koilaren hotsak,
solasaldiaren irriek, irudi sabelkoi eta axolagabe
horiek erakusten zituzten begitartek, haien
soraiokeriak, orok utzi zituen lazturaz gogorturik.
Apez baten bila jalgi ziren gauetz beila eta otoitz
egin zezan hilaren ondoan. Gizagaixoari egin
beharreko hilariak erabili ahal izanen zuten diru
urriari doitu beharra izan zuten. Arratseko bede-
ratziak alderat, gorpua azpi mehar baten gai-
nean izan zen ezarria, bi kandelaren artean, gan-
bara biluztu horretan, eta apez bat etorri zen
haren ondoan jartzera. Oheratu aitzin, Rastigna-
cek, eliz-gizonari xehetasunak eskatu ondoan
egin beharreko zerbitzuaren eta hil-segizioaren
prezioaz, hitz bat izkiriatu zien Nucingeneko
baroiari eta Restaudeko kondeari otoi beren
afera-gizonen bidal zitzaten eskatuz ehorzketa-
ren gastu guztien bere gain hartzeagatik. Chris-
tophe igorri zien, gero ohean sartu eta loak hartu
zuen nekeak leherturik. Biharamun goizean,
Bianchonek eta Rastignacek berek behar izan
zuten heriotzaren berri ematera joan, zeina

eguerdi alderat izan baitzen egiaztatua. Bi ordu geroago, ez suhi batek eta ez bertzeak zuten dirua igorria, inor ez zen haien izenean agertu, eta Rastignac apezaren gastuen ordaintzera bortsatua izan zen jadanekotz. Sylviek hamar libera eskatu baitzituen gizagaixoaren beztitu eta hilioihal batean sartzeko, Eugènek eta Bianchonek kalkulatu zuten ezen, hilaren ahaideek ez bazuten deusez arduratu nahi, nekez ukanen zutela gastuei nola ihardets. Beraz, medikuntzako ikasleak berak hartu zuen bere gain hilotzaren bere ospitaletik, non merkeago eskuratu baitzuen, ekarrarazi zuen pobreentzako zerraldo batean ezartzea.

—Jo iezaiok adarra jendaila horri, erran zion Eugèneri. Hoa lur puska baten eroatera, bortz urtetako, Père-Lachaisen, eta eska hirugarren heineko zerbitzu bat elizan eta Hileta Ospakizunetan. Suhiek eta alabek ez baldin badiate dirua itzuli nahi, hauxe zizelaraziko duk hilobiaren gainean: «Hemen datza Goriot jauna, Restaudeko kondesaren eta Nucingeneko baronesaren aita, bi ikasleren pentzutan ehortzia.»

Eugène ez zitzaion bere adiskidearen kontseiluari jarraitu harik eta, hutsalki, Nucingeneko jaun-andereenean eta Restaudefeko jaun-andereenean izan zen arte. Ez zen atea baino haratago iragan. Manu zorrotzak bazeuzkaten bi atezainek.

— Jaun-andereek, erran zuten, ez dute inor errezibitzen; aita hila dute, eta atsekaberik handienean daude murgilduak.

Eugènek bazuen Pariseko munduaren eskarmenturik aski tematu behar ez zuela jakiteko. Bihotza estrainioki hertsatu zitzaion Delphine-enganaino ezin helduz gertatu zenean.

«Sal ezazu edergailu bat, izkiriatsu zion atezainarenean, eta zure aita duintasunez eramana izan dadila bere azken egoitzarat.»

Eskutitz hori zerratu zuen, eta baroiaren atezaina otoiztu haren Thérèseri emateko honek bere etxekandereari helaraz ziezaion; atezainak ordea Nucingeneko baroiari eman zion eta honek surat egotzi zuen. Bere prestakuntza guztiak egin eta gero, Eugène hirurak alderat itzuli zen pentsiorat, eta ezin gorde izan zuen negar bat ikusi zuelarik isil-ate horretan zerraldoa doi-

doia oihal beltz batez estalia, bi kadiraren gainean pausatua karrika mortu hartan. Isipu ziztrin bat, artean nehork ere ukitu gabea zena, urean zegoen ut benedikatuz beterikako kobre zilardunezko plater batean. Atea, ezta beltzez jantzirik ere ez zegoen. Behartsuen heriotza zen, ez baitu ez arrandiatasunik, ez jarraikilerik, ez adiskiderik, ez ahaiderik. Bianchonek, bere ospitalean egotera beharturik, hitz batzuk izkiriatu zizkion Rastignaci elizarekin egin zuenaren jakinarazteko. Barnekoak gaztigatzen zion ezen meza bat izigarri garestia zela, merkeagoak zirela eta erresponstu batekin beharko zutela askietsi, eta Christophe Hileta Ospakizunetarat igorria zuela eskutitz batekin. Eugène Bianchonon zirriborroa irakurtzen bukatzen ari zelarik, andere Vauqueren eskuen artean ikusi zuen bi alaben biloak gordetzen zituen urrez inguraturikako medailoia.

— Nolaz ausartu zara horren hartzera? erranzion.

— Arraioa! beharrezkoa ote zen bada harekin ehorztea? ihardetsi zuen Sylviek, urrezkoa da.

— Bai eiki! segitu zuen Eugènek sumindurik, bederen berekin eraman dezala bere bi alabak oroitaraz diezazkiokeen gauza bakarra.

Hil-orga etorri zelarik, Eugènek zerraldoa iganarazi zuen, estalia kendu zion, eta erlijioski ezarri zuen gizagaixoaren bular gainean behialako irudi bat zeina baitzen Delphine eta Anastasie gazte, birjina eta garbi izan eta *arrazonatzen ez zuten* denborakoa, hark berak hiletsian eginikako oihuetan errana zuen bezala. Rastignacek eta Christophek soilik lagundu zuten, bi hil-orgazainekin, dohakabea Saint-Étienne-du-Monterat zeraman orga, Sainte-Geneviève berria karrikatik hurbil zen eliza baterat. Harat heldurik, gorpua kapera tiki apal eta ilun baten aitzinean ezarri zuten, ikaslea alferrik ibili baitzen haren inguruan Goriot zaharraren bi alaben edo hauen senarren bila. Han izan zen bakarrik Christophekin, zeinak bere burua behartua ikusten baitzen gizon horren, hainbertze eskupeko eder eman zizkionaren, hilobiraino laguntzera. Bi apezzen, eliz mutilaren eta beretarraren begira zegoen bitartean, Rastignacek Christopheren eskua tinkatu zuen, hitz bat ere ezin erranez.

— Bai, Eugène jauna, erran zuen Christophek, gizon zintzo eta prestu bat zen, hitz bat bertzea baino ozenago sekula erran ez duena, inori poxelurik egiten ez ziona eta sekula gaizkirik egin ez duena.

Bi apezek, eliz mutila eta beretarra etorri ziren eta hirurogeita hamar liberatan ukan daitekeen guztia eman zuten erlijioa dohainik otoitz egiteko behar bezain aberatsa ez den garai batean. Elizako jendeek salmu bat, *Libera me, De profundis*, kantatu zuten. Elizkizunak hogeita minutu iraun zuen. Ez zen dolukotxe bat baizik apez bat eta eliz-mutil batentzat, zeinek onartu baitzuten berekin Eugène eta Christopheren hartzea.

— Ez dugu segiziorik, erran zuen apezak, fite joan ahal izanen gara, luzatu beharrik ez izateko, bortzak eta erdiak dira.

Bizkitartean, gorpua hil-karroan ezarri zute-nean, bi kotxe armarridun, baina hutsik zeude-nak, Restaudeko kondearena eta Nucingeneko baroiarena, agertu ziren eta hil-segizioari jarraitu zitzaizkion Père-Lachaiseraino. Seietan, Goriot zaharraren gorpua bere hilobirat eraitsia izan

zen. Inguruan alaben mirabeak ziren, elizako jendeekin batean aienatu zirenak ikaslearen diruaren truke gizagaixoak hartze zuen otoitz laburra errana izan bezain laster. Bi ehorzleek zerraldoaren gainean haren estaltzeko zenbait palatara bota zituztelarik, zutik jarri ziren, eta haietako batek, Rastignaci mintzatuz, beren eskupekoa eskatu zion. Eugènek bere sakelari arakatu, eta han ez zuen deus aurkitu, Christopheri hogeit hamar mailegaturik hartzera izan zen bortxatua. Gertakari horrek, berez hain muntagabea zenak, tristezia lazgarri bat eragin zion Rastignaci. Gautzen ari zuen, ilunabar heze batek nerbioak durduzarazten zituen, hilobiari so egin zion eta hantxe gorde bere mutil gaztearen hondar malkoa, bihotz garbi baten hunkidura sainduak isurarazi negar hori, erortzen diren lurretik zeruetarainoko jauzia egiten duten negar horietako bat, ala fedea. Besoak gurutzatu zituen, hodeiei behatu, eta, horrela ikusiz, Christopheri han utzi zuen bakarrik.

Rastignacek, bakarrik gelditurik, urrats batzuk egin zituen hilerriaren goialderat eta Paris ikusi zuen bihurriki etzana Senaren bi

ertzetan gaindi non argiak dirdirka hasiak baitziren. Begiak, antsiaz kasik, eratzikirik gelditu zitzaizkion Vendôme plazaren eta Invalides-etako kupularen artean, berak sartu nahi izan zuen mundu eder hura bizi zen tokian. Erle-mulko burrunbari horrenganat eztia aldeztu aitzinetik hurrupatu nahi bide zion behakoa jaurtiki, eta hitz handios hauek erran zituen: «Orain neur-tuko ditiagu geure indarrak!»

Eta Gizarteari jotzen zion erronkaren lehen egintza gisa, Rastignac Nucingeneko anderearenerat joan zen afaltzera.

Saché, 1834ko irailean 2